

Ezagutza-base lexikala eraikitzeko Euskal Hiztegiko definizioen azterketa sintaktiko- semantikoa

Hitzen arteko erlazio lexiko-
semantikoak: definizio-patroiak,
eratorpena eta postposizioak

Egilea: **MIKEL LERSUNDI AYESTARAN**

Urtea: 2005

Zuzendariak: IBON SARASOLA ERRAZKIN, ENEKO AGIRRE BENGOA

Unibertsitatea: UPV/EHU

ISBN: 978-84-8438-121-1

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

EUSKAL FILOLOGIA SAILA

Ezagutza-base lexikala eraikitzeko *Euskal Hiztegiko*

definizioen azterketa sintaktiko-semantikoa

Hitzen arteko erlazio lexiko-semantikoak: definizio-patroiak,
eratorpena eta postposizioak

Mikel Lersundi Ayestaranek

Euskal Filologian Doktore titulua eskuratzeko aurkezturiko

TESIA

Donostia, 2004ko abendua

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

EUSKAL FILOLOGIA SAILA

Ezagutza-base lexikala eraikitzeko *Euskal Hiztegiko*

definizioen azterketa sintaktiko-semantikoa

Hitzen arteko erlazio lexiko-semantikoak: definizio-patroiak,
eratorpena eta postposizioak

Mikel Lersundi Ayestaranek Ibon Sarasola Errazkinen eta Eneko Agirre Bengoaren zuzendaritzapean egindako tesia, Euskal Herriko Unibertsitatean Euskal Filologian Doktore titulua eskuratzeko aurkeztua.

Donostia, 2004ko abendua

Aita, bukatu det.

Lastima zuk ezingo dezula irakufi. Badakit tesi onek irakurle bat galdu duela, baña aurkezpen-egunean izango zera, ezta? Zenbatetan galdetu ote didazu *baña zeatz-meatz ze itten ai zea?* Ona egiten aritu naizenaren emaitza.

Azkenean alde batera geratu da *Jautarkolen sorta marduldua* liburuan artutako bidea. Baita *Pasaiako Hizkera* lanekoa ere. Zenbait izkera bereziei buruzko informaziorik ez dezu emen topatuko. Alde batera utzi ditut *esparagiñak, txiringak, puñilak, nikitzak, berebilak, urutizkiñak, molapuntak*,... ain maite dituzun itzak, eta konputagaluen arloan euskerak dituen beaiei efepeatu, eta oyei eldu diyet. *Maite* kontutan ari gerala... ain *maite* ez dezun ikuña jafi det lan onetan: *ha*. Amaika aldiz ofi buruz itz egin izan degu, eta ziur orain ere itz egingo genukela, baña distantziya-kontuak direla-eta solasaldi ori beste baterako utzi bearko degu.

Gogoan det Ixa Taldean asi nintzen eguna nire lenengo maratoyaren ondorengoa izan zela. Garai artan lagun-talde ttikiya zena gaur egun talde aundiya biurtu da. Asiera artan makiña-kontuak zirela-eta, itsumutí —eta *itsuneska*— ainbat lankide izan nituen. Izkuntzalari-taldeak ere makiña kontu erakutsi dizkit. Taldeari esker jayo da txosten au.

Estatu Batuetan ere, lagun miñ píloa egin nuen. Gogoan al dituzu? Laguntza edefa izan nuen txiringa-ibilbideetan, bakartasun-egoeretan... Edefa kuadríla!

Telebisiyuan egindako lanak ere izugafi lagundu nau une latzetan. An bizitako esperientziyak, lafitasunak,... indar biurtu zaizkit tesi-garapenean. Bertan egindako lagunak beti urbil izan ditut.

Gogoratzen al dituzu *Euskal Filologia* ikasi nueneko irakasleak eta ikaskideak. Ziur gogoan dituzula Lisboan giñenean sortutako *sesei* ikasle ayen kontakizunak. Bai une polittak, ezta?

Dakizunez, tesi-lan onetan bi zuzendari izan ditut eta aiei zor diet sortutako fruitua. Ibon ezaguna duzu, eta bestea ezagutzera iritsi ez zeran Eneko da. Azken onekin eztabaida-une eta une on ugari konpartitu ditut, eta tesi-lan zatitxo aundiya ari zor diyot. Ibon'ek, Eneko'k, Jose Mari'k, Izaskun'ek eta Xabier'ek leen ziríbofoa irakufi didate eta ayen iradokizun jakintsuak azken emaitza onetan islatzen sayatu naiz.

Zer moduz dabil inguruko jendea? Azken lurbira aski gogofa egin zaigu. Lagun eta familiarteko asko joan zarete epe laburfean: Mañu, Eneko, Poli, Juanjoxe, Manueltxo, Josu, zu zeu... Buf, gañera zuetako bostek egun batetik bestera alde egin duzue. Eskumiñak guziei. Zuen falta izugafi nabaritu degu, baña, zorionez, lagun asko izan ditugu inguruan urte gogofa goxatzeko.

Ama ondo dago. Etxean utsune aundiya nabari du, baña bizitza-legea dela esaten du. Aren indafak ni ere indartu nau lan onen azken txanpan. Familiya osoa lagun izan det; lagunak ere ez dira urun ibili. Ezin aztuko ditut *adiskidetasunez* betetako ostiralak. Tristurak baztertzeko gai izan diren ostiral bereziyak.

Eta etxekoei buruz, zer esango dizut ba. Dakizunez, aur-zain gaude, eta tesi-maratoi onetan Amaia izan det uneoro laguntzale, animatzale eta indargafi.

Ziur jun zeraten guziok ere, txosten au bukatzen lagundu nauzuela.

Besterik ez, aita. Iruon partez muxu aundi bat eta beñiz ikusi arte.

Efenteya'n, 2004'ko neguila'ren 13'a.

Lan hau egiteko, Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza baliatu dut.

Aurkibidea

I.	Sarrera	19
I.1.	Lexikoiak	20
I.2.	Ezagutza-base lexikalak, hiztegi ezagutza-baseak eta ontologiak	23
I.3.	Euskararen Ezagutza-Basea eta <i>Euskal Hiztegia</i>	26
I.4.	EHren prestaketa	29
I.5.	Erlazio lexiko-semanticoen erauzketa	30
I.6.	Azterketa eta deskribapen linguistikoak	33
I.7.	Tesi-lanaren egitura	34
I.8.	Tesiarekin lotutako publikazioak	35
II.	Aurrekariak	39
II.1.	Lexikoa sortzeko hurbilpenak eta iturriak	39
II.2.	Eratorketa	45
II.3.	Patroiak eta postposizioak	48
III.	Hiztegiaren aurreprozesua, Murriztapen Gramatikak eta azterketa estatistikoa ...	53
III.1.	Sarrera	53
III.2.	EHren egitura orokorra	55
III.3.	TEI ekimena	57
III.4.	Hiztegiaren bertsio tabulatua	59
III.4.1.	Beharrezko zaizkigun eremuak	59
III.4.2.	Fitxategien egokitzapena	63
III.5.	Definizioen analisi morfologikoa	64
III.6.	Sarrera-hitzen analisisa	67
III.7.	Erlazioak erauzteko tresna: <i>Murriztapen Gramatika</i>	70
III.8.	Hiztegiaren azterketa estatistikoa	72
III.9.	Ondorioak	76
IV.	Definizioen guneak erauzten: sinonimoak, genusak, eta erlatore bereziak	81
IV.1.	Sarrera	81
IV.2.	Sinonimoak	86
IV.2.1.	Definizioen hezurdura	86
IV.2.2.	Semantika	89
IV.3.	Genusak	90
IV.3.1.	Definizioen hezurdura	90
IV.3.2.	Semantika	93
IV.3.3.	Genus orokorrak	95
IV.4.	Erlatore bereziak	96
IV.4.1.	Ia-Sinonimia	98
IV.4.2.	Antonimia	99
IV.4.3.	Hiperonimia / hiponimia	100
IV.4.4.	Ezaugarria	101
IV.4.5.	Jasale	102
IV.4.6.	Berezko ekintza	102
IV.4.7.	Meronimia	103

IV.4.8.	Berezko objektua	105
IV.4.9.	Gabezia, eza.....	106
IV.4.10.	Betekizun / betegai.....	106
IV.4.11.	Aditzen genus orokorrak.....	106
IV.4.12.	Elipsia	108
IV.4.13.	Erlatoreak adierazten duena.....	109
IV.5.	Izen eta adjektiboak.....	110
IV.6.	Azpisarrerak	111
IV.7.	Metodologia eta ebaluazioa.....	113
IV.7.1.	Izenak	114
IV.7.2.	Aditzak	115
IV.7.3.	Adjektiboak	117
IV.7.4.	Izenak eta adjektiboak	119
IV.7.5.	Azpisarrerak	121
IV.7.6.	Laburpena	123
IV.8.	Ondorioak eta etorkizuneko lanak.....	123
V.	Erorpena	129
V.1.	Sarrera.....	129
V.2.	Morfologia.....	131
V.2.1.	Erorpenaren eta flexioaren arteko ezberdintasunak.....	132
V.3.	Atzizki lexikalak.....	134
V.3.1.	Alfabeto-hurrenkera (Villasante, 1974).....	136
V.3.2.	Hitz berrien kategoria eta atzizkien esanahia (Azkue 1923-1925; Lafitte, 1944)	136
V.3.3.	Oinarriaren kategoria (Ithurri, 1979).....	137
V.3.4.	Lanen ondorioak.....	137
V.4.	Erorpena <i>Euskal Hiztegia</i> n.....	137
V.5.	Euskarazko erorpen-atzizkiak EHN	139
V.5.1.	Bi elementuren arteko erlazioak	141
V.5.2.	Hiru elementuren arteko erlazioak	144
V.6.	Atzizkien interpretazioak nola zehaztu definizioak erabiliz	144
V.7.	Emaitza orokorrak	148
V.7.1.	Estaldura	149
V.7.2.	Doitasuna	152
V.8.	Erlazioak EuroWordNeten txertatzea.....	153
V.8.1.	Lortutako erlazioak WordNet-en txertatzea	153
V.8.2.	Adieren desanbiguazioa.....	154
V.9.	Etorkizuneko lana.....	157
V.9.1.	Atzizki lexikal gehiago lantzea.....	157
V.9.2.	Oinarriaren kategoria kontuan hartzea	158
V.9.3.	Sinonimiaren hedadura.....	159
V.9.4.	Erlazioak EuskalWordNet-era lotzea	160
V.10.	Ondorioak eta etorkizuneko lana.....	161
VI.	Patroi lexikalak eta postposizioak.....	167
VI.1.	Sarrera.....	167
VI.2.	Patroi lexikalak EHN.....	171
VI.3.	Postposizioen interpretazioak zehazteko oinarriak	173
VI.4.	Interpretazioen zerrenda zehazteko metodoa	177
VI.4.1.	Metodoa <i>instrumentalari</i> aplikatuta.....	179

VI.5. Postposizio-atzizkiak eta interpretazioak	186
VI.6. Postposizio konposatuak.....	186
VI.6.1. Anbiguoak.....	187
VI.6.2. Ez-anbiguoak	188
VI.7. EHko definizioetan dauden postposizioen desanbiguazioa	189
VI.7.1. EHko definizioetan postposizioak bilatu	189
VI.7.2. Itzulpenak egin.....	190
VI.7.3. Definizioak lotu	191
VI.7.4. Desanbiguazioa.....	192
VI.7.5. Emaidzak	194
VI.8. Ondorioak eta etorkizuneko lana	196
VII. Ondorioak eta etorkizuneko lanak.....	201
VII.1. Oinarriak eta prestakizunak	201
VII.2. Analizatzaile morfologikoa	202
VII.3. Hitzen arteko erlazioak eta gramatika	202
VII.3.1. Sarrera-hitza eta definizioeko hitz baten arteko erlazioak	202
VII.3.2. Sarrera-hitzaren barruko erlazioak	203
VII.3.3. Definizio barruko hitzen arteko erlazioak.....	205
VII.4. Emaidza orokorrak	206
VII.5. Etorkizuneko lanak	207

Eranskinak

A. Erlatore bereziak	239
B. Eratorpena	269
C. Patroi lexikalak	347
D. Postposizio-atzizkiak eta interpretazioak.....	353
E. Postposizio konposatuak.....	363
F. Ingelesezko preposizioak.....	373
G. Espainierazko preposizioak	385
H. Euskarazko postposizio konposatuak	395
I. Gramatikak.....	409

Taulen aurkibidea

1. taula.	adar sarrera-hitzaren kategoria, adiera-zenbakia, definizioa eta adibideak.....	22
2. taula.	Tesi-txosten honekin zerikusia duten argitalpenak, dagozkien kapituluekin lotuta.....	35
3. taula.	Tesi-txosten honekin zerikusia duten argitalpenak, dagozkien kapituluekin lotuta.....	36
4. taula.	Hiztegian ditugun kategorien laburdurak, haien adieraziak eta kopuruak.....	59
5. taula.	Hiztegian agertzen diren kategoria-konbinazioak eta kopurua.....	60
6. taula.	Hiztegiko definizioetan agertzen diren laburdurak eta haien adieraziak.....	67
7. taula.	Hiztegiko sarrerak, adierak eta azpisarrerak: kopuruak.....	72
8. taula.	Hiztegian definizioa duten adierak kategoriaka.....	73
9. taula.	Definizioetan dauden hitz usuenen kopurua.....	73
10. taula.	Hiztegiko definizioetan agertzen diren token-laukote, -hirukote eta -bikote usuenak.....	75
11. taula.	Postposizio-token segida usuenak kontuan hartuta ditugun patroï berriak.....	76
12. taula.	Sinonimoen bitartez emandako definizio-kopurua.....	90
13. taula.	Izenen artean topatutako genus usuenen zerrenda.....	96
14. taula.	Aditzen artean topatutako genus usuenen zerrenda.....	96
15. taula.	Izen eta adjektibo direnen artean topatutako genus usuenen zerrenda.....	96
16. taula.	Bikote-segida usuak.....	97
17. taula.	-i eman izena erlatoarearen laburpen-taula.....	98
18. taula.	Ia-sinonimia erlazioa markatzen duten erlatoareak.....	99
19. taula.	Antonimia erlazioa markatzen duten erlatoareak.....	100
20. taula.	Hiperonimia erlazioa markatzen duten erlatoareak.....	100
21. taula.	Ezaugarri erlazioa markatzen duten erlatoareak.....	102
22. taula.	Jasale erlazioa markatzen duten erlatoareak.....	102
23. taula.	Berezko ekintza erlazioa markatzen duten erlatoareak.....	103
24. taula.	Meronimia / holonimia erlazioa markatzen duten erlatoareak.....	105
25. taula.	Berezko objektu erlazioa markatzen duten erlatoareak.....	106
26. taula.	Gabezia adierazten duen erlatoarea.....	106
27. taula.	Betekizun / betegai erlazioak markatzen dituen erlatoarea.....	106
28. taula.	Hitz anitzeko sinonimo / hitz anitzeko hiperonimo erlazioa markatzen duten erlatoareak.....	108
29. taula.	Elipsoidun erlatoareak.....	109
30. taula.	Erlatoareak adierazten duen erlazioa markatzen duten erlatoareak.....	109
31. taula.	Sinonimoen, genusen eta antonimoen informazioa.....	110
32. taula.	Erlatoaren informazioa.....	110
33. taula.	Azpisarreraren sinonimoen eta genusen informazioa.....	111
34. taula.	Erlatoaren informazioa.....	112
35. taula.	Izenen laginetik ateratako emaitzak.....	114
36. taula.	Izenen lagineko definizioei buruzko datuak.....	114
37. taula.	Izenen artean ditugun erlazioak.....	115
38. taula.	Aditzen laginetik ateratako emaitzak.....	116
39. taula.	Aditzen lagineko definizioei buruzko datuak.....	116
40. taula.	Aditzen artean ditugun erlazioak.....	117
41. taula.	Adjektiboen laginetik ateratako emaitzak.....	117
42. taula.	Adjektiboen lagineko definizioei buruzko datuak.....	117
43. taula.	Adjektiboen artean ditugun erlazioak.....	119
44. taula.	Izen eta adjektiboen laginetik ateratako emaitzak.....	119
45. taula.	Izen eta adjektiboen lagineko definizioei buruzko datuak.....	119
46. taula.	Izen eta adjektibo diren sarreraren definizio-patroien araberako kategoria.....	120

47. taula.	Izen eta adjektibo diren sarrera-hitzetan dauden erlazioak.....	121
48. taula.	Azpisarrerren definizio-motak.....	121
49. taula.	Azpisarrerren laginetik ateratako emaitzak.....	122
50. taula.	Azpisarrerren lagineko definizioei buruzko datuak.....	122
51. taula.	Azpisarreretan markatu ditugun erlazioak.....	122
52. taula.	Kategoria guztietako emaitzen batez-bestekoak.....	123
53. taula.	Batez besteko orokorrak.....	123
54. taula.	Erlazio-kopurua.....	126
55. taula.	Markadun definizio-kopurua.....	126
56. taula.	Erorpena.....	132
57. taula.	Flexioa.....	132
58. taula.	Flexio- eta eratorpen-elementuen erregularitasun maila.....	133
59. taula.	-tzarekin sortutako hitz eratorrien interpretazioak.....	135
60. taula.	Analizatzaileari gehitu dizkiogun eratorpen-atzizkiak eta konposizio- elementuak.....	140
61. taula.	Bi elementuren arteko erlazioak dituzten atzizki lexikalen ezaugarriak.....	142
62. taula.	Bi elementuren arteko erlazioak dituzten atzizki lexikalen ezaugarriak.....	143
63. taula.	Hiru elementuren arteko erlazioak dituzten atzizki lexikalen ezaugarriak.....	144
64. taula.	-tza atzizkidun hitz eratorrien balizko adierak.....	145
65. taula.	sasitza hitzaren balizko interpretazio guztiak.....	145
66. taula.	lumatza sarrera-hitzaren analisi morfologikoa.....	146
67. taula.	-tzadun eratorriak: eratorriaren eta oinarriaren kategoriaren arabera kopuruak.....	147
68. taula.	-tzadun eratorrien ezagututako interpretazioen kopurua.....	147
69. taula.	-tzadun eratorrien sinonimiaren hedadura.....	147
70. taula.	-tzadun sinonimoen interpretazioak.....	148
71. taula.	Aztertutako atzizki lexikalak eta kopuruak.....	149
72. taula.	Aztertutako atzizki lexikalak eta kopuruak.....	150
73. taula.	Erorri-kopurua: erlazio-kopurua, sinonimo-kopurua.....	150
74. taula.	-arazi aditz-arazlearekin lortutako emaitzak.....	150
75. taula.	-tu/-duren datu estatistikoak: estaldura, doitasuna.....	152
76. taula.	Erorpenarekin lortutako emaitzen doitasuna.....	152
77. taula.	Aztertutako laginaren estaldura-kopurua.....	153
78. taula.	Hizkuntzen arteko loturak.....	156
79. taula.	Loturen estaldura 100 adibideekin.....	156
80. taula.	Adieren desanbiguazioaren doitasuna.....	157
81. taula.	Landu gabe utzi ditugun eratorpen-atzizkiak eta konposizio-elementuak.....	158
82. taula.	-tasun atzizki lexikalaren interpretazioak.....	160
83. taula.	Patroiak eta erlazioak.....	172
84. taula.	Patroiak laginetan.....	173
85. taula.	Euskarazko instrumental postposizio-atzizkiaren interpretazio-zerrenda.....	180
86. taula.	Postposizio-atzizki instrumentala eta erdarazko preposizioen arteko lotura interpretazio jakin bati dagokionez.....	181
87. taula.	Instrumentalaren interpretazioak eta LCSen arteko lotura.....	181
88. taula.	Dorren rol tematikoekin egin dugun lotura.....	182
89. taula.	Dorren primitiboekin lotura.....	182
90. taula.	Dorren rolen eta gure interpretazioen arteko lotura.....	183
91. taula.	LCSetatik esportatuko ez ditugun interpretazioak.....	183
92. taula.	LCSetako preposizioak gurera pasa ondoren instrumentala eta preposizioen arteko ebakidura.....	184
93. taula.	Postposizio konposatuak landu ondorengo ebakidura berriak.....	184
94. taula.	Interpretazio-zerrenda.....	185
95. taula.	Postposizio-atzizkiak eta interpretazioak.....	186
96. taula.	denbora / lekua anbiguotasuna postposizio konposatuetan.....	187

97. taula.	leku moten arteko anbiguotasuna postposizio konposatuetan.	187
98. taula.	ezaugarriaren inguruko anbiguotasuna postposizio konposatuetan.	188
99. taula.	Posposizio konposatuak eta interpretazioak	188
100. taula.	Instrumentalak eta byk, eta instrumentalak eta conek dituzten interpretazio- ebakidurak.	192
101. taula.	Instrumentala by eta conen interpretazio-ebakidura.	193
102. taula.	Egindako esperimentuan instrumentalari esleitutako interpretazioak eta ingelesarekiko lotura.	193
103. taula.	Egindako esperimentuan instrumentalari esleitutako interpretazioak eta espainierarekiko lotura.	193
104. taula.	Instrumentalaren interpretazioak eta erdarazko baliokideak.	194
105. taula.	Hiztegi bakoitzaren emaitzak eta guztiak batera ateratakoak.	195
106. taula.	Eredu den laginean dauden instrumentalen interpretazio kopuruak.	195
107. taula.	Hiztegian dauden definizioak eta markatutakoen kopurua.	206
108. taula.	Hiztegiko definizioak dituzten erlazioen arabera.	207
109. taula.	Hiztegiko definizioetan dugun erlazio-kopurua.	207

Laburdurak

EBL: Ezagutza-Base Lexikala

EDBL: Euskararen Datu-Base Lexikala

EEB: Euskararen Ezagutza-Basea

EH: *Euskal Hiztegia*

EHEB: Euskal Hiztegiaren Ezagutza-Basea

ELK: Egitura Lexiko Kontzeptualak

HAUL: Hitz Anitzeko Unitate Lexikal

HEB: Hiztegi Ezagutza-Basea

LCS: Lexical Conceptual Structure

LNP: Lengoaia Naturalaren Prozesamendua

MRD: Machine Readable Dictionary —makinek irakurtzeko moduko hiztegia—

OEH: *Orotariko Euskal Hiztegia*

Aita, askotan esan izan didazu, baina...

erran	H1A0	ad.	Esan.
esan	H1A0	ad.	Hitzen bidez, ahoz nahiz izkribuz, gogoan dena adierazi.
mentura	A0	iz.	Zoria, ustekabeen edo arrazoi jakinik gabe gertatzen denaren alegiazko zergatikoa; ustekabeko gertaria.

Erraiten ohi dugu. Benturaz egun hillen gara, benturaz bihar, eztugu oren baten segurantzarik: beraz lehen baiño lehen, behar dugu bide onean iarri, enganatuak gertha ezkaitezin. Hunela erraiten dugu, eta erraitea ongi egiten dugu: ordea obratzea bethi ere geroko utzten dugu: heriotzea zahartzerakotzat egotzten eta ordenatzen dugu. Ezin sinhets dezakegu, adinak berak akhaba arteiño, akhabatuko garela. Erran bai nahi duzun bezanbat: benturaz bihar hillen, benturaz gaur, benturaz ez zahartuko. Ordea zahartuko baikiña bezala geure gauza guztiak egin. Geure nahiarekin batean, geure gogoak hanbat segurantza emaiten deraku, non zahartu hutsezko ponturaiño, ezkarela hillen iduritzen baitzaiku.

(Axular, *Gero*: §42)

I. Sarrera

Lengoaia Naturalaren Prozesamenduan (LNP) aurrera egingo bada, tresna gero eta indartsuagoak beharko dira itzulpen automatikoa egin ahal izateko, testuen laburpenak sortzeko, informazioa berreskuratu ahal izateko, oro har, idatzizko testuak makinek uler ditzaten. Automatizazioa gero eta indartsuagoa den gizarte honetan euskarak bere tokitxoa izan dezan, beste hizkuntzetan sortzen eta garatzen diren oinarri eta baliabide berak sortu beharko dira. Lan horretan ari da azken urteotan Ixa Taldea.¹ Ixa Taldean dagoeneko hizkuntzaren zenbait atal landu dira: ortografia, morfologia, sintaxia eta semantika besteak beste. **Esku artean duzuen tesi-lan honen helburua semantika alorrean kokatzen da, euskarazko hitzen² arteko erlazio lexiko-semantikoak zehaztea baita.**

Erlazio lexiko-semantiko horiek oso beharrezkoak dira aipatutako testuen laburpenak, informazio-berreskurapena eta itzulpen automatikoa egiteko garaian.

Adibide gisa, koka gaitezen itzulpen automatikoaren eremuan. Euskarazko zezenari adarra hautsi zaio perpausa espainierara zuzen itzuli nahi badugu, behar beharrezkoa da zezen eta adarren artean erlazorik ba ote dagoen ezagutzea, bestela makinak perpaus honetan adar horrek duen adiera zein den —cuerno, antena, rama, ramal edo afluente— ez du jakingo, eta, itzulpena egiteko garaian,

¹ <http://ixa.si.ehu.es/Ixa> (2004-11-30ean atzitua).

² Ezer baino lehen, eta *hitz* terminoarekin arazoak sor daitezkeenez, azaldu nahi dugu guretzat *hitzak* kontzeptuak izendatzeko erabiltzen diren elementuak direla. Kontzeptua maila abstraktoan geratzen da, eta *hitza* dugu kontzeptu hori azalean izendatzeko erabiltzen den errepresentazioa (Lewandowski, 1992).

horietako bat ausaz aukeratuko du. Adibideak erakusten duenez, nabaria da hitzen arteko erlazioak ezagutzea beharrezkoa dela LNPren zenbait alorretarako.

Baina hitzen arteko erlazio lexiko-semantikoetan sakondu baino lehen, ikus dezagun LNPan erabilgarri diren hitz-zerrendak —lexikoiak— sortzeko garaian nolako metodoak eta zein oinarri erabili ohi diren.

I.1. Lexikoiak

Makinek, testuen laburpenak, informazio-erazketa eta itzulpen automatikoa bezalako lanak modu egokian burutu ditzaten, **lexikoiak** behar dira. Wilks *et al.*-ek (1996) **lexikoa** eta **hiztegia** bereizten dituzte: **lexikoa** konputagailu-programa batekin batera erabiltzeko sarrera-hitz multzo egituratua da; eta, **hiztegia**, berriz, hitz baten adierari buruzko deskribapena eta informazio lexikala dakarren testu inprimatua. Definizio hauen arabera, badirudi lexikoa makinek euren lana burutu dezaten behar duten hitz multzo egituratua dela; eta hiztegia, berriz, pertsonak hitz bati buruzko informazioa lortu ahal izateko testu inprimatua.

Lexikoi hori egituratzeko garaian hizkuntzaren hainbat alorri erreparatu ahal dakiok: morfologia, sintaxia edo semantika. **Gure helburua lexikoa semantikoki antolatzea da.**

Lexikoi hori **eskuratzeko** garaian bi **hurbilpen** nagusi erabili dira: **arauemailea** eta **deskriptiboa**. **Hurbilpen arauemailean**, hasiera-hasieratik marko zurruna zehazten da, eta informazioa marko horretan txertatzen da. **Hurbilpen deskriptiboan**, aldiz, aurretik ez dugu inongo marko zehatzik, eta ezaugarri multzoa osatuko duten elementuak aztertutako datuetan agertutakoak dira.

Hurbilpen hauei oso lotuta dago **gizakiaren eskuhartzea**. Eskuhartzearen arabera metodoa **eskuzkoa**, **automatikoa** edo **erdi-automatikoa** da. Zein metodo erabili erabakitzeko garaian, kontuan izan behar dira, alde batetik, zeintzuk diren erabiliko diren iturriak; eta, bestetik, helburu den aplikaziorako zein informazio zehaztu edo markatu behar den. Hala, eskuzko metodoek hurbilpen arauemailea darabilte, automatikoez deskriptiboa, eta erdi-automatikoez bai arauemailea eta bai deskriptiboa.

Metodo bakoitzak bere abantailak eta oztopoak ditu. Eskuzko garapenak **introspekzioan** oinarritzen dira. Lexikoa osatzeko garaian, gizakiek munduari buruz eta hizkuntzari buruz duten jakinduria erabiliz gero, sortutako datuen zuzentasuna bermatuko dugu. Era honetan garatutako proiektuek duten arazo nagusia jende eta denbora ugari behar izatea da; eta jende ezberdin asko garai ezberdinetan proiektu baten barruan lan egiterakoan, koherentzia arazoak sor daitezke.

Garatutako lan erdi-automatiko eta automatikoei, berriz, **oinarri** gisa egitura gabeko edo egituratutako oinarri lexikalak izan ohi dituzte, hala nola, **corpusak**, **hiztegiak**, eta **bien arteko konbinazioak**.

Corpusak egitura gabeko testutzat hartu ohi dira, baina erabilerari buruzko informazioa, hitzak errealitatean dituzten maiztasunak, egitura sintaktiko zenbaitek dituzten maiztasunak, eta halako informazioa lortzeko oso erabilgarriak dira. Hitzak ez dira isolaturik agertzen, baizik eta testuinguru jakin batean, eta testuinguru horrek berak informazio baliagarria ematen du.

Corpusen garrantzia ezberdina da dituzten marken arabera. Corpora hutsa —esaldi multzoa, alegia— baldin bada, erabilgarria da; baina are erabilgarriagoak dira lematizatutako corpusak, hitzen kategoriak markatuta dituzten corpusak, morfologikoki analizatuta dauden corpusak, egitura sintaktikoak markatuta dituzten corpusak, semantikoki —bai adiera mailan, eta bai hitzen arteko erlazio mailan— markatutako corpusak, eta abar. Beraz, corpus batean gero eta informazio gehiago izan, gero eta ikerkuntza-alor gehiagotan erabili ahalko da.

Corpusak ez dira beti **elebakarrak**, eta corpus **elebidunek** gero eta garrantzia handiagoa dute LNPN. Corpus elebidun batek bi hizkuntza —gutxienez— parekatzeko aukera ematen du. Corpus elebidun hauek **lerrokatuta** baldin badaude, gainera, hizkuntza bateko esaldia beste hizkuntzako esaldi baliokidearekin —edo esaldi baliokideekin— parekatuta dago.

Egituratutako baliabide lexikalen multzoan, berriz, hainbat testu mota daude: makinak irakurtzeko moduko hiztegi (MRD)³ elebakarrak eta elebidunak, tesauroak eta entziklopediak. Guztiak baliabide lexikal egituratuak dira, baina duten egitura eta informazioa ezberdinak dira.

³ MRD, *Machine Readable dictionary*ren laburdura da. LNPNan asko erabiltzen den terminoa dugu.

Hiztegiak testu berezituak dira. Euren gaia hizkuntza da —edo hizkuntzak, hiztegi elebidunen kasuan—. Hitzei buruzko informazioa dakarte, eta baita hitz hauen adierei buruzkoa. Baina hitzei buruzko informazioa izateaz gain, munduari buruzko informazioa ere badute. Hau nabariagoa da hiztegi **elebakarretan** hiztegi **elebidunetan** baino. Hiztegi elebakarrak eta elebidunak iturri aski interesgarriak dira lexikoiak sortzeko garaian, hitzei eta adierei buruzko informazio-iturri egituratuak direlako.

Hiztegietatik hainbat informazio lor daiteke. Aurreprozesu handirik gabe, **sarrera-hitz** guztiak erauziz hitz-zerrenda sor daiteke. Hala, LNPN garrantzi handia duten hitz anitzeko zenbait unitateren erreferentzia izan dezakegu, batik bat azpisarrerak ere kontuan izanez gero.⁴

Sarrera-hitzez gain, **kategoriak** ere badaude. Gainera, sarrera-hitzen eta kategorien arteko lotura dago. Sarrera-hitz horien **adierak** ere badaude. Adiera horiek zeintzuk diren **definizioekin** zehaztu ohi dira, eta adiera bakoitzari dagozkion **adibideak** ere badaude. Informazio hau guztia datu-base batean sartuz gero, dagoeneko informazio aberatsa izango dugu. 1. taulan dugu *Euskal Hiztegian* (EH) adar sarrera-hitzari zuzenean lotuta dagoen informazioa: sarrera-hitza (*Sar.*), kategoria (*Kat.*), adiera-zenbakia (*Adr.*), definizioa eta adibideak.

Sar.	Kat.	Adr.	Definizioa	Adibideak
adar	izen	A1	Zenbait animaliak bekoki aldean dituzten hezurrezko luzakin bakoitza.	Orein adar-zabala. Errinozeroaren sudur adarra. Oreinaren adar abartuak. Ahuntzak adarrak dituen aldera: alderantziz. Adarrak okerrak ditu. Adar bihurriak. Adarrak moztu. Idia adarrerean eta gizona hitzerean.
adar	izen	A2	Adar hustu eta zulatua, musika tresna bezala erabiltzen dena.	Adar hotsa entzunda.
adar	izen	A3	Adarkia.	Adarrezko edontzia. Adar erre usaina.
adar	izen	A4	Zuhaitzaren enborretik ateratzen diren besoetako bakoitza.	Adarretara igo. Erroak utzirik adarrei lotzea.

1. taula. adar sarrera-hitzaren kategoria, adiera-zenbakia, definizioa eta adibideak.

Hala ere, LNPN barruan adiera kontuek egunez egun garrantzi handiagoa dutenez, hitzen arteko loturak zehazteko gero eta lan gehiago egiten dira. Hau da, aurreko

⁴ Hitz anitzeko unitate lexikalen (HAUL) ezagutza gai garrantzitsua da LNPN. Makinek zuriunetik zuriunera arteko unitateak hartu ohi dituzte kontuan, baina HAUL hauekin kontzeptu hori aldatu beharra dago, unitate beraren barruan zuriuneak izango direlako. *adarra jo —iseka* adierarekin— unitatea baldin badugu, ezin analizatuko ditugu *adarra* eta *jo* separatuta. Dena unitate gisa hartu beharko dugu analisi egokia lortzeko asmoz. Halako unitateak hiztegi elebakarretan *azpisarrerak* izan ohi dira. Eta, *Euskal Hiztegian* (EH), *adarra jo* azpisarrera adar sarrera-hitzaren barruan dago.

paragrafoan aipatu bezala, sarrera-hitzak, kategoriak, adierak, definizioak eta adibideak lotu ditugu, baina datu-basean dauden sarrera-hitzen artean ez dugu inolako loturarik, eta ezta definizio barruan dauden hitzen artean ere.

Hasierako adibidearekin jarraituz (zezenari adarra hautsi zitzaion), adarren itzulpen zuzena lortu ahal izateko ezinbestekoa da animaliarekin zerikusia duela jakitea (1. taulan *AI* adiera), eta zezena animalia dela. Hiztegian badira beste adar batzuk: zuhaitzarekin zerikusia duena (*A4*), musika-tresna dena (*A2*), adarkia (*A3*), baina horiek ez dira zezenari adarra hautsi zitzaion adibidean dugun adarren adiera. Perpaus horretako adar hitzaren adiera desanbiguatuta, itzulpen zuzena emateko gai izango gara.

Gure kasuan, oinarri gisa euskarazko hiztegi elebakarra izan dugu, *Euskal Hiztegia* (EH) (Sarasola, 1996), eta bertatik informazioa automatikoki erauzi dugu. Hala ere, lan guztia ez da automatikoa izan, erauzitako informazioa antolatzeke marko linguistikoa sortu baitugu. Beraz, erabili dugun metodoa erdi-automatikoa izan da.

Hitzen arteko erlazio lexiko-semantikoak erauzteko, lehenik hitzen artean dagoen azaleko erlazioa zein den esan behar da eta, erlazio bat baino gehiago badago, desanbiguatu egin behar da. Behin hori egin ondoren, definizio horretan agertzen diren hitzen adierak zeintzuk diren jakin behar da, aurretik desanbiguatua izan den erlazioa ez baita bi hitzen artekoa —sakonean, behintzat—, baizik eta bi adieren edo bi kontzeptuen artekoa.

Beraz, hasieran hitzak lotuko baditugu ere, azken helburua kontzeptuen arteko lotura zehaztea da. Eta kontzeptuen arteko erlazioak dituen datu-basea dagoeneko ez da datu-base arrunta. Halako informazioa duten datu-baseak *hiztegi ezagutza-baseak* (HEB), *ezagutza-base lexikalak* (EBL), eta *ontologiak* dira.

1.2. Ezagutza-base lexikalak, hiztegi ezagutza-baseak eta ontologiak

Ezagutza-base lexikalek (EBL) hitzei eta adierei buruzko informazioa dute. EBL batean konputagailuak hizkuntza ulertu ahal izateko hitzei buruz jakin beharreko guztia egon beharko luke (Yokoi, 1995). Hauen ezaugarri garrantzitsuena herentzia

izaten da, adierak *klase / azpiklase* hierarkien inguruan antolatzen dira-eta (Copestake, 1990).

Hiztegi ezagutza-baseek (HEB), berriz, hiztegietatik erauzitako informazioa jasotzen dute (Artola, 1993). Erauzitako informazioaren artean, hemen ere, adieren hierarkiak dira aipagarriak. HEB batean, hiztegian dugun informazio inplizitua esplizitu bihurtzen da, eta, hala, programa batek —edo giza erabiltzaileak— erabili ahalko du. EBL batean dugun informazioa ez da hiztegi batean dugun bera, hiztegietakoa informazioaz gain, bestelako informazioa ere egoten baita.

Ontologiak, berriz, mundu errearen kontzeptualizazioak dira, mundu erreari buruzko inferentziak egiteko gaitasuna dutenak. Definizio lauso hau aukeratu dugu, Adimen Artifizialaren arloan definizio zehatzagoek eztabaida pizten dutelako, eta, tesi-lan honi dagokionez, ontologiaren ezaugarri bat delako guretzat garrantzitsua: hierarkia darabiltela bizkarrezur gisa. Ontologiak aplikazio askotarako eraiki izan dira —*softwarearen* berrerabilgarritasuna, medikuntzako sistema adituak, lengoia naturalaren sorkuntza, ulermena, itzulpena, eta abar—, eta normalean eremu espezifikotarako eraiki ohi dira.

Hona ontologiak definitzeko egin den saiakeretako bat:

Ontologies are often equated with taxonomic hierarchies of classes, class definitions, and the subsumption relation, but ontologies need not be limited to these forms. (...) The word "ontology" seems to generate a lot of controversy in discussions about Artificial Intelligence. It has a long history in philosophy, in which it refers to the subject of existence. It is also often confused with epistemology, which is about knowledge and knowing. (...) In the context of knowledge sharing, I use the term ontology to mean a specification of a conceptualization. That is, an ontology is a description (like a formal specification of a program) of the concepts and relationships that can exist for an agent or a community of agents. This definition is consistent with the usage of ontology as set-of-concept-definitions, but more general. And it is certainly a different sense of the word than its use in philosophy (Gruber, 1993).⁵

Gruber (1993), Onyshkevych eta Nirenburg (1994) eta Guarino (1997) bat datoz ontologiak oso heterogeneoak eta norberearen beharren arabera eginak direla esaterakoan. Hala ere, ontologia guztiek dute kontzeptu zerrenda bat, eta kontzeptu

⁵ <http://www-ksl.stanford.edu/kst/what-is-an-ontology.html> (2004-11-30ean atzitu).

horien arteko hierarkia *klase / azpiklase* erlazioak egituratzen du. Hori da ontologiaren ezaugarriarik garrantzitsuenetakoa.

Aurrekoak ikusita, badirudi EBLak eta ontologiak berdintsuak direla, baina ba al dute ezberdintasunik?

Ontologietan nabaria da kontzeptuen arteko *klase / azpiklase* hierarkiak duen garrantzia. HEBetan ere erlazio honek egituratzen du ezagutza-basea, nahiz eta adieren arteko erlazioari *hiperonimia / hiponimia* deitu. Autore batzuk ontologia eta EBLen arteko diferentziak azpimarratzen saiatu dira eta ez ditugu guk horiek ukatuko: kontzeptu guztiak lexikalizatuta egon behar duten edo ez, hierarkiaren goiko aldea antolatzeke irizpideak linguistikoak soilik diren edo ez, eta abar. Hala ere, beraien arteko mugak ez daude garbi. Adibidez, EAGLES taldearen lexikoari buruzko behin-behineko barne-txostenean (EAGLES, 1998), *WordNet*⁶ ontologiatik hurbil ikusten dute, nahiz eta EBL gisa aurkezten den beti.

WordNet can best be characterized as somewhere in between a semantic network and a conceptual ontology. The synsets are conceptual units rather than lexical semantics units. The relations are better seen as semantic inferencing schemes than as lexicalization patterns.⁷

Communications of the Association for Computing Machinery aldizkariaren 1995eko azaroko alean, EDR⁸ (Yokoi, 1995; EDR, 1995), CYC⁹ (Lenat, 1995) eta *WordNet* (Miller *et al.*, 1993) konparatzen dira. Aipatzen den diferentzia nabariena orientazioa da: CYCek sen ona eta munduari buruzko inferentziak jaso nahi ditu, eta EDR eta *WordNet* inferentzia linguistikoetarako daude prestatuta. Baina diferentzia hori ez da hain garrantzitsua, EAGLESen barne txostenean (EAGLES, 1998) aitortzen den bezala *EuroWordNet*¹⁰ buruz ari direnean:

EuroWordNet is different from AI-ontologies such as CYC or Sensus / Pangloss in that its focus is on the linguistically-motivated relations rather than the semantic inference schemes only. In this respect it provides information on the exact semantic relation between the

⁶ <http://www.cogsci.princeton.edu/~wn> (2004-11-30ean atzitua). II. kapituluaren azalduko dugun bezala, sinonimia erlazioaren inguruan antolatutako ezagutza-basea da.

⁷ <http://www.ilc.cnr.it/EAGLES96/rep2/node20.html> (2004-11-30ean atzitua).

⁸ <http://www.ijnet.or.jp/edr> (2004-11-30ean atzitua). *Japan Electronic Dictionary Research Institute* sortutako ezagutza-basea.

⁹ LNPaz gain adimen artifizialarentzat erabilgarria den ontologia. <http://www.cyc.com> (2004-11-30ean atzitua).

¹⁰ II. kapituluaren azalduko dugun bezala, *EuroWordNet*en oinarria *WordNet* da.

lexicalized words and the expressions of languages (this may still be useful for making inferences as well).¹¹

Diferentzia nagusia orientazioan dagoela uste dugu guk ere: ontologietan munduari buruzko informazioa dugu, kontzeptuen arteko erlazioek ez dute zertan motibazio linguistikorik eduki. Bestalde, EBLe hizkuntzaren ulermenerako eta sormenerako beharrei erantzun nahi diete, baina, azken finean, jakina da LNparen muturrera iristeko hizkuntzan agertzen diren arazo guztiak gainditu beharko direla, sen ona barne. Beraz, EBLetan munduari buruzko informazioak egon behar du. Adibide garbi bat *hiperonimia* erlazioa da. Izan ere, ontologietan eta EBLetan gordetzen den informazio semantikoa gainjarri egiten da; biak egitura isolatu bezala diseinatuko balira, ezagutza bera bi aldiz errepresentatu beharko litzateke, adibidez, *hiperonimiari* dagokion ezagutza.

1.3. Euskararen Ezagutza-Basea eta *Euskal Hiztegia*

Ixa Taldearen xedeetako bat *Euskararen Ezagutza-Basea* (EEB) sortzea da, eta horretarako bi bide jorratzen ari dira. Batetik, dagoeneko beste hizkuntzetarako garatuta dagoen *EuroWordNet* oinarri hartuta *EuskalWordNet* (ikus II. kapitulua) sortzea. Lan hau eskuzkoa da eta introspektion oinarritzen da. Bestetik, tesi-lan honetan ikusiko duguna: **euskara iturri duen EH hartu eta *Euskal Hiztegiaren Ezagutza-Basea* (EHEB) sortzeko ahalik eta erlazio lexiko-semantiko gehien automatikoki erauzi**. Lan honek alderdi introspektiboa eta deskriptiboa biltzen ditu. **Erauzketa bera erabat automatikoki egin da**, baina **elementuen ezagutza ahalbidetzen dituzten erregelak eskuz landu dira**. Tesi-lan honetan EHEB eta *EuskalWordNet* lotzeko ahaleginik egin bada ere, etorkizuneko lana izango da erabateko loturak gauzatzea. Horretarako kontzeptu mailako loturak eta erlazioak lortu behar ditugu, eta adiera-desanbiguazioan eta erlazioen desanbiguazioan sakondu.

Beraz, EHEBa sortzen hasteko EH bera eta bertako definizioak nolakoak diren aztertu behar dugu bertatik informazioa nola erauzi jakin ahal izateko.

EH (Sarasola, 1996) hiztegi elebakarra da, eta hiztegi elebakarrek dituzten hainbat ezaugarri ahalbidetzen dute hitzen arteko erlazio lexiko-semantikoak

¹¹ <http://www.ilc.cnr.it/EAGLES96/rep2/node20.html> (2004-11-30ean atzitu).

erauztea. Alde batetik, hitz bat definitzerakoan, hiztegi elebarkarren definizioen zirkularitatea dela-eta, hiztegian sarrera duten beste hitzak erabiltzen dira —teoria mailan, behintzat—; eta, bestalde, definizio hauek berek —nahita edo nahi gabe— definizio-patroi edo eskema bertsuak erabiltzen dituzte hitza definitzerakoan.

Smith-ek eta Maxwell-ek (1980) dioten bezala, hitza definitzeko hiru modu erabiltzen dira hiztegiatan:

- **Sinonimo** baten bitartez: sarreraren esanahi berbera duen hitza erabiliz (ikus IV.2. atala).

akabatu A1 ad. **Bukatu, amaitu.**

- Definizio klasiko baten bitartez: Aristotelesek definitutako *genus + differentia specifica*. Sarrera lexikala hitz generiko baten bitartez (*genus*) eta bereizgarri dituen ezaugarri batzuen bitartez (*differentia specifica*) definitzen da. Sarrera lexikala eta genusaren artean erlazio *hiperonimikoa* dago (ikus IV.3. atala).

aireontzi A0 iz. Hegalda daitekeen zernahi **ibilgailu**.

Adibidean, hitz generikoa edo *hiperonimoa* ibilgailu da; eta sarrera lexikala, *aireontzi*, termino zehatza edo *hiponimoa*.

- **Erlatore berezien** bitartez: sarrera lexikala eta definizioeko gune semantikoa harremanean jartzeko bide sintaktikoak dira. Erlatore berezi honek erakutsiko du zein harreman lexiko-semantiko dagoen sarrera-hitza eta definizioaren gune semantikoaren artean (ikus IV.4. atala).

ezpara A0 iz. Habea, Tabanidae familiako intsektuei
ematen zaien izena.

Erlatore berezi hauek dira definizioaren gune semantikoa eta sarrera-hitza erlazionatzen dituzten hitzak —edo hitz multzoak—. Adibideko erlature berezia -i ematen zaien izena da, nahiz eta erlature gisa definizioeko gune sintaktikoa (*izena*) besterik ez dugun markatuko.¹² Erlatore berezi honek sarrera-hitza (*ezpara*) eta definizioeko gune semantikoa (*intsektu*) erlazionatzen ditu.

¹² Definizioetan elementuak markatzeko III.7. atalean ikusiko dugun *Murritzapen Gramatika* erabili dugu, eta gramatika honek dituen ezaugarriak direla-eta, erlature gisa hitz bakarra besterik ezin da markatu.

Aurrekoaz gain, gerta daiteke definizioaren gune sintaktikoa hutsa izatea semantika aldetik —Bruce *et al.*-en (1992) hitzetan, *disturbed heads*—, eta definizioan dagoen beste hitzen batek izatea garrantzi semantiko handiagoa. Honelako hitzei ere erlature berezi deituko diegu, eta azpian zein erlazio lexiko semantiko duten bakoitzari dagokion atalean ikusiko dugu.

epaitondo A0 iz. Motzondoa, enborra moztu ondoren lurrari atxikia gelditzen den zuhaitz **zattia**.

Aurreko adibidean, deskribapenaren gunea zati da, baina benetan informazio interesgarria ematen duena zuhaitz da.

Definizio-patroi orokor hauek ikusi ondoren, hona **EHko definizioetan aurki ditzakegun definizio-egitura nagusiak**. Zenbaitetan sarrera-hitz baten definizio-eremuan definizio bat baino gehiago daude. Hala gertatzen da definizio-eremu horretan “;” dugunean.

foruzaletasun A0 iz. Foruen zaletasuna; foruzaleen dotrina.

Kasu honetan foruzaletasun hitzak bi definizio ditu: bata zaletasun gisa, eta bestea dotrina gisa.

Bestalde, definizio-eremuan definizioak egiteko modu bat baino gehiago aurkitzen dugu. Zenbaitetan, sarrera-hitza sinonimoen bitartez agertzen da definituta; beste zenbaitetan deskribapen baten bitartez —honi deitu ohi zaio definizio—; baina biak ager daitezke elkarren ondoan, sinonimoak eta deskribapenak. Definizio-patroi berezi hauek kasuz kasu aztertuko ditugu bakoitza dagokion atalean, baina eskema orokorra hau dugu:

- | | | | | |
|-----|---------------|---------------|-----------|--------------------------|
| (1) | sarrera-hitza | adiera-ikurra | kategoria | Deskribapena. |
| (2) | sarrera-hitza | adiera-ikurra | kategoria | Deskribapena, sinonimoa. |
| (3) | sarrera-hitza | adiera-ikurra | kategoria | Sinonimoa, deskribapena. |
| (4) | sarrera-hitza | adiera-ikurra | kategoria | Sinonimoa. ¹³ |

Hona aurreko definizio-patroiei dagozkien adibideak. Adibideek dituzten zenbakiak bat datoz definizio-patroien zenbakiekin.

(1) galai A0 iz. Dama bati edo emakume bati laguntzen dion gaztea.

(2) gaztanbera A0 iz. Gazura kendu zaion esne gatzatua, mamia.

¹³ Definizio eremuan deskribapen bat azaldu edo ez, ez da kontu aleatorioa, lexikografoak oso gogoan izandako eskemak baizik. Deskribapena agertzen duten hitzak dira garrantzi handien dutenak, ondoren deskribapena eta sinonimoa dutenak, ondoren sinonimoa eta deskribapena, eta, azkenik sinonimoa besterik ez dutenak. Sinonimoa besterik ez duten hauetan agertzen den hitza hiztegian bilatuz gero, normalean deskribapen baten bitartez definitua agertuko da.

(3) gorni A0N1 iz. Gorrina, landareen gaitza.

(4) fotografia A1 iz. Argazkia.

Definizio horietatik hitzen arteko erlazio lexiko-semanticok erauzteko, EH bera modu berezian prestatu dugu.

I.4. EHren prestaketa

EH (Sarasola, 1996) paperezko hiztegi gisa jaio zen. Guk makinek irakurtzeko moduko formatu batean behar dugu bertan dagoen informazioa interpretatu nahi izanez gero. Horretarako, badugu formatu ez-egituratu batean dagoen *Microsoft Word* bertsioa, baina guk formatu egituratu bat behar dugu, emaitzak onak izan daitezten. Lehenengo pauso gisa, hiztegia III.3. atalean ikusiko dugun TEI ekimenaren arabera markatu dugu. TEIk proposatutako gidalerroei esker, bereizita agertuko dira hiztegian dauden eremu guztiak. Eta bereizketa honi esker, guri beharrezko zaizkigun elementuak bakarrik hautatuko ditugu: sarrera-hitza, kategoria, adiera-ikurra eta definizio-eremua. Albo batera utziko ditugu sarrera-hitz baten ondoren agertuko zaizkigun bestelako elementuak.

Kategoria-eremua garrantzitsua da azterkizun izango diren elementuak hautatzeko garaian. Aztertu ditugunak *izenak*, *adjektiboak*, eta *aditzak* dira. Kategoria bakoitzak definizio-patroi bereziak ditu, eta honexegatik, bakoitzarekin multzo bat osatu dugu. Baina hiztegian agertzen diren sarrera-hitz guztiek ez dute kategoria bakarra, eta, zenbaitetan, badira adiera berean *izen* eta *adjektibo* kategoria duten hitzak. IV.4.11. atalean ikusiko dugun bezala, hauekin multzo berezia egin dugu, eta definizio-patroien arabera saiatu gara zehazten —nahiz eta bi kategoria izan— ea lexikografoak kategoria bateko edo besteko eskema erabili ote duen. Beste multzo berezia *azpisarrerak* ditugu (ikus IV.6. atala). Azpisarrerak askotan kategoria-eremurik gabe agertzen dira, eta automatikoki sarrera-hitzaren kategoria esleitu diegu. Kategoria hori ez da beti zuzena, eta aurreko multzoan bezala, kategoria bakoitzeko definizioak aplikatu dizkiegu sarrera-hitzaren kategoria zein den erabakitzeko. Hauen artean izenen, adjektiboen eta aditzen definizio-patroiak daude.

Hiztegian bertan zer dugun jakiteko, hiztegian dauden elementuen azterketa estatistikoa egin dugu, bertan usuen agertzen diren hitzak eta elementu-segidak

zeintzuk diren jakiteko (ikus III.8. atala). Elementu horiei *token* deitu ohi zaie, eta hauen barruan ditugu hitz-formak, postposizioak —kasu gramatikalak, postposizio-atzizkiak eta postposizio konposatuak—, parentesiak, gidoiak, puntuazio-ikurrak, eta abar. Definizio-patroi bat ezagutu ahal izateko, *token*-segida horiek guztiak hartu ditugu kontuan.

Token-segida horiek ezagutzeko, definizioen analisi morfologikoa egin dugu (ikus III.5. atala). Analisi horiei esker, dagoeneko markatuta ditugu definizioetan agertzen diren hitz-formen lemak, hauek hartzen dituzten postposizioak, mugatasunak, agertzen diren puntuazio-ikurrak, parentesiak, komatxoak, eta abar. Hiztegiko definizioen barruan ezkutatuta dagoen informazio inplizitua dagoeneko esplizitu dugu, eta makinak badaki definizio baten barruan zein *token* dauden.

Hiztegiko elementuen azterketa estatistikoa eginda, erlazioak erauzteko garaia da.

I.5. Erlazio lexiko-semantikoaren erauzketa

IV. kapituluaren sarrera-hitza eta definizioko hitz baten arteko erlazioak erauzi ditugu. Garrantzitsuena, erlazio hierarkikoa da. Definizio-eremuan deskribapena dagoenean, deskribapen horren gunea da sarrera-hitzaren *gurasoa*. Aurretik aipatu dugun bezala, Aristotelesen genusa (ikus IV.3. atala). Sarrera-hitzarekin erlazioan dagoen hitza ezagutzeko garaian, testuingurua hartzen dugu erreferentzia gisa, eta lan-tresna gisa testuingurua kontuan hartzen duen gramatika erabili dugu: *Murriztapen Gramatika (Constraint Grammar)* (Karlsson *et al.*, 1995; Tapanainen, 1996) (ikus III.7. atala).

Hierarkia marka dezaketen beste elementuak erlatoze bereziak dira. Erlatoze bereziek genusaren lekua hartzen dute definizioan, baina esanahi gabeak edo esanahi ahulekoak direnez, definizioko beste elementu bat jartzen dute sarrera-hitzarekin harremanetan. Erlatoze berezi hauek markatzen duten erlazioa gehienetan ez da hierarkikoa (ikus IV.4. atala).

Aurrekoak bezala, sinonimoak ere sarrera-hitzaren sare semantikoa zehazteko baliagarri diren elementuak dira. Sinonimoen arteko erlazioa ez da hierarkikoa, baizik eta maila berekoa (ikus IV.2. atala).

Baina kategoria guztiek ez dituzte erlazio berak (Miller *et al.*, 1993). Adibidez, adjektiboen kasuan ez dugu erlazio hierarkikorik izango, eta erlazonatutako hitz guztiak sare semantikoaren elementuak dira. Zenbait kasuetan sare semantiko baten barruan nolabaiteko *gradazioa* badagoenez, badirudi erlazioa hierarkikoa dela, baina erlazio hierarkikoaz baino gehiago *familiartasunaz* hitz egiten da. Bikain adjektiboaren definizioa hartuta, badirudi onen *hiperonimoa* dela:

bikain H2A0 izond. Guztiz **ona**, dohain onez txit hornitua.

Baina adjektiboen kasuan ez dugu erlazio hierarkikorik, eta onen familia berekoak dira: on, bikain, txar, eratsu, onxko **eta** pasagarri.

txar A1 izond. Funtsezko akats bat duena, bere egitekoa ongi betetzen ez duena, **ona** ez dena.

erasu A0 izond. Eraz betea, **ona**, egokia.

onxko A0 izond. **Ona**, aski **ona**.

pasagarri A1 izond. Onar daitekeena, baina ez oso **ona**, nolana hiko.

VI. kapitulan Aristotelesek *differentia* deitzen duen elementuaren azterketa egin dugu. Modu horretan definizioko hitzen arteko erlazioak zehaztu ditugu eta aurretik sortuta dugun sare semantikoa osatu. *Differentia* hori erauzteko erabili izan diren teknikak bi dira: definizio barruko **patroi lexikalak** detektatzea eta hitzen arteko loturak egiten dituzten **preposizioak edo postposizioak**¹⁴ aztertzea.

Patroi lexikalek erlatore berezien antza dute; patroiaren barruan genusa agertzen da, eta genus honen eta definizioko beste hitz baten arteko erlazioa zehazten dute. Patroi lexikal jakin hauek, lotzen dituzten elementuei buruzko informazio interesgarria emango dute (ikus VI.2. atala).

haritz A1 iz. Pagoaren familiako **zuhaitza**, (...).

Aurreko adibidean, haritzen genusa dugu zuhaitz, **eta** -en familiako **patroi lexikalaren** bitartez zuhaitz **eta** pago lotzen dira.

Hitzen arteko loturak gauzatzen dituzten beste elementuak **postposizioak** dira. Postposizio hauek sintagma ezberdinen arteko loturak dira, eta interpretazio jakina dutenez, interpretazio horrek markatuko du hitzen artean dagoen erlazioa (ikus VI.3. atala).

¹⁴ Euskararen kasuan postposizioak ditugu, baina inguruko beste hizkuntzetan lotura-elementu horiek preposizioak dira.

ildo A1 iz. Goldeaz lurra irauliz egiten den irekidura luzea.

Adibide honetan postposizio-atzizki *instrumentala* bitan agertzen da. ildoren genusa irekidura da, eta irekidura hori irauliz egiten da, eta iraultzeko, goldea erabiltzen da. egin eta irauliren arteko erlazioa *modua* da, eta irauli eta golderen artekoa *instrumentua* (ikus VI.4.1. atala).

Lan hau gauzatu ahal izateko, postposizio horien interpretazio multzoa zein den zehaztu dugu. Postposizio baten interpretazioa desanbiguatzeko beste hizkuntzetako preposizioak erabiliko ditugu. Desanbiguazio hori gauzatu ahal izateko, postposizioek eta preposizioek interpretazio-zerrenda bateratua beharko dute. Postposizio batek hainbat interpretazio izan ditzake, baina beste hizkuntza batean horren baliokide den perpausa baldin badugu, eta postposizio horren lekuan preposizioa, horien interpretazioa bien arteko interpretazio-ebakiduratik¹⁵ aterako da. Beraz, oso garrantzitsua izango da euskarazko postposizioei esleitutako interpretazioak beste hizkuntzetako preposizioei esleitutako interpretazioekin bateragarriak izatea. Hiztegiak corpus paralelo —berezi— gisa erabiliko ditugu, eta VI.7. atalean ikusiko dugun teknikari esker corpus paralelo lerrokatu gisa, gainera. Lanaren atal honetan ia-ia itzulpen automatikoa egiten ari garela esan ahalko dugu, eta itzulpen-lan horietarako preposizioen eta postposizioen interpretazio bateragarriak izatea oso garrantzitsua da.

Eta eraikitako sare semantikoa handitzeko asmoz hiztegi-sarrera bera analizatu dugu. Sarrera-hitza eratorria baldin bada, oinarri eta eratorriaren arteko erlazioa zehazten saiatuko gara V. kapituluan. Eratorpenarekin egindako lana *EuskalWordNet*ekin lotu dugu partzialki. Horretarako erlazioak kontzeptuen artekoak bihurtu ditugu *EuroWordNet*en dauden beste hizkuntzetako hitzei esker. Guk ingelesa eta espainiera erabili ditugu, eta kontzeptu mailako lotura ematen dugunez, euskararentzat lortu dugun informazioa, beste hizkuntzentzat ere baliagarria da.

¹⁵ *Ebakidura* hitzarekin, bi hitzek dituzten balizko kontzeptuen artean kontzeptu bera zein diren adierazi nahi dugu.

I.6. Azterketa eta deskribapen linguistikoak

Honaino azaldutako prozesu guztia garatu ahal izateko, egin behar izan ditugun azterketa eta deskribapen linguistikoak honakoak dira:

- A. eranskinean erlature bereziak paratu ditugu. Bertan daude aztertu ditugun erlature berezi guztiak eta hauek sortzen dituzten erlazioak. Hauen laburpena tesiaren IV. kapituluaren egin dugu. Kapitulu honetan sinonimoen eta genusen azterketa egin dugu, sortzen dituzten erlazio lexiko-semantikoak azalduz.
- B. eranskinean eratorpenaren azterketa azaldu dugu. Eratorpena tesi-txosten honen V. kapituluaren azaldu dugu, baina eratorpen-atzizki bakoitzari buruzko informazioa handia denez, zati handiena eranskinean ematea erabaki dugu. B. eranskinean, beraz, eratorpen-atzizki bakoitzaren interpretazio-bilduma dago. Eratorpen-atzizkien interpretazio bakoitzak hiztegiko definizioetan zein isla duen aztertu dugu, eratorriaren eta oinarriaren arteko erlazioa zehazteko.

Hitz eratorriak ezagutzeko garaian, analizatzaile morfologikoari hainbat aldaketa egin behar izan dizkiogu. Erabilitako analizatzaile morfologikoak Ixa Taldeak garatutako EDBLetik hartzen du informazioa, eta bertan zenbait atzizki lexikal landuta egon arren, ez daude denak. Bertan atzizki lexikalak txertatu ahal izateko, hauek jasaten dituzten erregela morfo-fonologiko guztiak aztertu beharko liriateke, eta gainera, datu-basean oraingoz modu zabalean landu ez den oinarriari buruzko informazioa gehitu —lan honen albo-ondorioetako bat da datu-base horretako zenbait elementuen informazioa gehitzea, adibidez, izenen biziduntasuna—. ¹⁶ Beraz, lan egiteko beste bide bat hautatu dugu. Analizatzaile morfologikoari atzizki lexikal berriak gehitu dizkiogu, eta, hori egiteko, hiztegiko sarreraren amaiera usuenen azterketa egin dugu. Ondoren, horietatik atzizki lexikalak —edo hauen aldaerak— zeintzuk diren erabaki dugu, eta horiek txertatu dizkiogu analizatzaileari horiei buruzko informazioa eman dezan. Zerrenda horretan konposizio-elementuak ere agertu zaizkigu, eta maiztasun handikoak diren heinean, txertatzea erabaki dugu hitz konposatuaren esanahiaren berri izan dezakegulakoan. Hau guztia V. kapituluaren azaldu dugu.

¹⁶ Eratorpen atzizkiek jasaten dituzten aldaketa morfo-fonologikoak aztertu ditu Izagirre-k (2004).

- C. eranskinean patroi lexikalak aztertu ditugu eta hauek sortzen dituzten erlazio motak azaldu. Eranskin honen laburpena VI. kapituluan jarri dugu.
- D. eranskinean euskarazko postposizio-atzizkien eta kasu gramatikalen azterketa paratu dugu. Hauen interpretazioak zeintzuk diren aztertu eta eman ditugu. Azterketa honen ondorio da VI. kapituluan emandako laburpena.
- E. eranskinean postposizio konposatuak aztertu ditugu. Hauek dituzten interpretazioen arabera bi taldetan sailkatu ditugu: anbiguoak eta ez-anbiguoak. Hauen laburpena VI. kapituluan ikus daiteke.
- F., G. eta H. eranskinak D. eta E. eranskinekin lotuta daude. F. eranskinean ingelesezko preposizioak daude interpretazioen arabera banatuta. G. eranskinean espainierazkoak modu berean antolatuta; eta H. eranskinean euskarazkoak modu berean antolatuta. Hiru eranskin hauetan hizkuntzak lotzen saiatzen gara postposizioen eta preposizioen interpretazioen bitartez, eta itzulpen automatikorako erabilgarri izango diren *lotura zuzenen* berri eman dugu. Hau guztia VI. kapituluan azaldu dugu.
- Tesian zehar definizio-patroi ezberdinen berri eman dugu, EHn agertzen diren definizio motak aztertu baititugu. Definizio horietan erlazioren bat duten elementuak markatzeko *Murriztapen Gramatika* erabili dugu, eta egindako erregela guztiak I. eranskinean daude.

I.7. Tesi-lanaren egitura

II. kapituluan aurrekariak aipatu ditugu, bertan ikusiko dugu arlo honetan beste hizkuntzetan orain arte egin izan diren lan garrantzitsuenak zeintzuk izan diren. III. kapituluan hiztegiaren datu-azterketa egin dugu; bertan agertzen diren elementuen maiztasuna, hiztegiaren beraren ezaugarriak eta agertzen diren definizioen hainbat ezaugarri eman ditugu. IV. kapituluan sarrera-hitza eta definizioeko elementu baten arteko erlazioak aipatu ditugu, hala nola, sinonimoak, genusak eta erlature bereziak. V. kapituluan, sarrera-hitza albo batera utzi gabe, eratorpena aztertu dugu, hau da, sarrera-hitz eratorriek haien oinarriekin duten erlazioa zein den zehaztu dugu. VI. kapituluan, berriz, sarrera-hitza utzi eta definizioan agertzen diren elementuen arteko erlazioak zeintzuk diren zehaztu dugu; horretarako definizio barruko patroi lexikalak

eta lotura-elementu diren postposizioen interpretazioak erabili ditugu. Eta, VII. kapituluaren lan guztiaren ondorio nagusiak eta etorkizuneko lanak bildu ditugu.

I.8. Tesiarekin lotutako publikazioak

Atal honetan tesiaren joanean —eta honekin zerikusia duten— argitalpenak paratu ditugu.

Egileak	Urtea	Titulua	Non Argitaratua	Kapitulua
Lersundi M. eta Agirre E.	2003	Semantic interpretations of postpositions and prepositions: a multilingual inventory for Basque, English and Spanish	Workshop on "The linguistic dimensions of prepositions and their use in computational linguistics formalisms and applications". Toulouse, France.	VI.
Agirre E., Ansa O., Arregi X., Artola X., Diaz de Ilarraza A., Lersundi M.	2003	A Conceptual Schema for a Basque Lexical-Semantic Framework	Conference on Computational Lexicography and Text Research (Complex), Budapest	orokorra
Lascurain V., Agirre E., Lersundi M., Popelínsky L.	2003	Disambiguation of case suffixes in Basque	TALN workshop on Automatic Treatment of minority and small languages	VI.
Agirre E., Lersundi M., Martinez D.	2002	A Multilingual Approach to Disambiguate Prepositions and Case Suffixes	ACL Workshop: Word Sense Disambiguation: recent successes and future directions	VI.
Aldezabal I., Aranzabe M., Atutxa A., Lersundi M.	2002	Levin-ek English verb classes and alternations (1993) liburuan proposatzen dituen ingeleserako alternantziak euskararekin parekatuz	Barne txostena. UPV/EHU / LSI / TR 13-2002	VI.
Agirre E., Lersundi M.	2001	Extracción de relaciones léxico-semánticas a partir de palabras derivadas usando patrones de definición	Proceedings of the Annual SEPLN meeting, Jaen	V.
Aldezabal I., Ansa O., Arrieta B., Artola X., Hernández G., Lersundi M.	2001	EDBL: a General Lexical Basis for the Automatic Processing of Basque	IRCS Workshop on linguistic databases. Philadelphia (USA).	VI.
Agirre E., Ansa O., Arregi X., Arriola J.M., Artola X., Diaz de Ilarraza A., Lersundi M., Martinez D., Sarasola K., Soroa A., Urizar R.	2001	Euskal Hiztegiatik hitzen arteko erlazio semantikorantz: sinonimoen, genusen eta erlatore berezien bilaketa	Barne txostena: UPV/EHU/LSI/TR 2-2001.	IV.

2. taula. Tesi-txosten honekin zerikusia duten argitalpenak, dagozkien kapituluarekin lotuta.

Egileak	Urtea	Titulua	Non Argitaratua	Kapitulua
Diaz de Ilarraza A., Lersundi M., Mayor A., Sarasola K.	2000	Etiquetado semiautomático del rasgo semántico de animicidad para su uso en un sistema de traducción automática	Actas del XVI Congreso de la SEPLN Vigo	IV.
Agirre E., Ansa O., Arregi X., Artola X., Diaz de Ilarraza A., Lersundi M., Martinez D., Sarasola K., Urizar R.	2000	Extraction Of Semantic Relations From A Basque Monolingual Dictionary Using Constraint Grammar	Proceedings of Euralex Stuttgart (Germany).	IV.
Agirre E., Ansa O., Aranzabe M., Arregi X., Arriola J.M., Artola X., Diaz de Ilarraza A., Lersundi M., Martinez D., Sarasola K., Soroa A.	2000	Hiztegieta oinarritutako hitzen adieradesanbiguazioa euskaraz	Barne txostena: UPV/EHU/LSI/TR 10-2000	IV.
Aldezabal I., Ansa O., Artola X., Ezeiza A., Gojenola K., Insausti J.M., Lersundi M.	1999	Euskararen Datu-Base Lexikala (EDBL): eskema berriaren proposamena	Barne txostena: UPV/EHU/LSI/TR9-99	orokorra
Agirre E., Ansa O., Arregi X., Arriola J.M., Diaz de Ilarraza A., Lersundi M., Soroa A., Urizar R.	1998	Extracción de relaciones semánticas mediante gramáticas de restricciones	Congreso SEPLN, Alicante..	IV.

3. taula. Tesi-txosten honekin zerikusia duten argitalpenak, dagozkien kapituluekin lotuta.

Udazkena... 2003...

udazken	A0	iz.	Udaren ondoko urtaroa, Lurraren iparraldean irailaren 21etik abenduaren 21era hedatzen dena.
kolore	A1	iz.	Gauzakien gainaldearen nolakotasuna, mota jakin bateko argi izpiak sortzean edo islatzean datzana, begiari era jakin batean eragiten diona.

Udazken koloretan,
landen lurrinak zeharkatuz,
hitaz oroit
eta higan nauk.

Zuhaitz biluziaren
gerizpean orpondoa,
orbelaren hilobi,
horiz eta gorriz
dena lokaturik.

Eskuratu hostoa
xume bezain eder,
hain soila bere heriotzean,
zuhaitz guztiaren bizkortasunez
hain betea,
non erortze honen duintasunak
hiri kantatzera naraman.

Berriro zuhaitzari
so natzaiok, kezkatu ote?...
joate askearen oparotasunean,
betikotasunaren irria zirudik.

Gatibu naukan denborak,
bere baitan egositako
ametsetaz isekaz
bailegoan.

Udazken koloretan,
landen lurrinak zeharkatuz,
hitaz oroit eta higan nauk,
hain soil hire heriotzean,
hain xume, adiorik gabeko
partitzean.

(Benito Lertxundi)

II. Aurrekariak

Sarreran aipatu dugunez, LNPN aurrera egiteko lexikoiaren beharra azpimarratu izan da. Lexikoi horiek osatzeko garaian, zenbait galdera erantzun beharko ditugu, eta atal honetan beste hizkuntzetan egin izan diren pareko lanak ikusiko ditugu. Alde batetik, beste hizkuntzetan lexikoiak sortzeko erabili izan diren hurbilpenak eta iturriak zeintzuk izan diren ikusiko dugu. Iturriei dagokienez, hiztegietatik egindako erauzketa-lanei garrantzi berezia emango diegu, gurea ere halakoa izan delako. Beste aldetik, eratorpenari, patroi lexikalei eta preposizioei buruzko hainbat lan kontuan izan ditugu, V. eta VI. kapituluetan ikusiko dugunez, tesi-lan honetan informazioa erauzteko garaian garrantzi berezia izan dutelako.

Tesi-lan honetan erabilitako euskarari buruzko lanak zeintzuk izan diren dagozkien ataletan aipatuko ditugu.

II.1. Lexikoa sortzeko hurbilpenak eta iturriak

Sarreran ikusi dugunez, informazioa erauzteko garaian erabiltzen den hurbilpenaren arabera lan mota bat edo beste izango dugu. Hurbilpen nagusiak bi izan dira: **arauemailea** eta **deskriptiboa**. Hurbilpen hauekin lotura estua dute informazioa erauzteko metodoek: eskuzkoa, automatikoa eta erdiautomatikoa.

Hurbilpen arauemailea erabiltzen duten lanak eskuzkoak izan ohi dira. Hauen iturri nagusia introspektzioa da, hizkuntzalariak munduari buruz duen jakinduria eta ezagutza. Era honetan sortutako zenbait lexikoi badaude: *Word Dictionary*, 10.000 sarrera dituen *Linguistic String Projecterako* (LSP) sortutako lexikoa (Fox *et al.*,

1988); *WordNet* (Miller, 1990) gaur egun 2.0 bertsioa da indarrean, eta 152.059 hitz daude bertan errepresentatuta, eta baita euren arteko erlazio semantikoak dituzten 115.424 *synset*¹⁷ edo sinonimo-multzo ere; *Comlex* (Grishman *et al.*, 1994) ingeleseko 38.000 inguru hitzentzako informazio sintaktikoa dakarren lexikoi konputazionala; CYC Ontologia (Lenat, 1995) 100.000 termino baino gehiago ditu. LDOCEren azken bertsioak, LDOCE3-NLP, 80.000 adiera ditu, eta linguistika konputazionalako ikerkuntzarako laguntza gisa sortu dute *Longmaneko* lexikografoek.

Nirenburg-ek eta Raskin-ek (1987) aurkezten duten lanean, hasieran kontzeptuen ontologia sortzen dute, eta ondoren kontzeptu horiei hitzak lotzen dizkiete. Metodologia hau azaltzeko garaian, bada oso adierazgarria den esamoldea: *lehenik mundua, eta ondoren hitzak*. Hurbilpen hau itzulpen automatikoa egiten duten sistema zenbaitetan aplikatu izan da. Horien adibide dugu METAL (Hutchins eta Somers, 1992). Eta lan egiteko sistema honi jarraitzen zaizkion proiektuen artean honokoak ditugu: CYC (Lenat eta Guha, 1990), *Upper Model* (Bateman, 1990), ONTOS (Carlson eta Nirenburg, 1990), *WordNet* (Miller, 1990) eta EDR (Yokoi, 1995).

Hurbilpen deskriptiboetara pasa aurretik, eta tesi-lan honetan erabiliko dugunez, hona euskarazko *WordNet*aren (*EuskalWordNet*) ezaugarriak. *EuskalWordNet* *EuroWordNet*en oinarrituta dago. Eta *EuroWordNet*ek, berriz, *WordNet*en diseinu bera du. *WordNet* ingelesez eta ingeleserako sortutako ezagutza-basea da. Ingelesezko adiera bakoitza hitz sinonimo multzo batekin —*synset* deritzonarekin— adierazten da eta adiera guztiak hierarkikoki antolatuta daude. *EuroWordNet* diseinu bereko beste EBL bat da eta Europako zortzi hizkuntzatarata —alemana, espainiera, estoniera, frantsesa, ingelesa, italiara, nederlandera eta txekiera— zabaldu da. *EuskalWordNet* metodo erdiautomatikoak erabiliz sortu da, baina lortutako emaitzak eskuz orrazten dira.

Hurbilpen deskriptiboan, berriz, aurretik sortuta dauden testu-baliabideak erabiltzen dira oinarri gisa, eta bertan dagoen informazioa erauzten saiatzen dira era automatikoak edo erdi-automatikoak erabiliz. Testu-baliabide horien artean ditugu MRDak, datu-base lexikografikoak, datu-banku terminologikoak, morfologikoki,

¹⁷ <http://www.cogsci.princeton.edu/~wn/index.shtml> (2004-11-30ean atzitu).

sintaktikoki eta semantikoki etiketatutako corpus elebakarrak eta elebidunak,... Hurbilpen hau juxtu arauemailearen kontrakoa da: *lehenik hitzak, eta ondoren kontzeptuak*. Hurbilpen honen adibide dugu Bruce *et al.*-ek (1992) sortutako LDOCE hiztegian agertzen diren izenen taxonomia. Bruce *et al.*-ek LDOCE hiztegioko definizioak hartu dituzte, genusak zeintzuk diren ezagutu, eta genus hauek hiztegi berean duten adieraren arabera desanbiguatu. Lortzen duten estaldura %90 da.

Eta iturri gisa corpusak erabiltzen dituztenen artean, berriz, Pereira *et al.*-ek (1993) hierarkia semantiko berria sortu dute multzokatze distribuzionala erabiliz.

Badira **introspektzioa eta deskripzioa uztartzen** dituzten lanak. Lehenik ezaugarri multzo minimoa proposatzen dute euren sistemako lexikoak gutxieneko koherentzia eta egitura izan dezan, eta, ondoren, hurbilpen deskriptiboak erabiliz, aurreko egitura arauemaileari lotu beharreko datu lexikoak automatikoki erauzten dituzten artean daude (Ageno *et al.*, 1992) eta (Hovy eta Knight, 1993) lanak.

Sarreran aipatu dugun bezala, **metodo automatiko eta erdiautomatikoek** erabiltzen dituzten **iturriak corpusak** eta **egituratutako baliabide lexikalak** izan ohi dira. Zenbaitetan bien arteko nahasketa diren metodoak ere erabili izan dira.

Corpus elebakarrei dagokienez, orain arte gehien erabili izan diren corpusak milioi bat hitz inguru dituen *Brown* corpusa (Francis eta Kucera, 1982), eta milioi bat eta hiru milioi hitzen arteko kopurua —erabiltzen den materialaren arabera— duen *Wall Street Journal*aren materialak izan dira. Bi hauek *Penn Treebank* proiektuari esker markatu dira maila hauetan: hitzaren kategoria (Marcus *et al.*, 1993) eta azaleko egitura sintaktikoa (Marcus *et al.*, 1994). Aurrekoek gain, 250.000 hitzetako *Brown* corpusaren testu zati bat hartu dute (Miller *et al.*, 1993) eta Princeton-go kategoria-etiketatzailerik automatikoarekin etiketatu dute lehenik (Brill, 1992), eta ondoren eskuz *WordNet*eko adierekin. Ng-k eta Lee-k (1996) eskuz etiketatu dituzte *Brown* corpusean eta *Wall Street Journal*-en agertutako 191 izen eta aditzen 192.800 agerpen.

Euskaraz ditugun corpus garrantzitsuenak *XX. Mendeko Euskararen Corpus Estatistikoa*¹⁸ eta *Ereduzko Prosa Gaur*¹⁹ dira.²⁰ Ixa Taldean ikerketarako erabiltzen dira *Egunkaria* eta *Berria* egunkarien hemerrotekekin sortutako corpusak.

¹⁸ <http://www.euskaracorpora.net> (2004-11-30ean atzitu).

Corpus elebidunei dagokienez, ikertzaileen artean gehien erabili izan dena *Hansard* corpora izan da. Corpus honetan *Canadian Parliamentary Proceedings* daude, eta ingelesa eta frantsesa dira bertan aurkitzen ditugun hizkuntzak. Ingeleseko 3,5 milioi esaldiri dagozkien 97 milioi hitz daude, eta frantseseko 3,7 milioi esaldiri dagozkien beste 97 milioi hitz. Corpus hau lerrokatuta dago, hau da, hizkuntza bateko esaldi bakoitzaren beste hizkuntzako esaldi baliokidea zein den markatuta dago (Brown *et al.*, 1991).

Corpusak egiturarik gabeko iturri lexikaltzat hartzen dira, eta egituratutako baliabide lexikalen artean egitura askozaz nabariagoa duten iturriak ditugu: MRDak —hiztegiak—, tesaurusak, eta entziklopediak.

Iturri erabilienak **hiztegiak** —MRDak— izan dira, eta tesi-lan honetan ere hiztegia erabiliko dugu. Hiztegietatik informazioa erazteko metodoa ez da berria LNPn, eta honi buruzko laburpen interesgarriak ditugu (Castellón, 1992), (Artola, 1993), (Agirre, 1999), (Rigau, 1998) eta (Arriola, 2000) lanetan. Gure kasuan euskara landu nahi dugu, eta horretarako beste hizkuntzetan egindako lana gurera aplikatuko dugu.

Halako lanak 80ko hamarkadan hasi ziren.²¹ Amsler-en hainbat lanetan (Amsler eta White, 1979; Amsler, 1980; 1981) dagoeneko aipatzen da halakorik, eta hauen ondoren, *The Merriam-Webster New Pocket Dictionary* (W7N) (Chodorow *et al.*, 1985; Markowitz *et al.*, 1986; Binot eta Jensen, 1987), eta *LONGMAN Dictionary of Contemporary English* (LDOCE) (Michiels eta Noël, 1982; Boguraev eta Briscoe, 1987; Jensen eta Binot, 1988; Boguraev eta Briscoe, 1989; Wilks *et al.*, 1990) hiztegien gainean egindako lanak publikatu ziren.

Lan horietan hiztegia oso izaera bereziko testu-corpusatzat hartzen da (Van den Hurk eta Meijs, 1986; Boguraev *et al.*, 1989).²² Berezitasun hori corpus horretatik

¹⁹ <http://www.ehu.es/euskara-orria/euskara/ereduzkoa> (2004-11-30ean atzitu).

²⁰ *XX. Mendeko Corpus Estatistikoa* UZEIk sortutako corpus orekatua da eta 4.658.036 hitz ditu. *Ereduzko Prosa Gaur* corpora EHUK sortu du ereduzkotzat hartutako 86 idazlanekin. Honek ere 4.500.000 hitz baino gehiago ditu.

²¹ Hauen aurretik ere zenbait lan egin ziren, hala nola liburu gisa argitaratutako Sparck-Jones-en (Sparck-Jones, 1986) tesi-lana, edo Litkowsky-ren lanak (1978; 1980). Lan hauek, garai hartako teknologia informatikoaren egoera eta hiztegiak euskarri magnetikoan edukitzeko aukera urria zirela eta, aurrera egiteko hamaika oztopo aurkitu zituzten.

²² Van den Hurk-en eta Meijs-en (1986) lanaren izenburua aski adierazgarria da: *The dictionary as a corpus: Analyzing LDOCE's definition language*. Boguraev *et al.*-ek (1989) lexikoa eskuratzeko bi iturburu aipatzen dituzte, testu-corpus orokorrak eta MRDak; artikulu honetan metodologia bat

atera daitekeen informazio lexikalaren nolakotasunari zor zaio. Corpus orokor batetik hizkuntza-elementuei buruzko informazio asko eta asko atera badaiteke ere, —eta testu-corpusen azterketa gaur egun LNParent barruan indarrean dagoen arloetako bat da—, hiztegi batetik, bereziki hiztegi bateko definizioen analisitik, zuzenean atera daitekeen informazioa nekez aterako genuke corpus orokorrago batetik. Calzolari-k (1990b) dioen bezala, informazio-eskuratze hori ez da osoa, eta ezta hutsik gabekoa ere, baina bai oinarri sendoa jarriko duena.

Boguraev-ek (1987), Boguraev-ek eta Briscoe-k (1989) eta Calzolari-k (1990b) corpusetatik zein hiztegietatik jakintza lexikala ahal den neurrian automatikoki eskuratu nahiak dituen arazoei buruz dihardute.

Calzolari-k (1986; 1990a) hiztegia, hitzen esanahiari dagokionez, testu-corpus hutsa baino askoz ere gehiago dela dio. Hiztegia oso entitate egituratua dugu, jakintza orokor nahiz lexikalaren iturri estimagaitza.

Informazioa erauzteko, hiztegietatik ez ezik, badira egituratutako beste baliabide lexikaletatik informazioa erauzten duten lanak ere: Yarowsky-k (1992), Resnik-ek (1995) eta Grefenstette-k (1993) *Roget's International Thesaurusa* erabili dute.²³ Byrd-ek (1989) *Roget's II: The New Thesaurusa* eta *The New Collins thesaurusa* erabili ditu. Grefenstette-k (1993) *Macquarie's thesaurusa* erabili du. Sanchez-ek (1991) *Diccionario Ideológico de la lengua Española (J. Casares)* tesauro espainiarra erabili du. Eta Utsuro *et al.*-ek (1993) *Bunrui Goi Hyou* tesauro japoniarra erabiltzen dute.

Entziklopediei dagokienez, berriz, Yarowsky-k (1992) lexikoien sorkuntzarako *Grolier's Encyclopaedia* erabili du; eta Gomez *et al.*-ek (1994) *The World Book Encyclopedia* erabili dute.

Baina badira iturri batera edo bestera lotzen ez diren zenbait lan, eta bi motatako iturriak erabiltzen dituzte. Gerta daiteke batetik edo bestetik —eskuz edo automatikoki— sortutako lexikoiek hainbat hutsune izatea. Adibidez, Walker-ek eta Amsler-ek (1986) *The Merriam-Webster New Pocket Dictionary* hiztegiko sarrerak eta *New York Times* egunkariko 3 hilabetetako testuak konparatu dituzte. Emaitzetan

finkatzen dute hiztegi-iturriok arakatzeko, hitzen ezaugarri semantikoak eskuratzeko asmoz, eta azken helburua lexiko konputazional baten alderdi semantikoa osatzea da.

²³ Tesauro honek 60.071 hitz ditu 1.000 kategoria semantikotan banatuta.

aipatzen dutenez, egunkari horretako berrietan agertzen ziren hitzen %64a ez zen hiztegian agertzen. Lautik bat hitz deklinatuak dira, beste laurdena izen bereziak, seiren bat marraz loturiko hitz konposatua, hamabiren bat gaizki idatzitako formak, eta, beste laurdena, erabaki gabekoak —hiztegia egin ondoreneko hitz berriak izan daitezkeenak, alegia—.

Aurrekoaz gain, Briscoe-k eta Carroll-ek (1993) diotenez, oinarrian iturri lexikalak dituzten etiketatze sintaktikoa egiten duten sistemen akatsen erdiak azpikategorizatutako balentziaren desegokitasunagatik gertatzen dira. Gainera, informazio lexikoa batzuetan lotuta dago domeinu jakin batzuetara, eta hori ez da hiztegi orokorretan agertzen.

Ezagutza-baseak eraikitzerakoan iturri bakartzat hiztegiak ez direla erabili behar diote Ide-k eta Veronis-ek (1993). Haien artikulua izenburua aski esanguratsua da: *Extracting knowledge bases from machine-readable dictionaries: Have we wasted our time?*. Artikulu honetan ondorioztatzen dutenez, ezagutza-baseak eraikitzekeo hiztegiak oso garrantzitsuak dira, baina, zenbaiten ustearen aurka, ezingo dira erabat automatikoki sortu. Hiztegiek hitzen arteko erlazioei buruzko informazio handia dutenez, ezin ukatuzkoa da oinarri indartsuak direla; baina, hauek dituzten hainbat arazo direla-eta, pertsonaren lana ezinbestekoa izango da. Artikulu berean aipatzen dute hiztegiak laguntza handia izango dutela hiztegia sortzeko garaian ezagutza-base hauek erabilia; eta LNPrako lan egiten dutenen eta hiztegiak sortzeko garaian lana bultzatzeak hiztegi hobek sortzea eta LNPrako oinarri indartsuagoak garatzea ekarriko duela.

Beste arazoetako bat da hiztegiek ez dutela inoiz corpusek bezain ongi biltzen hitzen maiztasun erlatiboa, eta ezta hainbat testuingurutan hitzek duten erabilera ere. Beraz, egokiena izango da bi iturriek emango duten informazioa elkarrekin erabiltzea. Baliabideak konbinatzen dituzten lanak modu honetan sailkatzen dira:

- Iturri lexikal egituratuak konbinatzen dituztenak —MRDak, ontologiak, tesauroak, eta abar— (Knight eta Luk, 1994).
- Iturri egituratuak eta ez egituratuak baliatzen dituztenak (Klavans eta Tzoukermann, 1996).

Iturri lexikalak erabiltzeko garaian punturik garrantzitsuena hauen eskuragarritasuna izan ohi da. Honekin oso lotuta *copyright*aren edo autore-eskubideen arazoa egon ohi

da. Zenbaitetan corpusak izan badira, baina horien erabilgarritasuna oso mugatua da autore-eskubideekin arazoak daudelako.

Azaldutako lan hauen guztien emaitza zabalduena ezagutza-base hierarkikoak dira, eta halako erlazioak tesi-lan honen IV. kapituluan landu ditugu. Baina hitzen arteko sare semantikoa sortzeko garaian, ez dugu erlazio hierarkikoa bakarrik kontuan izango, sarrera-hitz eratorrien azterketa egin dugu eta baita definizio barruan dauden hitzen artean dauden erlazioen azterketa ere.

II.2. Eratorpena

Eratorpenaren bitartez sarrera-hitza den hitz eratorria eta bere oinarriaren artean dagoen erlazioa zein den zehazten saiatu gara.

Gaur egun, *WordNet*eko 2.0 bertsioan eratorpena aztertu dute, eta eratorriaren eta oinarriaren artean zein erlazio dagoen eskuz zehaztu dute (Fellbaum eta Miller, 2003). Lan honetan diotenez, halako erlazioak oso garrantzitsuak dira, eta eskuz egitearen garrantzia azpimarratzen dute. Eskuz egitearen arrazoirik garrantzitsuena adieren artean desanbiguatu behar izatea da. Diotenez, gaur egun eratorria eta oinarria ezagutzen duten tresna onak badaude, baina horien semantika ezagutzeko garaian ez omen daude hain erauzketa zuzenak. Habash-en eta Dorr-en (2003) eta Viegas *et al.*-en (1996) lanak aipatzen dituzte lan garrantzitsu gisa, baina adieren kontuarekin egiten omen dute topo. Fellbaum-ek eta Miller-ek (2003) diotenez, eskuz egitea behar-beharrezkoa da adiera mailako loturak lortu nahi izanez gero. Guk, tesi-lan honetan azalduko dugunez, hitz eratorrien definizioak eta *EuskalWordNet*en bitartez beste hizkuntzetako hitzekin dugun lotura erabiliko ditugu adiera erabakitzeko, eta V.7.2. atalean ikusiko dugunez, errorea %3 da.

Beste hizkuntzetako *WordNet*ak eraikitzeo garaian ere, hitzen arteko erlazioak markatzeko eratorpena erabili berri dute turkieraz eta arabieraz.

Bilgin *et al.*-ek (2004) turkieraren atzizki ez anbiguoekin lan egin dute eta horiek oinarriekin dituzten erlazioak zehaztu dituzte. Erlazio horiek kontzeptu mailakoak direnez, eta *EuroWordNet*ekin lotuta daudenez, lotuta dauden hizkuntza guztientzat dira baliagarri.

Black-ek eta El-Kateb-ek (Black eta El-Kateb, 2004) diotenez, arabierarentzat *WordNeta* sortzen ari dira eskuz. Arabierak eratorpen maila oso handia du, eta artikuluan dioten bezala, oso garrantzitsua da hitz eratorria eta oinarria lotzea. Arabieraren eratorpena, ordea, ez da hitz baten aurrean edo ondoren gertatzen, baizik eta aurrean, tartean eta atzean. Zenbaitetan, hitz baten erroa hiru kontsonante dira, eta hauen tartean jartzen diren bokalen arabera, esanahi aldetik ezberdinak diren hitzak sorten dira. Beraz, hauek egiten dutena da ingeleseko *WordNet*ean dauden kontzeptuak —*synsetak*— haiek sortutako *synsetekin* lotu, eta *synset* horietan dauden hitzak bere erroarekin lotuta daude —hala behar duenean—.

Santana *et al.*-ek (2004) espainierako aurrizkiekin egin dute lan. Espainierako 98 aurrizkirekin halako taxonomia eraiki dute, eta hauekin hitz eratorrien eta oinarrien arteko erlazio morfolexikoak lortu dituzte. Lan hau egin ahal izateko hainbat hiztegitatik ateratako lexikoarekin osatu dute corpusa (*DRAE*, *VOX*, *DUE*, *LAROUSSE*, *CALVE SM*, *ESPASA CALPE*, *JULIO CASARES*, *MANUEL ALVAR EZQUERRA*). Hauez gain, adjektiboetatik sortutako 1.240 izen berezi sartu dituzte —*marxista* modukoak—, eta aditz-partizipioetatik eratorritako beste 9.000 adjektibo. Denera, 134.109 forma kanoniko —dagoeneko eratorpena aplikatu zaion hitza, edo aplikatu dakiokena— dituzte. Beraz, nahiz eta corpusa eraikitzeke hiztegiak izan dituzten oinarri, guk lan egingo dugun modutik pixka bat urruntzen dira. Hala ere, azkeneko emaitza berdintsua dela pentsa dezakegu, hau da, eratorriaren eta oinarriaren arteko erlazioaren bat lortzen dutela.

Aurreko lanetan eratorpena eskuz landu dute, baina eratorpenari buruzko lan automatikoak ere egin izan dira.

Light-ek (1996) corpusak erabili ditu oinarri gisa, eta hitz eratorri baten ezaugarriak eratorri horrek duen atzizkiaren ezaugarrien arabera zehazten ditu. Lehenik eratorpen-atzizkiek sortzen dituzten eratorrien eta hauen oinarrien ezaugarriak aztertzen ditu —nolako kategoriak dituzten, batik bat—. Gero corpusera jotzen dute (*Brown* corpusa), eta bertako agerpenak kategoriarekin markatzen dituzte. Erabiliko dituzten eratorpen-atzizkiak ez-anbiguoak dira, eta oinarrian agertzen den kategoriari garrantzi handia ematen diote. Izan ere, kategoriatiketatzailak ebazten ez dituen anbiguotasunak alde batera utziko ditu. 18 eratorpen-atzizki eta -aurrizki aztertu ditu. 1,1 milioi hitzeko corpusean aplikatu du

eta 2.535 hitzentzat lortu dute informazioa. Emaitzei dagokienez, eratorriari ezaugarri semantiko egokia %76an eman diote, eta oinarriari %82an. Estaldura neurtzeko, *re-* aurrizkia aztertu dute eta %85eko estaldura lortu dute.

Penthedourakis-ek eta Vanderwende-k (1993) eta Peñas *et al.*-ek (2000) oinarri gisa egituratutako baliabide lexikalak erabili dituzte.

Penthedourakis-ek eta Vanderwende-k (1993) eratorriaren eta oinarriaren arteko erlazioak lortu nahi dituzte eta EBL batean sartu. Oinarria zein den %94,4an ezagutzen dute ondo, eta kasu polisemikoen adiera zein den %65ean desanbiguatzeko dute. Adierak desanbiguatzeko garaian, eratorriaren definizioa eta aurretik, beste lan batzuetan (Montemagni eta Vanderwende, 1992; Dolan *et al.*, 1993) definizio horietatik erauzitako erlazio lexiko-semantikoak hartzen dituzte kontuan; oinarria izan daitekeen hitza —lehenengo pausoa hitza bakarrik, eta ez honen adiera—, eta eratorriak dituen erlazio lexiko-semantikoak eratorri horien definizioetatik erauzten dituzte oro har, baina zenbait eskuz sortu dituzte. Ondoko pauso batean, sortu duten algoritmoa erabiliz, oinarriaren adiera zein den zehazten saiatzen dira.

Peñas *et al.*-ek (2000) ere, oinarria eta eratorriaren arteko erlazioa zehazteko garaian, hiztegiko definizioak erabili dituzte. Loturak egiteko sarrera-hitza eta definizioan agertzen den hitz bat erabiltzen dituzte, nahiz eta zenbaitetan zuzenezuzenean ez izan eratorriaren oinarrian dagoen hitza —*admirable* eta *admiración* lotu dituzte, nahiz eta *admiración* ez izan *admirableren* oinarria—. Lan honetan ez dute adiera desanbiguaziorik egiten, eta oinarrien adiera guztiak ontzat ematen dituzte. Honek %10eko errore-tasa sortzen die. Espainierako hitzen arteko erlazioak lortzeko, hiztegi elebakarrak erabili dituzte, baina horiek ez dituzte *EuroWordNetera* lotu, adiera mailako desanbiguaziorik egiten ez dutelako. Beraz, espainierako loturak lortu dituzte, baina ez dituzte beste hizkuntzekin lotu.

Guk eratorpenari V. kapitulua eskaini diogu. Eta eratorpena euskaraz aski aztertuta dagoenez, atzizki lexikalei buruzko informazioa eta eratorpenari berari buruzko informazioa nagusiki iturri hauetatik hartu dugu: Azkarate, 1990b; Azkue, 1923-1925; Ithurri, 1979; Lafitte, 1944; eta Villasante, 1974.

Eta sarrera-hitza alde batera utziz, definizio barruko hitzen arteko erlazioak lortzeko patroi lexikalei eta postposizioei edo preposizioei buruzko lanak ikusiko ditugu.

II.3. Patroiak eta postposizioak

Definizioan dauden hitzen arteko sare semantikoa zehazteko ahaleaginean, Vanderwende-ren (1995) eta Harabagiu-ren (1997) lanak izan ditugu oinarri. Vanderwende-k (1995) patroi jakin batzuei egiten die erreferentzia, eta Harabagiu-k (1997), nahiz eta patroiak bilatu, patroi horietan preposizioen interpretazioei ematen die garrantzia.

Vanderwende-k (1995) dioenez, definizioetan agertzen den sintaxiak garrantzia du, baina, zenbaitetan, sintaxiak baino garrantzi gehiago omen du lexikoak, eta hitz jakin batzuk dituzten patroiak errepikatzen direnez, horiek halako erlazio zehatzak sortzen dituzte definizio batean dauden bi hitzen artean. Ateratzen doazen informazioa EBLEan sartzen dute. Guk halako patroiei patroi lexikal deitu diegu (ikus VI.2. atala).

Harabagiu-ren (1997) helburua, berriz, *WordNet 1.5*en dauden erlazioak aberastea da. *WordNet*eko *synset* bakoitzak kontzeptu horren definizio modukoa dakar, eta definizio moduko honi *glosa* deitzen zaio. Glosetan dauden hitzen arteko erlazioak desanbiguatzeko saiatzen da, agertzen diren preposizioak erabiliz. Horretarako hitzen arteko erlazioak zeintzuk diren zehazten du eta hauek dira erabiltzen dituen erlazioak: *agent, object, instrument, beneficiary, purpose, attribute, reason, state, location, theme, time, manner*. Preposizioei balio batzuk ematen dizkie, eta, horien eta testuinguruaren arabera, hitzen arteko erlazioak desanbiguatzeko saiatzen da.

Harabagiu *et al.*-ek (1999) *ExtendedWordNet* proiektua azaltzen dute. Bertan diotenez, *WordNet*eko glosetan dauden hitzak sintaktikoki etiketatzen dituzte, glosen forma logikoa ematen dute, eta glosetan dauden izenen, aditzen, adjektiboen eta adberbioen adierak zehazten dituzte eskuz. Honek *synset*en arteko loturak handitzen ditu, eta kontzeptu batek dituen erlazioak handitzen ditu.

Tesi-lan honen VI. kapituluaren EHn topatutako hainbat patroi lexikalen berri eman dugu lehenik (ikus VI.2. atala), eta ondoren, euskarazko postposizioei interpretazioak emanez (ikus VI.5. eta VI.6. atalak), eta beste hizkuntzetako testu paraleloak —beste hizkuntzetako hiztegi elebakarretako pareko definizioak— erabiliz interpretazio horiek desanbiguatzeko saiatu gara (ikus VI.7. atala).

Baina gure helburua euskal postposizioak eta beste hizkuntzetako preposizioak lotzea, eta desanbiguazioa interpretazioen ebakiduren arabera egitea denez, arazo batekin egin dugu topo: postposizioen eta preposizioen interpretazioen zerrenda ez dago itxirik, eta ebakidura erabilgarria izan dadin, interpretazio-zerrenda bateratua behar dugu.

Preposizioen interpretazioei dagokienez, Dorren eta Habashen lanak (Dorr, 1993) eta (Dorr eta Habash, 2002), eta Canesson-ena eta St. Dizier-ena (2002) izan ditugu kontuan. Hauek Jackendoff-engandik (1983; 1990) jasotako egitura lexiko-kontzeptualak (*Lexical Conceptual Structure*, LCS) erabiltzen dituzte preposizioen interpretazioak zehazteko garaian —nahiz lanetik lanera baden diferentziarik—. Egitura lexiko-kontzeptual hauetan preposizioei buruzko informazio ugari ematen da —*primitiboa, mota, eremua, rol tematikoa*—. Guk ahalik eta preposizio edo postposizio gehien etiketatzea bilatzen dugu, eta, euskararentzat hasierako lan bat denez, interpretazio-etiketa nahikoa sinplea izatea bilatu dugu, Jensen-ek eta Nilsson-ek (2003) egiten duten modura. Izan ere, preposizioei buruzko hamaika azterketa ezberdin badira (ACL-SIGSEM, 2003), baina askotan oso deskribapen konplexuak izateaz gain, preposizio multzo txikientzat egindako deskribapenak dira. Jensen-ek eta Nilsson-ek (2003) ontologia bat osatu nahi dute, eta danieraren zenbait preposizio aztertzen dituzte haiek izan ditzaketen balizko *rol tematikoekin* etiketatuz. Hauek, guk egiten dugun moduan, kontzeptuen arteko erlazioak zehaztu nahi dituzte, eta erabiltzen dituzten *rolen* zerrendaren oinarria Fillmore-k (1968), Stockwell *et al.*-ek (1973), Somers-ek (1987) eta Madsen *et al.*-ek (2001) erabiltzen dutena da. Hauetan agertzen den zerrenda ondokoa da: *agent, cause, caused-by, patient, part-of, comprise, by means of, source, purpose, location, temporality, material, characterize*.

Gure helburua euskarazko postposizio bakoitzari interpretazio multzoa ematea da, eta lan hori egin du —zuzen-zuzenean izan ez bada ere— Aldezabal-ek (2004) bere tesi lanean. Aldezabalek (2004) euskarazko 100 aditzen argumentu-egiturak aztertu ditu, eta, ondorioz, euskarazko postposizio-atzizki zenbaiti interpretazio semantikoak esleitu dizkie. Guk, euskarazko postposizio-sintagmen interpretazioak desanbiguatzeko beste hizkuntzak erabiliko ditugunez, Aldezabalen (2004) interpretazioak hartu ditugu oinarri gisa eta Dorr-en eta Habash-en lanekin (Dorr, 1993; Dorr eta Habash, 2002; Habash, 2002; Habash eta Dorr, 2003) lotu ditugu.

Dorr-en eta Habash-en azterketetan ingelesezko eta espainierazko preposizio multzo handiari buruzko informazioa dago, eta gure helburua ahal den preposizio eta postposizio gehien interpretatzea denez, gero eta datu gehiago, hainbat eta hobeto.²⁴

Euskarazko postposizio konposatuei buruzko informazioa ez da postposizio-atzizkiei buruzkoa bezain zabala, eta hauek multzokatzeko lana gure esku egon da, nahiz eta Pérez Gaztelu *et al.*-en (2004) lanean hainbat informazio topatu dugun.

Aurrekariekin amaituta, hiztegiaren aurreprozesua eta azterketa estatistikoa azaltzen duen kapituluari ekingo diogu.

²⁴ Erabilitako perposizioen zerrenda Maryland-eko Unibertsitateko CLIP laboratorioran landutakoa izan da, eta bertan egindako egonaldian ezagutzeko aukera izan nuen.

Ama, eskerrik asko

gogo	A1	iz.	Giza buru ahalmenen egoitza edo iturburutzat hartzen den zera.
eta	A1	junt.	Maila edo mota berdineko perpausak edo osagarriak lotzen ditu, gehitze bat, harreman bat edo, adierazten duela.
gorputz	A1	iz.	Izaki bizidunen materiazko osagarria.
ZILBOR HESTE	RA0	iz.	Karena eta umekia lotzen dituen heste modukoa, jaiotzean ebakitzen zaiona.

Gogo eta gorputzaren
zilbor hesteak:
bi kate.

Bi kate,
biak ebaki beharrezkoak:
bat gorputzaren bizitzeko,
bestea gogoaren askatzeko.

Adizu, ama badakizu
sortze berean
zuri gorputzez lotzen ninduen zilbor-hestea
sendagileak nola eten zuen.
Lehenengo eten beharra izan zen:
bizitzaren bizitzeko lehen legea.

Hautzaroan titia eman zenidan,
mutil-zaroan eskoletara bidali
bizitzarako armak hartzearren.

Dena eskertzen dizut
duen balore guztian,
nik ahal dutan neurrian
bainan, gaztaroan amatxo maite!
Ohar zaitezte benetan maite nauzun ama
izan nahi baduzu
eta nik zu maitatzea,
ni naizena
nik izatea nahi dutana izatera
utzi behar nauzula,
hau baita bide bakarra
biok alkar sanoki maitatzeko,
biok alkar osoki eta betikoz maitatzeko,
zuk zure nortasunaz,
nik nereaz,
zuk zure nortasunaz,
nik nereaz.

Ama!
Eten dezagun
lehen gorputzarena bezela
orain, gogoaren zilbor-hestea.
Ama!
Gogoaren zilbor-hestea.

(J. Artze)

III. Hiztegiaren aurreprozesua, Murriztapen Gramatikak eta azterketa estatistikoa

III.1. Sarrera

Kapitulu honetan aipatuko ditugu, alde batetik, iturri-hiztegia esku artean hartzen dugunetik bertatik informazioa erazten hasi arte egin dugun prozesu osoa —aurreprozesua, alegia—; bestetik, erazketa egiteko garaian erabili dugun gramatika zein den eta zein ezaugarri dituen; eta, azkenik, hiztegian agertzen diren hainbat elementuren azterketa estatistikoa.

Aurreprozesuari dagokionez, kontuan izan behar da hasiera batean *Euskal Hiztegiak* (EH) paperezko formatua zuela eta pertsonen erabilerarako pentsatutako produktua zela. Bazen makinan irakurtzeko moduko bertsiorik, baina bertan zegoen informazioa egituratu gabe zegoen, erabilitako formatuak —*Microsoft Word*— ez duelako halakorik egiteko aukerarik uzten. Beraz, eta makinentzat erabilgarri izan dadin, egin beharreko lehenengo lana, makinaren bitartez hiztegia landu ahal izateko formatu egituratu batera aldatzea izan da (Arriola, 2000). Aukeratutako formatua TEI (*Text Encoding Initiative*) (Sperberg-McQueen eta Burnard, 1994) ekimenak gomendatutakoaren arabera kodetutakoa izan da. TEI ekimenaren gidalerroak erabiliz, hiztegi osoaren egitura oso garbi izango dugu, eta makinek unean-unean behar diren eremuak berehala ezagutzeko aukera dute. Guretzat oso interesgarria da aukera hau; izan ere, ikusiko dugun bezala, sarrera-hitz bakoitzak hainbat informazio izango du, baina guk erabat beharrezko ditugun eremuak besterik ez ditugu hartuko.

Ikusiko dugunez, eremu hauek *sarrera-hitza*, *kategoria*, *adiera-zenbakia*²⁵ eta *definizioa* dira.

Hiztegi osoa kategorien arabera banatu dugu, eta hauen arabera multzoak egin ditugu: *izenak*, *aditzak*, *adjektiboak*, *izenak* eta *adjektiboak* direnak, *azpisarrerak*, eta *bestelakoak*. Sarrera-hitz bakoitzaren definizioaren analisi morfologikoa egin dugu, eta baita sarrera-hitzaren beraren analisi morfologikoa ere.

Sarrera-hitz zenbaiten azpian *azpisarrerak* ditugu. Eta, nahiz eta hauen artean agertzen diren elementuak aukeratutako kategorietakoak izan, bereziak direnez beste multzo batean jarri ditugu. Izan ere, askotan ez dute kategoriarik jasotzen, eta modu berezian aztertu behar izan ditugu.

Aurreprozesu osoa azaldu ondoren, informazioa erauzteko *Murriztapen Gramatika* (Karlsson *et al.*, 1995; Tapanainen, 1996) erabili dugunez, honi buruzko hainbat ezaugarri eman ditugu. Gramatika honek testuingurua hartzen duenez kontuan, oso egokia da definizioetan genusak, sinonimoak eta erlature bereziak ezagutzeko; helburu den elementua aurretik eta atzetik dituen elementuen arabera markatuko dugu.

Hiztegian zein hitz ditugun, nolako definizio-patroiak ditugun, eta hiztegiko elementuen kopuruak zeintzuk diren jakin ahal izateko azterketa estatistiko zenbait oso garrantzitsuak dira. Atal honetan agertuko dira hiztegiak dituen hitz-formen kopurua —kategorien arabera banatuta—, hiztegian agertzen diren hitzen maiztasuna eta *token*-segida nagusiak zeintzuk diren.

Kapitulu honen hezurdura honokoa duzue: III.2. atalean *Euskal Hiztegiaren* egitura orokorra ikusiko dugu; III.3. atalean hiztegia makinek irakurtzeko modukoa bihurtuko dugu; III.4. atalean lanerako erabili dugun bertsioa zein den aurkeztuko dugu; III.5.ean definizioen analisi morfologikoaren berri emango dugu; III.6.ean sarrera-hitz eratorrien analisiaren berri emango dugu; III.7.ean erlazioak erauzteko erabili dugun gramatikaren aurkezpena egingo dugu; III.8.ean hiztegiaren analisi estatistikoa egiterakoan agertzen diren elementuen maiztasunak paratu ditugu; eta, amaitzeko, III.9. atalean, kapitulu honen ondorioak bildu ditugu.

²⁵ Adiera-zenbakiaren eremu berean sartuko dugu homografo-zenbakia, nahiz eta paperezko bertsioan bi hauek ez elkarrekin azaldu.

III.2. EHren egitura orokorra

EH (Sarasola, 1996) euskara batuaren biltegi gaurkotua da. Euskarazko hiztegi elebakarra da, orokorra, tradizio literarioan oinarritutakoa, eta gaur egun lexikoa zertan den jakiteko erreferentzia nagusia. Hiztegi honen eskuz errebisatutako TEI bertzioak 33.124 sarrera ditu; adierak, berriz, 53.961 dira —hemen adierak eta ñabardurak daude sartuta—. Azpisarrerak, berriz, 3.209 dira. Kopuruen azterketa zehatzagoa III.8. atalean egingo dugu.

Hona hemen sarrera-hitz baten adibidea paperezko hiztegian agertzen den bezala:

irekidura. *iz.* (1977; *idekidura* 1985). Batez ere ipar.
Pareta, horma... batean gertatzen den gun e irekia. *ik.*
irekigune. *Berinazko irekidura bat teilen artean zuen*
gelak. Etxeko irekidura guztiak ongi hetsiak izanagatik.

Sarrerak honoko eremuak ditu (Arriola *et al.*, 1996)

- Sarrera: letra lodiz agertzen da: *irekidura*.
- Kategoria: eremu honetan kategoria gramatikalak nahiz ezaugarri morfologikoak agertzen dira. Adibidean, *iz.* izen kategoriaren laburdura dugu.
- Data: sarreraren agerpen-data hiztegi edo testu literario batean. Hiztegi batean edo aipamen gisa agertzen denean, datak *izartxo* (*) darama; testu batean agertutako lehen aldia adierazten badu, aldiz, ez. Hautatutako adibidean, testu batean agertutako lehen aldia adierazten du: 1977.
- Aldaera(k) eta data: sarrera-hitzak dituen aldaerak ageri dira zenbaitetan —agertzen direnetan letra etzanez—, eta hauen agerpen-data. Adibidean, *idekidura*, 1985: *idekidura* aldaera lehen aldiz 1985ean agertu dela adierazten du.
- Laburdura(k): erabilerari dagozkionak, tematikoak, hizkuntz mailakoak, euskalki-argibideak, eta abar. Adibideko batez ere ipar. laburdurak Ipar Euskal Herrian erabiltzen den hitza dela adierazten du.
- Definizioa: adiera bakarreko sarreretan definizio-testuak osatzen du eremu hau. Adibidean, Pareta, horma... batean gertatzen den gun e irekia. Adiera bat baino gehiago dagoenean, aldiz, bereizgarri desberdinak erabili ohi dira definizioak banatzeko, edo zenbait ñabardura islatzeko. Hiztegi honetan

hainbat ikur erabili ohi dituzte adiera multzoak, adierak eta ñabardurak bereizi ahal izateko.

- Erlazioa(k): eremu honetan *sinonimia* edo *antonimia* bezalako adiera-erlazioak adierazteko kode lexikografiko zenbait daude, hala nola, *ik.*, eta *ant.* Adibidean, *ik. irekigune dugu.*

Oro har, *ikus* honek adieraziko digu sarrera-hitza eta zehatz-mehatz adierazten zaiguna erlazonatuta daudela. Guk, halako marka dugunean, pentsatuko dugu *sinonimoak* direla,²⁶ ia gehienetan hala delako, nahiz eta gerta daitekeen *ik.* ikur horrek sinonimo peto ez den hitz bati egitea erreferentzia. Halako kasuak ditugu *nabar* eta *golde* sarrerak.

2 nabar. *iz.* (...) || Golde mota batzuetan, lurra ebakitzen duen hortza, lurra iraultzen duen golde muturraren aurrean kokatzen dena; beste batzuetan, lurra iraultzen duen hortza. *ik. golde.* (...)

golde. *iz.* (*1562, 1571) **1.** Lurra lantzeko lanabes horzduna, idi, zama abere edo traktore batek herrestan eramaten duena eta laborariak atzetik gidatzen duena. *ik. 2 nabar.* (...)

- Adibidea(k): testu etzana erabili da hauek bereizteko, eta definizioaren ondoren agertu ohi dira: Berinazko irekidura bat teilen artean zuen gelak. (...)
- Azpisarrera(k): maiuskulaz daude, eta sarreratzat har daitezke; hala ere, kontuan izan behar da beti beste sarrera baten barruan daudela. Katetoria zehatzik paratzen ez zaionean pentsatu dugu sarrera-hitzaren katetoria bera izango duela.

Goiko adibidean ez dugu azpisarrerarik, baina hona *arbola* sarreraren azpisarrera paperezko bertsioan agertzen den moduan bere agerpen-data eta definizioarekin.

-ARBOLA IPURDI. (1966). Epaitondoa.

Eremu hauek guztiak paperezko bertsioan inplizitu daude, eta begiari deigarri zaizkion metodoen bitartez —letra mota ezberdinak, kasu— ezberdintzen dira. Kontua da, paperean inplizitu dagoen hori, makinari esplizitu egin behar zaiola unean-unean jakin dezan ikur bakoitza zein eremuri dagokion. Horretarako, aurretik

²⁶ *Petit Robert* (Robert, 1990) hiztegian ere erlazonatutako hitzak modu honetan markatzen dituzte.

aipatu ditugun TEI gidalerroak erabili ditugu, eta, labur bada ere, horiek azalduko ditugu.

III.3. TEI ekimena

TEI (*Text Encoding Initiative*) testuak kodetzeko modu berezia gomendatzen duen ekimena da (Sperberg-McQueen eta Burnard, 1994). Ekimen honek erabiltzen duen markatze-sistema SGML (*Standard Generalised Markup Language*) da, eta honoko abantailak ditu: argitasuna, sinpletasuna, zehaztasuna, eta nazioarteko estandar gisa onartua izatea.

Ekimen honen gidalerroak testu-corpusak markatzeko erabiltzen dira, eta *Association for Computational Linguistics*, *Association for Literary and Linguistic Computing* eta *Association for Computers and the Humanities* elkarteek bultzatu dute. Helburua, inplementazio estandarrak lortzea da, makinak irakur ditzakeen testuen arteko elkartrukatzea ahalbidetzeko. TEIren ekarpena da arau zehatz batzuk ezartzea testuak markatzeko estandar hau nola erabili erakusteko.

Hona irekidura sarrera TEIz kodetuta:

```
<entry>
  <form><orth>irekidura27</orth></form>
  <GramGrp><pos>iz.</pos></GramGrp>
  <usg type="time">1977</usg>
  <form type="variant"><orth>idekidura</orth><usg
    type="time">1985</usg></form>
  <usg type="geo">Batez ere Ipar.</usg>
  <def>Pareta, horma... batean gertatzen den gune
    irekia.</def>
  <xr type="syn"><lbl>ik.</lbl><ref>irekigune</ref></xr>
  <eg><q>Berinzako irekidura bat teilen artean zuen gelak.
    Etxeko irekidura guztiak ongi hetsiak
    izanagatik.</q></eg>
  <sense n="n1">
    <eg><q>Ahoko irekidura.</q></eg>
  </sense>
</entry>
```

Elementu edo eremu baten hasiera etiketatzeko, angeludun parentesi baten barruan jarritako marka erabiltzen da:

²⁷ Testu diren elementuak beltzez jarri ditugu etiketa direnetatik errazago bereizteko, baina benetako fitxategietan ez dira hala agertuko.

<entry>: sarrera eremua hor hasten da
Amaiera markatzeko, berriz, hasierako marka bera jartzen da, baina aurretik *barra*
duela:

</entry>: sarrera eremua hor amaitzen da

Hona irekidura sarreraren azalpena:

- Sarrera-hitza (*orth*) irekidura da.
- Katetoria (*pos*) izena da.
- Erabilita agertzen den lehen aldiko data (*usg type="time"*) 1977 da.
- Aldaera gisa (*form "type="variant"*) irekidura agertzen da 1985 urtean (*usg type="time"*)
- Erabilerari dagokionez (*usg type="geo"*), adierazten zaigu batez ere Iparraldean erabiltzen dela.
- Definizioztat (*def*) hartuko dugun deskribapena honokoa dugu: Pareta, horma... batean gertatzen den gune irekia.
- irekigune hitzarekin zerikusia (*ref*) duela adierazten zaigu.
- Ondoren adibidea agertzen da (*eg*): Berinazko irekidura bat teilen artean zuen gelak. Etxeko irekidura guztiak ongi hetsiak izanagatik.
- Azkenik adierazten da baduela ñabardura bat (*sense n="nl"*), eta horren adibidea (*eg*) dugu: ahoko irekidura. Kasu honetan, ñabardura honek ez du definiziorik, eta guk ezingo dugu bertatik informaziorik erauzi.

Hasiera batean TEIra bihurtze-prozesu hau automatikoki egin zen (Arriola *et al.*, 1997), eta definizioaren eremu garrantzitsuenak —*sarrera*, *kategoria*, *definizioa*, *adibidea*, eta *azpisarrera*— ondo ezagutzen eta markatzen ziren %97ko doitasunarekin. Hala ere, eta hiztegiaren markaketa zehatzagoa lortzeko, egindako lan automatikoa oinarri hartuta, eskuzko zuzenketa egin da (Arregi *et al.*, 2002).

Hiztegiko elementu guztiak TEIren gidalerroei esker markatuta izan ondoren, behar ditugun eremuak hautatu eta lanerako bertsioa sortu dugu.

III.4. Hiztegiaren bertsio tabulatua

Atal hau bitan banatu dugu: batetik sarrera-hitz batek dituen eremuetatik zeintzuk aztertuko ditugun ikusiko dugu, eta, bestetik, lanerako erabilitako fitxategiei zein egokitzapen egin dizkiegun ikusiko dugu.

III.4.1. Beharrezko zaizkigun eremuak

Egin nahi dugun lanerako ez ditugu behar hiztegiko sarrera batean agertzen diren eremu guztiak. Lanerako interesgarri zaizkigun eremuak lau dira: *sarrera-hitza*, *adiera-ikurra*, *kategoria*, eta *definizioa*.²⁸

irekidura A0 iz. Pareta, horma... batean gertatzen den
gune irekia.

Oraintxe komentatu ditugun lau eremu horiek ez dira maila berekoak. Bi *eremu irekiak* dira, eta, beste biak *eremu itxiak*; hau da, sarrera eta definizio eremuetan ia edozer gauza ager daiteke, baina kategoria eta adiera-ikurra eremuetan ager daitezkeen elementuen kopurua itxia da.

Kategoriari dagokionez, 4. taulan ditugu hiztegian topatu ditugunak.

Laburdura	Adierazia	Kopurua	Laburdura	Adierazia	Kopurua
ad.	aditza	6.287	izord.	izenordaina	61
adlag.	adizlaguna	2.924	junt.	juntagailua	70
banatz.	banatzailea	1	lok.	lokailua	15
determ.	determinatzailea	6	mugatz.	mugatzailea	2
erak.	erakuslea	20	ord.	ordinala	34
interj.	interjekzioa	42	posp.	postposizioa	8
iz.	izena	22.603	pred.	predikatua	20
izlag.	izenlaguna	468	zenbtz.	zenbatzailea	151
izond.	izenondoa	4.135			

4. taula. Hiztegian ditugun kategorien laburdurak, haien adieraziak eta kopuruak.²⁹

Gure lanerako kontuan izango ditugunak: izenak, aditzak eta adjektiboak —izenlagunak eta izenondoak— dira.

Sarrera-hitz baten kategoria-eremuan, zenbaitetan, kategoria bat baino gehiago agertzen da. 5. taulan dago konbinatuta agertzen diren kategoria horien zerrenda.

²⁸ Modu honetan emango ditugu tesi-txostenean zehar agertuko diren hiztegiko sarrereren adibideak.
sarrera-hitza adiera-ikurra kategoria definizioa

²⁹ Kategoriarik ez duten hitzak 520 dira.

Laburdura	Kopurua	Laburdura	Kopurua
adlag.#iz.	39	iz.#izlag.	195
adlag.#iz.#izond.	14	iz.#izond.	869
adlag.#izlag.	4	izord.#adlag.#junt.	4
adlag.#izond.	19	ord.#iz.	13
adlag.#lok.	2	pred.#iz.	5
adlag.#part.	1	pred.#izond.	7
adlag.#pred.	9	zenbtz.#izlag.	1
adlag.#zenbtz.	1		

5. taula. Hiztegian agertzen diren kategoria-konbinazioak eta kopurua.

Kategoria-bikote eta –hirukote hauek ikusita, *izen* direnak eta *adjektibo* ez direnak *izenen* artean bildu ditugu; *adjektibo* direnak eta *izen* ez direnak, *adjektiboen* artean; eta *izen* eta *adjektibo* direnekin multzo berezia osatu dugu. 5. taulan agertzen direnetatik, *izen* edo *adjektibo* marka ez dutenak —adlag.#lok., adibidez— ez ditugu aztertuko, eta guztiak *bestelako* gisa sailkatu ditugu.

Adiera eremuan, berriz, honokoak topa ditzakegu: *letrak* eta *zenbakiak*.³⁰ Letrei dagokienez, honokoak izan ditzakegu: *H* (homografo-adierazlea), *M* (adiera multzoa), *A* (adiera-adierazlea), *N* (ñabardura-adierazlea), *R* (azpisarrera-adierazlea), eta *X* (azpisarreraren adieraren azpiadieren adierazlea). Hauetako hiruk (*H*, *A*, eta *N*) ondoren zenbaki bat dute, eta hori da homografo-, adiera-, ñabardura-zenbakia. Multzoa adierazten duen *Maren* ondoren eta azpisarreraren adieren azpiadiera diren *Xen* ondoren dagoen letra minuskulak adieraziko du zein multzori dagokion eta azpisarrera horren adieraren zein azpiadiera den.

abendu	H1A1	iz.	Urtearen hamabigarren eta azken hila, hogeita hamaika egun dituen.
abendu	H1A2	iz.	Eliz urtean, Eguberri aurreko lau asteek osatzen duten denbora.
abendu	H2A0	iz.	Mirua.

Hemen dugu *abendu* sarreraren adibidea. Hitz honek bi homografo (*H*) ditu, *abendu-1* eta *abendu-2*. Lehenengoak bi adiera (*A1* eta *A2*) ditu, hila eta denbora; eta bigarrenak adiera bakarra (*A0*), *mirua* (*hegaztia*). Ikus daitekeenez, homografo batek adiera bat baino gehiago izan ditzake, baina baita adiera multzo bat baino gehiago ere.

³⁰ Gure bertsiotabulatuan agertuko diren ikurrak dira hauek. Paperezko bertsiotan beste modu batean agertzen dira.

zain	H1Ma	iz.	Sustraia, erroa, bereziki azalekoa.
zain	H1MbA1	iz.	Odola dabilen hodia.
zain	H1MbA1N1	iz.	Odola ehunetatik bihotzera itzularazten duen hodia.
zain	H1MbA2	iz.	Zuntz sorta nakar kolorea, giharra hezurri itsasteko egitekoa duena.
zain	H1MbA2N1	iz.	Nerbioa.
zain	H1MbA3	iz.	Zerbaiten azalean gertatzen den beste koloreko bateko zerrenda mehea.
zain	H2A0	iz.	Zaindaria.

zain hitzak bi homografo (*H*) ditu. Bigarren homografoa (*H2*) zaindaria (*santua*, *Ama Birjina* edo *pertsona*)³¹ hitzaren *sinonimoa* da. Lehenengo homografoak (*H1*) bi adiera multzo (*M*) ditu: lehenak (*Ma*) sustrai eta erro ditu sinonimotzat, eta bigarrenak (*Mb*) hiru adiera (*A*) ditu: lehen adiera (*A1*) odola dabilen hodia da, eta honen ñabardura (*A1N1*) izango da odola ehunetatik bihotzera itzularazten duena; bigarren adiera (*A2*) zuntz sorta dugu, eta honek ere ñabardura bat (*A2N1*) du, nerbioa; hirugarren adiera (*A3*) zerrenda mehea da.

zain hitzaren adibidean ikus dezakegunez, adiera multzoek hainbat adiera izan ditzakete, eta adierak, era berean, hainbat ñabardura.

Hala ere, kasu gutxi batzutan, adiera multzo batek izan ditzake ñabardura (*N*) diferenteak. Oro har, adiera multzo baten ondoren adiera (*A*) agertzea da ohikoena.

bero	Ma	iz.	Materiaren egoera, temperatura gora batean gauzatzen dena; egoera horretan dagoen zerbait ukitzeak eragiten duen sentipena.
bero	MaN1	iz.	Beste energia moten eraldaketatik datorren energia, bere gehikuntzak temperatura igotzea dakarrena, eta aldaketa ezaugarriak eragiten dituena gorputzetan.
bero	MaN2	iz.	Arreske dagoen ugaztun emearen egoera.
bero	Mb	izond.	Gorputzarena baino temperatura garaiagoa duena; bero sentipena eragiten duena.
bero	MbN1	izond.	Gartsua, gauzak gogoz hartzen edo egiten dituena.
bero	MbN2	izond.	
bero	MbN3	izond.	Pertsonez mintzatuz, erraz sutzen dena.

³¹ Ez dakigunez zaingariren zein adiera den zain horren sinonimoa, eta zaingarik bi adiera dituenaz, lehena *santua* edo *Ama Birjinari* dagokiona, eta bigarrena *pertsonari* dagokiona, pentsatuko dugu bi adierei egiten diela erreferentzia.

beroren kasuan, ikus dezakegunez, bi adiera-multzo (M) ditu, bata (Ma) *izen* kategoria duenari dagokiona (egoera, sentipena), eta bigarrena (Mb) *adjektibo* kategoria duenari dagokiona. Lehenak (Ma) bi ñabardura ($N1$ eta $N2$) ditu, energia moten eraldaketatik datorren energia **eta** arreske dagoen ugaztun emearen egoera; bigarrenak (Mb), hiru ñabardura ($N1$, $N2$ eta $N3$) ditu, gartsua, gauzak gogoz hartzen edo egiten dituen ($N1$) **eta** pertsonen mintzatuz, erraz sutzen dena ($N3$). $N2$ k ez du definiziorik, eta gure azterketan definizioak aztertzen ditugunez, ez da gure fitxategian agertuko.

Adieren kasuan, ondoren zer bait agertzekotan ohikoena izango da ñabardura (N) agertzea, zain hitzaren kasuan ikusi dugun bezala, baina, kasu urri batzutan, azpisarreraren ñabardura-markak (X) agertzen dira —normalean azpisarreraren azpiadieren adierazleak izan ohi dira azpiñabardura hauek—.

ituntze A1Xa iz. Aholkua.

ituntze A1Xb iz. Elkar aditzea.

Adiera bakarreko hitzetan $A0$ marka gehitzen zaie, jakiteko adiera bakarrekoak direla. Adiera bat baino gehiago dutenetan $A1$, $A2$, eta abar agertuko dira.

ziza A0 iz. Perretxikoa; bereziki, *Tricholoma*, *Lyophyllum* eta *Rhodapaxillus* jeneroetakoa.

zurruzero A0 izond. Edalea, zurrut zalea.

Kasu honetan, bai ziza *izena* eta bai zurruzero *adjektiboa* adiera bakarreko hitzak dira.

Azpisarrerak (R) ere badira hiztegian, eta hauek hainbat adiera izan ditzakete. Adiera hauek, X batekin markatzen dira eta honek adierazten du azpisarrera horren adiera dugula.

AUKERAN RA0Xa iz. Une edo era egokian, gogara, erara.

AUKERAN RA0Xb iz. Hautatzeko eran, ugari.

AUKERAN RA0Xc iz. Aukera badaiteke; (ohi edo espero denarekin) alderatuz.

aukeran azpisarrerak hiru adiera (X) ditu: (Xa) une edo era egokian, gogara, erara; (Xb) hautatzeko eran, ugari; **eta** (Xc) aukera badaitekeren pareko dena.

Azpisarreraren kategoria ez da zehatz-mehatz hiztegian zehazten eta sarrera-hitzaren kategoria heredatzen dutela pentsatu dugu. Baina heredatutako kategoria hori ez da beti kategoria zuzena izango —aurreko kasuan, adibidez, aukeran azpisarrerak *iz.* kategoria heredatu du, baina ez da zuzena—. Beste kasu askotan, azpisarrera hitz anitzeko aditza izango da —hauek izen kategoriako hitzen barruan agertzen dira maiz—, eta beste askotan adizlagun bat. Dagoeneko komentatu dugun bezala, hauekin multzo berezia egingo dugu, aparte aztertu eta definizio-patroiaren bitartez zein kategoriatakoak diren ezagutzen saiatuko gara.

III.4.2. Fitxategien egokitzapena

Lanerako zein eremu erabiliko ditugun azaldu ondoren, fitxategiari beste aldaketa bat egin behar zaio gero aplikatuko zaizkion tresna guztiak modu egokian lan egin dezaten. Lanerako fitxategietan zehatz-mehatz agertuko da sarrera-hitza zein den, adiera-ikurra zein duen eta zein kategoria duen. Datu hauen ondoren definizioa izango dugu:

```
@@lema           irekidura
@@Adiera_string A0
@@Kategoria      iz.
Pareta, horma... batean gertatzen den gune irekia.
```

Analizatzaile morfologikoak analisiak egiteko garaian arazorik izan ez dezan, hiztegi-sarrera bakoitzean ditugun *lema*, *adiera-ikurra* —adibidean, *Adiera_string*—, eta *kategoria* eremuei aurretik ikur berezi batzuk jarriko dizkiegu: @@. Honela, @@ duten lerroei ez zaizkie gero definizio-eremuari aplikatu beharreko analisi guztiak aplikatuko. Hala ere, tesi-txosten honetan sarreraren adibideak orain arte bezala —@@rik gabe, alegia— ematen jarraituko dugu:

```
irekidura A0      iz. Pareta, horma... batean gertatzen den
                    gune irekia.
```

Ikur berezi hauek jartzen ditugun prozesu berean sarrera-hitz guztiak kategoriaren arabera bereiziko ditugu. Sarrera-hitz guztiak duten kategoriaren arabera banatzea garrantzitsua da IV. kapituluan ikusiko dugun bezala kategoria bakoitzean hitzak definitzeko modu ezberdinak erabiltzen direlako. Alde batetik *izenak* jarriko ditugu, bestetik *aditzak* eta bestetik *adjektiboak*. Hiru kategoria hauek izango ditugu aztergai. Baina dagoeneko azaldu dugun bezala, horiezaz gain beste bi multzo sortuko ditugu:

- Hiztegian *izen* eta *adjektibo* gisa agertzen direnak. Hauen definizio mota aztertu nahi dugu, eta erabaki —ahal dela, behintzat— zein kategoriatako definizioa eman dion lexikografoak.
- *Azpisarrera* direnak: hauek askotan —aurretik ikusi dugun bezala— kategorია okerra heredatzen dute, eta euren kategoría zuzena zein den definizioen bitartez ezagutzen saiatuko gara —izen, adjektibo edo aditz direnentzat, behintzat—.

Bestelako sarrerei dagokienez —*adizlagunak*, *banatzaileak*, *determinatzaileak*, *erakusleak*, *interjekzioak*, *izenordainak*, *juntagailuak*, *lokailuak*, *mugatzaileak*, *ordinalak*, *postposizioak*, *predikatuak*, eta *zenbatzaileak*— multzo berean bilduko ditugu —*bestelakoak*—, baina oraingoz ez dugu hauekin lanik egingo. Hauen definizioak nahikoa bereziak dira, eta askotan metalengoaia erabiltzen da.

Behin hiztegian definizioa duten sarrera, adiera, eta azpisarrera guztiak modu berezi honetan antolatu ondoren, eta multzotan berezi ondoren, definizioen analisi morfologikoa egiteari ekingo diogu.

III.5. Definizioen analisi morfologikoa

Behin aurreko guztia egin ondoren, EHn dauden erlazio lexiko-semantikoak erauzi ahal izateko, definizioetan agertzen diren unitateen tokenizazioa,³² analisi morfosintaktikoa eta etiketatzea egin behar dira.

Analisi hau egin ahal izateko, Ixa Taldeak garatutako *Morpheus* analizatzaile morfologikoa (Urkia, 1997; Alegria *et al.*, 1996) erabili dugu. Analizatzaile morfologiko honen oinarrian *Euskararen Datu-Base Lexikala* (EDBL)³³ dago (Aduriz *et al.*, 1998; Aldezabal *et al.*, 2001).

Hona irekidura sarreraren definizioaren analisi morfologikoa, baina adibidea ikusi aurretik hona analizatzaile morfologikoak ematen duen emaitzaren azalpen txiki bat. irekidura sarrera-hitzaren definizioa Pareta, horma... batean gertatzen den gure irekia da. Analizatzaileak definizio hori hartu eta analizatu egiten du. Paretari dagokionez, hiru analisi ematen ditu; hiruak *izen arruntak* dira

³² *Tokenizatzea* definizioetan agertzen diren elementu guztiak markatzea eta bereiztea da. Definizioetan ez ditugu hitz-formak bakarrik izango, puntuazio-markak, parentesiak eta halakoak ere badaude, eta horiek guztiak bereizi behar dira.

³³ Egunez egun handitzen ari den datu-basea da eta tesi honen garapenean 3.3.6 berstsioa erabili dugu.

(IZE ARR), amaierako *a berezkoa dute* (AORG), eta *hasiera maiuskula da* (HAS_MAI). Baina lehenak *kasu gramatikal absolutiboa* (DEK ABS) du eta *mugagabea* (MG) dago; bigarrenak ere *kasu gramatikal absolutiboa* du (DEK ABS) eta *singularra eta mugatua da* (NUMS MUGM); hirugarrena *ez dago deklinatuta* (DEK ZERO).

```

/<@@lema irekidura>/<ID>/
/<@@Adiera_string A0>/<ID>/
/<@@Kategoria iz.>/<ID>/
"<Pareta>"
    "pareta" IZE ARR DEK ABS MG AORG HAS_MAI
    "pareta" IZE ARR DEK ABS NUMS MUGM AORG HAS_MAI
    "pareta" IZE ARR ZERO AORG HAS_MAI
"<,>"
    PUNT_KOMA
"<horma>"
    "horma" IZE ARR DEK ABS MG AORG
    "horma" IZE ARR DEK ABS NUMS MUGM AORG
    "horma" IZE ARR ZERO AORG
    "hormatu" ADI SIN AMM ADOIN NOTDEK
"<...>"
    PUNT_HIRU
"<batean>"
    "bat" DET DZH NUMS DEK NUMS MUGM DEK INE
    "bat" IZE ARR RARE+ DEK NUMS MUGM DEK INE
    "bate" IZE ARR DEK NUMS MUGM DEK INE
    "batean" ADB ALGARR
"<gertatzen>"
    "gertatu" ADI SIN AMM ADIZE DEK INE
    "gertatu" ADI SIN AMM ADOIN ASP EZBU NOTDEK
"<den>"
    "izan" ADL A1 NOR NR_HU ERL MEN ERLT
    "izan" ADL A1 NOR NR_HU ERL MEN MOS
    "izan" ADL A1 NOR NR_HU ERL MEN ZHG
    "izan" ADT A1 NOR NR_HU ERL MEN ERLT
    "izan" ADT A1 NOR NR_HU ERL MEN MOS
    "izan" ADT A1 NOR NR_HU ERL MEN ZHG
"<gune>"
    "gune" IZE ARR DEK ABS MG
    "gune" IZE ARR ZERO
"<irekia>"
    "ireki" ADI SIN AMM PART DEK ABS NUMS MUGM
"<$.>"

```

Ikusi dugun analisia anbigua da, hau da, hitz batek izan ditzakeen balizko interpretazio guztiak daude. Adibidez, batean elementuak hainbat lema izan ditzake: bat, bate, eta batean. bat *izena* eta *determinatzailea* dugu, eta analizatutako hitza hauen forma inesiboa da; bate *izena* dugu, eta analizatutako hitza *izen* honen forma inesiboa da; eta batean, bere horretan, *adberbioa* da. Analisiak desanbiguatuta

baleude, determinatzailearen irakurketa bakarrik izango genuke, baina ondoren ikusiko dugun arrazoiengatik analisi anbiguoaren gainean lan egiten dugu:

- Azterkizuna definizioak direnez, kontuan izan behar dugu ez direla esaldi osoak izaten —izen eta adjektiboen definizioak batik bat—. Esaldi osoak sortzeko ahalegina egin genuen da partikula definizio bukaeraren aurretik txertatuz, eta ondoren desanbiguatuz, baina erauzketa-emaitez aurretik lortzen genituenak baino kaskarragoak ziren.
- Desanbiguzio-errore batek guk markatu nahi dugun elementua ez harrapatzea ekar dezake.
- Ez desanbiguatzeak ez dakar arazo handirik; izan ere, guk sortutako erregelek badakite zer nahi duten eta elementu horren bila joango dira. Guk *izen* kategoria duen zerbait markatzeko eskatuz gero, berdin da markatu beharreko lemak bi kategoria izatea —izen eta adjektibo, kasu—, guk agindu dioguna besterik ez baitu markatuko —kasu honetan izena—. Honen azalpen zehatzagoa erabiltzen dugun gramatika azaltzen dugunean (III.7. atala) emango dugu.

Beraz, analisi morfologiko anbigua erabiliko dugu gure lanerako, eta hori dugu *Morpheus*en emaitza. Baina, nahiz eta *Morpheus* edozein testutan aplikatzeko prestatuta egon, testu berezituekin arazo zenbait izan ditzake. Hiztegiko definizioetan ezagutzen ez dituen hainbat laburdura lexikografiko daude, eta horiek akatsik sor ez dezaten, laburdura hauei trataera berezia eman diegu. Laburdura horiek testu-hitz bihurtu ditugu programa baten bitartez. Honela, definizioan agertzen direnean *berezk.*, *hed.*, *at. m.* modukoak guk programaren bitartez haien adieraziak idatziko ditugu: *bereziki*, *hedaduraz*, *atomo masa*.³⁴

6. taulan definizioetan agertzen diren laburduren zerrenda eta haien adierazia jarri dugu.

³⁴ Laburdurak bere horretan utziz gero, analizatzaile morfologikoak, oraingo egoeran, bi arazo larri izango lituzke: alde batetik laburdura ez ezagutzea, eta, bestetik, eta hau larriago litzateke, *puntu* bat dagoenez, definizio amaiera dela markatzea.

laburdura	adierazia	laburdura	adierazia
ad.	aditza	G.	Gutxi
ad.-aren	aditzaren	hed.	hedaduraz
at. m.	atomo masa	Ik.	Ikus
at. z.	atomo zenbakia	Ipar.	Iparraldean
berezk.	bereziki	iz.-ak	izenak
er.	erabilia	km.-ren	kilometroren
etab.	eta abar	km.-rena	kilometrorena
etab.-en	eta abarren	mulk.	multzokaria
etab.-etako	eta abarretako	pl.	pluralean
etab.-etan,	eta abarretan,	Sing.	Singularrean
etab.-ez	eta abarrez		

6. taula. Hiztegiaren definizioetan agertzen diren laburdurak eta haien adieraziak.

Hona normalizazio-prozesu hau adibide batekin azaldu:

izozgailu A0 iz. Ura, eta berezk. janariak, izozteko tresna.

Aurreko adibidean agertzen den *berek.* laburdura lematizatu nahi izanez gero, dugun analizatzailearen gaur egungo bertsioak ez du jakingo zein duen lema zehatza, eta hitz ezezagun gisa, balizko lema jasoko ditu. Ondoren puntua dagoenez, hurrengo hitza —*janariak*— definizio-hasiera dela markatuko du. Aldiz, definizioan *bereziki* agertuz gero, analizatzaileak ez du aurreko arazorik topatuko, eta ondo egingo du analisia.

Beraz, definizioetako hitzen analisiak egiteko garaian *Morpheus* da erabili dugun analizatzaile morfologikoa. Baina definizioak ez dira analizatu beharreko elementu bakarrak; sarrera-hitzen analisia ere egin beharko dugu tesi honen V. kapitularako. Horretarako ere *Morpheus* analizatzailea erabili dugu ondoko atalean azalduko dugun bezala.

III.6. Sarrera-hitzen analisia

Sarrera-hitz eratorriak zeintzuk diren, eta eratorpen prozesu horretan zein elementu agertzen diren ezagutu nahi dugunez, sarrera-hitz guztiak analizatu ditugu. Analizatzaile morfologikoak oinarria eta atzizkia bereizten ditu. Horretarako beharrezko duen informazioa EDBLtik hartzen du, eta hitz baten morfologia ezagutu dezan, behar duen informazioa EDBLn egon behar du.

Baina gerta daiteke atzizki lexikal jakin bat datu-basean landuta ez egotea, eta atzizki hori daraman hitza ez du eratorri gisa ezagutuko. Demagun arrazakeria analizatu nahi dugula *Morpheus* tresnarekin *arraz* + *keria* emaitza lortzeko.

Baina *-keria* atzizkia tesirako erabili dugun datu-basearen bertsioan atzizki lexikal gisa landuta ez dagoenez, eta *arrazakeria* hitza bera datu-basean landuta dagoenez, emaitza ez da egokia eratorpena lantzeko, hitz hori eratorria denik ez dakigulako.³⁵

/<arrazakeria>/

```
("arrazakeria" IZE ARR + DEK ABS MG)
("arrazakeria" IZE ARR + DEK ABS NUMS MUGM)
("arrazakeria" IZE ARR)
```

Hitza datu-basean ez badago, berriz, hitz ezezagun gisa analizatuko du. Ezezagunen analisi horretan, laburdurekin ikusi dugun bezala, interpretazioa asmatzen saiatzen da modu logiko batean, baina atzizki lexikalei dagokienez, datu-basean daudenak baino gehiago erabiltzen ditu ezagutza egiteko. Demagun testu batean *gorrikeria* moduko zerbait agertzen zaigula. Hitz hau ez dago EDBLn landuta eta analizatzaile morfologikoa nolabaiteko analisisia ematen saiatzen da; hainbat posibilitate ematen ditu ea asmatzen duen. Posibilitate horien artean hitz eratorriarena ere agertzen da.

/<gorrikeria>/

```
EZEZAG "gorrikeria " ADJ IZO
EZEZAG "gorrikeria " ADJ IZO + DEK ABS MG
EZEZAG "gorrikeria " ADJ IZO + DEK ABS NUMS MUGM
EZEZAG "gorri+keria " ADJ IZO + ATZ IZE ARR
EZEZAG "gorri+keria " IZE ARR + ATZ IZE ARR
EZEZAG "gorri+keria " ADJ IZO + ATZ IZE ARR + DEK ABS MG
EZEZAG "gorri+keria " ADJ IZO + ATZ IZE ARR + DEK ABS NUMS MUGM
EZEZAG "gorri+keria " IZE ARR + ATZ IZE ARR + DEK ABS MG
EZEZAG "gorri+keria " IZE ARR + ATZ IZE ARR + DEK ABS NUMS MUGM
```

Hau ikusita, eratorpena lantzeko EDBLko informazioa erabili beharrean, hitz ezezagunekin egiten den analisi hau erabiltzea pentsatu genuen. Baina, analisi mota honetan edozer gauza ager daiteke, eta egile moduko hitz bat e + gile gisa analizatuta agertuko zaigu. Ikusi dugunez, ezezagun gisa tratatzen diren hitzei aplikatzen zaizkien atzizki lexikalak ez dira hainbeste, eta ondoren azalduko dugun tarteko bidea hartzea erabaki dugu.

Lehenik, hiztegiko sarrera-hitz guztiak hartu ditugu, eta amaiera usuenak zein diren jakiten saiatu gara maiztasunak aterez. Hona adibide bat: adjektiboen artean hitzen amaieran dauden letra-seikote usuenak hauek dira:

³⁵ Hiru analisisietan *arrazakeria* dugu lema gisa.

124	agarri	19	sgarri
93	tzaile	17	agaitz
28	igarri	14	igaitz
27	ngarri	13	logiko
24	rgarri	12	egarri

Horiek banan-banan ikusi, eta dagoeneko badugu atzizki izan daitekeen elementua: –*tzaile* 93 aldiz agertzen da adjektiboen artean. Ondoren letra-boskoteak ikusiz gero, hona emaitza:

274 garri
93 zaile
69 gaitz

Hemen aurreko multzoan dagoeneko aurreikus zitekeen beste bat agertu da (-*garri*), eta, nahiz eta atzizki lexikal ez izan, hitz-amaiera gisa askotan agertzen den beste elementu bat ere bai (-*gaitz*).

Ondoren, sarrera-hitzen artean usuen agertzen diren esanahidun amaierak hartu eta *Morpheus* tresnari txertatu dizkiogu. Hala, guk agintzen diogun atzizkiaren pareko zerbait topatzen badu sarrera-hitz batean, oinarria eta eratorria bereiziko ditu, baina oinarriak EDBLn egon beharko du; bertan agertzen ez bada, hitz hori ez dugu kontuan hartuko.

gerrate A0 iz. Gerra jakin bat; gerra denbora.

gerrate hitzak badu oinarrian *gerra izena*, eta *denbora* adierazten duen –*te* atzizki lexikala.

Hala ere, zenbait hitz ez eratorri agertuko zaizkigu eratorri gisa; halakoak definizioa aztertzerakoan baztertu egingo ditugu. Hona adibidea:

pate A0 iz. Sukaldaritzan, haragi edo gibel xehatuaz, zerri edo hegaztienaz batik bat, egindako ore.

pate hitza ez da izango *pa izena* —*muxua* adierazten duena— gehi –*te* atzizkia, nahiz eta analizatzaile morfologikoak hala topatu. Eratorpena azaltzen dugunean (V. kapitulua) ikusiko dugu bat hautatu eta bestea saihesteko erabiltzen dugun metodoa zein den.

Beraz, dagoeneko hiztegi osoa analizatuta dugunez, erlazioak erauzteko zein tresna erabili dugun azalduko dugu.

III.7. Erlazioak erauzteko tresna: *Murriztapen Gramatika*

Vanderwende-k (1995) bere lanean agertzen duenez, definizio bateko hitzen arteko erlazioak erauzteko garaian garrantzi handikoa da definizio horien analisi sintaktikoa egina izatea. Halako analisirik izanez gero, lotuta dauden hitzak zeintzuk diren jakin ahal da, eta erlazioak lotuta dauden hitz horien artekoak izango dira. Dagoeneko esan dugun bezala, euskarazko analizatzaile sintaktikoa garapenean dago, eta definizioak esaldi osoak ez direnez, arazoak sortzen dira haiengan aplikatzerakoan.

Beraz, definizioetan dauden hitzen arteko erlazioak erauzi ahal izateko sintaxi analizatzaile xumea garatu dugu. Gehien bat, izen sintagmen ezaugarriak izan ditugu kontuan, eta, horien arabera analizatzailea sortu.

Analizatzaile hori sortzeko *Murriztapen Gramatika (Constraint Grammar)* erabili dugu (Karlsson *et al.*, 1995; Tapanainen, 1996).

Gramatika honekin helburu dugun hitza bilatzen dugu, inguruan izan ditzakeen hitzen ezaugarriak kontuan hartuta. Demagun *indioilar* izenaren definizioa dugula:

```
indioilar A0      iz. Indioilo arra.
```

Izenen kasuan, definizioa izen-sintagma bat da, eta, demagun, sintagma horren buru sintaktiko eta semantikoa³⁶ topatu nahi dugula. Kasu honetan, *indioilo* hitza interesatzen zaigu, eta horren ingurua aztertuko dugu. Hona inguruaren analisi morfologikoa:

```
/<@lema      indioilar>/<ID>/
/<@@Adiera_string  A0>/<ID>/
/<@@Kategoria  iz.>/<ID>/
"<Indioilo>"
    "indioilo"  IZE ARR DEK ABS MG  HAS_MAI DEF_HASI NOTGELGEN
    "indioilo"  IZE ARR  ZERO HAS_MAI DEF_HASI NOTGELGEN
"<arra>"
    "ar"      ADJ IZO DEK ABS NUMS MUGM
    "ar"      IZE ARR DEK ABS NUMS MUGM  NOTGELGEN
    "arra"    IZE ARR DEK ABS MG  AORG NOTGELGEN
    "arra"    IZE ARR DEK ABS NUMS MUGM  AORG NOTGELGEN
    "arra"    IZE ARR  ZERO AORG NOTGELGEN
"<$.
    PUNT_PUNT
```

³⁶ Ikusiko dugun bezala, zenbaitetan ezberdinak dira buru sintaktikoa eta semantikoa.

Aurreko adibidea eskuartean izanda, gunea topatu nahi dugu (IZE), eta gune horri marka bat jarriko diogu (&GENUS-IZE003).³⁷ Marka hori jartzeko agindua MAP da. Baina IZE horri marka hori jarriko diogu baldin eta (IF) deklinabide markarik ez badu (0 ZERO), ondoren *adjektibo absolutibo mugatua* baldin badu (1 ADJ + ABS + MUGATUA), eta honen ondoren *definizio bukaera* baldin badu (2 DEF_BUKA).³⁸ Analisi ambigua erabili dugula azaldu dugunean esan dugun bezala, ez du axola ar adjektibo eta izen gisa markatuta egotea. Hona aurreko guztia islatzen duen erregela:

```
MAP (&GENUS-IZE003) IZE
    IF (NOT 0 ADJ OR DET) (0 ZERO) (1 ADJ + ABS + MUGATUA) (2 DEF_BUKA) ;
```

Aurreko ez gain, erroreak sor ez daitezten, badira beste baldintza batzuk, hala nola, markatu nahi dugun hitzak adjektibo edo determinatzaile irakurketak ez izatea (NOT 0 ADJ OR DET). Murriztapen zehatz hauek beharrezkoak dira. Gerta daiteke bi izen elkarren ondoan agertzea, eta orduan bigarren izena izango da izen-sintagma horren buru sintaktiko eta semantikoa, besakaren definizioan topatu dugun bezala.

```
besaka      H1A0   iz.  Zuhaitz  adarra.
```

Hona definizio horren analisi morfoloikoa:

```
/<@@lema      besaka>/<ID>/
/<@@Adiera_string  H1A0>/<ID>/
/<@@Kategoria  iz.>/<ID>/
"<Zuhaitz>"
    "zuhaitz"  IZE ARR DEK ABS MG  HAS_MAI DEF_HASI NOTGELGEN
    "zuhaitz"  IZE ARR  ZERO HAS_MAI DEF_HASI NOTGELGEN
    "zuhaitzu" ADI SIN AMM ADOIN  NOTDEK HAS_MAI DEF_HASI
"<adarra>"
    "adar"    IZE ARR DEK ABS NUMS MUGM  NOTGELGEN
"<$."
    PUNT_PUNT
```

Kasu honetan aurreko erregelak ez du ezer topatzen lehenengo izenaren eskuinean ez dugulako adjektiborik. Kasu honetan gune sintaktiko eta semantikoa markatuko duen erregela honokoa da:

```
MAP (&GENUS-IZE000) IZE
    IF (NOT -1 PUNTUAZIOA) (NOT 0 ADJ OR DEF_HASI)
        (0 ABS + SINGULARRA + MUGATUA) (1 PUNTUAZIOA) ;
```

³⁷ Erregela bakoitzak marka bat du —zenbaki batekin—, erregela zenbatetan aplikatzen den ezagutzeko, edo arazoren bat sortzen duenean arazoa non dagoen berehala detektatzeko.

³⁸ Bilatzen ari garen elementuarekiko posizioak zenbakiekin markatzen dira: 0a helburu den hitzak duen posizio bera da; ezkerretara lehen posizioa -1 da, ondorengoa -2, eta abar; eta eskuinetara lehen posizioa 1 da, ondorengoa 2, eta abar.

Markatu (MAP) &GENUS-IZE000 markarekin izen (IZE) bat, baldin eta (IF) ezkerrean lehenengo posizioan *puntuazio-markarik* ez badago (NOT -1 PUNTUAZIOA), markatu nahi dugun *izena absolutiboa singularra* eta *mugatua* bada (0 ABS + SINGULARRA + MUGATUA), eta eskuinean *puntuazio-marka* badu (1 PUNTUAZIOA).

indioilarren definizioaren kasuan ar izena dugu, baina aurretik ez du puntuazio-markarik. Gainera, beste murriztapen bat jarri diogu erregela honi, hala nola, markatu behar duen *izenak* ez izatea *adjektibo* irakurketa edo definizio hasiera ez dadila izan (NOT 0 ADJ OR DEF_HASI).

Murriztapen Gramatika erabiliz sortu ditugun erregela guztiak I. eranskinetan paratu ditugu.

III.8. Hiztegiaren azterketa estatistikoa

Atal honetan EHren datuak emango ditugu, bai sarrera kopurua, bai hitz-formen maiztasuna, eta, definizioen egitura ezagutzeko asmoz, baita definizioetan agertzen diren *token*-konbinazioen maiztasuna ere.

Hiztegiko datu gordin hauek erakutsiko digute zein definizio-patroi erabili diren kategoria bakoitzarekin. Definizio-patroi horiek aztertuta, definizioeko guneak ezagutzeko erregelak egin ahal izango ditugu, eta baita patroi lexikalak ezagutzeko erregelak ere.

III.2. atalean esan badugu ere, 7. taulan EHren TEI bertsioak dituen sarrera-, adiera- eta azpisarrera-kopurua paratu ditugu.

sarrerak	33.124
adierak	53.961
azpisarrerak	3.209

7. taula. Hiztegiko sarrerak, adierak eta azpisarrerak: kopuruak.

Zenbaitetan gerta daiteke bai ñabardura batek edo bai azpisarrera batek definizio-eremurik ez izatea, eta horiek ez ditugu lan honetan kontuan izango.³⁹ Beraz, kontuan izan behar dugu zenbat diren definizio-eremua duten adierak edo azpisarrerak, eta horiek, 8. taulan agertzen den bezala, 35.549 dira.

³⁹ Denera 13.955 balizko adiera daude definiziorik gabe. Horietatik 2.359 sarrera hilak dira; 6.460 ñabardurak; eta 1.474 azpisarrerak. Halako askok definizioa izan beharrean, erabilera-adibideak dituzte.

izenak	21.511
adjektiboak	4.310
izen-adjektibo	1.020
aditzak	6.132
azpisarrerak	2.576
Guztira	35.549

8. taula. Hiztegiaren definizioa duten adierak kategoriak.

9. taulan, berriz, aztergai ditugun definizio horietan agertzen diren hitz-forma usuenen kopurua paratu dugu. Kategoria bakoitzeko definizioak bere aldetik aztertuko ditugunez, maiztasun-kopurua kategoriak eman dugu. Kopuru osoa emateaz gain, definizioetan agertzen diren hitz guztiekiko ehunekoa paratu dugu.

Izenak			Aditzak			Adjektiboak			Izenak-adjektiboak			Azpisarrerak		
dena	105604	%		21957	%		15530	%		4571	%		8817	%
edo	3215	3,0	edo	1227	5,6	duena	1185	7,6	duena	326	7,1	eta	182	2,1
eta	2983	2,8	egin	496	2,3	dena	560	3,6	dagokiona	120	2,6	edo	168	1,9
den	1965	1,9	bihurtu	471	2,1	edo	490	3,2	dena	118	2,6	egin	140	1,6
duen	1209	1,1	behartu	429	2,0	ez	438	2,8	biztanlea	106	2,3	den	109	1,2
dena	1112	1,1	eman	310	1,4	dagokiona	231	1,5	edo	99	2,2	izan	104	1,2
duena	837	0,8	hartu	280	1,3	dituena	177	1,1	eta	63	1,4	dena	85	1,0
bat	723	0,7	bat	275	1,3	mintzatuz	154	1,0	ez	55	1,2	bat	66	0,7
baten	707	0,7	izan	204	0,9	eta	151	1,0	mintzatuz	45	1,0	gabe	63	0,7
egiten	680	0,6	eta	186	0,8	betea	151	1,0	egiten	39	0,9	ez	63	0,7
erabiltzen	645	0,6	jarri	169	0,8	egiten	105	0,7	dituena	35	0,8	duena	54	0,6
bereziki	636	0,6	zerbait	129	0,6	asko	105	0,7	aldekkoa	34	0,7	landarea	45	0,5
nolakotasuna	564	0,5	galdu	120	0,5	dagoena	95	0,6	bereziki	30	0,7	dituena	44	0,5
dituena	536	0,5	kendu	98	0,4	joera	94	0,6	duen	29	0,6	ere	41	0,5
diren	498	0,5	Zerbait	92	0,4	Ezin	65	0,4	pertsona	27	0,6	erabiltzen	40	0,5
denaren	480	0,5	joan	90	0,4	Erraz	62	0,4	bat	27	0,6	hartu	39	0,4
dituen	460	0,4	bidez	88	0,4	merezi	53	0,3	den	23	0,5	egiten	38	0,4
pertsona	435	0,4	ez	87	0,4	gabea	53	0,3	sortua	21	0,5	egon	36	0,4
multzoa	431	0,4	baten	84	0,4	ezin	51	0,3	herri	20	0,4	familiako	34	0,4
bakoitza	398	0,4	eraman	83	0,4	daitekeena	51	0,3	Zerbait	20	0,4	eman	34	0,4
ematen	366	0,3	bere	83	0,4	ematen	48	0,3	esaten	19	0,4	duen	34	0,4
ez	361	0,3	gertatu	82	0,4	ia	46	0,3	dagoena	18	0,4	dela	28	0,3
batean	337	0,3	bete	80	0,4	handia	46	0,3	da	18	0,4	ematen	26	0,3
batez	302	0,3	bereziki	79	0,4	erraz	41	0,3	kidea	17	0,4	batean	25	0,3
egiteko	285	0,3	ezarri	77	0,4	den	41	0,3	zen	15	0,3	baten	24	0,3
duten	274	0,3	den	75	0,3	adierazten	40	0,3	ematen	15	0,3	lore	23	0,3
txikia	260	0,2	mintzatuz	74	0,3	baino	37	0,2	batez	14	0,3	esapidea	23	0,3
tresna	258	0,2	beste	71	0,3	zale	34	0,2	dituen	13	0,3	eginez	23	0,3
handia	244	0,2	utzi	68	0,3	gabe	34	0,2	mintzatzen	12	0,3	alde	23	0,3
dagoen	227	0,2	batean	67	0,3	eragiten	34	0,2	Antzinako	12	0,3	dituen	21	0,2
bi	227	0,2	jo	62	0,3	dagokiena	34	0,2	hartzten	11	0,2	oso	20	0,2
egoera	225	0,2	batez	61	0,3	bat	33	0,2	ere	11	0,2	bere	20	0,2
gauza	217	0,2	zerbaiten	57	0,3	agertzen	32	0,2	bizi	11	0,2	Erabat	20	0,2

9. taula. Definizioetan dauden hitz usuenen kopurua.

Hiztegiaren agertzen diren hitz-forma usuenen zerrendak erakusten du zeintzuk izan daitezkeen definizioetan topatu ahal izango ditugun definizio-patroietan agertuko diren hitz-forma usuenak. Adibidez, izenen artean erlatiboak adizkia askotan agertzen da (den, duen), eta honen arrazoia da izen baten definizioaren gunearen

aurretik askotan erlatiboetako perpausa agertzen dela. Adjektiboetan, aldiz, usuenak izango dira elipsoidun formak (*duena*, *dena*) —ia *izenetan* duten kopuru bera da, baina askozaz definizio gutxiagoren artean: *izenetan*, *duena* %0,8 eta *dena* %1,1; adjektiboetan, *duena* %7,6 eta *dena* %3,6—. Aditzetan, aldiz, goi mailan agertzen zaizkigu partizipioak. Partizipio hauek oso esanahi orokorrekoak dira, eta, genusaren posizioan agertzen badira, agian erlatore berezi gisa aztertu beharko ditugu (ikus IV.3.3. atala). Izen eta adjektibo diren sarreretan nabariak dira elipsoidun formak. Agian honek adierazten du gehien bat adjektiboaren artean erabiltzen diren definizio-patroiak erabiliko direla (ikus IV.4.11. atala). Multzo berean —*izenak-adjektiboak*— oso nabaria da *biztanlea* hitzaren maiztasuna; gerora ikusiko dugun bezala, *-ar* eta *-tar* atzizkia daramaten hitzak definitzeko erabiltzen den patroia zatia da, eta halakoek izen eta adjektibo kategoria jasotzen dute askotan. Azpisarreretan, badirudi goian agertzen diren batzuk aditz-partizipioak direla —*egin*, *izan*, *hartu*, *egon*—; honek adieraziko du azpisarreretan aditz asko izango dugula. Horrezaz gain, *landarea* hitz-forma ere maiz agertzen denez azpisarreraren definizioetan, *landare-izen* dezente egon daitezkeela pentsatuko dugu.

Aurreko neurketa *egin* ondoren, lehen maiztasuna neurtu dugu, lehen bat maiztasun txikiagoa duten forma ezberdinekin agertzen den ikusteko; baina aurreko neurriarekiko ezberdintasun handirik ekarri ez digunez, ez dugu horretan gehiago sakonduko.

Eta neurketekin jarraituz, definizioetan dauden elementuen segidak aztertu ditugu agertzen diren molde usuenak zeintzuk diren ezagutzeko. Definizioetako elementu horiei *token* deitu ohi zaie, eta horien azterketa egingo dugu. Definizioetan hainbat *token* —hitz-formak, puntuazio-ikurrak— agertzen dira, eta, hemen aztertuko duguna da *token* horiek elkarren ondoan zenbatetan agertzen diren. Lehenik *token* horiek bere horretan hartuko ditugu, kontuan izan gabe kasu gramatikalak eta postposizio-atzizkiak, baina ondorengo azterketa batean hauek ere kontuan izango ditugu.

Azterketa hau kategoria guztietako definizioak kontuan hartuta *egin* dugu. 10. taulan paratu ditugu *token*-laukote, -hirukote eta -bikote usuenak.

laukote	zenb.	hirukote	zenb.	bikote	zenb.
ematen zaien izena .	55	denaren nolakotasuna .	336	duena .	1721
. Gai bakuna ,	47	erabiltzen dena .	247	dena .	1307
hartu edo eman .	43	duen pertsona .	183	dituena .	549
. - r en	39	ez duena .	177	duena ,	467
den aldi bakoitza .	33	; bereziki ,	116	nolakotasuna .	434
. Norbait edo zerbait	32	, batez ere	111	denaren nolakotasuna	414
. Pertsonaz mintzatuz ,	28	ez dena .	110	egin .	386
oso aintzat hartua .	27	egiten duena .	102	behartu .	380
. Zerbait edo norbait	27	, eta bereziki	81	pertsona .	361
egiteko erabiltzen dena .	25	joera duena .	78	bakoitza .	350
, jateko ona .	24	ematen dituena .	68	, bereziki	343
den aldietako bakoitza .	23	dituen pertsona .	66	multzoa .	333
ematen zaion izena .	23	ematen zaien izena	63	. Zerbait	328
egiten dituen eskulangilea .	22	hartu edo eman	63	mintzatuz ,	323
gisa erabiltzen dena .	21	den pertsona .	60	bihurtu .	318
joan edo eraman .	21	familiako landarea ,	59	dena ,	301
dena , ia ezin	21	- r en	58	, eta	295
galdu edo kendu .	21	ez duena ,	58	erabiltzen dena	272
egiten dituen pertsona .	19	zaien izena .	56	ez duena	260
hartu edo eman ,	18	duen zera .	53	erabiltzen den	255
Gai bakuna , metal	18	; atomo zenbakia	51	; bereziki	233
. Belar landarea ,	18	; atomo masa	51	egiten den	231
, - r en	17	egiten dena .	51	duen pertsona	211
egiten duen pertsona .	17	gertatzen dena .	49	izan .	210
. Norbaiti buruz ,	17	. Gai bakuna	47	eman .	207

 10. taula. Hiztegiiko definizioetan agertzen diren *token*-laukote, -hirukote eta -bikote usuenak.

Azterketa honetatik dagoeneko zenbait erregela-eskema lor ditzakegu, hala nola "ematen zaien izena ." laukotea. Badirudi gehien errepikatzen diren segidak ondoren puntuazio-marka dutenak direla, alegia, gero ikusiko dugun bezala, erlatore bereziak direnak (ikus IV.4. atala).

Hirukoteen artean, goian daudenen artean elipsoidunak dira (ikus IV.4.11. atala), eta *genus orokor* deituko ditugunak (ikus IV.3.3. atala) ere agertzen dira —nolakotasuna, pertsona, izena, hartu, eman—.

Bikoteetan, argi da ondoren puntuazio-marka duten elipsoidun adizkiak agertzen direla lehen leku guztietan, eta IV.4.11. atalean ikusiko dugun bezala, elipsi hau erlatore berezi baten isla da.

Elementu osoak kontuan hartzeaz gain, analisi morfologikoa eginda dugunez, kasu gramatikalak eta postposizio-atzizkiak ere kontuan har ditzakegu. Halakoei *postposizio-token* deituko diegu. Postposizio horren azpian kasu gramatikalak eta postposizioak biltzen dira, eta *tokenaren* azpian, hitzak eta definizioan egon daitezkeen bestelako ikurrak —puntuazio-markak, parentesiak, gidoiak, eta abar—.

Multzo honetan dagoeneko 10. taulan agertu diren zenbait daude, eta horiek ez ditugu 11. taulan errepikatuko. 11. taulan *postposizio-token* segidak kontuan hartuta sortu diren segida berri usuenak jarri ditugu, dagokien azalpenarekin (*balizko transkripzioa*).

postposizio-token	balizko transkripzioa
ABS izan ERLT !ELI GEN nolakotasun ABS .	-a denaren nolakotasuna.
GEN ABS nolakotasun ABS.	-en nolakotasuna.
ABS izan ERLT !ELI GEN !ELI	-a dena
INE izan ERLT !ELI ABS .	-n dena.
ABS ukan ERLT !ELI ABS .	-a duena
ABS edun ERLT !ELI ABS .	-a duena
INE ukan ERLT !ELI ABS .	-n duena.
INE edun ERLT !ELI ABS .	-n duena.
DAT egon ERLT !ELI ABS.	-i dagokiona.
DAT egon ERLT !ELI ABS ;	-i dagokiona;
GEN !ELI ABS multzo ABS .	-en multzoa.
GEL !ELI ABS bakoitza ABS .	-ko bakoitza.

11. taula. *Postposizio-token* segida usuenak kontuan hartuta ditugun patroik berriak.

Aurreko multzoan ditugu aurretik kasu markaren bat maiz duten patroiak. Kasu marka horiek zeintzuk diren kontuan hartzea garrantzitsua da ondorengo ataletan definizio-eskemak aztertzen ditugunerako.

III.9. Ondorioak

Kapitulu honetako lanaren helburua iturri dugun hiztegia ezagutzea izan da, bai azalean, eta bai sakonean. Hiztegiaren egitura orokorra zein den aztertu dugu. Modu honetan, paperezko bertsioan sarrera-hitz bakoitzean hainbat ikur lexikografikoren bitartez markatuta dagoena zer den jakin ahal izan dugu: *homografo-zenbakia*, *sarrera*, *kategoria*, *data*, *aldaera*, *erabilera-laburdura*, *definizioa*, *erlazio-ikurra*, *adibidea* eta *azpisarrera*. Hau ezinbestekoa da paperezko hiztegi gisa erabiltzeko pentsatuta dagoen produktua makinek erabiltzeko produktu bihurtzeko. Lan horretan eremu bakoitza markatzeko TEI ekimenaren gidalerroak erabili ditugu. Gidalerro hauen abantaila nagusiak argitasuna, sinpletasuna, zehaztasuna, eta nazioarteko estandartzat onartuta egotea dira.

Tesi-lan honetarako, ordea, ez ditugu eremu horiek guztiak behar, eta guretzat erabilgarri diren elementuak baino ez ditugu hartu: *sarrera-hitza*, *kategoria*, *adiera-ikurra*, *definizioa*.

Eremu guztiak behar ez izateaz gain, hiztegian agertzen diren kategoria guztiak ere ez ditugu landu. Azterkizun izan ditugunak *izenak*, *adjektiboak* eta *aditzak* dira. Bakoitza bere aldetik aztertu dugunez, multzo ezberdinetan paratu ditugu. Zenbaitetan sarrera-hitz batek adiera berean kategoria-marka bat baino gehiago ditu —adjektibo eta izen kategoria, adibidez— eta halakoekin multzo berezia osatu dugu lehen begi kolpean ezin izan baitugu multzo batean edo bestean sailkatu. Azpisarrerak ere aztertu ditugu, eta, nahiz eta sarrera-hitzak bezala aztertu ditugun, sarrera-hitz bati lotuta daudenez, eta zenbait ezaugarri berezi izaten dituztenez, hauekin ere beste multzo bat osatu dugu. Beraz, bost multzo izan ditugu azterkizun: *izenak*, *adjektiboak*, *aditzak*, *izenak eta adjektiboak* eta *azpisarrerak*.

Definizioan dagoen informazio inplizitua makinari esplizitu egiteko, definizio guztien analisi morfologikoa egin dugu. Dagoeneko definizioak ez dira hitz-forma multzoak, baizik eta lema-postposizio multzoak. Analisi morfologiko hori gauzatzeko Ixa Taldeak garatutako *Morpheus* (Urkia, 1997) erabili dugu.

Lan honetan definizioeko hitzen analisi anbigua erabili dugu. Definizioak esaldi osoak ez direnez, desanbiguazioa gauzatzeko garaian akatsak sortzen dira, eta akats hauek gure emaitzak kaskartzen dituzte.

Analisi anbiguen gainean lan egitea ez da eragozpen handia izan definizioetan dugun informazioa kudeatzeko eta nahi dugun informazioa ateratzeko testuingurua kontuan hartzen duen *Murriztapen Gramatika* erabili dugulako. *Murriztapen Gramatika* erabiliz sortutako erregelei esker, guk elementu zehatz bat bilatu nahi dugunez, ez da eragozpen handia hitz-forma baten analisi guztiak izatea.

Baina, Vanderwendek (1995) dioten bezala, definizioen sintaxia eta azaleko sintaxia izatea garrantzitsua da, erlazonatutako hitzak zeintzuk diren jakiteko. Azaleko sintaxia izanez gero, erlazonatutako hitzak zeintzuk liratekeen jakina litzateke, eta gure lana, horien arteko erlazioa zein den zehaztea litzateke; baina azaleko sintaxia ezin izan dugunez erabili, definizio-guneak ezagutzeko erregela sintaktiko batzuk idatzi ditugu. Idatzitako sintaxia, gehien bat, izen sintagmen osaera ezagutzeko erregelak izan dira.

Definizioez gain azterkizun ditugu sarrera-hitz eratorriak. Lan honetarako ere *Morpheus* analizatzaile morfologikoa erabili dugu. Analizatzailea atzizki lexikal berriekin aberastu dugu ahalik eta informazio gehien lortzeko. Analizatzailean zein

atzizki berri txertatu jakiteko, hiztegiko sarrera guztien letra-amaiera usuenak zeintzuk diren aztertu ditugu, horietatik atzizki zeintzuk diren erabaki, eta analizatzailean txertatu. Letra-amaiera usuenen artean atzizki lexikalak ez ezik, konposizio-elementuak ere agertu dira eta hauek ere analizatzailean txertatu ditugu (ikus V.5. atala).

Hitzen arteko erlazioak zehaztea denez gure helburua, hiztegiko definizioetan usuen agertzen diren hitz-formen eta lemen azterketa egin dugu. Hitz-forma edo lema bat maiz agertzen bada, garrantzi berezia duela pentsatu dugu, eta ondoko kapituluetan ikusiko dugunez, hau izan da erlature berezien bilaketan erabilitako oinarri nagusia. Horrezaz gain, *token*-segidak eta *postposizio-token* segidak ere aztertu ditugu, eta analisi honek erlature berezien eta patroi lexikalen bilaketan lagundu gaitu.

Beraz, atal honetan hiztegiaren hezurdura nolakoa den azaldu dugu. Ondoko lana izango da, hezurdura hori lotzen den moduaren arabera, makinari adieraztea erlazio baten edo bestearen isla den.

Bizitzan jaiotza / heriotza
maiz ditugu juntu xamar...

sehaska	A0	iz. Haurrentzako ohe txikia, gehienetan kulunka daitekeena.
kanta	A0	iz. Ahapaldietan banatutako neurtitz herrikoia, doinu baten gainean kantatzen dena.

Amaren bularra
haurraren janari
haurraren negarra
beti hunkigarri,
baratzaren erdian
goseak nago ni
zure bular laztanen
antsiz ta egarriz

Zure bular politak
zerrien jostailu
edertasunak kontuz
gorderik behar du,
zaude ixilik haurra
ez egin negarrik
munduak ez du eta
malkoen beharrik

Handitzen zeranean
ikusiko duzu
ixilik egoteak
zenbat balio dun,
jarrai zure bidetik
hobe da horrela
gauza denen gaineratik
haizea bezala.

Amaren bularra
haurraren janari
aterpe xamur hortan
lo hartu nahi dut nik

(X. Lete)

IV. Definizioen guneak erauzten: sinonimoak, genusak, eta erlature bereziak

IV.1. Sarrera

Hiztegi elebakarretatik informazioa erauzterako garaian lehenik sortzen diren loturak sarrera-hitza eta definizioan dagoen hitz baten artekoak dira (Castellón, 1992; Artola, 1993). Definizioak eta sarrera-hitzak lotuta daude; definizioek sarrera-hitzen baliokide izan behar dute. Baina baliokidetasun horretan, hitz guztiek ez dute pisu bera. Kapitulu honen helburua definizioko gune diren elementuak ezagutzea da, eta horretarako horien inguruan agertzen diren elementuak eta sintaxia aztertuko ditugu, baina ez definizio osoko sintaxia. Definizio osoaren analisisa egitea beste kapitulu baten helburua izango da (ikus VI. atala). Zenbait definiziotan gerta daiteke bi guneri buruzko informazioa izatea. Hau ez da arazo izango, sarrera-hitz batek adiera beraren barruan eta definizio-eremu bakarrean izan baititzake genus bat baino gehiago; baita sinonimo bat baino gehiago ere.

Hiztegian dauden definizio-ereduak kontuan hartuz gero, sinonimoak, genusak, edo erlature bereziak izango ditugu —banan-banan dagokien atalean ikusiko ditugu—. Hiruek erlazio lexiko-semantiko ezberdinak islatuko dituzte definizioan markatzen dugun hitzaren eta sarrera-hitzaren artean: sinonimoek, *sinonimia* erlazioa; genusek, *hiperonimia* / *hiponimia* erlazioa; eta erlature bereziek beste hainbat erlazio islatuko dituzte erlazionatutako hitzaren eta sarrera-hitzaren artean.

Erlazionatuta agertzen diren hitzen kategoriaren arabera, erlazioak paradigmaticoak edo sintagmatikoak dira. Paradigmatikoak kategoria bereko hitzen artekoak dira, eta sintagmatikoak kategoria ezberdineko hitzen artekoak. Erlazio horiek guztiak erauzteko hiztegi elebkarrek dituzten hainbat ezaugarritan oinarrituko gara.

Sinonimiari dagokionez, bi modutan agertu ohi da hiztegietan: batetik eremu markatu gisa —definizioa ez den eremu batean, alegia— edo definizio-eremuan bertan.

Eremu markatu gisa agertuz gero, erauzketa-lana asko errazten da. Lexikografoak berak markatzen du, etiketa jakin bat erabiliz, zein den sarrera-hitzaren sinonimoa. Gure kasuan *ik.* marka duen eremua dugu. Sinonimiari buruz hitz egiten denean, kontu handia izan behar da. Erabateko sinonimia existitzen ez dela aski onartua dagoenez (Robert, 1990; Miller, 1998a; Sparck-Jones, 1964; 1986), hemen, kontestu jakin batzuetan aldagarri diren hitzei buruz ariko gara. Hiztegian *ik.* eremuaren barruan halakoak agertzen dira, baina baita besterik gabe nolabaiteko erlazioa duten hitzak.

Eremu markatu horrezaz gain, zenbaitetan definizioan sarrera-hitzaren deskribapen bat izan beharrean, hitz bakar bat izango dugu, edo komaz bereizitako hitz multzoa. Halakoak sinonimotzat hartuko ditugu. Kasu hauetan azaleko erlazioa eta sakonekoa bera dira: *sinonimia*, alegia. Erlazio hau kategoria bereko hitzen artekoa da.

Bestetan —hiztegi elebkar batean ohikoena— sarrera-hitzaren deskribapena izango dugu definizio-eremuan. Halakoetan, bi definizio mota ditugu:

- Gune sintaktikoa eta semantikoa hitz bera duena.
- Gune sintaktikoa eta semantikoa diren hitzak ezberdinak dituena.

Gune sintaktikoa eta semantikoa hitz bera denean, gune hori sarrera-hitzaren genusa da, eta bien arteko erlazioa *hiperonimia* / *hiponimia*. Erlazio hau —*sinonimikoa* bezala— kategoria bereko hitzen artean aurkitzen dugu.

anbulantzia	A0	iz.	Eriak eramateko prestaturiko ibilgailua .
hegazkin	A0	iz.	Airean ibil daitekeen ibilgailua , airea baino astunagoa, hegoduna eta motorduna.
tranbia	A0	iz.	Hiri eremuetan errailen gainean zirkulatzen duen ibilgailua , argindarrez higitzen dena.

anbulantzia, hegazkin, eta tranbia hitzen definizio-eremuan agertzen zaigun izen-sintagmaren buru sintaktikoa eta semantikoa ibilgailu da. Baina ibilgailu horiek ez dituzte ezaugarri berak izango, eta ezaugarri horiek zehazten dituzte gunearen inguruan agertzen diren modifikatzaileek: eriak eramateko, airean ibil daitekeena, eta errailen gainean zirkulatzen duena. Modifikatzaile horiek dira, hain zuzen ere, definizio horren *differentia*. Hitzak definitzeko era hau —*genus + differentia specifica*— Aristotelesek aipatu zuen. *Differentiari* buruzko azterketa VI. atalean egingo dugu; honetan, definizioaren guneari buruzko azterketan zentratuko gara.

Zehaztu behar dugu, hala ere, *hiperonimia / hiponimia* erlazioa izenen eta aditzen definizioetan topatuko dugula.⁴⁰ Adjektiboen artean ez dugu *hiperonimia / hiponimia* erlazorik. Adjektiboen artean, hain zuzen ere, gehien erabiltzen den deskribapen mota gune sintaktikoa eta semantikoa ezberdina direnekoa da. Halakoetan, gune sintaktikoari erlatore berezi deituko diogu, eta erlazonatutako hitza —oro har, gune semantikoa— zein den bilatzen lagunduko gaitu. Halako erlatoreek hainbat erlazio sortuko dituzte, bai paradigmaticoak, bai sintagmaticoak.⁴¹

ihar	A0	izond.	Hezea ez dena, bizitasuna galtzeraino lehortu dena.
------	----	--------	---

Aurreko adibidean bi erlazio ditugu, bata paradigmaticoak eta bestea sintagmaticoak. Paradigmaticoak ihar eta hezeren artekoak dugu: *antonimia*. Eta sintagmaticoak ihar eta lehorturen artekoak: lehortu (bizitasuna galtzeraino) iharra denaren *ezaugarria* dugu.⁴²

Erlatore bereziek sortuko dituzten erlazioak kasuz kasu aztertuko ditugu IV.4. atalean eta A. eranskinean.

⁴⁰ Aditzen artean *troponimia* erlazioa dugu. IV.3.2. atalean sakonduko dugu.

⁴¹ Beste kategorietan ere erlatore bereziak agertzen dira.

⁴² *Ezaugarria* bizitasuna galtzeraino lehortua bada ere, gure lanean lehenik ezagutuko dugu lehortua dela eta ondoren bizitasuna galtzeraino.

Batzuetan zailtasunak sor daitezke hitz bat erlature edo genus den erabakitzeke garaian. Hasiera batean gune sintaktikoa eta semantikoa hitz bera dela badirudi ere, gunean dagoen hitz hori esanahiz oso ahula baldin bada, erlature gisa landu dugu. Multzo honetan ditugu *pertsona*, *tresna*, *egin*, *izan*, *eman*, *hartu*, eta abar moduko hitzak. Genusen erregelak aplikatu ondoren, gune-posizioan agertzen diren esanahi ahuleko hitz hauek dira usuen agertzen direnak. Beraz, definizioetako gune-posizioan usuen agertzen direnak aztertu ditugu, eta esanahi ahula duten horiek erlature berezi gisa landu ditugu (ikus 13. taula, 14. taula, eta 15. taula).

<i>erretzaile</i>	A0N1	iz.	Zerbait erretzen duen pertsona .
<i>grafologo</i>	A0	iz.	Grafologian diharduen pertsona .
<i>hargin</i>	A0	iz.	Eraikuntzan harria lantzeko ogibidea duen pertsona .

Hiru kasu hauetan garrantzitsuena ez da *pertsonak* direla,⁴³ baizik eta batak erre egiten duela, besteak grafologiarekin duela zerikusia eta besteak harria lantzen duela.

Aditzen artean agertzen direnean, askotan hitz anitzeko unitate lexikal baten bigarren atala dira genus ahul horiek: hitz *egin*, *laket izan*, *baimena eman*, eta abar. Aditzetan agertzen zaizkigun hitz anitzeko unitate lexikal horiek erlazionatzeko, erlazio bereziak beharko ditugu: *hitz anitzeko sinonimia* eta *hitz anitzeko hiperonimia*. Erlature-marka aditzak du eta erlazionatutakoaren marka aurreko izenak, baina definizioan duguna hitz anitzeko aditz bat denez, erlazioa bi aditzen artekoa da, eta, beraz, paradigmatikoa.

<i>errekontziliatu</i>	A0	ad.	Adiskidetu; bakezkoak egin .
<i>erroldatu</i>	A0	ad.	Erroldan izena eman .

errekontziliaturen kasuan *bakezkoak egin* da *hitz anitzeko sinonimoa*; eta *erroldaturen hiperonimoa* *izena eman*.

Hitz anitzeko elementu horiek azterketa hau egin aurretik detektatzeko gai izango bagina, ez genuke halako arazorik izango. Gaur egun hitz anitzeko horiek automatikoki ezagutzeko lanak burutzen ari dira Ixa Taldean (Alegria *et al.*, 2004).

⁴³ *pertsona* hori sarrera-hitzaren tasun semantikoa —edo hautapen-murriztapena— da.

Erlazio berezien zenbait tratamendu zehazten ari garenez, bada bi izenen arteko erlazio bitxia. Zenbaitetan izen bat beste izen baten *berezko objektua* dela adieraziko dugu.

erle A1 iz. Intsektu himenopteroa, taldean bizi dena, **eztia** eta **argizaria** egiten dituen.

Kasu honetan esango dugu ezti eta argizari, erleren *berezko objektuak* direla. Hau aski berezia da; oro har, *berezko objektu* erlazioa aditz eta izen baten artekoa izango baitugu. Kontua da definizioan aditz ahul horietako bat dugula (egin aditza kasu honetan), eta hori da sarrera-hitzaren (erle) eta definizioan ditugun erlazonatutako hitzen (ezti eta argizari) arteko zubi-lana egiten duena. Halako erlazioak eratorpena azaltzerakoan agertuko zaizkigu (ikus V. atala).

Erlatore berezi batzuekin lortuko dugun erlazioa ez da aurretik zehaztutako bat izango, baizik eta erlatoreak berak adieraziko diguna. Eskema jakina dute definizio zenbaitek adjektibo eta izen baten arteko erlazioa agertzeko garaian, baina erlazio hori zein den erlatorearen araberkoa da. Halakoetan erlatore horretatik erauzi beharko dugu erlazio mota zein den. Halakoak adjektibo eta izenen arteko erlazioak izan ohi dira.

absolutista A0 izond. Absolutismoaren **aldekoa**.

beltz A1 izond. Batere kolorerik edo argirik ez duena, ikatzaren **kolorekoa**.

kurbatu A0 izond. Kakotua, kurba **formakoa**.

absolutista eta absolutismoaren arteko erlazioa aldekok zehazten du. beltz eta ikatzen artekoa kolorek, eta kurbatu eta kurbaren artekoa formak (ikus IV.4.13. atala).

Beraz, atal honetan definizioaren gunea aztertu dugu, eta gune horren eta inguruan dituen elementuen arabera, sarrera-hitzaren eta definizioko elementu baten arteko erlazioa zehaztu dugu. Lana izenei, adjektiboari, izen-adjektiboari, aditzei eta azpisarrerei aplikatu diegu. Eskema horiek automatikoki ezagutzeko garaian, testuingurua kontuan hartzen duen *Murriztapen Gramatika* erabili dugu (ikus III.7. atala).

Kapituluko lehen hiru ataletan sinonimoak (IV.2. atala), genusak (IV.3. atala) eta erlatore bereziak (IV.4. atala) aztertu ditugu. Izen-adjektibo kategoriak dituzten elementuen azterketa IV.4.11. atalean egin dugu, eta IV.6. atalean azpisarreren

azterketa azaldu dugu. IV.7. atalean erregelak definitu eta ebaluatzeko metodologia erakutsi dugu eta baita ebaluazioari buruzko datuak eman ere. Amaitzeko, IV.8. atalean ondorioak eta etorkizuneko lanak aipatu ditugu.

Atal honekin lotuta A. eranskina eta I. eranskina daude. A. eranskinak IV.4. atala osatzen du eta erlature berezien informazio zabala dago; I. eranskinean kategoria bakoitzean sinonimoak, genusak eta erlature bereziak erauzteko egindako erregela guztiak daude (ikus I.1., I.2., I.3., I.4., I.5. eranskinak).

IV.2. Sinonimoak

Atal honetan, alde batetik sinonimoak agertzen diren definizio-patroien egitura azaldu dugu, eta, bestetik, horiek islatzen duten sakoneko erlazioa zein den. Sinonimiaren kasuan, dagoeneko esan dugun moduan, azaleko erlazioa eta sakonekoa erlazio bera da.

IV.2.1. Definizioen hezurdura

Dagoeneko esan dugun bezala, EHn ez dago erlazio *sinonimikoa* zuzenean agertzen duen eremurik, baina bada beste eremu bat, *ik.* eremua, sinonimoa adieraz dezakeena. Honez gain, kontuan izan behar dugu sarrera-hitzaren kategoria bereko hitz bakar batez —edo batzuez, komaz bereizita— osatutako definizioak lotura *sinonimiko* implizitua islatzen duela gehienetan.

Sinonimo implizitu horien egitura honelakoa litzateke *izenetan*, *aditzetan* eta *adjektiboetan*:

(5) Izenaren_definizioa = izena[, izena[, izena]].⁴⁴

(5) Asentsio H1A0 iz. Igokundea.

(5) agoñu A0 iz. Kemena, adorea.

(5) ahakar A0 iz. Liskarra, aharra, errieta.

Hemen ditugun hiru izen hauek *sinonimoen* bitartez definitzen dira hiztegian. Asentsioren *sinonimoa* Igokunde **dugu**; agoñuren *sinonimoak* kemen **eta** adore **dira**; **eta**, azkenik, ahakarren *sinonimoak* liskar, aharra **eta** errieta **dira**.

⁴⁴ Parentesi karratu hauek *aukera* adierazten dute, hau da, definizio-eskema honetan adierazten dugu ager daitezkeela *sinonimo* bat, edo bi, edo hiru.

(6) Aditzaren_definizioa = aditz-partizipioa[, aditz-partizipioa[, aditz-partizipioa]].

- (6) abadetu A2 ad. Apaiztu.
- (6) jabetu A3 ad. Babestu, zaindu.
- (6) arrobatu A0 ad. Ebatsi, ostu, lapurtu.

Aurreko hiru *aditz* hauek *sinonimoen* bitartez definituta daude. abadeturen *sinonimoa* da apaiztu; jabeturen *sinonimoak* babestu eta zaindu dira; eta arrobaturen *sinonimoak*, ebatsi, ostu eta lapurtu.

(7) Adjektiboaren_definizioa = adjektiboa[, adjektiboa[, adjektiboa]].

- (7) aldabera A0 izond. Aldakorra.
- (7) sabelzuri A0 izond. Itxuratia, elezuria.
- (7) agradagarri A0 izond. Atsegina, atsegingarria, gustagarria.

Hemen hiru *adjektibo* ditugu *sinonimoen* bitartez definituta. aldaberaren *sinonimoa* da aldakor; sabelzurik bi *sinonimo* ditu, itxurati eta elezuri; eta agradagarrik, aldiz, hiru: atsegin, atsegingarri eta gustagarri.

Beraz, eta laburbilduz, sarrera-hitz bat definitzerakoan kategoria bereko hitz bakarra erabiliz gero definizio-eremuan, hitz hori *sinonimotzat* hartuko dugu. Izen eta adjektiboen kasuan hitz hau *mugatu singularrean* agertzen da, eta, aditzen kasuan, partizipio mugagabea dugu.

Baina dena ez da hain hertsia; *sinonimoak* azaldu ohi dira deskribapenekin batera, bai hauen aurretik, bai hauen atzetik.⁴⁵

- (8) Izenaren_definizioa = izena, izenaren_deskribapena.
- (9) Izenaren_definizioa = izenaren_deskribapena, izena.
- (10) Aditzaren_definizioa = aditz-partizipioa, aditzaren_deskribapena.
- (11) Aditzaren_definizioa = aditzaren_deskribapena, aditz-partizipioa.
- (12) Adjektiboaren_definizioa = adjektiboa, adjektiboaren_deskribapena.
- (13) Adjektiboaren_definizioa = adjektiboaren_deskribapena, adjektiboa.

Hona aurreko kasuen zenbait adibide:

- (8) almirante H2A0 iz. Amirala, itsas armadako buruzagi goren.
- (9) ekarpen A3 iz. Askoren arteko egiteko bati inork ekartzen diona, ekarria.
- (10) balaztatu A0 ad. Galgatu, ibilgailu edo makina bat geldiarazi edo haren lastertasuna gutxitu.
- (11) adorarazi A0 ad. Adoratzera behartu, gurrarazi.

⁴⁵ Definizio hauen kasuan lehen komaren aurrean dagoena —deskripzioaren aurretik dagoena, alegia—, edo azken komaren atzetik dagoena —deskripzioaren atzetik dagoena, alegia—, izaten da *sinonimoa*. Zenbaitetan, definizioaren ondoren ez da *sinonimo* bakarra agertzen, baizik eta bi.

- (12) maitati A0 izond. Maitekorra, maitasuna sentitzen edo adierazten duena.
- (13) baketsu A1 izond. Bakea maite duena, liskarra gogoko ez duena, bakezkoa.

Definizioei erreparatuz gero ikus daiteke almiranteren *sinonimo* dela amiral eta ondoren deskribapena agertzen dela, eta ekarpenen *sinonimo* dela ekarri eta aurretik deskribapena agertzen dela. *Aditzen* definizioen adibide ditugu balaztatu eta adorarazi; balaztaturen *sinonimo* da galgatu eta ondoren deskribapena du, eta adoraraziaren *sinonimo* da gurrarazi eta deskribapena du aurretik. Azkenik, adjektiboen adibideei erreparatuta, maitatiaren *sinonimo* da maitekor eta ondoren du deskribapena, eta baketsuren *sinonimo* da bakezko eta deskribapena aurretik du.

Beraz, definizio-eremuan *koma* baten ondoren hitz *absolutibo mugatu singularra* baldin badugu —izen eta adjektiboen kasuan— edo *partizipio mugagabea* —aditzen kasuan—, eta ondoren *definizio-bukaera*, hitz hori sarrera-hitzaren *sinonimoa* da (ikus (9), (11) eta (13)ko adibideak).

Definizio-hasieretan, berriz, legea ez da hain zorrotza. Izenen kasuan argi izan behar dugu definizio-eremu hasieran *komaren* aurretik *izen mugatu singularra* agertzeak ez duela esan nahi sarrera-hitzaren *sinonimo* denik. Ustezko *sinonimo* honen hurrengo hitza *absolutibo mugatu singularrean* dagoen beste izena baldin bada, eta hitz-zerrenda baten parte baldin bada, ezin esango dugu lehen *izen* hori sarrera-izenaren *sinonimo* denik. Honelakoetan ia ziur enumerazio bat izango dugu.

(14) Izenaren_definizioa = izen_abs_mugatua, izen_abs_mugatua, [izen_abs_mugatua, [izen_abs_mugatua,]] izenaren_deskribapena.

- (14) tilet A0 iz. **Puntua, koma, azentua** edo kideko zernahi idazkera marka.
- (14) modelo A0 iz. **Eskultura, eraikuntza, tresna...** baten eredua, gehienetan tamaina txikiagoan egiten dena.

Bi adibide hauetan ezin esango dugu puntu eta koma, tilet sarreraren *sinonimo* direnik; ezta ere modeloren *sinonimo* direnik eskultura, eraikuntza eta tresna.

Hala ere, zenbaitetan gertatzen da bi *sinonimo* izatea eta ondoren deskribapena azaltzea. Hauek oraingoz ez ditugu automatikoki ezagutuko, alde batetik modu honetakoak asko ez direlako, eta, bestetik, hauek ezagutzearren sortuko genukeen errorea handia litzatekeelako.

(15) Izenaren_definizioa = sinonimoa, sinonimoa, izenaren_definizioa.

(15) tronu A0 iz. **Jargoia, jauralkia**, errege aulkia.⁴⁶

(15) samats A0 iz. **Simaurra, ongarria**, bereziki landare hondakinez egiten dena.

Aurreko adibideetan ez bezala, hauetan tronuren *sinonimo* dira jargoia eta jauralki, eta samatsen *sinonimo* simaur eta ongarri.

Aditzen eta adjektiboen definizioetan ez da mota honetako enumeraziorik agertzen.

IV.2.2. Semantika

Hona *sinonimiaren* definizio zabala: zentzu bera edo bertsua, eta forma desberdinak dituzten hitzak dira *sinonimoak*. Honek bide ematen die hiztegi-gileei, zenbait testuingurutan beste baten ordezkari jar daitezkeen hitzen zerrenda luzeak emateko. Hala azaltzen du Miller-ek eta sinonimia kontzeptua hala erabiltzen da *WordNet* datu-basean. Miller-ek (1998a) esaten duenez datu-base honetan *sinonimotzat* hartzen diren hitzak zenbait testuingurutan aldagarri dira. Ez da beharrezko izango agertzen diren testuinguru guztietan aldatu ahal izatea.

WordNet does not entail interchangeability in all contexts; by that criterion, natural languages have few synonyms. The more modest claim is that WordNet synonyms can be interchanged in some contexts. To be careful, therefore, one should speak of synonymy relative to a context, but in order to facilitate the discussion this qualification will usually be presupposed, not asserted. (24. or.)

Hau Sparck-Jones-ek (1964; 1986) zioenaren bidetik doa. Honek zioenez bi hitz *sinonimo* izango dira hirugarren bat bien ordezkari badaiteke, eta adibide hau jartzen zuten: *pellet* eta *injection* berdintsu dira zeren, kontestu egoki bat bilatuz gero, biak aldatu ahalko baitira *shot* hitzarekin.

Sinonimia, kontzeptuak azaltzeko, hiztegietan asko erabiltzen den teknika da. Ikusteko teknika honek zein garrantzia duen EHn, laginak hartu ditugu —100 sarrera kategoria bakoitzeko— eta hona emaitzak: izenen laginean 49 dira *sinonimoa* duten definizioak, aditzen artean 44, eta adjektiboen artean 38.

⁴⁶ Kasu honetan, gainera, *errege aulki* deskribapen bat ote den ez dago batere garbi, izen konposatu gisa har baitaiteke.

	lagineko definizioak	sinonimodun definizioen kopurua
izenak	100	49
adjektiboak	100	38
aditzak	100	44
denera	300	131

12. taula. Sinonimoen bitartez emandako definizio-kopurua.

Emaitza hauei erreparatuz gero, nabaria da *sinonimoen* erabilera hitzak definitzeko garaian; ia definizioen erdietan agertzen baita *sinonimoren* bat.

IV.3. Genusak

Atal hau ere bi zatitan banatu dugu. Lehenengo zatian genusdun definizio-patroi zenbait ikusiko ditugu. Aztertutako definizio-patroi guztien erregelak I. eranskinean paratu ditugu. Bigarren zatian *hiperonimia* / *hiponimia* zer den ikusiko dugu. Genusak sakoneko erlazio bakarraren isla dira.

IV.3.1. Definizioen hezurdura

IV.2.1. atalean ikusi dugun bezala, sarrera-hitzaren deskribapenak *sinonimoekin* batera ager daitezke, baina definizio batean ez dugu zertan beti *sinonimo* bat izan. Zenbaitetan deskribapen linguistikoa besterik ez da agertuko.

Gainera, hitz baten definizio tipikoaren deskribapena egiten denean, hau da eskema nagusia: definizioaren gunea —*genusa*— definitutako hitzaren kategoria bereko hitz bat izaten da, diferentzia parte —*differentia*— osatzen duen modifikatzaile edo osagai baten ondoan etorri ohi dena. Genusa da definizioaren gune sintaktiko eta semantikoa. Adibidez, hona genusdun definizio-patroi bat:

(16) Izenaren_definizioa = [...] + izenlaguna + **izena** + puntuazio-marka.

Honelako definizio batean, *izenlagunaren* eta *puntuazio-markaren* artean —ohikoena puntua da— dagoen *izena* genusa izan ohi da.

(16) urmargo A0 iz. Uretan deseginiko koloreez paper gainean ontzen den **margolana**.

(16) zuberera A0 iz. Zuberoako **euskalkia**.

Definizio hauetan urmargoren *genusa* dugu margolan eta zubererarena euskalki.

Hala ere, eta genusen eskema ohikoena (16)koa baldin bada ere, baditu beste hainbat eskema; genusak definizioko azken hitzaren lekua ez ezik, beste lekurik izan

dezake. Definizioko azken hitza ez denean, ohikoena da ondoren *adjektiboa(k)* agertzea (17); edo genusa den hitza *mugagabea* agertzea, aurretik *determinatzailea* duelako (18); edo ondoren *adjektiboa* bakarrik izan beharrean, *maila-adberbio* bat eta *adjektiboa* izatea (19); edo genusak ondoren *juntagailu* bat izatea, honen atzetik beste genusa duelako (20); edo aurrekoen nahasketa bat gertatzea (21). Hona, ohikoak diren zenbait kasu ekarri ditugu, eta egindako erregela guztiak I. eranskinean paratu ditugu.

(17) Izenaren_definizioa = (...) + izenlaguna + **izena** + adjektiboa(k) + puntuazio-marka.

(18) Izenaren_definizioa = (...) + determinatzailea + **izen_mugagabea** + puntuazio-marka.

(19) Izenaren_definizioa = (...) + izenlaguna + **izena** + adberbioa + adjektiboa + puntuazio-marka.

(20) Izenaren_definizioa = (...) + izenlaguna + **izena** + juntagailua + **izena** + puntuazio-marka.

(21) Izenaren_definizioa = (...) + izenlaguna + **izena** + juntagailua + **izena** + adjektiboa + puntuazio-marka.

(17) almirante H2A0 iz. Amirala, itsas armadako **buruzagi** gorena.

(17) gerezi A1 iz. Gereziendoak ematen duen **fruitu** txiki mardul eta hezurduna, gehienetan azal gorri iluna duena.

(18) iratze A2 iz. Pteridophyta taldeko edozein **landare**; bereziki Filicopsida klaseko edozein **landare**.

(19) kolibri A0 iz. Ameriketako **txori** guztiz txikia, moko luzea eta lumak distiratsuak dituena.

(20) kukurruku A1 iz. Oilarraren **oihua** edo **kantua**.

(21) legartza A0 iz. **Toki** edo **eremu** legartsua.

Adibide hauetan almiranteren genusa buruzagi da, gerezirena fruitu, iratzerena landare, kolibrirena txori, kukurrukurena oiha edo kantu, eta legartzarena toki edo eremu.⁴⁷

Nabaria da genusa dela definizio-eremuan dugun sintagmaren buru sintaktikoa. Buru horrek inguruan hainbat modifikatzaile izan ditzake, baina —lanaren puntu honetan— gure helburua buru hori ezagutzea da. Erregela hauek guztiak egin behar izatea saihestu ahal izango guke sintagmak eta hauen guneak automatikoki ezagutzeko gai izango bagina, eta horretarako desanbiguazio sintaktikoa behar beharrezkoa da. Sarreran aipatu dugu lan honetan ez dugula desanbiguazio

⁴⁷ Definizio hauetan lortzen dugun bakarra ez da genusaren informazioa; almiranteren kasuan badakigu sinonimoa amiral dugula. gereziren kasuan azala izango da erlazionatutako hitza. kolibriren kasuan erlazionatutako hitzak moko eta luma izango dira. Eta kukurrukuren kasuan oilar.

sintaktikorik erabiliko emaitza hobeak lortzen ditugulako analisi anbiguoekin, baina erabaki honek erregela gehiago egitera behartzen gaitu.

Aditzen kasuan gunea beti izango dugu *partizipioa*, eta definizioan ager daitezkeen aldaerak askozaz txikiagoak dira; honexegatik, gunek markatzeko bi erregela besterik ez ditugu erabiltzen.

(22) Aditzaren_definizioa = [...] **aditz-partizipioa** + puntuazio-marka.

(23) Aditzaren_definizioa = [...] **aditz-partizipioa** + juntagailua + **aditz-partizipioa** + puntuazio-marka.

(22) asmatu A1N2 ad. Tresna berri bat **sortu**.

(23) beheratu A0 ad. Beherago **joan** edo **eraman**; (...).⁴⁸

asmatu sarreraren kasuan, honen genusa *sortu da*, *puntuazio-markaren* aurretik dagoen *aditz-partizipioa*, alegia —kasu honetan *puntuazio-marka* hori *definizio-bukaera* ere bada—; beheraturen kasuan, bi genus ditugu *juntagailu* baten bitartez lotuta: *joan eta eraman*.

Adjektiboak definitzeko *sinonimia* erabiltzen da, eta deskribapenak ditugunetan, erlatore bereziak erabiltzen dira hauek deskribatzeko. Erlatore bereziei IV.4. atala eskaini diegu.

Adjektiboen kasuan ez zaigu genusa agertuko —eta agertzen denetan pentsa dezakegu *izen* baten definizioa dugula esku artean—. Genus moduko hauek harrapatzeko izenetan dugun erregularik orokorrena besterik ez dugu aplikatuko (16) —*definizio-amaieran* agertzen denekoa, alegia—; izan ere, ez da ohikoena, eta kategoria ebazterako garaian mugan daudenekin besterik ez da gertatzen. Hauetan suposatu ahal izango dugu, nahiz eta zehatz-mehatz esan kategoria adjektiboa dela, izen bat dugula begi bistan —gutxienez ezin ukatuzkoa da, izen bati dagokion definizio mota duela—. ⁴⁹

geografo A0 izond. Geografiaren irakaskuntzan edo ikerketan aditua den **pertsona**.

espioitza A0 izond. Espioi **lana**.

Bi adibide hauei kategoria gaizki esleitu zaie.

⁴⁸ Eskema hau asko errepikatzen da *da / du* formak dituzten aditzen definizioetan.

⁴⁹ Halakoak detektatzea oso interesgarria izan daiteke, halako asko *erratak* direlako.

IV.3.2. Semantika

Genusa den hitza sarrera-hitza *hiperonimoa* dugu, eta sarrera-hitza, aldiz, genusa den hitza *hiponimoa* da. Beraz, erlazioa *hiperonimia* / *hiponimia* da.

aireontzi A0 iz. Hegalda daitekeen zernahi **ibilgailu**.

Hiperonimia da termino zehatzago bat orokorrago batean harrapatzen duen erlazioa. aireontziren *hiperonimoa* ibilgailu da; eta, ibilgailuren *hiponimoetako* bat, aldiz, aireontzi; izan ere, ibilgailuren beste *hiponimo* bat jeep da, ondoko adibidean ikusten dugun bezala.

jeep A0 iz. **Ibilgailu** sendoa, txikia eta arina, edozein lekutatik ibiltzeko gai dena.

Miller-ek (1998a) aipatzen duenez, *izenak* antolatzeke garaian hau da erlaziorik garrantzitsuena. Subordinazio-erlazioa da, eta kontzeptu batzuk besteen barruan agertzen dira.

the semantic relation that is most important in organizing nouns is a relation between lexicalized concepts. It is the relation of subordination (or class inclusion or subsumption), which in this context we will call *hyponymy*. For example, the noun *robin* is a hyponym (subordinate) of the noun *bird*, or, conversely, *bird* is a hypernym (superordinate) of *robin*. It is this semantic relation that organizes nouns into a lexical hierarchy. (24 or.)

Iragankortasuna da erlazio honek duen ezaugarri garrantzitsuena. Hau da, baldin eta A *Bren hiperonimoa* bada, eta B eta Crena, orduan A ere Cren *hiperonimoa* da.

ibilgailu A0 iz. Lurrean, uretan edo airean higitzen den eta pertsonak edo gauzak garraiatzeko balio duen edozein **tresna**.

Alegia, definizioen arabera baldin badakigu ibilgailua tresna bat dela, eta aireontzia ibilgailua dela, orduan, ezagutu ahal izango dugu aireontzia tresna dela.

Aditzen kasuan *hiperonimia* / *hiponimia* erlazioa erabili beharrean, *troponimia* / *hiperonimia* erlazioa dagoela esan ohi da.

ziatu A0 ad. Atzerantz *arraun egin*, atzerantz *bogatu*.

Kasu honetan, ziatu sarrerek bi *hiperonimo* izango ditu, egin (arraun) eta bogatu. Eta, ziatu, berriz, bogaturen *troponimoa* da.

Miller-ek (1998a) hau azaltzeko esaten du goitik beherako erlazio hau ez dela berdina izenetan eta aditzetan. Izenetan test hau erabiltzen dute

An X is a kind of Y (79. or.)

Lyons-ek (1977) ere esaten duenez, aditzak ezin daitezke patroï honetan sartu. Beraz, beste test bat bilatu behar da. Talmy-k (1985) dioenez, *modua* izango da gakoa. Fellbaum-ek eta Miller-ek (1990) kontu honi erreparatuta *troponimia* hitzaren alde egiten dute.

In WordNet the many different kinds of elaborations that distinguish a "verb hyponym" from its superordinate have been merged into a manner relation that Fellbaum and Miller (1990) have dubbed *troponymy*. The troponymy relation between two verbs can be expressed by the formula *To V₁ is to V₂ in some particular manner.* (79. or.)

Hiperonimia / hiponimia bezalaxe, erlazio hau ere iragankorra da.

Bai *izenetan* eta bai *aditzetan* hierarkia bat osatuko dugu, eta hierarkia horretan ditugun elementuek goragokoen ezaugarriak heredatu ahal izango dituzte.

kolibri	A0	iz. Ameriketako txori guztiz txikia, moko luzea eta lumak distiratsuak dituena.
txori	H1A0	iz. Tamaina txikiko hegaztia .
hegazti	A0	iz. Animalia ornodun odol-beroa, gorputza lumaz estalia duena, mokoduna, hegoak eta hankak dituena, eta oro har hegan egiteko egokitua dagoena.

kolibria txoria baldin bada, eta, txoria hegaztia baldin bada, hegazti honek dituen ezaugarri guztiak heredatuko ditu kolibriak, hala nola, animalia ornoduna dela, gorputza lumaz estalia duela —lumei buruzko informazio zerbait badugu bere definizioan, distiratsuak ditu—, mokoduna dela —bere definiziotik badakigu luzea dela moko hori—, hegoak eta hankak dituena, eta oro har hegan egiteko egokitua dagoela.

Genusak identifikatzeko egindako lan hau —*hiperonimiak* duen iragankortasun ezaugarriari esker— dagoeneko erabili da itzulpen automatikoa egiteko garaian (Díaz de Ilarraza *et al.*, 2000a). Artikulu honetan izen-sintagmak ingelesetik edo espainieratik euskarara itzultzeko ahalegina agertzen da, eta, zehatz-mehatz, izen baten modifikatzaile den genitibo bat itzultzeko ahalegina. Beste hizkuntza bateko genitibodun forma euskarara itzuli nahi izanez gero, bi aukera ditugu: *lekuzko genitiboa* edo *edutezko genitiboa* erabiltzea. *Genitiboa* daraman hitza *biziduna* baldin bada, *edutezkoa* hartuko du. Beraz, jakin beharko dugu zein hitz diren *bizidun*, eta horretarako genusen informazioa erabiliko dugu. Hitz bat *biziduna* baldin bada,

haren *hiponimo* guztiak *bizidunak* izango dira. Beraz, genusaren informazio hau itzulpen automatikorako baliagarria dela konprobatu da.

Hala ere, genus diren hitzen artean ezberdintasun handiak topa ditzakegu; ondoko atalean, hain zuzen ere, genus mota berezia azaldu dugu.

IV.3.3. Genus orokorrak

Badira esanahi aldetik oso orokorrak diren genus batzuk. Halakoek ez dute apenas informaziorik ematen eta Bruce *et al.*-ek (1992) *disturbed heads* deitzen dituzte. Lan horretan agertzen den bezala, horiek erlature berezi bezala tratatzea komeni da. Zerbait *multzo* bat dela esateak ez du asko lagunduko, eta benetan informazio berria eta erabilgarria emango diguna izango da zerbait *zeren multzo* den jakiteak.

helize Al iz. Ardatz baten inguruan biratzen diren eta indarra eragiten duten palen **multzoa**.

Definizio honetatik *helize hori multzo* bat dela jakiteak ez gaitu lagunduko ezagutza gehiago izateko orduan, eta benetan lagunduko gaituena *helizeak palak* dituela jakiteak izango da. Horregatik *multzo* hitza erlature berezien artean sartu dugu, eta IV.4. atalean azaldu dugu.

Baina genus huts hauek izan ohi dira definizioetan gehien agertzen direnak —hau definizioz hala da; izan ere, hitz bat definitzeko esanahi orokorragoa duen beste hitz bat erabili ohi da—, eta lehen-lehenik saiatuko gara jakiten zein diren definizioetan gune posizioan agertzen diren hitz usuenak. Hitz hauek detektatzeko, genusak ezagutzeko sortu ditugun erregela guztiak aplikatu ditugu. Hala, definizioen gune sintaktikoan agertzen diren hitzen maiztasuna lortuko dugu. Zerrenda hori izan eta gero, usuen agertzen direnen esanahia aztertu dugu, eta esanahi ahulena dutenak *genus orokortzat* hartu ditugu eta erlature berezi gisa tratatu.

13. taulan izenen definizioetan gune sintaktikoaren posizioan usuen agertzen diren hitzak paratu ditugu.

Genusa	Kopurua	Genusa	Kopurua	Genusa	Kopurua
nolakotasuna	555	tokia	116	lana	67
multzoa	426	zera	115	ontzia	66
pertsona	385	landarea	110	eza	65
tresna	219	denbora	105	etxea	64
egoera	197	lekua	102	bitartea	63
zatia	180	aldea	91	kidea	57
izena	165	zati	87	jakintza	55
gauza	141	lanbidea	87	kopurua	53
mota	132	era	79	burua	53
egitea	128	aldia	75	neurria	52
bidea	118	Gai	68		

13. taula. *Izenen artean topatutako genus usuenen zerrenda.*

14. taulan aditzen definizioetan gune sintaktikoaren posizioa duten hitz usuenen zerrenda paratu dugu.

Genusa	Kopurua	Genusa	Kopurua	Genusa	Kopurua
egin	472	jarri	161	bete	73
bihurtu	468	galdu	110	ezarri	71
behartu	426	kendu	93	utzi	63
eman	297	joan	86	jo	59
hartu	269	eraman	75	estali	51
izan	196	gertatu	74		

14. taula. *Aditzen artean topatutako genus usuenen zerrenda.*

15. taulan izen eta adjektibo diren hitzen definizioen artean gune sintaktikoaren posizioan usuen agertzen diren hitzak paratu ditugu.

Genusa	Kopurua
biztanlea	106
pertsona	22
aldekoa	19
kidea	15
izena	9
zera	8

15. taula. *Izen eta adjektibo direnen artean topatutako genus usuenen zerrenda.*

Hauetan oso genus gutxi agertu dira; izan ere, adjektibo bezala definitutako hitzek ez dute genusik.

Aurretik esan bezala, aztertu beharko da ea hauetako batzuek erlature berezien lana betetzen duten, eta ea definizio horietatik informazio gehiago atera dezakegun. Hala, erlature bereziei helduko diegu.

IV.4. Erlature bereziak

III.8. atalean ikusi dugu *token*-segida bat, edo hitz bat, zenbatetan agertzen den hiztegian. Horietako zenbait erlature berezizat joko ditugu. Zerbait erlaturetzat jo

edo ez erabakitzeke garaian aztertu behar da ea erlazio lexiko-semantikoren baten isla den; alegia, ea erlazioan jartzen dituen inguruko hitzen bat eta sarrera-hitza.

Adibidez, elkarrekin agertzen diren bikoteen azterketan ikusi dugu honoko *token-segida* 295 aldiz agertzen dela:

, eta

Baina „, eta” segida askotan agertzeak ez du esan nahi erlature berezia denik, baizik eta bi elementu horiek askotan agertzen direla elkarrekin definizioen barruan. Gainera zerbait erlature berezi izan edo ez erabakitzerakoan garrantzia izango du ondoren *puntuazio-marka* agertzeak. Puntuazio-markaren aurreko lekua izan ohi da genus diren hitzen posizioa —deskribapenaren amaiera, alegia—, eta erlature berezi hauek genus horien lekua —fisikoa— beteko dute.

Erlaturea, beraz, genusaren posizioan agertzen den elementua da, eta inguruko hitz bat —erlacionatutako hitza deituko duguna— eta sarrera-hitza jartzen ditu harremanean.

Hona hiztegian maiz agertzen diren bikote batzuk:

bikote-segida	kopurua
duena .	1.721
dena .	1.307
dituena .	549

16. taula. Bikote-segida usuak.

duenaren, denaren eta dituenaren ondoren *puntuazio* dugu. Honek *definizio-amaiera* adierazten du. Hiru elementu horiek bere barruan *elipsia* dute, eta genusa beharko lukeen elementua elidituta dago. Beraz, *elipsia* duten elementuak erlature berezitat hartuko ditugu, eta IV.4.11. atalean aztertuko dugu nolako erlazioa islatzen duten.

Azterketa estatistiko honetan agertzen diren elementu horiez gain, aurreko atalean esan dugun bezala, genus orokorrak direnak ere erlature berezi gisa aztertuko ditugu.

Orain arte kapitulu honetan ikusi ditugun erlazio lexiko-semantikoak —*sinonimia* eta *hiperonimia*—, erlazio paradigmaticoak direla esan ohi da, kategoria bereko hitzen artean gertatzen direlako. Erlatureak aztertzeko hasita, erlazio paradigmaikoez gain, konturatuko gara hauek markatzen dituzten zenbait erlazio kategoria ezberdinen arteko elementuen artekoak direla, eta erlazio hauei, sarreran esan dugun bezala, erlazio sintagmatiko deitu ohi zaie (Artola, 1993).

Ondoren, erlatoeak sailkatuko ditugu sortzen dituzten erlazioen arabera, eta horien ezaugarriak atalez atal ikusiko ditugu. Atal bakoitzean ezaugarri zenbait, adibideren bat eta laburpen taula jarri dugu. Adibide gehiago A. eranskinean paratu ditugu, eta erlatoe bereziak eta erlazonatutako hitzak ezagutzeko egindako gramatikak I. eranskinean daude, kategoriaz kategorია banatuta.

Hemen paratutako laburpen-aula horietan dugun informazioa honokoa da: lehenengo zutabeen erlatoeari gramatikak jarriko dion marka —*etiketa*— agertzen da, eta bigarren zutabeen —*erlazioa*— sortzen den erlazioaren izena. *sar-kat* zutabeen sarrera-hitza zein kategoriatakoa den agertuko da, eta *erlz-kat* zutabeen erlazonatutako hitzaren kategorია. *def-eskema*k definizioetan agertzen den patroia edo eskema orokorrenaren berri emango digu. *erlt-kop* eta *erlz-kop* zutabeek hiztegiko definizioen artean erlatoe bat edo erlazonatutako hitz bat zenbatetan detektatu dugun adieraziko dute.

Adibidez, *-i eman izena* erlatoearen kasuan, hona definizio-eskema eta adibidea:

(24) Izenaren_definizioa = izena (datiboa) + ematen z(itz)ai[e/o]n izena.

(24) elizate. A0 iz. Bizkaiko infanzonado deritzan alderdiko **herriei** ematen zaien izena.

Definizio-eskemak dioenez, datiboa daraman *izena* agertu behar du, eta ondoren *ematen zaion* —edo *zaien, zitzaion, zitzaien*— *izena*.

Eta hona etiketa eta erlazioak agertzen dituen taula:

etiketa	erlazioa	sar-kat	erlz-kat	def-eskema	erlt-kop	erlz-kop
-I EMAN IZENA	hiperonimia	IZE	IZE	-i ematen zaion izena	65	60

17. taula. *-i eman izena* erlatoearen laburpen-aula.

Mota honetako erlatoea 65 aldiz markatu dugu —*erlt-kop*—, eta erlazonatutako hitza 60 aldiz —*erlz-kop*—.

IV.4.1. Ia-Sinonimia

Erlazio hau *sinonimiarengandik* aski hurbil dago (ikus IV.2. atala). *Ia-sinonimoen* artean, bi mota ditugu:

- Batzuetan *sinonimia* adierazten duen eskema dugu definizioan, baina bertan agertzen diren elementuak eta sarrera-hitza kategorία ezberdinekoak dira. Hitz

horien kategoria ia ziur muga-mugakoa izango da, eta, zenbaitetan izen, zenbaitetan adjektibo izango dira.

- Besteetan bi hitz izango ditugu definizioan, *graduatzaila* eta *ia-sinonimo* deituko duguna.

Azken honi buruz, Miller-ek (1998b) dio erlazio semantiko gisa har daitekeela, baina, adjektiboen kasuan, askotan zaila dela zehazten zein den *adjektibo* ez-markatua:

Gradation, therefore, must also be considered as a semantic relation organizing lexical memory for adjectives (Bierwish 1989). For some attributes gradation can be expressed by ordered strings of adjectives, all of which point out to the same attribute noun in WordNet. (...) Gradation is usually accomplished in other ways, much of it by means of adverbs of degree, such as *very*, *decidedly*, *extremely*, *rather*, *quite*, *somewhat* (Cliff, 1959). But most grading is done by morphological rules for the comparative and superlative degree, which can be extended if *less* and *least* are used to complement *more* and *most*. Since this conceptually important relation of gradation does not play a central role in the organization of adjectives, it has not been coded in WordNet. (53. or.)

Testuan azaltzen dutenez, azkenean erabaki zuten *WordNet* datu-basean halakorik ez jartzea. Guk esango dugu *ia-sinonimo* direla, eta *familiartasuna* dagoela bi *adjektibo* horien artean.

(25) Izenaren_definizioa = adjektibo_mugatua.

(26) Adjektiboaren_definizioa = adberbioa + adjektibo_mugatua.

(25) aroi A0 iz. **Alferra, nagia.**

(26) barrabas A0 izond. Oso **bihurria.**

etiketa	erlazioa	sar-kat	erlz-kat	def-eskema	erlt-kop	erlz-kop
ERLT-ADJ-SIN	ia-sinonimia	IZE	ADJ	<i>adj.</i>	82	—
IA-SIN	ia-sinonimia	ADJ	ADJ	adb. + <i>adj.</i>	32	32

18. taula. *Ia-sinonimia* erlazioa markatzen duten erlatoreak.⁵⁰

IV.4.2. Antonimia

Bi hitz *antonimo* direla esango dugu baldin eta kontrakoa adierazten badute. Adjektiboen artean agertzen den erlazioa da, eta aipatu izan denez, adjektibo deskribatzaileen artean inportanteenetakoa (Miller, 1998b):

⁵⁰ *erlt-adj-sin* kasuan erlatoea eta erlazonatutako hitza makak hitz berean jartzen ditugu.

the basic semantic relation among descriptive adjectives is
antonymy. (48. or.)

Gure kasuan, sarrera-adjektiboa eta definizioan agertzen dena *antonimoak* izango dira.

(27) Adjektiboaren_definizioa = adjektibo_mugatua + “ez dena”.

(27) erlatibo A0 izond. Beste zerbaiten arabera hartzen dena,
absolutua ez dena.

etiketa	erlazioa	sar-kat	erlz-kat	def-eskema	erlt-kop	erlz-kop
ANT	Antonimia	ADJ	ADJ	adj. ez dena	60	—

19. taula. *Antonimia* erlazioa markatzen duten erlatoreak.⁵¹

Lehen aipatu dugu, hiztegiaren ezaugarriak aipatzerakoan (III.2. atalean), hiztegiko definizioetan badela eremu bat *antonimoa* esplizitu egiten duena. *ant.* eremua dugu, eta hortik informazioa inolako erregelarik gabe aterako dugu.

Adibidez, arin sarreraren lehenengo adieran —Pisu edo astuntasun gutxikoa, erraz jasotzen dena— badugu eremu hau, eta esaten zaigu bere *antonimoa* astun dela.

arin. izond. (1571) **1.** Pisu edo astuntasun gutxikoa, erraz jasotzen dena. **Ant. astun.** (...)

IV.4.3. Hiperonimia / hiponimia

Erlazio hau ere azaldu dugu IV.3.2. atalean, eta honekin lotuta dauden erlatoreak ikusiko ditugu atal honetan.

(28) Izenaren_definizioa = izena-markarik gabe + ‘modukoa’.

(28) besare. A0 iz. Bost, zazpi edo bederatzi hortz V bat eratzuz dituen *golde modukoa*.

etiketa	erlazioa	sar-kat	erlz-kat	def-eskema	erlt-kop	erlz-kop
MODUKOA	hiperonimia	IZE	IZE	-en modukoa	91	92
-I EMAN IZENA	hiperonimia	IZE	IZE	-i ematen zaion izena	65	60
IZENA	hiperonimia	IZE	IZE	-en izena	103	53
BAT / BAKOITZA	hiperonimia	IZE	IZE	-etako bat / bakoitza	423	265
MOTA	hiperonimia	IZE	IZE	ize + mota	135	100

20. taula. *Hiperonimia* erlazioa markatzen duten erlatoreak.⁵²

⁵¹ *antonomiaren* kasuan erlatoea eta erlazonatutako hitza makak hitz berean jartzen ditugu.

⁵² Normalean, erlatore-kopurua erlazonatutako hitzen kopurua baino handiagoa izan ohi da, erlatoea harrapatzea errazagoa delako. Adibidez:

IV.4.4. Ezaugarria

Halako erlazioa dugunean pentsatuko dugu sarrera-hitzak izango duela erlazionatutako hitzak adierazten duen *ezaugarriren* bat. Oro har, eta Miller-ek (1998a) ere hala dio, ezaugarrien balioak *adjektiboek* emango dituzte:

Values of attributes are expressed by adjectives. (40. or.)

Erlazioa izen eta adjektibo baten artekoa izan ohi da, baina, zenbaitetan ikusiko dugunez, bi izenen artean ere gertatuko da.

*WordNet*en erlazio hau zenbaitetan jaso dute, baina ez modu orokorrean (Miller, 1998a).

It might be possible to incorporate into WordNet an association between {robin} and {red} that would constitute a kind of selectional restriction for the adjective *red*. Such associations have not been incorporated, since they are semantically complex. What is straightforward, however, is the connection between the attribute and the adjectives that express values of that attribute: between the noun *size* and the adjectives *large* and *small*; between the noun *color* and the adjectives *red*, *yellow*, *green* and so on. Many of those associations have been incorporated into WordNet. (40. or.)

*WordNet*en topatuko duguna zenbait izenek izan ditzaketen *ezaugarriak* dira. Guk hiztegitik ateratako *ezaugarri* erlazio honetan, gehiago izango dugu izen batek *berez duen ezaugarria* edo *egoera baten ezaugarria*.

(29) Adjektiboaren_definizioa = izena-instrumentala + 'betea'.

(29) goibeltsu A0 izond. *Goibeltasunez bete*a; hodeitsu.

agata A0 iz. *Silize* kristaldu **mota**, bere edertasunagatik harri bitxitzat erabiltzen dena.

agata sarrera-hitzaren definizioan erregelen bitartez gai gara *mota* erlatoea ezagutzeko, baina ez *silize* erlazionatutako hitz gisa, tartean kristaldu agertzen delako eta erregetan ez dugulako partizipioaren presentzia aurreikusi.

Baina, *modukoa* erlatoearen kasuan erlazionatutako hitzen kopurua handiagoa da, erlatore batek, zenbaitetan, erlazionatutako bi hitz markatzen dituelako. Hona adibidea:

borda A0 iz. Basetxe arrunta; bereziki mendian edo basoan, abereak edo belarra gordetzeko *etxola* edo *etxe modukoa*.

borda sarrera-hitzaren definizioan *modukoa* erlatoea dugu, eta erlazionatutako hitzak *etxola* eta *etxe* dira.

etiketa	erlazioa	sar-kat	erlz-kat	def-eskema	erlt-kop	erlz-kop
NOLAKOTASUNA ⁵³	ezaugarria / edukitzaile	IZE	ADJ	adj. denaren nolakotasuna	548	504
	ezaugarria / edukitzaile	IZE	IZE	ize. denaren nolakotasuna		
NOLAKOTASUNA EZ	ezaugarria-gabezia	IZE	IZE	ize. ez denaren nolakotasuna	9	9
-Z BETEA	ezaugarria / edukia	ADJ	IZE	-z betea	141	141
	ezaugarria / edukia	IZE	IZE	-z betea	7	7
ADJ-KOA	ezaugarria	ADJ	IZE	ize. + adj.-koa	105	98
-I EGOKI	ezaugarria	ADJ	IZE	-i dagokiona	237	238
	ezaugarria	IZE	IZE	-i dagokiona	20	20

21. taula. *Ezaugarri* erlazioa markatzen duten erlatoeak.

IV.4.5. Jasale

Honelakoetan pentsatuko dugu erlazionatu gisa markatutako hitzak *jasango* duela sarrera-hitzak adierazten duen *egoera*. Beste modu batean, sarrera-hitzak *egoera* bat adierazten du, eta, *egoera* hori izango da erlazionatutako hitzak *izango* duena edo *jasango* duena.

(30) Izenaren_definizioa = izena-*genitiboa* + ‘egoera’.

(30) itsasgora A0 iz. *Itsasoaren egoera*, batez besteko maila baino gorago dagoenean.

etiketa	erlazioa	sar-kat	erlz-kat	def-eskema	erlt-kop	erlz-kop
EGOERA	jasale	IZE	IZE	ize.-en egoera	192	89
	jasale	IZE	ADJ	adj.-en egoera		

22. taula. *Jasale* erlazioa markatzen duten erlatoeak.

IV.4.6. Berezko ekintza

Definizioan erlazionatutako hitz gisa markatuko dugun aditza da sarrera-hitzaren *berezko ekintza*.

(31) Izenaren_definizioa = aditza-*t(z)en* + ‘duen pertsona’.

(31) albaitari A0 iz. Abereen eta, oro har, animalien osasuna *zaintzen duen pertsona*.

23. taulan erlatoeen kopurua ematerakoan (*erlt-kop*), kasu batzuetan bi zenbaki paratu ditugu. Halakoek bi erlatoe marka dituzte. Adibidez, *-ko erabiliren* kasuan,

⁵³ *nolakotasuna* eta *-z betea* erlatoeak bata bestearen alderantzizko erlazioak dira. *nolakotasuna* erlatoearen kasuan, *ezaugarria* sarrera-hitza da, eta *ezaugarri* horren edukitzailea erlazionatutako hitza; *-z betea* erlatoearen kasuan, berriz, *ezaugarria* eta erlazionatutako hitza da, eta sarrera-hitza *ezaugarri* hori duena.

erlatore gisa markatzen ditugu *erabili* eta *aditz laguntzailea*. Biak markatzea erabaki dugu, ondoren *elipsiaren* erregelak marka ez ditzaten. Hemendik aurrera erlatoreen kopurua adierazten duen zutabeen bi zenbaki horiek agertzen direnean bi erlatore markatzen ditugula adieraziko du: lehenengo zenbakiak adierazten du zenbat erlatore dauden, eta parentesi artean dagoen zenbakiak zenbat marka jarri ditugun. *-ko erabili* kasuan, 179 erlatore daude, eta 258 marka jarri ditugu.

etiketa	erlazioa	sar-kat	erlz-kat	def-eskema	erlt-kop	erlz-kop
PERTSONA	berezko ekintza	IZE	ADI	-tzen duen pertsona	374	278
GAUZA	berezko ekintza	IZE	ADI	-tzen d(u)en gauza	124	53
ZERA	berezko ekintza	IZE	ADI	-tzen d(u)en zera	114	69
TRESNA	berezko ekintza-helburu	IZE	ADI	-tzeko tresna	217	119
	ezaugarria	IZE	IZE	ize + tresna		5
-KO ERABILI	berezko ekintza-helburu	IZE	ADI	-tzeko erabiltzen d(u)ena	179 (258)	179
ERABILI	erabilera	IZE	IZE/ADJ	ize/adj gisa erabiltzen dena	116 (232)	30
JOERA	berezko ekintza-helburu	ADJ	ADI	-tzeko joera duena	88	88
	berezko ekintza-helburu	IZE	ADI	-tzeko joera duena	6	6

23. taula. *Berezko ekintza* erlazioa markatzen duten erlatoreak.

IV.4.7. Meronimia

Meronimia hitzaren azpian, *parte-oso*a erlazioa dago. Honen alderantzizkoa *holonomia* da (Miller, 1998a):

The part-whole relation between nouns is generally considered to be a semantic relation, called *meronymy* (from the Greek *meros* 'part'; Cruse 1986), comparable to synonymy, antonymy, and hyponymy. This relation also has an inverse: if S_m is a meronym of S_h , then S_h is said to be a *holonym* of S_m . (37. or.)

Normalean erabiltzen den testa hau da: *-en parte*a da. Beraz S_m S_h ren *parte*a dela esatea onargarria baldin bada, S_m S_h ren *meronimo*a dela esango dugu; eta, bestalde, onargarria baldin bada esatea S_h S_m ren *duela parte* gisa, orduan esango dugu S_h S_m ren *holonimo*a dela.

Kontuan izan behar dugu erlazio *meronimikoa* transitiboa dela, hau da, erlazioa hereda daitekeela. Adibidez, moko eta hego, txoriren *meronimo*ak baldin baditugu, eta txoriren *hiponimo*a txantxangorri baldin bada, orduan pentsatu ahalko dugu txantxangorriren *meronimo* direla moko eta hego.

Batzuetan herentzia kontu hau gertatzen ez denean, definizioan zehatz-mehatz topatuko dugu azalduta. Adibide gisa *orga*ren definizioa hartu dugu.

orga A1 iz. Bi edo lau *gurpileko ibilgailua*, zamak eramateko erabiltzen dena eta zaldiek, idiek... higitzen dutena.

Definizioan ikusten da *orga*ren *hiperonimoa* *ibilgailu dela* eta *meronimo* gisa *gurpil duela*.⁵⁴

Hona orain *lera*ren definizioa

lera H1A0 iz. *Gurpilik gabeko orga*, bi albo oholen bidez irristatzen dena, elur gainean ibiltzeko, edo belarra-eta garraiatzeko toki malkartsuetan erabiltzen dena.

Definiziotik aterako dugu *lera*ren *hiperonimoa* *orga dela*, baina hark duen *ezaugarri* bat ez duenez —gurpilak izatea, alegia—, esplizitu agertzen da hiztegian. Halakoak ondo ezagutuz gero, benetan gertatzen ez diren erlazioak saihesteko balioko digute.

Meronomiaz ari garela, argitu behar dugu *meronomia* mota bakarra ez dela *parte-oso meronomia*, baizik eta badirela gehiago (Miller, 1998a):

Such observations raise questions about how many different IS-A-PART-OF relations there are. Winston, Chaffin, and Hermann (1987) differentiate six types of meronyms: component-object (*branch/tree*), member-collection (*tree/forest*), portion-mass (*slice/cake*), stuff-object (*aluminum/airplane*), feature-activity (*paying/shopping*), and place-area (*Princeton/New Jersey*). Chaffin, Hermann, and Winston (1988) add a seventh: phase-process (*adolescence/growing up*). But Iris, Litowitz, and Evens (1988) distinguish only four: functional part (*wheel/bicycle*), segment (*slice/loaf*), member (*sheep/flock*), and subset (*meat/food*). Meronymy is obviously a complex set of semantic relations, and there is considerable disagreement about how to distinguish among them. (39. or.)

Beraz, ikusten dugunez, aski zaila dirudi ados jartzea zenbat *meronimo* klase ditugun zehazteko. *WordNet* datu-basean erabaki dute hiru *meronomia* mota besterik ez dituztela kodetuko: *partea* (aulki / hanka), *kidea* (ardi / artalde), *zerezkoa* (harresi / harri).

Guk, hasiera batean, denak multzo berean sartu ditugu.

⁵⁴ Adibide honekin *meronomia* erlazioaren transitibotasuna erakutsi nahi izan dugu, nahiz eta gure azterketaren puntu honetan, *ibilgailua* eta *gurpil meronomoak* direnik ezagutzeko gai ez garen.

(32) Izenaren_definizioa = izenlaguna-en + ‘multzoa’.

(32) hezurdura A0 iz. Gizon edo abere baten **hezurren** multzoa, gorputzean ezarriak dauden eran.

(33) Izenaren_definizioa = izenlaguna-en / -ko + ‘zattia’.

Aurretik *lekuzko genitiboa* baldin badu, hau izango da *holonimoa*, baldin eta honen aurretik *edutezko genitiborik* agertzen ez bada.

(33) mezerdi A0 iz. Sagara, **mezaren** erdiko **zattia**.

etiketa	erlazioa	sar-kat	erlz-kat	def-eskema	erlt-kop	erlz-kop
MULTZOA	meronimia	IZE	IZE	-en multzoa	446	403
TALDEA	meronimia	IZE	IZE	-en taldea	58	26
ATALA	holonimia	IZE	IZE	-en atala	15	17
ZATIA	holonimia	IZE	IZE	-en zattia	243	178
KIDEA	holonimia	IZE	IZE	-ko kidea	55	40

24. taula. *Meronimia / holonimia* erlazioa markatzen duten erlatoreak.

IV.4.8. Berezko objektua

Berezko objektu erabiliko dugu zerbaiti berez dagokion *objektuari* erreferentzia egiteko. Zenbaitetan *helburua* ere izan daiteke. Esaten dugunean ogigileak ogiak egiten dituela, pentsatuko dugu ogigilearen *berezko objektua* ogia dela, eta, era berean, bere *helburua* ere izango da. Honekin oso lotuta agertzen da hitz anitzeko batek adieraziko duen *berezko ekintza* erlazioa, izan ere ogigile horren *berezko ekintza* ogia egin dugu.

(34) Adjektiboaren_definizioa = izena-*absolutibo mugatua* + ‘egiten d(it)uena’.

(34) bihurri H1A1N2 izond. Hurrez eta hitz eginez, **gaiztakeriak** edo **bihurrikeriak egiten dituen**a, esanekoa ez dena.

Aurretik esan dugun bezala, erlatoreen kopurua ematerakoan bi zenbaki agertzen direnean, erlatoretzat bi hitz markatzen ditugula adierazten du: lehenengo zenbakiak zenbat erlatore dauden adierazten du, eta parentesi artean dagoen zenbakiak zenbat marka jarri ditugun.

etiketa	erlazioa	sar-kat	erlz-kat	def-eskema	erlt-kop	erlz-kop
EGIN	berezko objektu	IZE	IZE	ize + egiten d(it)uena	151 (302)	129
	berezko objektu	ADJ	IZE	ize + egiten d(it)uena	91 (182)	80
EMAN	berezko objektu	IZE	IZE	ize + ematen d(it)uena	70 (140)	45
	berezko objektu	ADJ	IZE	ize + ematen d(it)uena	15 (30)	15
EGITE	berezko objektu	IZE	IZE	ize. + egitea	205	22
	berezko ekintza (HAUL)	IZE	ADI	adb. + egitea		9
	berezko egile	IZE	IZE	-en + egitea		3
	ezaugarria	IZE	ADJ	adj-i dagokion egitea		22
	ezaugarria	IZE	IZE	ize-i dagokion egitea		6
	hiperonimia	IZE	IZE	ize edo egitea		15

25. taula. Berezko objektu erlazioa markatzen duten erlatoeak.

IV.4.9. Gabezia, eza

Sarrera-hitzak, erlazonatutako hitzak –definizioan ageri dena, alegia– adierazten duenaren *gabezia* edo *falta* ageri du.

(35) Izenaren_definizioa= izena-rik + ‘eza’

(35) askatasun A1 iz. *Eragozpenik eza*, traba gabezia.

askatasunen definizioa eragozpenik eza, traba gabezia baldin bada, askatasuna duenak bi *ezaugarri* hauek ez ditu izango: eragozpena eta traba.

etiketa	erlazioa	sar-kat	erlz-kat	def-eskema	erlt-kop	erlz-kop
GABEZIA	gabezia	IZE	IZE	ize + gabezia	26	26
	gabezia	ADJ	ADJ	ize + eza	65	65

26. taula. Gabezia adierazten duen erlatoea.

IV.4.10. Betekizun / betegai

Aditzen artean bete erlatoea agertzen da, eta aurretik zer duen arabera zehaztuko dugu erlazioa: *betegaia*, *betekizuna*, edo *modua*.

(36) Aditzaren_definizioa=izena-z + ‘bete’.

(36) belartu A0 ad. *Belarrez bete*.

belarturen definizioan, belar da *betegaia*.

etiketa	erlazioa	sar-kat	erlz-kat	def-eskema	erlt-kop	erlz-kop
BETE	betegai	ADI	IZE	-z bete	71	62
	modua	ADI	ADB	adb + bete		9
	betekizun	ADI	IZE	ize (abs) + bete		13

27. taula. Betekizun / betegai erlazioak markatzen dituen erlatoea.

IV.4.11. Aditzen genus orokorrak

Aditzen artean dauden genus usuenen azterketa egiterakoan hauek agertu zaizkigu (ikus IV.3.3. atala): egin, bihurtu, behartu, eman, hartu, izan, jarri, galdu, kendu, joan, eraman, gertatu, bete.

Hauek guztiak nahiko esanahi ahuleko aditzak dira, eta, askotan, beste izen edo adjektibo batekin batera hitz anitzeko aditz bat osatzen dute. Gu *hitz anitzeko sinonimoak*, eta *hitz anitzeko genusak* bereizten saiatu gara. Erlatorea, partizipio ahul hori da; eta, hitz anitzeko terminoaren lehenengo osagaia, erlazonatutako hitza.

Aditz ahul gisa tratatu ditugu: egin, bihurtu, behartu, eman, hartu, eman edo hartu, izan, jarri, galdu, kendu, galdu edo kendu, joan, eraman, joan edo eraman.

Hitz anitzeko sinonimoen adibideak:

(37) Aditzaren_definizioa = [,] ize/adj/adb [def-hasi]⁵⁵ + aditz ahula.

(37) abaildu A1 ad. Guztiz nekatu, *leher egin*.

(37) ilaundu A1 ad. *Ilaun bihurtu*, erraustu; suntsitu.

Hitz anitzeko hiperonimoen adibideak:

(38) Aditzaren_definizioa = modifikatzailea + ize/adj/adb + aditz ahula + [, (...)].

(38) azaldu A1 ad. Zerbaiti buruz *hitz egin*, hura ulertarazteko edo ezagutarazteko.

(38) labakitu A0 ad. Lur eremu bat *labaki bihurtu*.

Bi erlatore dituztenen adibideak:

ihartu A0 ad. *Hezetasuna kendu edo galdu*, (...)

jarauntsi H1A0 ad. Oinordetu, *oinordekotzan hartu edo eman*.

iharturen kasuan erlatoreak *kendu* eta *galdu* dira. Erlatoreen kontaketa egiteko garaian, *kendu* erlatorea eta *galdu* erlatorea agertzen direla kontatu behar dugu, eta taulan *galdu/kendu* etiketaren barruan ez da erlatore-kopuru zehatza ematen, baizik eta aurrekoekin nahasten da. Hau da, *galdu/kendu* errenkan, marra bat agertzen da erdian eta adierazten du hiztegian *galdu* erlatorea 110 aldiz agertzen dela, eta *kendu* erlatorea 93 aldiz. Erlazonatutako hitza, aldiz, bakarra agertzen denez, erraza da kontatzen; kasu honetan 26 erlazonatutako hitz daude.⁵⁶

⁵⁵ Mota honetako sinonimo bat izan dezagun, erlazio marka daraman hitzak definizioko —edo deskribapeneko— lehenengo elementua izan behar du, edo puntuazio-marka baten ondoren azaldu.

⁵⁶ Halako bi erlatore *da / du* formak dituzten aditzekin agertu ohi dira.

etiketa	erlazioa	sar- kat	erlz- kat	def-eskema	erlt- kop	erlz- kop
EGIN	sin-haul	ADI	ADI	ize/adj/adb + egin	471	300
	genus-haul	ADI	ADI	mod. ⁵⁷ + ize/adj/adb + egin		103
BIHURTU	sin-haul	ADI	ADI	ize/adj + bihurtu	468	306
	genus-haul	ADI	ADI	mod. + ize/adj + bihurtu		86
BEHARTU	sin-haul-helburu	ADI	ADI	-tzera + behartu	426	417
	genus-haul-helburu	ADI	ADI	mod. + -tzera + behartu		9
EMAN	sin-haul	ADI	ADI	ize/adb + eman	296	132
	sin-haul-helburu	ADI	ADI	-tzera + eman		5
	genus-haul	ADI	ADI	mod. + ize/adb + eman		50
	genus-haul-helburu	ADI	ADI	-tzera + eman		4
EMAN / HARTU	sih-haul	ADI	ADI	ize/adb + hartu edo eman	269	40
HARTU	sin-haul	ADI	ADI	ize/adb + hartu		84
	genus-haul	ADI	ADI	mod. + ize/adb + hartu	27	
IZAN	sin-haul	ADI	ADI	ize/adj/adb + izan	195	95
	genus-haul	ADI	ADI	mod. + ize/adj/adb + izan		61
JARRI	sin-haul	ADI	ADI	ize/adj/adb + jarri	161	87
GALDU	sin-haul	ADI	ADI	ize/adj/adb + galdu	110	40
GALDU / KENDU	sin-haul	ADI	ADI	ize/adj/adb + galdu edo kendu		26
KENDU	sin-haul	ADI	ADI	ize/adj/adb + kendu	93	22
JOAN	sin-haul	ADI	ADI	-ra joan	86	21
JOAN / ERAMAN	sin-haul	ADI	ADI	-ra joan edo eraman		16
ERAMAN	sin-haul	ADI	ADI	-ra eraman	75	16

28. taula. *Hitz anitzeko sinonimo / hitz anitzeko hiperonimo* erlazioa markatzen duten erlatoreak.

IV.4.12. Elipsia

Halakoak maiz agertzen dira definizioetan eta multzo handia osatzen dutenez, denak batera ematea erabaki dugu, nahiz eta sortzen diren erlazioak hainbat izan.

Genusaren posizioa betetzen duen elementuak du *elipsia*.

(39) Adjektiboaren_definizioa = aditza-t(z)en + 'duena'.

(39) gaiztatzaile A0 izond. *Gaiztatzen duena*.

(39) geldigarri A0 izond. *Geldiarazten duena*.

⁵⁷ Genus direnak aurretik *modifikatzaile* (*mod.*) bat —edo *differentia*— behar dute.

etiketa	erlazioa	sar-kat	erlz-kat	def-eskema	erlt-kop	erlz-kop
ELIPSIA	berezko ekintza	ADJ	ADI	-t(z)en d(u)ena	760	883
	ezaugarria	ADJ	ADJ	adj. d(u)ena	906	169
	ezaugarria	ADJ	IZE	ize. d(u)ena		560
	berezko ekintza	IZE	ADI	-t(z)en d(u)ena	1154	1213
	ezaugarria	IZE	ADJ	adj. d(u)ena	876	116
	ezaugarria	IZE	IZE	ize. d(u)ena		354
	antonimoa	ADJ	ADJ	adj. ez dena	88	18

29. taula. *Elipsidun* erlatoreak.

IV.4.13. Erlatoreak adierazten duena

Halakoetan erlazioa bera zein den erlatoreak adierazten duela pentsatuko dugu. Erlazioak normalean adjektiboaren eta izenen artekoak dira.

etiketa	erlazioa	sar-kat	erlz-kat	def-eskema	erlt-kop	erlz-kop
IZE-KOA	erlatorearen arabera	ADJ	IZE	-en ize+koa	47	47
ADLG	erlatorearen arabera	ADJ	IZE	ize (dek.) + partizipioa	19	19

30. taula. Erlatoreak adierazten duen erlazioa markatzen duten erlatoreak.

Halako erlazioak bereziak direnez, hemen bertan azalpenak emango ditugu:

(40) Adjektiboaren_definizioa = izena-genitiboa + izena-koa.

(40) absolutista A0 izond. *Absolutismoaren aldekoa.*

(40) antisemita A0 izond. *Juduen kontrakoa.*

absolutista adjektiboa absolutismo izenarekin dago erlazionatuta aldeko erlazioaren bitartez, eta antisemita judurekin, kontrako erlazioaren bitartez.

Baina, zenbaitetan, izen horrek duen *ezaugarriaren* bati egingo dio erreferentzia.

(40) beltz A1 izond. *Batere kolorerik edo argirik ez duena, ikatzaren kolorekoa.*

Azkenean, pentsatuko dugu beltza eta ikatza, kolorearen bitartez daudela erlazionatuta.

Erlatorearen aurretik markarik gabeko izena dugunean, beti esango dugu sarrera-adjektiboak izango duela erlazionatuta dagoen izenaren *ezaugarri* bat, eta *ezaugarri* hori zein motakoa den erlatoreak adieraziko du.

(41) Adjektiboaren_definizioa = izena-markarik gabea + izena-koa.

(41) gaztainkara A0 izond. *Gaztaina kolorekoa.*

(41) kurbatu A0 izond. *Kakotua, kurba formakoa.*

gaztainkara denak gaztainak duen *ezaugarri* bat du, kolorea, alegia; eta kurbatu denak kurbak duen *ezaugarri* bat du, forma, alegia.

(42) Adjektiboaren_definizioa = izena-postposizio atzizkia + partizipio-mugatua.

(42) bihurri H1A1 izond. Gaiztotasunera makurtua.

(42) hieroglifiko A0 izond. Hieroglifoz osatua; iluna.

bihurri eta gaiztotasun erlazionatuta daude makurtu erlazioaren bitartez; eta hieroglifiko adjektiboa eta hieroglifo izena osatu erlazioaren bitartez.

IV.5. Izen eta adjektiboak

III.8. atalean ikusi dugunez, izen eta adjektibo kategorian duten hitzak 1.020 dira. Zenbaitetan zaila da hitz bati kategorian bakarrik esleitzea, gerta baitaiteke izen eta adjektibo gisa erabiltzea inongo esanahi diferentziarik gabe. Halakoek EHn bi kategorian jasotzen dituzte, eta gure helburua izango da izenentzat eta adjektiboentzat egindako erregelaren bidez zehaztea zein kategorian dagoen definizio-patroia duen.

Erlazioak, beraz, aurretik azaldutako berak dira, eta hemen paratuko dugu erlazio bakoitza zenbaitetan agertzen den multzo honetan, eta zein izan den definizioaren azterketaren arabera esleitu diogun kategorian.

Etiketa	kategoria	kop
SIN-IZE	izena	92
SIN-ADJ	adjektiboa	157
SIN-IZE-ADJ	ize / adj	193
ANT	adjektiboa	6
GENUS	izena	212

31. taula. Sinonimoen, *genusen* eta *antonimoen* informazioa.

Datuok ikusita, 304 aldiz erabiltzen da izenen moldea, 163 aldiz adjektiboen moldea, eta 193 aldiz zehaztu ezina den moldea, bai izenentzat eta bai adjektiboentzat egokia delako.

Erlatoreak modu berean aztertu ditugu.

Etiketa	kategoria	erlzkop	erlzkop	Etiketa	kategoria	erlzkop	erlzkop
PERTSONA	izena	23	13	-I EGOKI	adjektiboa	112	114
KIDE	izena	15	13	IZE-KOA	adjektiboa	38	41
ZERA	izena	8	7	ADJ-KOA	adjektiboa	14	14
IZEN	izena	7	4	JOERA	adjektiboa	9	3
BAT / BAKOITZA	izena	7	6	ADLG	adjektiboa	2	2
ERABILI	izena	7	1	IA-SIN	adjektiboa	1	1
-I EMAN IZENA	izena	3	3	-Z BETEA	adjektiboa	1	1
GABEZIA	izena	2	2	ELIPSIA	ize / adj	449	464
GAUZA	izena	1	1	EGIN	ize / adj	54	27
-KO ERABILI	izena	2	1	EMAN	ize / adj	4	2

32. taula. Erlatoreen informazioa.

Erlatore berezien artean, 75 aldiz erabiltzen dira izenen moldeak, 177 aldiz adjektiboenak, eta 507 aldiz ezingo dugu zehaztu zer-nolako kategoriari dagokion definizioa duen, erabilitako moldeak bi kategorietan erabiltzen direlako.

Adibidez greziar sarrerak bi definizio ditu eta bakoitza kategoria bati dagokio:

greziar A0 izlag.#iz. Greziakoa, **Greziari dagokiona**;
Greziako **biztanlea**.

“;” aurretik dugun definizioa, adjektibo bati dagokiona da: greziar-grezia erlazioa dugu; ondoren dagoena, izen baten definizioa da, eta greziarraren genusa biztanle da.

Ondoko adibidean erlatoea elipsia da, eta definizio-patroi hau izenetan eta adjektiboetan erabiltzen da.

haizatzaile A0i izond.#iz. **Haizatzen duena**.

haizatzaile eta haizaturen arteko erlazioa dugu.

IV.6. Azpisarrerak

III.8. atalean ikusi dugunez, azpisarrerak 2.576 dira EHn. Multzo honetan edozein kategoriatako hitzak topatu ditugu. IV.5. atalean egin dugun bezala, hemen ere ezagunak zaizkigun kategorietako erregelak zenbatetan aplikatzen diren aztertu dugu; hartara, kategoria bakoitzeko zenbat definizio ditugun jakingo dugu, eta *azpisarrera* horren kategoria zein den ezagutuko dugu, dagoeneko III. kapituluari aitatu dugun bezala, askotan kategoria gaizki heredatzen baitu.

Erlatoea	kategoria	kop.
SIN-IZE	izena	235
SIN-ADJ	adjektiboa	222
SIN-IZE-ADJ	ize / adj	29
SIN-ADI	aditza	186
GENUS-IZE	izena	475
GENUS-ADI	aditza	205
ANT-ADJ	adjektiboa	3

33. taula. *Azpisarreraren sinonimoen eta genusen informazioa.*

Izenen moldeak erabiltzen dituzten erlatoerak 710 dira, adjektiboenak dituztenak 225 eta aditzenak 391. Izen edo adjektibo diren erabaki ezin direnak 29 dira.

Erlatoerak modu berean aztertu ditugu.

Erlatorea	kategoria	erlt kop	erlz kop	Erlatorea	kategoria	erlt kop	erlz kop
ERABILI	izena	19	3	IZE-KOA	adjektiboa	12	12
MOTA	izena	16	15	ADJ-KOA	adjektiboa	9	7
-I EMAN IZENA	izena	8	8	IA-SIN	adjektiboa	5	5
IZEN	izena	8	6	-I EGOKI	adjektiboa	5	5
ZATI	izena	7	5	ADLG	adjektiboa	2	1
PERTSONA	izena	6	2	JOERA	adjektiboa	0	1
BAT / BAKOITZA	izena	5	5	EGIN-SIN-HAUL	aditza	134	111
TRESNA	izena	4	0	EGIN-GENUS-HAUL	aditza		12
GABEZIA	izena	3	3	IZAN-SIN-HAUL	aditza	90	48
EGOERA	izena	3	1	IZAN-GENUS-HAUL	aditza		13
ZERA	izena	2	2	HARTU-SIN-HAUL	aditza	32	21
EZA	izena	2	2	HARTU-GENUS-HAUL	aditza		1
NOLAKOTASUN	izena	2	1	EMAN-SIN-HAUL	aditza	27	17
GAUZA	izena	1	1	EMAN-SIN-HELBURU-HAUL	aditza		2
MULTZO	izena	1	1	EMAN-GENUS-HAUL	aditza		3
TALDE	izena	1	1	JOAN-SIN-HAUL	aditza	7	1
ERA	izena	1	1	JARRI-SIN-HAUL	aditza	5	2
KIDE	izena	1	0	GERTATU-SIN-HAUL	aditza	5	0
KIDKOKO	izena	1	0	GALDU-SIN-HAUL	aditza	3	2
MODUKO	izena	1	0	BEHARTU-GENUS-HAUL	aditza	2	2
-KO ERABILI	izena	0	9	BIHURTU-SIN-HAUL	aditza	1	1
ELIPSIA	ize / adj	128	123	KENDU-SIN-HAUL	aditza	1	0
EGIN	ize / adj	8	7				
EMAN	ize / adj	7	7				

34. taula. Erlatoreen informazioa.

Erlatore bereziak dituztenen artean, izenen moldeak dituztenak 92 dira, adjektiboenak 33, izen edo adjektibo diren erabaki ezin direnak 143, eta aditzen moldeak dituztenak 307.

AFARI-MERIENDA RA0 iz. Ilunabarrean egiten den **otordua**.

afari-merienda azpisarrerak izen baten definizioa du, eta *genusa* otordu da.

ALIMALEKO RA0 izlag. Izugarri **handia**.

alimalekok adjektibo baten definizio-patroia du, eta *ia-sinonimoa* handi da.

BIDEAK EGIN RA0 iz. Asko **ibili**.

bideak egin azpisarrerak aditzaren definizio-patroia du eta *hiperonimoa* ibili da.

Nabaria denez, askotan aditzen moldeak erabiltzen dira, eta horietako askok kategoria gisa *izena* dute —bideak egin kasuan bezala—, izen baten azpisarrerak direlako. Beraz, oso garrantzitsua da kategoria beste bat dela zehaztea.

Hauezaz gain, badira inongo markarik ez duten hainbat definizio, baina horietako gehienak adverbioen definizioak dira, eta horiek ez ditugu lan honetan

aztertu. Horien guztien zenbatekoak emaitzak aztertzerakoan ikusiko ditugu (ikus IV.7.5. atala).

IV.7. Metodologia eta ebaluazioa

Lortutako emaitzak aztertzen hasi aurretik labur-labur erabilitako metodologia azalduko dugu.

Lehenik, hiztegitik kategoria bakoitzeko 200 definizio hartu ditugu zoriz, eta hortik saiatu gara erabiltzen diren eskemak eta definizio-patroiak erauzten. Hauek topatu ondoren, lortutako deskribapena erregela bihurtu dugu *Murritzapen Gramatika* erabiliz. Erregela hauen doitasuna neurtzeko, aipatutako laginean aplikatu ditugu eta fintzen joan gara. Nahikoa finduta daudenean, hiztegi osoari aplikatu dizkiogu. Ondoren zoriz hartutako beste 100 definizioko lagina hartu eta egindako erregelen zuzentasuna neurtu dugu, eta egon daitezkeen patroik eta eskema berriak identifikatzen saiatu gara. Aurreko pausoa bezala, erregela berriak egin ondoren, eta laginean aplikatu ondoren, hiztegi osoari aplikatu dizkiogu. Azken urrats bezala, markatu gabe gelditu diren 50 definizio hartu ditugu eta zergatiak analizatu. Hortik erregela berriak atera dira eta horiek berriro ere hiztegi osoari aplikatu dizkiogu. Modu horretan sinonimoen eta genusen eskema orokorrak lortu ditugu. Erlature berezien eskemak, berriz, ez ziren hainbeste ateratzen, eta III.8. atalean azalduko *token*-segida usuenen azterketa baliatu dugu horiek harrapatzeko garaian.

Metodologia aplikatu ondoren, zein emaitzak lortzen ditugun ikustearren, landu dugun multzo bakoitzeko 100 sarrerako laginak hartu ditugu.

Multzo bakoitzeko laginetan markatu ditugu zeintzuk diren ezagutu beharko genituzkeen sinonimoak, genusak, erlatureak eta erlazonatutako hitzak. Hauek *helburu* zutabea jarri ditugu eta zenbat diren zehaztu dugu. Erregelak aplikatu ondoren, kontatuko ditugu ea hauetako zenbat markatu ditugun ondo —*ondo* zutabea—, zenbat markatu ditugun gaizki —*gaizki* zutabea—, denera zenbat elementu markatu ditugun —*markak* zutabea— eta zenbat elementu utzi ditugun markatu gabe —*galduta* zutabea—. Kontu hauek erabilia, bi ehuneko atera ditugu: *estaldura*, hau da, helburu diren horietatik guztietatik zenbat markatzen ditugun ondo; eta *errorea*, hots, markatzen ditugun guztietatik zenbat markatzen ditugun

gaizki. *denera* errenkan aurreko guztien baturak ditugu, eta, ehunekoen kasuan, batez besteko orokorrak.

Datu hauek multzoka eman ditugu, eta dagokien atalean azaldu.

IV.7.1. Izenak

Hona izenen ehun sarrerako lagina aztertu ondoren ditugun emaitzak.

	Helburu	Ondo	Gaizki	Markak	Galduta	Estaldura	Errorea
Sin	61	59	0	59	2	%96,72	%0,00
Genus	49	48	3	51	1	%97,96	%6,12
Erlt	37	35	0	35	2	%94,59	%0,00
Erlz	32	21	1	22	11	%65,63	%3,13
Denera	179	163	4	167	16	%91,06	%2,40
Definizioak	108						

35. taula. Izenen laginetik ateratako emaitzak.

Estaldurak kontuan izaten baditugu, batez bestekoa %91,06 dugu, eta errore-tasa %2,40 bakarrik. Denera 167 marka ditugu definizioetan. Baina dagoeneko txostenean agertu denez, erlatoreak eta erlazonatutako hitzak elkarrekin agertu ohi dira erlazio bakarra adierazteko. Beraz, jakin ahal izateko definizio bakoitzeko zenbat erlazio topatuko ditugun, erlatoreak bakarrik kontatuko ditugu.⁵⁸ Hala, denera 145 erlazio ditugu.

108 definizio horietatik —taulan *guztira* zutabea— 100 dira adierak eta 8 “;” baten ondoren sortutako definizioak; 107k dute nolabaiteko informazioa —taulan *inform. bai* zutabea—, hau da, bakarra geratu zaigu inongo informaziorik gabe —taulan *def. ona, inform. ez* zutabea—. Lagin honetan ez zaigu definizio txarrik —errataren bat duena-edo— agertu. Halakorik agertzen denean, *def. txar.* zutabearen kontatuko dugu.

	Guztira	Inform. bai	Def. txar.	Def. ona, inform. ez
Definizioak	108	107	0	1
Adierak	100	99	0	1

36. taula. Izenen lagineko definizioei buruzko datuak.

Erlazioak 145 direnez, eta informazioa duten adierak 99, informazioa duten adierek duten batez besteko erlazio-kopurua 1,46 da.

⁵⁸ Kontatzeko modu hau kategoria guztietan erabiliko dugu eta baita datu orokorrak emateko garaian ere.

Informaziorik gabe geratu zaigun definizioa pixka bat berezia dela esan daiteke, adberbio izan daitekeen hitz batena baita.

gatazka A4 adlag.#iz. Elkarren aurkako interesen,
sentimenen... aurrez aurrekoa.

Definizio honetan pentsatu ahal izango dugu aurrez aurrekoa horretan *elipsia* dagoela, eta, beraz, erlature bat dugula. Honek ihes egiten digu.

Atalez atal, lagin honetako definizioen artean 61 sinonimo daude, horietako 59 ondo ezagutu ditugu, eta 2 dira ezagutu gabe gelditu zaizkigunak. Genusei dagokienez, berriz, 49 daude eta 48 ezagutzen ditugu ondo, eta 1 galdu dugu. Hauezaz gain, badira beste 3 elementu genus gisa markatu ditugunak eta benetan ez direnak.

Erlatureei erreparatzen badiegu, 37 daude laginean; horietako 35 ezagutzen ditugu ondo, eta 2k egin digute ihes. Erlazionatutako hitzak, berriz, 32 daude eta 21 markatzen ditugu ondo. Hauezaz gain, bada kasu bat erlazionatutako hitz gisa hartzen duguna eta benetan ez dena.

Lagina analizatu ondoren hiztegiko izen guztien definizioak etiketatu ditugu sinonimoen, genusen, eta erlature berezien gramatikarekin (ikus I.1. eranskina), eta hona lortutako emaitzak.

	Sin	Genus	Erlz	Erlt
Denera	11.926	11.650	4.768	6.768
Definizioko	1,27	1,17	1,11	1,24

37. taula. Izenen artean ditugun erlazioak.

Definizioko errenkan marka bera duten adiera guztiak kontuan hartuta ateratako ehunekoa paratu dugu. Ehuneko hau, oro har, laginean ateratzen dena baino baxuagoa da —izenen laginean erlazioen bat duten adieretan dauden batez besteko erlazio-kopurua 1,46 dela esan dugu—, eta honek badu arrazoirik. Laginean ateratako emaitza eratorpenaren erregelak aplikatu aurrekoa da, eta ez da eratorpen-markarik agertzen. Hau, berriz, marka guztiak jarri ondorengoa da, eta eratorpen-erlazio bat baldin badago, ez du erlaturearen erlazioa markatuko, eta, beraz, ez da emaitza hauetan agertuko. Hala, erlature gutxiago agertzen dira.

IV.7.2. Aditzak

Hona aditzen ehun sarrerako lagina aztertu ondoren ditugun emaitzak.

	Helburu	Ondo	Gaizki	Markak	Galduta	Estaldura	Errorea
Sin	60	58	0	58	2	%96,67	%0,00
Genus	33	33	0	33	0	%100,00	%0,00
Erlt	51	51	0	51	0	%100,00	%0,00
Erlz	51	38	1	39	13	%74,51	%2,56
Denera	195	180	1	181	15	%92,31	%0,55
Definizioak	100						

38. taula. Aditzen laginetik ateratako emaitzak.

Estaldurak kontuan izaten baditugu, batez bestekoa %92,31 dugu, eta errore-tasa %0,55. Denera 142 erlazio markatu ditugu.

100 definizio horietatik 97 dira adierak eta 3 “;” baten ondoren sortutako definizioak; 96k dute nolabaiteko informazioa, hau da, bakarra geratu zaigu inongo informaziorik gabe.

	Guztira	Inform. bai	Def. txar.	Def. ona, inform. ez
Definizioak	100	99	1	0
Adierak	97	96	1	0

39. taula. Aditzen lagineko definizioei buruzko datuak.

142 erlazio markatu ditugunez, eta informaziodun adierak 96 direnez, informazioa duen definizio bakoitzean dauden erlazioen batez bestekoa 1,48 da.

Markatu gabe geratu zaigun definizioa txartzat hartuko dugu,⁵⁹ nahiz eta *aditz* kategoriakoa dela agertu, *adjektibo* bat da, eta gainera beste bi *adjektiboren* bitartez definitzen da.

hertsi A2 ad. Meharra, estua.

Atalez atal, lagin honetako definizioen artean 60 sinonimo daude. Horietako 58 ondo ezagutzen ditugu, eta 2 dira ezagutu gabe gelditu zaizkigunak. Genusei dagokienez, berriz, 33 daude, eta 33ak ezagutzen ditugu ondo. Erlatoreei erreparatzen badiegu, 51 daude laginean eta horietako 51 ezagutzen ditugu ondo. Erlazionatutako hitzak, berriz, 51 daude eta 38 markatzen ditugu ondo. Hauezag gain bada kasu bat erlazionatutako hitz gisa hartzen duguna eta benetan ez dena.

Lagina analizatu ondoren hiztegiko aditz guztien definizioak etiketatu ditugu eta hona agertzen den erlazio-kopurua:

⁵⁹ Errata itxura du.

	Sin	Genus	Erlz	Erlt
Denera	3.828	2.428	2.044	2.729
Definizioak	1,35	1,20	1,09	1,15

40. taula. Aditzen artean ditugun erlazioak.

IV.7.3. Adjektiboak

Hona adjektiboen ehun sarrerako lagina aztertu ondoren ditugun emaitzak.

	Helburu	Ondo	Gaizki	Markak	Galduta	Estaldura	Errorea
Sin	51	50	0	50	1	%98,04	%0,00
Genus	1	0	0	0	1	%0,00	%0,00
Erlt	88	78	0	78	10	%88,64	%0,00
Erlz	84	63	2	65	21	%75,00	%3,08
Denera	224	191	2	193	33	%85,27	%1,04
Definizioak	108						

41. taula. Adjektiboen laginetik ateratako emaitzak

Estaldurak kontuan izaten baditugu, batez bestekoa %85,27 dugu, eta errore-tasa %1,04. Denera 128 erlazio markatu ditugu.

108 definizio horietatik 99 dira adierak eta 9 “;” baten ondoren sortutako definizioak; 108 definizio horietatik 99k dute nolabaiteko informazioa, hau da, 9 geratu zaizkigu inongo informaziorik gabe.

	Guztira	Inform. bai	Def. txar.	Def. ona, inform. ez
Definizioak	108	99	3	6
Adierak	99	90	3	6

42. taula. Adjektiboen lagineko definizioei buruzko datuak

Erlazioak 128 direnez, eta erlazioren bat duten adierak 90, informazioa duen adiera bakoitzeko 1,42 erlazio ditugu.

Esan bezala, 9 definizio geratu zaizkigu informaziorik gabe. Batzuk agertzen diren definizio-patroiak ez direlako oso maiz agertzen hiztegian eta landu gabe gelditu direlako.

klasiko	A1N1	izond.	Hizkuntzez mintzatuz, ereduzkotzat hartzen den epekoa.
ertain	A2	izond.	Batez bestekoa.
silababakar	A0	izond.	Silaba bakar batek osatua.

Aurrekoetan dauden erlatore motak ez daude landuta. Hurrengoak aldiz, landuta daude, baina tartean beste elementuak agertzen direnez, ez ditugu harrapatzen. Halakoak gainditzeko azaleko sintaxia markatzen duten tresnak erabiltzea lagungarri

litzateke, baina sarrera nagusian (ikus I. kapitulua) aipatu dugun bezala, oraingoz ez ditugu aplikatu, eta etorkizuneko lan gisa utzi dugu.

porotsu	A0	izond. Zulo txiki asko dituen.
sendo	A1	izond. Lodia edo gorputz handikoa delako, indartsua edo irmoa (pertsonez eta mintzatuz, orobat osasuntsua, sasoikoa) dena.
zimurtsu	A0	izond. Zimur asko duena.

Erlatore hauek landuta daude: dituen, dena, duena; baina kontua da erlazionatutako hitzaren —zulo, indartsu / irmo, zimur— eta erlatorearen artean beste hitz mordoia daudela, eta horregatik ez ditugu ezagutzen.

Eta geratzen zaizkigun hiruak esan dugu definizio txarrak direla...

erromar	H2A0	izond. Europako sartaldean XI-XII. mendeetan garatu zen arte estiloa, ⁶⁰ arkitekturakoa bereziki.
kezkati	A0N1	izond. Kezkaz beterik.
trufakeria	A0	izond. ⁶¹ Trufa.

erromar hitzaren definizioa *izen* batena da: *genusa estilo da*,⁶² kezkatiaren definizioa ez dirudi oso ondo osatuta dagoenik; eta trufakeria definitzeko sinonimo bat erabiltzen da, baina gure datu-basean trufa *izen* gisa agertzen da, eta *Euskal Hiztegian* bertan ere *izen* bezala agertzen da.

Atalez atal, lagin honetako definizioen artean 51 sinonimo daude, horietako 50 ondo ezagutzen ditugu, eta bakarra ez dugu ezagutzen.

Genusei dagokienez, kontuan izan behar dugu, definizioz adjektiboaren artean ez lukeela izen-genusik agertu behar, baina, kategoria-mugan dauden hitzek zenbaitetan izenei dagozkien definizio motak azaltzen dituztenez, genusak harrapatzeko erregela orokorra erabiltzen dugu. Kasu honetan genusa den elementu bat agertu zaigu eta ez dugu ezagutu.

Erlatoreei erreparatzen badiegu, 88 daude laginean eta horietako 78 ezagutzen ditugu ondo, eta 10ek egin digute ihes. Erlazionatutako hitzak, berriz, 84 daude eta 63 markatzen ditugu ondo. Hauek gain badira erlatoreen artean 2 kasu erlatozetat

⁶⁰ Badirudi hemen *estilokoa* beharko lukeela. Beraz, errata dugu.

⁶¹ Errata da.

⁶² Nahiz eta errata izan, *estilo* izena denez, eta gune sintaktikoaren posizioa betetzen duenez, erregelek genustzat hartzen dute.

hartzen ditugunak eta benetan ez direnak, eta erlazonatutako hitzen artean ere markatu behar ez genituzkeen bi elementu markatzen ditugu.

Lagina analizatu ondoren hiztegiko adjektibo guztien definizioak etiketatu ditugu, eta hona lortu dugun erlazio-kopurua:

	Sin	Erlz	Erlt
Denera	2.553	2.477	2.878
Definizioko	1,33	1,16	1,28

43. taula. Adjektiboen artean ditugun erlazioak.

Izenen laginean dugun estaldura %91,06 da, aditzen laginean %92,31, eta adjektiboen laginean %85,27. Beraz, adjektiboen artean dugun estaldura beste kategorietan duguna baino baxuagoa da. Honen arrazoia adjektiboen definizioetan erlature berezien erabilera beste bietan baino handiagoa delako da. Eta, erlature hauek askotan eratorpen atzizkiekin lotuta daudela ikusi ahal izan dugu. Honek motibatu du, nolabait, V. kapituluaren ikusiko dugun eratorpenaren azterketa, nahiz eta kategoria guztiei aplikatu.

IV.7.4. Izenak eta adjektiboak

Dagoeneko aipatu dugun bezala, talde batean bildu ditugu hiztegiaren bi kategoriak dituzten hitzak. Bertatik ateratako 100 sarrerako lagina aztertu dugu.

	Helburu	Ondo	Gaizki	Markak	Galduta	Estaldura	Errorea
Sin	53	45	0	45	8	%84,91	%0,00
Genus	12	12	2	14	0	%100,00	%14,29
Erlt	88	81	0	81	7	%92,05	%0,00
Erlz	83	70	5	75	13	%84,34	%6,67
Denera	236	208	7	215	28	%88,14	%3,26
Definizioak	124						

44. taula. Izen eta adjektiboen laginetik ateratako emaitzak.

Estaldurak kontuan izaten baditugu, batez bestekoa %88,14 dugu, eta errore-tasa %3,26. Denera 140 erlazio markatu ditugu.

124 definizio horietatik 99 dira adierak eta 25 “;” baten ondoren sortutako definizioak; 99 sarrera horietatik 97k dute nolabaiteko informazioa, hau da, 2 geratu zaizkigu inolako informaziorik gabe.

	Guztira	Inform. bai	Def. txar.	Dudazkoa def.
Definizioak	124	122	1	1
Adierak	99	97	1	1

45. taula. Izen eta adjektiboen lagineko definizioei buruzko datuak.

Erlazioak 140 direnez, eta erlazioren bat duten adierak 97, informazioa duen definizio bakoitzeko 1,44 erlazio ditugu.

Ikusten dugunez, 2 definizio ditugu informaziorik ez dutenen artean, eta esango dugu bi horiek txarrak direla. Lehenengoa garbi da txarra dela, eta, bestean, baztergarria izan daitekeen patroia bat erabiltzen da (*-z esaten da*).

besoetako	A0	izond.#iz.	Norbait bere aitabitxi edo amabitxiari buruz.
txikigarri	A0N1	izond.#iz.	Hitz baten esanahia arintzen duen atzizkiaz, edo horrelako atzizki batez eratutako hitzaz esaten da. ⁶³

Kontuan izan behar dugu hauek definizio mota bereziak erabiltzen dituztela; orain arte ikusi dugun bezala, izenek beren definizio motak erabiltzen dituzte eta adjektiboek berenak. Hemen biak batera agertzen dira eta bi kategoria horietan aplikatutako erregelak aplikatu behar dira. Erregela horiek, zenbaitetan, adieraziko digute zein kategoriatako moldea erabili den definizioan. Gehienetan erabiltzen diren definizio-patroiak bi kategorietan agertzen direnak dira, eta ezin izango dugu zehaztu batekoak edo bestekoak diren —73 definizio—. Izenen moldeak 23 definiziotan erabiltzen dira, eta adjektiboek 26 definiziotan.

informaziodun definizioak	izenak	adjektiboak	biak
122	23	26	73

46. taula. Izen eta adjektibo diren sarreren definizio-patroien arabeko kategoria.

Moldeak bi kategorietara egokitzeak hainbat errore ekarriko dizkigu, eta hori oso nabaria da erlazioen eta genusen kasuan. Erlazioen kasuan, zenbaitetan kontuan hartu ez ditugun molde konplexuak erabiltzen dira:

azkargarri	A0	izond.#iz.	Azka rtzen , sendo tzen , inda rtzen duena.
behartsu	A1	iz.#izond.	Pertsonez mintzatuz, gauzarik beharrekoen ak ere ez ditue na .

azkargarriren kasuan, indartu harrapatzen dugu, baina azkartu eta sendotu ez. behartsuren kasuan, dagoeneko aipatu dugun sintaxiaren arazoa sortu zaigu berriro.

Genusei dagokienez, errorea ohikoa baino handiagoa da (%14,29), baina adjektiboetan aipatu dugun bezala, gutxi dira. 12 daude ondo markatuta, eta ez diren 2 markatzen ditugu.

⁶³ *-z esaten da* eskema oso gutxitan agertzen da hiztegian. Honen ordeko dugu *-z mintzatuz* eskema, eta hau baino askoz egokiagoa, gainera.

Beste erlazioak direla-eta, definizioen artean 53 sinonimo daude, horietako 45 ondo ezagutzen ditugu, eta 8 dira ezagutu gabe gelditu zaizkigunak.

Erlatoreei erreparatzen badiegu, 88 daude laginean eta horietako 81 ezagutzen ditugu ondo, eta 7k egin digute ihes. Erlazionatutako hitzak, berriz, 83 daude eta 70 markatzen ditugu ondo. Erlatoreetan ez dugu errorerik eta erlazionatutako hitzetan 5 markatu ditugu gaizki.

Lagina analizatu ondoren hiztegiko izen eta adjektibo kategoria duten definizioak etiketatu ditugu, eta hona markatu dugun erlazio-kopurua:

	Sin	Genus	Erlz	Erlt
Denera	442	212	720	765
Definizioko	1,14	1,09	1,22	1,23

47. taula. Izen eta adjektibo diren sarrera-hitzetan dauden erlazioak.

IV.7.5. Azpisarrerak

Azpisarretan agertuko zaizkigu kategoria guztietako elementuak, baita aztertu ez ditugun kategorietakoak ere. Aurreko atalean egin dugun bezala, guk aztertutako hiru kategoriatako erregelak aplikatuko ditugu benetan zein kategoriatako hitzak diren jakin ahal izateko.

Hartutako laginean 92 definizio —89 adiera— ditugu. Hauetatik, 40 dira aztertu ez ditugun kategorietakoak eta horiek ez dute erregelengandik markarik jasotzen, gaizki markatzen duen kasu batean izan ezik. Horiezaz gain, badira definizio txarra duten beste 2 definizio.

Izenen definizio motak dituzten sarrerak 23 dira, adjektiboenak 4, aditzenak 16, eta izen eta adjektibo izan daitezkeenak 4. Ezagutu gabe geratu dira 2 definizio, bat aditz batena eta bestea adjektibo batena.

informaziodun definizioak	izenak	adjektiboak	aditzak	izen / adjektibo	Ezagutu gabe
49	23	4	16	4	2

48. taula. Azpisareren definizio-motak.

Harrapatzen ditugun elementuen datuak honakoak dira:

	Helburu	Ondo	Gaizki	Markak	Galduta	Estaldura	Errorea
Sin	21	19	1	20	2	%90,48	%5,00
Genus	29	24	1	25	5	%82,76	%4,00
Erlt	23	23	1	24	0	%100,00	%4,17
Erlz	18	15	1	16	3	%83,33	%6,25
Denera	91	81	4	85	10	%89,01	%4,71
Definizioak	92						

49. taula. Azpisarrerren laginetik ateratako emaitzak.

Emaitzak ez dira aurrekoetan ditugunak bezain onak, baina kontuan izan behar da *azpisarrerak* modu berezian definitzen direla; izatez *sarrera berezizat* har ditzakegu. Kontuan izanda beste kategorietan egindako lana erabili dugula definizio hauetan dauden erlazioak erauzteko eta azpisarreraren kategoria ezagutu edo konfirmatzeko, emaitza onak dira.

Estalduak kontuan izaten baditugu, batez bestekoa %89,01 dugu, eta errore-tasa %4,71. Denera 69 erlazio markatu ditugu.

92 definizio horietatik 89 dira adierak eta 3 “;” baten ondoren sortutako definizioak. Horietatik 41 dira guk aztertzen ez ditugun kategorietako hitzak, eta 2 definizio txar daude. Beraz, 49 dira azterkizun izango ditugun definizioak, eta horietatik 2 gelditu dira inongo markarik gabe.

	Guztira	Kategoria ez landuak	Def. txar.	Inform. bai	Def. ona, inform. ez
Definizioak	92	41	2	47	2
Adierak	89	39	2	46	2

50. taula. Azpisarrerren lagineko definizioei buruzko datuak.

Erlazioak 69 direnez, eta erlazioaren bat duten adierak 46, informazioa duen adiera bakoitzeko 1,5 erlazio ditugu.

Lagina analizatu ondoren hiztegiko azpisarrera guztiak etiketatu ditugu, eta hona ezagutu ditugun erlazioak:

	Sin	Genus	Erlz	Erlt
Denera	673	695	485	589
Definizioko	1,15	1,10	1,14	1,14

51. taula. Azpisarreretan markatu ditugun erlazioak.

IV.7.6. Laburpena

Prozesu hauek guztiak aplikatu ondoren 52. taulan jarri ditugu lortu ditugun emaitzak. Taula honetan kategoria —edo azterkizun izan den multzo— bakoitzarekin lortu ditugun estaldura (*est*), eta errore-tasa (*err.*) daude.

	izenak		adjektiboak		izenak-adjektiboak		aditzak		azpisarrerak	
	est.(%)	err.(%)	est.(%)	err.(%)	est.(%)	err.(%)	est.(%)	err.(%)	est.(%)	err.(%)
sin	96,72	0	98,04	0	84,91	0	96,67	0	90,48	5,00
genus	97,96	6,12	0	0	100	14,29	100	0	82,76	4,00
erlt	94,59	0	88,64	0	92,05	0	100	0	100	4,17
erlz	65,63	3,13	75,00	3,08	84,34	6,67	74,51	2,56	83,33	6,25

52. taula. Kategoria guztietako emaitzen batez-bestekoak.

Aurreko taulako emaitza guztiak kontuan hartuz gero, lortzen dugun batez-besteko estaldura %88,97 da, eta errore-tasa %2,14 (ikus 53. taulako *denera1* errenka). Azpisarrerak pixka bat bereziak direnez, horiek kontuan ez baditugu hartzen, estaldura bera da, %88,97; eta errore-tasa gutxitu egiten da: %1,85 (ikus 53. taulako *denera2* errenka).

	Helburu	Ondo	Gaizki	Markak	Galduta	Estaldura	Errorea
ize	179	163	4	167	16	%91,06	%2,40
adj	224	191	2	193	33	%85,27	%1,04
ize-adj	236	208	7	215	28	%88,14	%3,26
adi	195	180	1	181	15	%92,31	%0,55
azpisar	91	81	4	85	10	%89,01	%4,71
denera1	925	823	18	841	102	%88,97	%2,14
denera2	834	742	14	756	92	%88,97	%1,85

53. taula. Batez besteko orokorrak.

IV.8. Ondorioak eta etorkizuneko lanak

Esan bezala, kapitulu honen helburua definizio guneak ezagutzea da. Definizioaren gune den posizio horretan, sinonimoa, genusa edo erlatore berezia topatu dugu, agertu ditugun definizio-patroien arabera.

Definizioan hitz bakarra agertzen bada, sarrera-hitzaren sinonimoa dela esan dugu. Definizioan deskribapena dugunean bi aukera daude: gune sintaktikoa eta semantikoa bera izatea edo ezberdina izatea. Bera denean, hitz hori sarrera-hitzaren genusa da, eta bi hitz horien artean dagoen erlazioa *hiperonimikoa* da. Gune sintaktikoa adiera ahuleko hitza baldin bada, berriz, hitz hori erlatore berezia da, eta sarrera-hitzarekin definizioko beste hitz bat jarriko du harremanean. Definizioan

dagoen hitz hori *erlazionatutako hitza* deitu dugu. Sarrera-hitza eta erlazionatutako hitz honen artean hainbat erlazio sortzen dira: *ia-sinonimia*, *antonimia*, *hiperonimia*, *ezaugarria*, *edukia*, *jasale*, *berezko ekintza*, *meronimia*, *berezko objektu*, *berezko egile*, eta *erlatoreek adierazten dituztenak*.

Erlatore berezi zenbaitek zehazten dituzten erlazioak ez dira beti bi hitzen artekoak, eta horien errepresentazioa asko zailtzen bada ere, guk, lehen urrats honetan, ez dugu konplikatu nahi izan eta modu errazean eman dugu erlazioa. Hala, bi izenen artean *berezko objektu* erlazioa dagoela esan dugu, nahiz eta jakin *berezko objektu* erlazio hori gauzatu ahal izateko tartean *aditz* bat egon beharko duela, erlazio hori aditzen eta izenen arteko erlazioa delako. Adibidez, *eskulangileren berezko objektua* eskulan dela esan dugu, nahiz eta *berezko objektu* erlazioa definizioan dugun erlatore berezi den *egin* aditz ahularen eta *eskulanen* artekoa den. Halakoak eratorpena aztertzeke garaian berriro ere agertuko zaizkigu (ikus V. kapitulua).

Definizioke gune izan eta esanahiz ahul diren hitzak detektatzeko, gune-posizioan agertzen diren elementu usuene azterketa egin dugu. Hitz bat definitzeko garaian esanahi orokorragoa duen beste hitza erabili ohi da. Zenbaitetan hitz horren esanahia oso orokorra da, eta guk horiei erlatore berezi deitu diegu. Beraz, gune-posizioan agertzen diren hitz usuenak izango direnez esanahi ahulekoak, posizio horretan gehien agertzen direnak erlatore berezitzat hartu ditugu.

Erlazio konplexuen beste adibidea dira *hitz anitzeko sinonimoak* eta *hitz anitzeko genusak*. Halakoak aditzetan agertzen dira, eta gune posizioan dagoen aditza oso esanahi ahulekoa denean gertatzen da. *mintzaturen definizioa* hitz egin baldin bada, gune posizioan egin agertuko da, eta aditz-partizipioa denez, genus itxura du; baina, esan dugun bezala, adiera ahula duten horiei, erlatore deituko diegu, eta aurreko izenarekin batera sarrera-hitzaren sinonimo direla esango dugu. Halakoetan erlatore marka izango du aditz-partizipioak eta erlazio marka izenak, baina biak batera erauzi beharko dira erlazio egokia izan dezagun.

Azterketa oso hau izen, adjektibo, eta aditz kategoria duten hiztegiko hitzekin egin dugu. Hala, kategoria bakoitzari dagozkion definizio-eskemak zeintzuk diren definitu ditugu. Kategoria bakoitzak bere-bereak diren eskemak ditu. Hau egiteak, hiztegiko balizko erratak harrapatzeke balio du. Adjektibo baten definizio-eremuan

izen baten eskema agertzen bada, kategoria markatzeko garaian errore baten seinale —beti hala ez bada ere— izan daiteke.

Izen eta adjektibo kategoriak dituztenei bi kategoria horien definizio-eskemak aplikatu dizkiegu, eta ea batekoa edo bestekoa den definizio-eskema duten zehazten saiatu gara. 122 kasuetatik 49tan ezagutu ahal izan dugu definizioa izen batena —23 kasu— edo adjektibo batena —26 kasu— ote den.

Azpisarrerak ere modu berezian landu ditugu, eta ez bakoitzari zegokion kategoriaren barruan. Hauek duten arazoa izan ohi da hiztegian askotan kategoria-marka zehatzik ez dutela, eta, halakoetan, sarrera-hitzak duen kategoria bera heredatzen dute. Baina beti ez da zuzena izaten, gerta baitaiteke, izen batek aditz bat izatea azpisarrera gisa. Halakoentzat oso garrantzitsua da aurreko paragrafoan aipatutakoa, kategoria bakoitzeko berezko definizio-eskemak zeintzuk diren jakitea, alegia. Azpisarrerak izena baldin badu kategoria gisa, eta definizioa aditz batena baldin badu, pentsa ahalko dugu kategoria gaizki heredatu duela eta aditz bat izango dela azpisarrera hori. Kategoria zehazteko garaian, definizioak erabiliz honoko emaitzak izan ditugu: 49 kasuetatik, 23 izenen definizioak izan dira, 4 adjektiboena eta 16 aditzenak. 2 definizio geratu dira markarik gabe.

Aurretik III. kapituluan aipatu dugun bezala, definizioko gunea ezagutu eta erlazioak ateratzeko *Murritzapen Gramatika* erabili dugu. Gramatika honen bitartez gune hori ezagutzeko garaian, azaleko analisi sintaktikoa eginda ez izatea arazo bat izan da. Izan ere, *datibo*-marka daraman izen baten bila baldin bagoaz, gerta daiteke izen horrek ondoren adjektiboa izatea modifikatzaile gisa. Azaleko sintaxia markatuta izango bagenu, gure helburua litzateke izen-sintagma horren gunea ezagutzea, eta dagoeneko sintagma ezagututa legokeenez, ez genuke arazorik izango. Sintaxia markatuta ez dagoenez, gure erregela-kopurua handitu behar izan dugu, balizko aldaera guztiak kontuan hartu behar izan ditugulako. Hala, guk landu behar izan dugu definizioen sintaxia —izen-sintagma, batik bat—, eta definizioetan dauden sintagmak ezagutzeko erregelak sortu ditugu.

dukat. A0. iz. Urrezko eta zilarrezko zenbait *diru*
zaharri ematen zaien izena.

Adibide honetan *dukat* sarreraren *hiperonimoa* diru dugu, eta ez juxtu *datiboa* daraman hitza.

Beste arazo bat da bi erlature berezi elkarren segidan agertzea. Alegia, zatietako bakoitza segida baldin badugu, bakoitza erlatureak adieraziko digu sarrera hitzaren *hiperonimoa* izango dela bere aurretik duen izena; kasu honetan zati da izen hori, baina hau, era berean, *meronimia* markatzen duen erlaturea dugu. Oraingoz lehen erlaturea besterik ez dugu markatuko halakoak ez direlako asko hiztegian barrena, baina hauek detektatzea eta lantzea etorkizuneko lana izango da.

liburuki. A0 iz. Idazlan hedatuak banatzen diren **zati** **etako bakoitza**, bereiz josten eta argitaratzen direnak.

Oso zaila da halakorik erregeletan zehaztea, eta, berez, agertuko zaigu liburukiren *hiperonimoa* zati dela.

Ondorengo kapitulura pasa baino lehen komenigarria iruditu zaigu lortutako emaitzak azpimarratzea. Sinonimio, genus eta erlature bereziei esker 48.156 erlazio markatu ditugu.

sin	19.442
genus	14.985
erlz	10.494
erlt	13.729

54. taula. Erlazio-kopurua.

Hiztegian dauden definizioak kontuan hartuta, hona erlazio bakoitzarekin markatzen ditugunak.

erlazioa	markadun definizioak	guztiarikoko ehunekoak
sin	19.442	42,48
genus	14.985	35,98
erlz	10.494	26,19
erlt	13.729	31,58

55. taula. Markadun definizio-kopurua.

Ondorio hauek dira, beraz, EHtik informazioa erazteko garaian lortu ditugun lehenak. Ondorengo atalean, sarrera-hitz diren elementuei beste modu batean erreparatuko diegu. Hemendik aurrera aztertuko ditugun hitzak eratorriak izango dira.

Amaia, haurrari hau erakusten saiatuko gara, ezta?

Muxuk.

irri	A0	iz. Barrea , bereziki isekazkoa.
irribarre	A0	iz. Barre xumea, begitartearen keinu sotil batez adierazten dena.
barre	A0	iz. Poz bizia eta bat-batekoa adierazten duten aurpegiko giharren mugitze bereziak, gehienetan hasperen zaratatsuekin batera egiten direnak.

Irria, lanik eztieta
ondorio ezin errana...
Oin aberasten ukailea
biluzi gabe emailea...
Zoin lastergi den iragana,
betikotz daukalarik emana
Pobreenari aberatsenak
ezin kenduzko ondasuna

Akituaren eztingarri
etsituaren altxagarri
doluminetan goxagarri
nahigabeetan sendagarri
Irria ez da erosten
ez eta ere ebasten
Emaitzean balioa hartzen
ez baitu diruak kundatzen

Irria, ezperantza xori
gure anaientzat mezulari.
Gau egun beltzetan kantari
goroko bizi berriari,
Ezpain bihotzetan irria
kanta mutil libertatia!
zabal munduari egia!
nausituko da justizia

I-rrri-aaaa, i-rrri-aaaa, i-rrri-aaa, ii-rrri-aaaa.

(P. Ospital, P. Carrere)

V. Eratorpena

V.1. Sarrera

Aurreko atalean ikusi berri dugu hiztegi elebakar batean agertzen den erlazio nagusia: sarrera-hitza eta definizioko hitz baten artekoa, alegia. IV.7.3. atalean ikusi dugunez, ordea, adjektiboen artean beste kategorietan dugun informazioa baino gutxiago dugu. Hau normala da genus informaziorik ez dagoelako adjektiboen artean, eta informazio gehiago erlatoeren bitartez lortzen delako. Baina, era berean, konturatu gara erlatoe berezi jakin batzuk, askotan eratorpen-atzizki jakin batekin daudela lotuta, eta eratorpenak euskarazko hitzen sorkuntzan indar handia duenez, aztertzea erabaki dugu.

Atal honetan bilatuko dugun erlazioa ez da sarrera-hitzaren eta definizioan agertzen den hitz baten artekoa, baizik eta sarrera hitzak berak bere barruan duen beste hitz batekin duen erlazioa. EHN agertzen diren sarrera-hitz eratorriak aztertu nahi ditugu.

Ertorpenaren barruan, hitz eratorriaren eta oinarriaren artean zenbait erlazio lexiko-semantiko berezi sortzen dira. Horiek eratorriaren esanahiaren araberakoak izaten dira, eta, eratorpen-atzizki bera duten hitzek esanahi diferenteak izan ditzaketenez, oinarriarekiko erlazioak ere desberdinak dira. Beraz, atzizki batekin sortutako eratorriek adiera bat baino gehiago baldin badute, eratorriaren eta oinarriaren arteko erlazioak ere bat baino gehiago izango dira, eta beraz, erlazioa ambigua izango da. Gure helburua erlazio hori zein den jakitea da, eta, horretarako,

hiztegian agertzen den definizioa baliatu dugu. Azken ideia hau azpimarratu nahi dugu tesi-lan honen aportazio nagusietako bat delako. Anbiguotasun semantikoa automatikoki ebatzea oso zaila da, eta guk, kasu honetan, definizioei esker ebatzi ahalko dugu. Eratorriaren esanahiaren arabera, definizioetan halako eskema jakinak azalduko direla pentsatu dugu, eta eskema horiek detektatu ondoren, erregelak egin eta sarrera-hitza den eratorriaren eta bere barruan duen oinarriaren artean zein erlazio dagoen zehaztu dugu.

Aurreprozesuaren kapituluan azaldu dugu hitz eratorriak zeintzuk diren nola jakiten dugun, eta landu beharreko atzizki lexikalak zeintzuk diren nola erabaki dugun.

Landu beharreko atzizki lexikalak zeintzuk diren erabaki ondoren, horiei buruz literaturan zer esan izan den aztertuko dugu (Azkarate, 1990b; Azkue, 1923-1925; Lafitte, 1944; Villasante, 1974; Euskaltzaindia, 1985; 1987a; 1987b; 1991; 1992; 1993). Atzizki bakoitzarentzat hainbat interpretazio agertu zaizkigu, eta hori izango da atal honetan azaltzen saiatuko garena. Atzizki bakoitza analizatu dugu, eta, nahiz eta irakurgarritasuna erraztearren hona informazio osoa ez dugun ekarri, B. eranskinean zehaztu dugu atzizki bakoitzari dagokion informazio osoa. B. eranskinean atzizki bakoitzarekin sortutako hitzak zenbat diren paratu dugu, hauen oinarria zein kategoriatakoa den, atzizki bakoitzak izan ditzakeen interpretazioak, oinarrien ezaugarriak zeintzuk diren, eta abar.

Erorriaren adiera zein den definizio-eskemak adieraziko digu. Horretarako, definizio-eremuan deskribapen bat izatea garrantzitsua da, baina, zenbaitetan —dagoeneko IV. kapituluan ikusi dugun bezala— hitz bat definitzeko garaian sinonimo bat erabiltzen da. Halakoetan, sinonimo horren definizioa topatzen saiatu gara, bertatik nolabaiteko informazioa lortu ahal dugun ikusteko, eta, lortuz gero, hasierako sarrera-hitziari informazioa pasatzeko. Halako metodoari *sinonimiaren hedadura* deitu diogu, eta V.9.3. atalean zehatzago azaldu dugu.

Beraz, erorri horien adiera zein den zehaztu nahi dugu; eta, hitzen adierei buruz ari garenez, pentsatu dugu eratorriaren eta oinarriaren arteko lotura

*EuroWordNet*⁶⁴ txerta daitekeela, eta hala *EuskalWordNet* aberastu. Lotzeko garaian jakin beharko dugu *EuroWordNet*eko zein *synseti* lotu beharko ditugun oinarria eta eratorria, eta horretarako, hiztegi elebidunak, eta lortutako itzulpenek *EuroWordNet*en bertan duten adiera-zenbakia erabiliko dugu. Pentsatuko dugu euskarazko hitzen eta beste hizkuntzetako hitzen adieren artean kontzeptu bera baldin badago, kontzeptu hori dela eratorpen-prozesu horretan lortzen dena, eta hala lortuko dugu oinarriak adierazten duen kontzeptua eta eratorriak adierazten duen kontzeptua lotzea, eta lotura hori, beste hizkuntzetarako ere baliagarria izatea.

Adierak desanbiguatzeko erabiltzen den metodo automatikoa da tesi-lan honen beste aportazioetako bat.

Hemendik aurrera ikusiko dugun kapituluaren hezurdura honokoa da: V.2. atalean morfologiaren oinarrizko zenbait ezaugarri emango ditugu; V.3. atalean eratorpen-atzizkiei buruz eta hauek sailkatzeko moduei buruz hitz egingo dugu; V.4. atalean eratorpenak hiztegian duen isla aztertuko dugu; V.5. atalean hiztegian agertzen diren eratorpen-atzizkiak eta hauek dituzten adierak aztertuko ditugu; V.6. atalean definizioak erabiliz adiera-desanbiguazioa nola egiten dugun erakutsiko dugu; V.7. atalean emaitza orokorrak paratuko ditugu; V.8. atalean lortutako emaitzak *EuroWordNet*en txertatzeko egin behar den lana analizatuko dugu; V.9. atalean etorkizuneko lanak zehaztuko ditugu; eta V.10. atalean ondorioen eta etorkizuneko lanen bilduma jarri dugu.

V.2. Morfologia

Eratorpena aztertzea erabaki genuen berez erlazio lexiko-semanticoko bereziak daudelako oinarriaren eta hitz eratorriaren artean. Morfologian bi zati bereizten dira: hitz-eraketa eta flexioa. Bi zati hauen artean badago elkargune bat, dudazko kasuak, alegia.

Hitz-eraketaren barruan eratorpena eta hitz-elkarketa bereizten dira. Eratorpenean, parte bat beregaina da eta bestea ez; hitz-elkarketan, berriz, bi elementu beregain lotzen dira.

⁶⁴ *EuroWordNet*, aurrekarietan aipatu dugun bezala, hainbat hizkuntza batzen dituen ezagutza-base lexikala da. Sinonimo multzo bat kontzeptu baten isla da, eta sinonimo multzo horiei *synset* deitu ohi zaie.

Eratorpenaren eta flexioaren artean bada nahasketarik, baina eratorpena maila lexikoan gertatzen da, eta flexioa, aldiz, maila sintaktikoan eta perpaus mailan agertzen da.

Eratorpena	
maila lexikoa	zuritasun
	zuriketa

56. taula. Eratorpena.

Flexioa	
maila sintaktikoa	bertsoa
perpaus maila	datorrela

57. taula. Flexioa.

Hitz eratorria perpaus batean erabili ahal izateko, flexiora jo beharko dugu eta dagokion forma eman perpaus zuzena lortzeko. Beraz, morfologiaren barruan bada hierarkia bat:

hitz-eraketa → flexioa

Lehenik eratorpena aplikatuko da, eta ondoren flexioa.

V.2.1. Eratorpenaren eta flexioaren arteko ezberdintasunak

Eratorpenean atzizkiak askotan aldatuko du oinarriaren kategoria:

zuri (adj) → zuritasun (ize)

Kategoriaz gain, tasun semantikoak ere alda daitezke:

bertso (ize) → bertsolari (ize)

- bizidun + bizidun

+ konkretu + gizaki

Flexioak, aldiz, ez du kategoriarik aldatzen.

Eratorpen-atzizkiek esanahia aldatzen dute, eta semantikoki badu eraginik; badute eduki semantikoa. Horrezaz gain, klase irekia osatzen dute: atzizki berriak sor daitezke edo batzuk baztertu; adibidez, *-gailu* atzizkia ez zen mendebaldean erabiltzen, ekialdeko atzizkia baitzen.⁶⁵ Baina orain *-eta* euskara batuan garaile atera da— asko erabiltzen da mendebaldean.⁶⁶

⁶⁵ *Orotariko Euskal Hiztegia* (OEH) (Mitxelena eta Sarasola, 1987-) jartzen duenez, atzizki hau baztaneran, lapurteran, baxe-nafarreran, zubereran eta erronkarian erabiltzen zen.

⁶⁶ Baina gaur egun beste adiera batekin erabiltzen da.

Gauza bertsua gertatzen da *-go* atzizkiarekin; gainera, atzizkia ekialdekoa da izatez, baina orain mendebaldean erabiltzen hasi da barra-barra.⁶⁷ Mendebaldean *-tza* atzizkia erabiltzen zen.

Flexio-elementuek, aldiz, klase itxia osatzen dute, eta klase hauen ezaugarria da elementu berriak ezin sortu ahal izatea.

Emankortasun maila dela eta, flexio-elementuak erabat erregularrak dira, emankortasun osoa dute. Eratorpen-elementuak, aldiz, ez dira erabat erregularrak. Eratorpen-atzizki bakoitzak oinarri berezia behar du. Batzuek besteek baino lege zurrungoak dituzte, baina erregelak beti egongo dira.

Izen sintagma → izen multzoa + artikulua	Izena → aditz-oina + keta	Izena → izena + tza
mahaia	azterketa	jendetza
jendea	eginketa	aterkitza
erregela bat ematen denean, horrek ez du salbuespenik eta, daudenean, oso zehatzak dira	ez dute emankortasun osorik	

58. taula. Flexio- eta eratorpen-elementuen erregularutasun maila.

Aurreko taulan agertzen den *eginketa* ezingo da sortu; eta *aterkitzak* ere —lehenengo kolpean behintzat— aski arraroa dirudi.

Flexio-elementuak behin bakarrik aplika daitezke, ez dira errekurtsiboak —genitiboak izan ezik—; eratorpena, aldiz, errekurtsiboa da —oro har hitz-elkarketa errekurtsiboa da—.

Perpaua osatzeko, flexioa behar-beharrezkoa da, eta, eratorpena, aldiz, ez. Izan ere, dagoeneko aipatu dugun moduan, eratorpena maila lexikoan topatuko dugu, eta flexioa maila sintaktikoan eta perpau mailan.

Esanahi-kontuak aipatzen hasita, bai eratorpen-atzizkiek eta bai flexio-atzizkiek interpretazio bat baino gehiago izan ditzakete. Atal honetan aztertuko ditugu eratorpen-atzizkiek izan ditzaketen interpretazioak, eta VI. kapituluaren —definizio osoa aztertzen dugunean— flexio-atzizkien interpretazioak aztertuko ditugu.

⁶⁷ Erabilera ezezagun hau dela-eta, atzizki hau gaizki erabiltzen da mendebaldean.

V.3. Atzizki lexikalak

Elementu bat atzizki lexikala den edo ez erabakitzeke garaian kontuan izan diren kriterioak honakoak dira: maiztasuna, duten autonomia, esanahi-aldaketa, eta kategoria-aldaketa (Pérez Gaztelu *et al.*, 2004).

Hitz batek gero eta autonomia gutxiago baldin badu, eta maiztasun nahiko handiz beste hitz batzuekin batera —elkarrekin— agertzen bada, atzizki lexikalaren itxura duela pentsatuko dugu.

Horiez gain, kategoria-aldaketak ere garrantzia du. Oinarria kategoria batekoa izan, eta, delako atzizki horrekin juntatuz gero, kategoria aldatzen bada, atzizki lexikalaren zantzua izango du:

lodiera → dimentsioa adierazten duen izena

etorrera → ekintza adierazten duen izena

Guilbert-ek (1975) dioenez, atzizkia kategoria bat baino gehiagori eransten bazaio, honek esan nahi du atzizki hori oso indartsu eta aberatsa dela. Baina kategoria ezberdinetako oinarriak hartze honek ez du atzizki ezberdina denik adierazten. Hau da, oinarria kategoria batekoa izan edo bestekoa, interpretazio bera izango du, baina guk oinarriaren kategoriaren arabera bereizketa egin beharko dugu, eratorria eta oinarriaren arteko erlazioa ezberdinak direlako kasu batean eta bestean. Oinarriaren kategoriaren arabera, erlazio ezberdinak izango ditugu.

Demagun salerostegi eta behitegi hitz eratorriak ditugula. Bi kasuek *leku* bati egiten diote erreferentzia, baina eratorriaren eta oinarriaren arteko erlazioa ezberdina dute. Salerostegik salerosten den *leku* bati egingo dio erreferentzia, beraz erlazioa izena eta aditzaren artekoa da: *salerostegian salerosi egiten da*; eta behitegin, aldiz, oinarria behi izena da, eta erlazioa bi izenen artekoa da: *behitegian behiak gordetzen dira*.

Bauer-ek (1983) dioenez, berriz, atzizki bat baino gehiago dugun jakin ahal izateko esanahiari begiratu behar zaio. Atzizki lexikal bat zenbait oinarri lotu ondoren, hainbat esanahi baldin baditu, eratorpen-atzizkiaren interpretazio ezberdinak direla pentsatuko dugu.

eratorria	definizioa	interpretazioa
aitzurlaritz	aitzurlariaren lanbidea	lanbidea
sasitza	sasia dagoen lekua	lekua
eskaintza	eskaintzea	ekintza
mirabetza	mirabearen egoera	egoera
adiskidetza	adiskidearen nolakotasuna	nolakotasuna

59. taula. *-tzarekin* sortutako hitz eratorrien interpretazioak.

59. taulan, esanahiari begiratzen badiogu, badirudi bost multzo ditugula.

Hala ere, eta nahiz eta kriterio horiek izan, badira eratorpenaren eta konposizioaren arteko mugan diren elementuak. Guk, batik bat, eratorriaren eta oinarriaren arteko erlazioak lortu nahi ditugu, eta horretarako oso maiz agertzen diren konposizio-elementuek laguntzen bagaituzte, erabili egingo ditugu, hitz eratorria edo konposatua osatzen duten eztabaidan sakondu gabe. Muga-mugan dagoen atzizki horietako bat *-dun* da, baina *-dun* duten eratorrien eta hauen oinarrien arteko erlazioak erauzteko gai garenez, atzizki lexikal gisa landu dugu.

Behin elementu bat atzizki lexikala izan edo ez erabaki ondoren, arazoa izan ohi da atzizki horren lema zein den finkatzea.

-ari / -lari / -tari / -kari
-asun / -tasun / -arzun / -tarzun

Honen aurrean hainbat aukera ditugu: formarik zaharrena hartzea lematzat, edo gehien erabili den formari lehentasuna ematea, euskalki mailako kriterioa, alegia.

Lema zein den ezarri ondoren, aldaerak azaldu behar dira. Beste hizkuntzetan aldaerak azaltzeko baldintza fonetikoak aipatu izan dituzte, baina baita baldintza lexikoak ere, baldintza gramatikalak, eta abar.

Eratorpen-atzizkien kasuan baldintza fonetikoak hartu beharko ditugu kontuan. Testuinguru fonikoa begiratu beharko dugu, baina, hala ere, zaila izango zaigu asko zehaztea. Batez ere joerak finkatu beharko ditugu. Guk hemen azalduko dugun lanean ez ditugu aldaketa fonetikoak aztertuko,⁶⁸ eta eratorpen-atzizki batek hiztegian izan ditzakeen aldaera guztiak bilatzen saiatuko gara.

Ataltxo honekin amaitzeko, atzizkiak sailkatzeko erabili izan diren moduak ikusiko ditugu: Villasante (1974), Azkue (1923-1925), Lafitte (1944), eta Ithurri (1979), hain zuzen ere.

⁶⁸ Atzizki lexikalak aurreko hitzarekin lotzerakoan jasaten dituzten aldaketa fonetiko-fonologikoak aztertu ditu Izagirre-k (2004).

V.3.1. Alfabeto-hurrenkera (Villasante, 1974)

Alfabeto-hurrenkera proposatzen du Villasantek irizpide gisa. Hurrenkera honek baditu alde onak eta txarrak: onak, atzizkiak aurkitzea oso erraza dela; txarrak, zenbait kasutan atzizkia bera finkatzeko arazoak izango ditugula:

- (t) asun, - (t) ar, - (t) egi, - (k) izun, - (k) oi

Honelako kasuetan nora jo beharko dugu?

Gainera, balio bertsuko atzizkiak erabat sakabanaturik agertuko lirateke: *-le*, *-tzaile*. Askoz egokiagoa litzateke biak elkarren ondoan agertzea, beraien artean dauden berdintasunez nahiz desberdintasunez errazago jabetzeko.

V.3.2. Hitz berrien kategoria eta atzizkien esanahia (Azkue 1923-1925; Lafitte, 1944)

Beste batzuek bi irizpide hauen arabera sailkatu izan dituzte atzizkiak:

- Hitz berrien kategoria: izen-sortzaileak, adberbio-sortzaileak, aditz-sortzaileak, adjektibo-sortzaileak.
- Atzizkiaren esanahia. Izen-sortzaileen artean: *izen abstraktuen* sortzaileak, *agente* adierakoak, *leku* adierakoak, *denbora* adierakoak, eta abar; adjektibo-sortzaileen artean, *berriz*, *edukitzea* adierazten dutenak, *posizioa* adierazten dutenak, eta abar.

Era honetan adiera bertsua duten atzizkiak, edo antzekoak direnak, elkarrekin agertuko dira. Alfabetoaren araberako sailkapenak ematen ez dituen aukerak ematen ditu sailkapen modu honek.

Hala ere, honek ere badu arazo bat: esanahia beti labainkorra izaten da. Adibidez, Azkuek *izen abstraktutzat* hartzen dituenak, Lafittek banatu egiten ditu: *egoera* adierazten dutenak, *ondorioa* adierazten dutenak. Beste nahasketarik ere sortzen dira. Azkuek *-dun*, *jabegoa* adierazteko atzizkia dela dio; *-ti*, *-tsu*, ugaritasuna adierazteko; *-kor* eta *-bera*, *pasionales* omen dira. Lafittek, berriz, *-tsu*, *-dun* ugaritasuna adierazteko atzizkiak direla dio.

V.3.3. Oinarriaren kategoria (Ithurri, 1979)

Beste batzuetan lehen kriterioa hitz berrien kategoria da, eta bigarrena oinarriaren kategoria; izen-sortzaileen artean, oinarrian izena dutenak, adjektiboa dutenak, adberbioa dutenak, eta abar; adjektibo-sortzaileen artean, oinarrian izena dutenak, adjektiboa dutenak, eta abar.

Baina Ithurri-ren kasuan, lehen kriterioa oinarriaren kategoria da: izenari lotzen zaizkion atzizkiak, adjektiboari lotzen zaizkion atzizkiak, eta abar. Oinarria zein den, halako taldean sailkatuko da.

V.3.4. Lanen ondorioak

Aukerak ikusi ondoren, aipatu behar da gaur egungo egoera ikusiz, egokiagoa dela lehen kriterio bezala eratorriaren kategoria hartzea; bigarren kriterioa interpretazioa; eta hirugarrena oinarriaren kategoria. Hala ere, honek garrantzi gutxi izango du tesiaren idazketan, sortuko den datu-basean galdeketa egiten duenak erabaki dezakeelako zein irizpideren arabera sailkatu atzizkiak. Sortuko dugun ezagutza-basean eratorriak eta oinarriak lotuta izango ditugu, eta atzizki lexikalak ere agertuko dira.⁶⁹

Hemendik aurrera atzizki bakoitza ikusiko dugu eta hauek EHn duten isla.

V.4. Eradorpena *Euskal Hiztegian*

EHn ez da markatzen sarrera-hitz bat eratorria ote den edo ez. Beraz, lehen esan dugunez, hiztegian agertzen diren sarreren artean eratorriak zeintzuk diren ezagutu beharko dugu lehenik. Horretarako, aipatu dugun Ixa Taldean garatutako *Morpheus* analizatzaile morfologikoa (Urkia, 1997) erabili dugu, baina dituenak baino atzizki lexikal gehiago txertatuz. Kontua da *Morpheusek* oraingoz oso atzizki lexikal gutxi ezagutzen dituela,⁷⁰ eta lan honetarako berez ezagutzen dituenak baino gehiago erabili beharko ditugu.

⁶⁹ Gure helburuetako bat definizioei esker eratorriaren adiera ezagutzea denez, atzizkien taula azaltzen dugunean, atzizki bakoitzaren aukera guztiak elkarrekin jarriko ditugu, duen anbiguotasun maila ikus dadin.

⁷⁰ *Morpheusek* EDBLn landuta dauden atzizki lexikalak ezagutzen ditu, eta, gaur egun 21 dira: *ño, txo, tzar, garren, pe, na, ka, xe, te, tze, arazi, tsu, gile, dun, ki, tasun, dura, pen, men, mendu, garri*.

Lehenik zehaztu behar izan dugu zein atzizki lexikal txertatu analizatzailean. Horretarako sarrera-hitz guztiak hartu ditugu, eta zeintzuk diren usuen agertzen diren hitz-amaierak ikusi. Horiekin zerrenda bat osatu dugu atzizki lexikal direnak erauziz. Zerrenda horretan hitz konposatuak sortzen dituzten elementuak ere agertu zaizkigu —*aldi*, *bide*, eta abar—; halakoak hiztegi-sarrera baten elementu gisa askotan agertzen dira, eta hitz konposatua eta oinarriaren arteko erlazioa bereizteko gai izango garelakoan, modu berean landu ditugu.

Beraz, lehenik analizatzaile morfologikoa aplikatu diegu sarrera-hitzei eta hortik balizko hitz eratorriak erauzi ditugu. Behin horiek izanda, hauen definizioak aztertu ditugu eta ikusi ea zeintzuk diren agertzen dituzten ezaugarri bertsuak, eta ea horien bitartez jakin ahal dugun eratorri horren esanahia zein den. Esan dugun bezala, atzizki lexikal batek esanahi bat baino gehiago izan ditzake. Adibidez, *-tza* atzizkiarekin osatutako hitza *lanbidea* izan ahalko da —*olerkaritza* modukoetan— edo *lekua* —*sasitza* bezalakoetan—. Beraz gure helburua izango da eratorri horren interpretazioa zein den jakitea, eta, hori jakin ondoren, zehaztu ahal izango dugu zein den eratorriaren eta oinarriaren arteko erlazioa. Kasu honetan, *olerkaritza* jakin ahal izango dugu eratorriak adierazten duen *lanbidea* olerkariarena dela, eta bestean, *sasitzak* adierazten duen *lekuan*, *sasi* asko izango dugula. Bi hauek oso definizio mota ezberdinak dituzte hiztegian, eta guk, definizio-patroiak zeintzuk diren detektatuz, bat edo beste den zehaztu ahalko dugu.

olerkaritza A0 iz. Olerkariaren **lanbidea**.

sasitza A0 iz. Sasidia, sasiz beteriko **lekua** edo **saila**.

Behin definizioak aztertu ondoren, eratorriaren esanahia zehazteko garaian konturatu gara oso garrantzitsua izan daitekeela aurretik *sinonimiarekin* egindako lana. Askotan agertzen da hitz eratorri bat sinonimo baten bitartez definitua. Beraz, deskripziorik ez dagoenez definizio-eremu horretan, ezin zehaztuko dugu zein den sarrera-hitzaren interpretazioa. Baina, sinonimoa detektatzen badugu, eta suposatuko dugunez bi sinonimo horien interpretazioa bera dela, sinonimo hori hiztegian bilatu ahalko dugu eta deskribapen bat baldin badu definizio-eremuan, orduan gai izango gara zein interpretazio duen jakiteko. Eta, ondorioz, lehenengo sarrera-hitzaren interpretazioa ere zehaztu ahal izango dugu. Halako adibidea V.6. atalean ikusiko dugu.

Eta sinonimoa hitz eratorria dela ezagutzuz gero —sinonimo horiei analizatzaile morfologikoa aplikatuz— interpretazioa ezagutzeko beste modu bat dugu. Sinonimo eratorriak duen atzizkiaren arabera oinarriaren eta eratorriaren arteko erlazioa zehaztu ahalko dugu. Adibidez, *-tza* atzizkiak interpretazio bat baino gehiago ditu: *nolakotasuna*, *lanbidea*, *lekua*, *ekintza*. Eta *simaurtzaren* definizioan *sinonimo* bat dugu: *simaurtegi*. *-tegi* beti *lekua* adierazten duenez, jakin ahalko dugu *simaurtza* ere *lekua* izango dela, eta jakin ahalko dugu *leku* horretan *simaurra* izango dela.

Adibidean ikusi dugunez, gerta daiteke sarrera-hitzak duen atzizki lexikala eta definizioan agertzen den atzizki lexikala anbiguoak izatea, baina biek dituzten interpretazioen arteko ebakidura bakarra izatea. Orduan pentsatu beharko dugu ebakidura den hori izango dela bi sinonimo horien interpretazioa. Hala ere, adiera erabakitzeke metodo hau ez da definizioa erabiltzea bezain zehatza, eta bazterreko kasuetan besterik ez dugu aplikatuko.

Sinonimoen definizioak erabiltze honi *sinonimiaren hedadura* deitu dugu. Oraingoz ez dugu aplikatu, baina V.6. ataleko adibidean ikusiko dugunez, informazioa asko heredatzen denez, etorkizunean aplikatu beharrekoa izango da.

V.5. Euskarazko eratorpen-atzizkiak EHn

Hiztegiarekin lan egiten dugunez, guri gehien interesatuko zaizkigun eratorpen-atzizkiak hiztegiko sarreren artean agerpen nabarmena dutenak dira. Horretarako, lehenik jakin behar dugu hiztegiko definizioen artean zeintzuk diren amaiera usuenak, eta horietatik erauzi zeintzuk diren atzizki eta zeintzuk ez diren deus. Izan ere, kontuan izan behar da zerrenda honetan ez direla atzizki lexikalak bakarrik izango. Batzuetan aldaerak ere sartu behar izan ditugu, analizatzaileak erregela morfo-fonologikoak ezin dituelako baliatu —une honetan aztertu gabe daudelako—. ⁷¹

⁷¹ Erregela hauek aplikatu nahi izanez gero, atzizki bakoitzak dituen erregela fonologiko guztiak zehaztu beharko lirakeke, eta lan honen helburu zuzena hori ez denez, modu sinpleago batean egitea erabaki dugu, nahiz eta zenbaitetan aldaerak atzizki lexikal gisa tratatu behar izan ditugun. Hauek gain, zerrendan konposizioa egiten duten elementuak ere agertu dira. Guk, zerrenda eratzeko garaian interesgarri izan daitezkeen maiztasun handieneko amaierak jarri ditugu.

Zenbait letra-segida askotan agertzen dira sarrera-hitzen amaieran —*sun* (825 aldiz) eta *ria* (509 aldiz)—, baina horiek ez dira atzizki lexikalak. *ari* —448 aldiz— eta *tza* —443 aldiz— letra-segidek, aldiz, badute atzizki lexikalen itxura, eta horiek ontzat emango ditugu azterketa honetarako. Modu honetako azterketa eginez, hona analizatzailean integratu ditugun atzizkien zerrenda:

ada	alde	aldi	antza	antzia	arazi	ari	aro
arte	asun	be	bera	bide	buru	dade	dar
date	degi	di	dore	du	dun	dura	era
eria	erraz	eta	etsi	ezia	ezin	gabe	gai
gailu	gaitz	garri	gile	gin	gintza	go	goa
gorri	grafia	gune	ismo	ista	kada	kaitz	kara
kari	keria	keta	ki	kide	kin	kintza	kizun
ko	koa	koi	kor	kume	kunde	kuntza	lari
le	leku	liar	logia	logia	men	mendu	mentu
ondo	ontzi	orri	pe	pen	tade	tar	tara
tari	tasun	tate	te	tegi	ti	tiar	toki
tsu	tu	tun	tura	txe	txo	tza	tzaile
tzar	tze	tzia	ume	zahar	zain	zale	zia
zio							

60. taula. Analizatzaileari gehitu dizkiogun eratorpen-atzizkiak eta konposizio-elementuak.

Oraingoz atzizki bakoitzari ez diogu inongo murriztapenik jartzen, baina etorkizunean, atzizki bakoitzak oinarrian hartzen duen elementua zein kategoriatakoa den zehaztu ondoren, zehaztu beharko da zeintzuk diren onargari eta zeintzuk ez (ikus V.9.2. atalean etorkizuneko lana).

Definizioak aztertzen hasi baino lehen jakin beharko dugu atzizki bakoitzaren azpian zein erlazio dugun. Egokiena litzateke atzizkiak multzokatzea, eta gure helburua eratorriaren eta oinarriaren arteko erlazioa erauztea denez, agian egokiena litzateke horren arabera multzokatzea. Kontua da, oraingoz ez dugula atzizki lexikalen halako errepresentaziorik ikusi, eta zenbaitetan oso zaila dela erlazioa etiketa bakar batekin zehaztea. Beste hizkuntzetan egin diren lanei erreparatuta, interpretazioen arabera sailkatzea erabaki dugu, eta parafraseatu eratorriaren eta oinarriaren artean zein erlazio dagoen.

Normalean interpretazioak eratorriaren eta oinarriaren artean zuzenean sortuko dira, eta esango dugu halakoetan bi elementuren arteko erlazioa dugula. Zenbaitetan adjektibo eta aditz baten arteko erlazioa izango da, berez izenen eta aditzen arteko erlazioa dena, baina hala utziko dugu —aditz baten *berezko objektua adjektibo* bat dela esatea, kasu—.

Baina bestetan, tartean *aditz* edo *ekintza* bat dagoela sumatuko dugu. Dagoeneko azaldu dugu *–gileren* kasua. Halakoetan eratorriaren eta oinarriaren artean *berezko objektu* erlazioa dagoela esaten badugu, tarteko aditz baten beharra sumatuko dugu. Aditz hori zein den definiziotik erauzi beharko dugu —ahal denetan, behintzat—, eta beraz, erlazioa hiru elementuren artekoa dela esango dugu.

Hona eratorri eta oinarrien arteko erlazioak bi multzotan: bi elementuren arteko erlazio direnak eta hiru elementuren arteko erlazioak.

V.5.1. Bi elementuren arteko erlazioak

Atal honetan atzizki bakoitzak izan ditzakeen oinarriekin dituen erlazioak azalduko ditugu. Hemen taula laburtua paratu dugu, eta B. eranskinean, atzizki bakoitzari buruzko informazioa dagoen lekuan taula osoa eman dugu.

Hona ondoko taulan zutabeka eman dugun informazioa: atzizki lexikala⁷², honen interpretazio parafraseatua —*interpretazioa*—,⁷³ oinarriaren kategoria —*oinarria*—, eratorriaren kategoria —*eratorria*—, adibideak —*adibidea*—, eta definizio-patroi nagusia —*definizio-patroia*—.

Adibidez, *–ari*, *–lari*, *–kari*, *–tari* atzizki lexikalek edo aldaerek *ADI(t)zen duen pertsona* interpretazioa duenean, oinarria aditza da —parafraseoan agertzen den *ADI* hori, hain zuzen ere—, eta eratorria izena edo adjektiboa da. Eratorri hauen definizioetan *–t(z)en duena* definizio-patroia agertu ohi da.

beilari	A1	iz.	Beilatzen duena.
marraskari	H2A0	izond.	Marraskatzen, hortzikatzen duena.

beilariaren interpretazioa *beilatzen duen pertsona* da, eta marraskarirena *marraskatzen duen pertsona*. Nahiz eta definizioetan bestelako aditzak agertu, oinarrian dagoen aditza hartzen dugu interpretazioa emateko garaian.

Askotan, interpretazioa eta definizio-patroia bat datoz, baina ez beti. Definizio-patroietan, zenbaitetan, izartxoak paratu dugu (*) edozer ager daitekeela adierazteko.

⁷² Atzizkiak eta aldaerak bildu egin ditugu espazio-kontuak direla-eta. Eranskinean emandako tauletan, berriz, leku bera dute bai atzizkiek eta bai hauen aldaerek.

⁷³ Parafraseatzerakoan agertzen diren kategoriak oinarriarenak dira. *–ariren ADI(t)zen duen pertsona* baldin bada *beilariaren* interpretazioa, *beilatzen duen pertsona* dela adierazi nahi dugu.

atzikia	interpretazioa	oinarria	eratorria	adibidea	definizio-patroia
arazi	ADIt(z)era behartu	adi	adi	bataiarazi	-ra behartu
ari, lari, kari, tari	ADIt(z)en duen pertsona	adi	ize / adj	beilari, marraskari, marrumalari	-t(z)en duena
ari, kari	ADIt(z)eko tresna	adi	ize	oinazekari	-t(z)eko tresna
	IZEren laguntzaz sortzen den soinua	ize	ize / adj	ezpainkari	
	ADIz sortzen den soinua	adi	ize / adj	igurzkari	
	IZE denborako maiztasuna duen aldizkaria	ize	ize / adj	hilabetekari	-en aldizkaria
bera	ADIt(z)eko joera duena	adi	adj	maitabera	-t(z)eko joera duena
	IZE joera duena	ize	adj	gosebera	-t(z)eko joera duena
di	IZE asko dagoen lekua	ize	ize	pinudi	-z beteriko lekua
	IZEren multzoa	ize	ize	ontzidi	-en multzoa
dun	IZE duena	ize	ize / adj	kaskodun, gorpuzdun	* d(it)uena
dura	ADIt(z)ea	adi	ize	ebakidura	-t(z)ea
	ADJ izatearen nolakotasuna	adj	ize	hezadura	-tasun
era	ADIt(z)ea	adi	ize	irteera	-t(z)ea
	ADIt(z)eko modua	adi	ize	egoskera	-t(z)eko era
	IZE / ADJ ezaugarria duen neurria	ize / adj	ize	lodiera	-en neurria
	IZEko hizkuntza; IZEren hizkuntza	ize	ize	bulgariera	-ko hizkuntza
eria	IZEren multzoa	ize	ize	ikasleria	-en multzoa
gailu	ADIt(z)eko tresna	adi	ize	destilagailu	-t(z)eko tresna
garri	ADI daitekeena	adi	adj	gomendagarri	* merezi duena; * daitekeena
garri	ADIt(z)en duena	adi	ize / adj	harrigarri, sendagarri	-t(z)en duena
go, goa	IZE / ADJ izatearen nolakotasuna	ize / adj	ize	erkidego, eskalego	-en nolakotasuna
	IZEren lanbidea	ize	ize	sorgingo	-en lanbidea
	IZEren multzoa	ize	ize	udaltzaingo	-en multzoa
kada	IZEk duen eduki-neurria	ize	ize	basokada	-en edukia
	IZEz emandako kolpea	ize	ize	adarkada	-z jotako kolpea
	ADIt(z)ea	adi	ize	ziztada	-t(z)ea
keria	IZE / ADJ izatearen nolakotasun gaitzesgarria	ize / adj	ize	gozokeria	-tasun gaitzesgarria
	IZE / ADJren ekintza	ize / adj	ize	maltzurkeria, pailazokeria	-i dagokion egitea
keta	ADIt(z)ea	adi	ize	marrazketa	-t(z)ea
	IZEren multzoa	ize	ize	gazteketa	-en multzoa
ki	ADIt(z)eko tresna	adi	ize	epaiki	-t(z)eko tresna
	IZEren haragia	ize	ize	abelgorriki	IZE okela
	IZEren zatia	ize	ize	liburuki	-etako bakoitza
	IZEzko gauzakia	ize	ize	buztinki	-zko gauzaki

61. taula. Bi elementuren arteko erlazioak dituzten atzizki lexikalen ezaugarriak.

atzikia	interpretazioa	oinarria	eratorria	adibidea	definizio-patroia
kin	ADIt(z)en dena	adi	ize	eranskin	-t(z)en den zera
ko	IZEn dagoen pertsona	ize	ize	itaurreko	* dagoena
	IZEn ematen den kolpea	ize	ize	ipurdiko	* kolpea
	IZEn eramaten den jantzia	ize	ize	buruko	* jantzia
koi	ADIt(z)eko joera duena	adi	adj	eskurakoi	erraz *-t(z)en dena
	IZEkiko joera	ize	adj	dirukoi	-zalea
kor	ADIt(z)eko joera duena	adi	adj	erorkor	-t(z)eko joera duena; erraz *-t(z)en dena
kunde	ADIt(z)ea	adi	ize	hazkunde	-t(z)ea
kuntza	ADIt(z)ea	adi	ize	bahikuntza	-t(z)ea
	IZEren lanbidea	ize	ize	medikuntza	-en lanbidea
le, tzaile	ADIt(z)en duen pertsona	adi	ize / adj	goresle, eraisle, gazitzaile, erretzaile	-t(z)en duena
men, pen	ADIt(z)ea	adi	ize	ukamen, bedeinkapen	-t(z)ea
men	ADIt(z)eko ahalmena	adi	ize	asmamen	-t(z)eko ahalmena
tar / dar	IZEn sortutako pertsona	ize	ize / adj	baserritar, bizkaitar	-ko biztanlea, -n sortua
	IZEren jarraitzailea	ize	ize / adj	mahomatar, kalbindar	-en jarraitzailea
tasun	IZE / ADJ izatearen nolakotasuna	ize / adj	ize	hautasun, hauskortasun	-en nolakotasuna, ADJ denaren nolakotasuna
	IZE / ADJ izatearen egoera	ize / adj	ize	erbestetasun, drogazaletasun	-en egoera, ADJ dagoenaren egoera
te, tze	ADIt(z)ea	adi	ize		-t(z)ea
te	IZE ezaugarria duen denbora	ize	ize	berote	* denbora; * aldia
	IZE multzoa	ize	ize	zortzikote	* taldea
tegi	ADIt(z)eko lekua	adi	ize	salerostegi	-t(z)eko tokia
	IZEren multzoa	ize	ize	arautegi	-en multzoa
ti	ADIt(z)eko joera duena	adi	adj	izuti	erraz *-t(z)en dena
	IZE joera duena	ize	adj	setati	-t(z)eko joera duena
ti (di)	IZE asko dagoen lekua	ize	ize	sahasti	* lekua
tsu	IZE duena	ize	adj	adarrondotsu	-z betea; IZE (asko) dagoena
tza	IZEren lanbidea	ize	ize	aitzurlaritzza	-en lanbidea
	IZE asko dagoen lekua	ize	ize	sasitza	* saila; * lekua
	ADIt(z)ea	adi	ize	eskaintza	-t(z)ea
	IZE / ADJ izatearen egoera	ize / adj	ize	mirabetza, haurduntza	-en egoera
	IZE / ADJ izatearen nolakotasuna	ize / adj	ize	arintza, adiskidetzza	-en nolakotasuna
zio	ADIt(z)ea	adi	ize	benedizio	-t(z)ea

62. taula. Bi elementuren arteko erlazioak dituzten atzizki lexikalen ezaugarriak.

V.5.2. Hiru elementuren arteko erlazioak

Bestetan, erlazioan hiru elementuk hartzen dute parte. Nahiz eta guk esan *pilotari* eta *pilotaren* artean *berezko objektu* erlazioa dagoela, hor tartean definiziotik erauzi behar dugun aditza dago, kasu honetan *jokatu* aditza.

pilotari A0 iz. Pilotan *jokatzen* duen pertsona; bereziki, *pilota* jokoa lanbidetzat duena.

Izan ere, *berezko objektua* aditz eta izen baten arteko erlazioa da, eta ez bi izenen artekoa, baina hitz eratorrian bi izen ditugunez, erlazioa bi izenen artekoa dela diogu. Honi buruzko informazio zehatza B. eranskinean duzue, atzizki lexikal bakoitzari dagokion atalean.

Aditza ez da bera kasu guztietan. *talogileren* kasuan, adibidez, *egin* da *talo* eta *talogileren* artean dagoen aditza. Eta *urregileren* kasuan, *landu* da *urre* eta *urregileren* artean dagoena.

talogile A0 iz. Taloak *egiten* dituen pertsona.

urregile A0 iz. Urrea *lantzen* duen pertsona.

atzizkia	interpretazioa	oinarria	eratorria	adibidea	definizio-patroia
ari, lari, kari, tari	IZEa ADIt(z)en duen pertsona	ize	ize	pilotari, neurtizlari	IZE ADIt(z)en duena
gile, gin	IZEak ADIt(z)en dituena	ize	ize	talogile, upagin	IZE ADIt(z)en duena
gintza	IZEak def-ADIt(z)eko jarduna (lanbidea)	ize	ize	bidegintza	IZE egiteko lanbidea
keta	IZE def-ADIt(z)ea	ize	ize	egurketa	IZE *-t(z)ea
tegi	IZE def-ADIt(z)en den lekua	ize	ize	behitegi	IZE *(z)en den lekua

63. taula. Hiru elementuren arteko erlazioak dituzten atzizki lexikalen ezaugarriak.

Aurrekoen artean, *-gile*, *-gin* eta *-gintza* talde honetan bakarrik daude —hiru elementuren arteko erlazioetan, alegia—, eta *-ari*, *-lari*, *-kari*, *-tari*, *-keta* eta *-tegi* bi elementuren arteko erlazioetan ere agertzen dira.

V.6. Atzizkien interpretazioak nola zehatzu definizioak erabiliz

Hiztegi-sarrera eratorriak ezagutu ondoren, oinarriaren kategoria zein behar duen aztertu ondoren, eta eratorriaren balizko adierak zeintzuek behar duten aztertu

ondoren, eratorri horiek eta hauen definizioak aztertuko ditugu. Oro har, adiera bakoitzerako hiztegitik definizio-eskema jakin batzuk erabiliko ditu; horiek erabilia zehaztu ahalko dugu eratorriaren interpretazioa zein den, eta, horren arabera, eratorriaren eta oinarriaren arteko erlazioa zein den.

Prozesu osoa adibide bat erabiliz azalduko dugu. Demagun *-tzadun* eratorriak aztertu nahi ditugula. 64. taulan atzizki honek izan ditzakeen oinarriak eta interpretazioak daude.⁷⁴

atzizkia	interpretazioa	oinarria	eratorria	adibidea	definizio-patroia
tza	IZEren lanbidea	ize	ize	aitzurlaritzza	-en lanbidea
	IZE asko dagoen lekua	ize	ize	sasitza	IZE saila
	ADIt(z)ea	adi	ize	eskaintza	-t(z)ea
	IZE / ADJ izatearen egoera	ize / adj	ize	mirabetza, haurduntza	-en egoera
	IZE / ADJ izatearen nolakotasuna	ize / adj	ize	arintza, adiskidetza	-en nolakotasuna

64. taula. *-tza* atzizkidun hitz eratorrien balizko adierak.

-tza atzizkiak oinarrian izenak, aditzak eta adjektiboak izan ditzake, eta, beraz, horren arabera ezingo dugu analisi morfologikoan dugun loturarik baztertu. Hona *sasitza* hitzarentzat analizatzaile morfologikoak ematen dituen aukerak:

sasitza	sasitu	KAT_ADI	tza
sasitza	sasi	KAT_ADJ	tza
sasitza	sasi	KAT_IZE	tza

Horren arabera, eta 64. taulan ditugun interpretazioen parafraseak kontuan hartuta, 65. taulan jarri ditugu *sasitza* hitzaren balizko interpretazio guztiak.

oinarria	interpretazioa
aditza	sasitzea
adjektiboa	sasi izatearen egoera edo nolakotasuna
izena	sasi asko dagoen lekua
	sasi izatearen egoera edo nolakotasuna
	sasiaren lanbidea

65. taula. *sasitza* hitzaren balizko interpretazio guztiak.

Beraz, puntu honetara arte interpretazio guztiak zilegi dira. Ondoren, zilegitasun hori egiaztatzeko, hiztegitik definizioa erabiliko dugu. Erregelak egin ditugu interpretazio bakoitzerako. Horretarako III.7. atalean aipatu dugun *Murritzapen Gramatika* erabili dugu, eta morfologikoki analizatutako definizioaren gainean aplikatu dugu definizio-patroien arabera atzizki bakoitzaren interpretazioak ezagutzeko garatutako gramatika.⁷⁵ Gainera, lehendik ditugun markak erabiltzen saiatuko gara; izan ere,

⁷⁴ Hau 62. taularen zatia da.

⁷⁵ Atzizki lexikal bakoitzaren interpretazioak kontuan hartuta, atzizki bakoitzari dagokion gramatika sortu dugu, eta, guztiak, I.7. eranskinean eman ditugu.

askotan gertatuko da sarrera-hitz eratorri bat *sinonimo* baten bitartez definitzea, eta horiek ezagutzea oso garrantzitsua da *sinonimiaren hedadura* aplikatu ahal izateko.

Adibidearekin jarraituta, definizioan bilatuko dugu ea leku,⁷⁶ egoera, nolakotasun edo lanbide⁷⁷ agertzen diren, eta horren arabera, interpretazioa zein den zehaztu.

sasitza A0 iz. Sasidia, sasiz beteriko **lekua**
edo **saila**.

Beraz, kasu honetan leku eta sail agertzen direnez, sasitza horren interpretazioa *lekua* dela esango dugu, eta oinarriarekin duen erlazioa *sasia egotea*.

-tza atzizkiarekin lortu ditugun emaitzak begiratzuz, analizatzaile morfologikoak 327 —326 izenen artean eta 1 *adjektiboen* artean— bikote lortu ditu. Sarrera-hitz baten barruan, analizatzaile morfologikoak bikote bat baino gehiago dagoela erabaki dezake:

eratorria	oinarria	oinarriaren kategoria	atzizkia
lumatza	lumatu	ADI	tza
lumatza	luma	IZE	tza

66. taula. lumatza sarrera-hitzaren analisi morfologikoa.

Bikoizketa hauek kontuan izanez, -tza duten sarrerak 286 dira —285 izen kategoriakoak eta 1 *adjektibo* kategoriakoa⁷⁸—. Gainera, sarrera-hitz forma batek adiera bat baino gehiago izan ditzake, baina analizatzaileak behin ezagutuko du.

errektoretza A0N1 iz. Errektorearen lan egoitza.

errektoretza A0 iz. Errektorearen lanbidea eta kargua.

Analizatzaileak lortutako bikote horietatik, 87k dute oinarrian aditza, 45ek adjektiboa eta 195ek izena —1 *adjektibo* kategoriako eratorrien artean—. Atzizki bakoitzari buruzko halako informazioa B. eranskinean jarri dugu.

⁷⁶ leku diogunean, halako hitz bat bilatuko dugu: leku, toki, sail, eremu, baso, oihan. Etorkizunean multzo hauek definitzeko garaian, *EuskalWordNeteko synsetak* erabili ahalko ditugu.

⁷⁷ lanbide diogunean, halako hitz bat bilatuko dugu: lanbide, kargu, aginte, titulu, ogibide, antze, bizibide, agintaritza, jardun, maila, lana, betekizun, egiteko.

⁷⁸ espioitza da adjektiboen artean dagoen adibidea, eta errorea da, definizioa izenarena baitu: espioi lana.

Eratorriak	izen		izen-adjektibo	adjektibo	
Oinarriak	ADI	87	ADI	ADI	
	ADJ	45	ADJ	ADJ	
	IZE	194	IZE	IZE	1
	Denera	326	Denera	Denera	1

67. taula. *-tzadun* eratorriak: eratorriaren eta oinarriaren kategoriaren arabeko kopuruak.

286 sarrera-hitz horien definizioak aztertuta, 127 sarrera-hitz sailkatu ditugu interpretazioen arabera. 68. taulan dago multzokaketaren emaitza. honekin:

nolakotasuna	9
egoera	4
lekua	13
lanbidea	101
denera	127

68. taula. *-tzadun* eratorrien ezagututako interpretazioen kopurua.

286 horietatik, definizioan sinonimoa duten sarrera-hitzak 102 dira. Horietako 19k, sinonimoaz gain, deskribapena dute, eta 19 horietatik 6 kasutan lortzen dugu sarrera-hitzaren interpretazioa; ondorioz, 96 sarrera-hitzen interpretazioa sinonimoen interpretazioen bitartez lortzen saiatuko gara, lan hau automatikoki egitea merezi duen baieztatzeko.

Sinonimodun 96 definizio horiek aztertu ondoren, hona dugun informazioa. Eratorpenaren bitartez ezagutu ditzakegun sinonimoak 82 dira; denera 66 definiziotan daude. Eratorriak ez diren sinonimoak, berriz, 41 dira, denera 30 definiziotan.

Ezagutzen ditugun 82 sinonimoetatik, 64 sinonimorentzat lortzen dugu informazioa —*informazioa bai* errenka—, denera 52 definiziotan daude. Guztira, 59 sinonimorentzat ez dugu informaziorik lortzen —*informazioa ez* errenka—, denera 44 definizio.

	eratorria		ez-eratorria	
	definizioak	sinonimoak	definizioak	sinonimoak
informazioa bai	47	58	5	6
informazioa ez	19	24	25	35
denera	66	82	30	41

69. taula. *-tzadun* eratorrien *sinonimiaren hedadura*.

Informazioa lortzen ez dugun hauen artean, badira 3 definiziotan agertzen diren 4 sinonimo hiztegian sarrerarik ez dutenak: aringarri, suntsidura, elur-erauntsi eta aurkientza.

69. taulan informazioa duten 52 definizio horiek dituzten interpretazioak 70. taulan daude.

Interpretazioa	definizioak	sinonimoak
jarduera	26	32
lanbidea	13	16
lekua	6	8
nolakotasuna	5	5
nolakotasuna/egoera	1	2
egoera	1	1

70. taula. *-tzadun* sinonimoen interpretazioak.

Eta informazioa duen elementu bakoitzaren informazioa:

Jarduera: ez-eratorria (1), keta (4), aldi (1), di (1), tze (13), asun (1), te (4), gin (1), ki (1), tza (2), aldi (1), eta (1), go(1).

Lanbidea: go (2), tza (8), bide (3), ez-eratorria (3).

Lekua: ez-eratorria (1), tegi (2), tza (5).

Nolakotasuna: tasun (2), ez-eratorria (1), go (1), tza (1).

Nolakotasuna/egoera: tasun (2)

Egoera: zio (1).

Eta informaziorik lortu ez dugun sinonimoen informazioa hau da: hitz eratorri gisa ezagutu ditugunak 24 dira, eta ez eratorriak 35. Eratorrien artean hauek dira agertzen diren eratorpen-atzizkiak:

tasun (3), te (1), tza (4), degi (1), garri (1), dura (1), ko (2), di (1), tegi (1), pen (3), men (2), arte (1), tura (2), keria (1).

Beraz, egindako sinonimoen azterketaren ondoren, honoko emaitza dugu: 96 sinonimodun definizio horietatik, hauen interpretazioa aztertuta 52rentzat lortu dugu informazioa, hau da, %54,17rentzat. Emaitza honek berak adierazten du, oso emaitza interesgarriak lortuko ditugunez, etorkizuneko lana izango dela sinonimiaren hedadura automatikoki aplikatzea.⁷⁹

V.7. Emaitza orokorrak

Atal honek bi zati ditu: batetik, estaldura aipatuko dugu (V.7.1. atala), eta, bestetik, doitasuna (V.7.2. atala).

⁷⁹ Lan hau oraingoz ez da sistematikoki atzizki guztiekin egin.

V.7.1. Estaldura

71. taulan eta 72. taulan aztertutako atzizki bakoitzarekin ditugun estaldura-datuak daude. *Denera* zutabeen *Morpheusek* ezagututako eratorri-kopurua dago; *zenbat erlazio* zutabeen, erlazioa zenbatetan ezagutu dugun; eta *sinonimoak* zutabeen, sarrera-hitzaren sinonimoak zenbatetan ezagutu ditugun ondoren *sinonimiaren hedadura* aplikatu ahal izateko. Azken bi zutabeetan, erlazioak ezagutzeko garaian lortu dugun estaldura —*erlazioen estaldura*—, eta sinonimiaren bitartez definitutako sarrera-hitzen estaldura —*sinonimiaren estaldura*—.

	Denera	Zenbat erlazio	Sinonimoak	Erlazioen estaldura	Sinonimiaren estaldura
tasun	912	701	172	%76,86	%18,86
garri	488	342	170	%70,08	%34,84
tzaile	467	349	106	%74,73	%30,37
tsu	433	241	187	%55,66	%43,19
keria	370	205	147	%55,41	%39,73
ko	287	29	133	%10,10	%46,34
tza	285	127	102	%44,56	%35,79
aldi	285	95	130	%33,33	%45,61
dun	278	156	92	%56,12	%33,09
ki	251	84	87	%33,47	%34,66
keta	228	11	175	%4,82	%76,75
tegi	218	50	85	%22,94	%38,99
bide	214	81	74	%37,85	%34,58
kor	171	96	70	%56,14	%72,92
lari	127	39	45	%30,71	%35,43
zio	166	0 ⁸⁰	114	%0,00	%68,67
pen	160	0	112	%0,00	%70,00
kari	143	64	62	%44,76	%43,36
gile	117	85	31	%72,65	%26,50
men	137	24	79	%17,52	%57,66
te	123	22	54	%17,89	%43,90
dura	132	16	83	%12,12	%62,88
le	93	45	38	%48,39	%40,86
di	105	32	46	%30,48	%43,81
ti	105	36	57	%34,29	%54,29
era	108	23	67	%21,30	%62,04
go	94	34	53	%36,17	%56,38
gintza	97	69	15	%71,13	%15,46
tar	92	8	42	%8,70	%45,65
kada	75	33	32	%44,00	%42,67

71. taula. Aztertutako atzizki lexikalak eta kopuruak.

⁸⁰ Erlaziorik topatzen ez dugun hauen definizioetan sinonimia askotan agertzen da, eta definizio-patroi garbirik ez dugu topatu.

	Denera	Zenbat erlazio	Sinonimoak	Erlazioen estaldura	Sinonimiaren estaldura
gailu	71	26	28	%36,62	%39,44
kuntza	63	1	48	%1,59	%76,19
kin	48	10	24	%20,83	%50,00
tze	48	0	30	%0,00	%62,50
kunde	47	0	32	%0,00	%68,09
bera	34	10	18	%29,41	%52,94
gin	37	12	16	%32,43	%43,24
tari	27	11	7	%40,74	%25,93
eria	41	10	12	%24,39	%29,27
koi	39	8	21	%20,51	%53,85
ari	27	11	12	%40,74	%44,44
dar	9	0	5	%0,00	%55,56
goa	12	3	7	%25,00	%58,33
denera	7.264	3.199	2.920	%44,04	%40,20

72. taula. Aztertutako atzizki lexikalak eta kopuruak.

71. taulan eta 72. taulan dauden atzizki lexikalak kontuan hartuta, denera, 7.264 sarrera eratorri ditugu. Horietatik 3.199tan —sarreraren %44,04— lortu dugu nolabaiteko erlazioa markatzea, eta 2.920tan —guztien %40,20— *sinonimia* erabili ahal dugu erlazioa markatzeko, *sinonimoa* ezagutzen dugulako.

definizioak	7.264
erlazioa markatuta	3.199
sinonimoa markatuta	2.920

73. taula. Eratorri-kopurua: erlazio-kopurua, sinonimo-kopurua.

Aditzetan *-arazi* atzizkia landu dugu, eta hauek dira zenbakiak:

	Denera	Zenbat erlazio	Sinonimoak	Erlazioen estaldura	Sinonimiaren estaldura
arazi	309	242	67	%78,32	%21,68

74. taula. *-arazi* aditz-arazlearekin lortutako emaitzak.

Honek izango duen erlazioa beti *arazlea* da.

Aditzak sortzen dituen beste atzizkia, eta hiztegian agerpen handia duena *-tu / -du* da, eta ondoren honi buruz hitz egingo dugu.

V.7.1.1. *-tu / -du* atzizkia

-tu/-du atzizki ez-lexikalari buruzko azterketa txiki bat egin dugu, eta hona emaitzak.

-tu/-du atzizki ez-lexikaldun aditzak asko eta asko —ia denak— dira euskaraz. Eratorri hauen eta haien oinarrien artean dagoen erlazioa desanbiguatzea lortuz gero informazio handia lortuko genuke, baina berehala konturatu gara ez dela ahuntzaren gauerdiko eztula.

Gràcia *et al.*-ek (2000) *-tu/-du* atzizkiaren hainbat mota bereizten dituzte, eta saiatuko gara aztertzen ea bereizketa horiek ba ote duten eraginik aditzen definizioetan. Beraz, *-tu/-du* bakoitzari buruzko ezaugarriak banan-banan ematen saiatuko gara.

Oinarrian izena (*tu1*,⁸¹ *tu2*, *tu3*, *tu4*, *tu5*, *tu6*, *tu7*), adjektiboa (*tu8*), adberbioa (*tu9*, *tu10*) eta postposizio-sintagma (*tu11*, *tu12*) egon daiteke. Eta eratorriaren kategoria aditza da. Interpretazioei dagokienez, berriz, bat baino gehiago izango dugu:

- *tu1*, *tu2*, *tu3*, *tu8*, *tu9*: *egoera- edo nolakotasun-aldaketa*: izoztu, gizondu, lasaitu, mailakatu.
- *tu4*: *gabezia (gabetasun)*: larrutu, lumatu.
- *tu7*: *donazioa*: saritu, zigortu.
- *tu6*, *tu11*, *tu12*: *leku-aldaketa*: baztertu, saihestu, lurreratu.
- *tu10*: *errepikatzea, aktibitatea (instrumentuarekin)*: mailukatu, mokokatu.
- *tu5*: *lokazioa*: hostatu, loratu.

Kontuak honela, gure asmoa zenbait adibideren definizioak ikusi ondoren talde bateko edo besteko ziren erregelak sortzea izan da, eta batean edo bestean sailkatzea.

Berehala konturatu gara zeregin oso-oso zaila dela: *egoera- edo nolakotasun-aldaketa* multzokoak nahiko erraz harrapa ditzakegu, baina beste multzoetan irristatzeko arrisku handia dago. Erregela zenbait egin ondoren, lagin bat atera dugu jakiteko zenbat aditz etiketatzen ditugun metodo hau jarraituta. Hala, 68 adibideko laginetik, zuzen-zuzenean 11 markatu ditugu. Hauetatik 8k *egoera- edo nolakotasun-aldaketa* adierazten dute, 1ek *donazioa*, eta beste 1ek *leku-aldaketa*. Azkenik esan behar da 11 horietatik 1 dela errorea. Beraz, badirudi doitasun ona dugula (%90,91), baina estaldura benetan txikia denez (%14,71), lan hau alde batera uztea erabaki

⁸¹ *-tu/du* sailkatzeko erabilitako taldeen izenak dira.

dugu, nahiz eta zenbait multzo ateratzea lortu dugun. Kontuan izan behar da, hala ere, *-tu/-dudun* aditzak izugarritzko pila direla hiztegian —3.625 *-tudunak* eta 475 *-dudunak*—, eta, nahiz eta ehuneko txiki bat markatu, asko izan daitezkeela.

denera	markatuta	ondo	gaizki	estaldura	doitasuna
68	11	10	1	%14,71	%90,91

75. taula. *-tu/-duren* datu estatistikoak: estaldura, doitasuna.

Beraz, nahiz eta zenbait talde biltzea lortu, atzizki ez-lexikal hau oraingoz ez lantzea erabaki dugu, lortzen dugun estaldura oso txikia delako. Gainera taldeen arteko mugak ez dira batere garbiak.

Agian aurrera egiteko moduan *sinonimiaren hedadura* aztertu beharko litzateke. Ziur asko, *sinonimiaren hedadura* kontuan izanez gero, aditz gehiago sailkatzea lortuko genuke, baina lan hau oraingoz gerorako utzi dugu.

V.7.2. Doitasuna

Doitasuna neurtzeko hiru atzizki erabili ditugu. Lagin bat hartu dugu eta bi hizkuntzalariri eman diegu, eratorri eta oinarriaren arteko erlazioak marka ditzaten. Ondoren konparatu ditugu bi hizkuntzalariek euren artean duten adostasun-maila, hizkuntzalariek eta metodo automatikoak duten adostasun-maila, eta hiruren artean lortzen den adostasun-maila. Hona emaitzak:

	-garri	-keria	-tsu ⁸²
bi hizkuntzalari	%90	%82,8	%83
A hizkuntzalaria eta metodoa	%100	%96,2	%82
B hizkuntzalaria eta metodoa	%100	%84,6	%80
bi hizkuntzalariek eta metodoa	%100	%80,8	%72

76. taula. Eratorpenarekin lortutako emaitzen doitasuna.

Datu hau neurtzerakoan, kontuan izan ditugu bai metodoak eta bai hizkuntzalariek markatzen dituzten kasuak. Markatu gabeak kontuan hartzen ez ditugunez,⁸³ *-garriren* kasuan bi hizkuntzalarien arteko adostasuna hizkuntzalariek eta metodoak dutena baino txikiagoa da. Hizkuntzalariek ados ez dauden kasuren bat metodoak ez du ezagutu, eta guk doitasuna neurtzeko garaian metodoak markatzen ez duena ez

⁸² *-tsu* atzizkian saiatu gara *ezaugarriak* eta *egoerak* bereizten, eta nahiz eta sumatu nolabaiteko diferentzia badela, pentsatu dugu oso zaila dela bereizketa horrekin aurrera jarraitzea eta albo batera utzi dugu. Honokoak bereizketa baztertu aurreko datuak dira.

⁸³ Doitasuna neurtzeko markatutakoen artean ea zenbat dauden ondo begiratzen denez, ez markatuak ez dira kontuan hartzen.

dugu kontuan hartu. Kontuan hartzen ez ditugun horiek estaldura-arazoak dira, eta ez doitasun-arazoak. Beraz, lortutako doitasuna oso ona da.

Neurketa hauek egiteko laginak 30 eta 40 definizioen artekoak dira. Hor eskuz markatu dugu zer topatu nahi dugun, eta gero estaldura-datuak atera, markatu nahi dugun hori zenbatetan markatzen dugun jakiteko. Hona lagin horietan lortutako estaldura (Agirre eta Lersundi, 2001).

Atzikiak	lagina	benetan dauden erlazioak	metodoak markatuta	Estaldura
-garri	30	36	27	%75,0
-keria	30	39	34	%87,2
-tsu	40	37	31	%83,8

77. taula. Aztertutako laginaren estaldura-kopurua.

V.8. Erlazioak EuroWordNeten txertatzea

Txosten honen hasiera-hasieratik aipatu dugunez, lan honen guztiaren helburua *Euskal Hiztegiaren Ezagutza-Basea* (EHEB) osatzea da. Bestalde, *EuskalWordNet*⁸⁴ osatzen ari garenez, egoki litzateke bi hauen arteko lotura gauzatu ahal izatea.

Baina guk hiztegitik erauzitako erlazioak *EuskalWordNeten* txertatu ahal izateko, bi baldintza behar dira:

- Guk dugun erlazioa ezagutza-base berezi horrek duen eskemaren arabera errepresentagarria izatea (V.8.1. atala).
- Erlazioa kontzeptuen artekoa izatea, eta ez hitzen artekoa. Kontzeptu horiek hitzen adierak izango dituzte oinarri (V.8.2. atala).

Bi hauek nola aplikatu daitezkeen aztertu dugu, eta hona azalpenak.

V.8.1. Lortutako erlazioak WordNet-en txertatzea

Dagoeneko esan dugun bezala, izendatzen ditugun erlazioak ez dira beti sinpleak. Hona *aztergarriren* kasua.

⁸⁴ Aurrekarietan esan dugun bezala, *EuskalWordNet* hau *EuroWordNet* ezagutza-basea oinarri erabiliz osatzen ari gara, eta azken hau *ingeleza*, *espainiera*, *italiera*, *nederlandera*, *alemana*, *frantsesa*, *txekiera*, *estoniera* eta *katalana* hizkuntzak barneratzen dituen ezagutza-basea da. Beraz, *euskara* zerrenda horretan izanez gero, eta bertan loturak kontzeptu mailakoak direnez, hizkuntzartekotasunari begira urrats handia litzateke.

aztergarri. A0 izond. Aztertua izatea merezi duena.

Guk esango dugu azterturen *objektua* dela aztergarri. Baina hemen zehazten ari garen erlazioa aditz eta adjektibo baten artekoa da. *objektu* erlazioa, oro har, aditz eta izen baten artean gertatu ohi da. Beraz, benetako erlazioa litzateke aditzaren artean eta adjektibo horrek modifikatzen duen izenaren artean. Adibidez, *lan aztergarri* sintagma baldin badugu, azterturen *objektua* lana da. Oraingoan, erlazio konplexu hau ezingo da *EuroWordNet*en errepresentatu, bertan dauden erlazioak bi elementuren artekoak direlako.

Erlazioak markatzeko garaian beste arazoa izango da aditza errepresentazioan ez agertzea, baina erlazioan garrantzia izatea. Hau gertatzen zaigu *-gile* atzizkiarekin sortutako eratorriekin. Adibidez, *pilotagile* baldin badugu, erlazioa *pilotarekin* izango du eta esango dugu eratorriak adierazten duen pertsonaren *berezko objektua* *pilota* dela. Hala ere, *objektu* erlazioa aditzen eta izenen artekoa izan ohi da, eta erraza izan daiteke eraztea hor azpian dagoen aditza *egin* dela. Baina ez da beti horrela, *urregilea ez baita urrea egiten duena, baizik eta urrea lantzen duena*. Eta hau nahikoa erraza da hiztegietako definizioetatik ezagutzea, definizioan aditz hori esplizitu agertzen delako, nahiz eta gero —berriro ere erlazioan bikotea izan beharrean hirukotea dugunez— errepresentazioan arazoa izan.

Orain ezinezkoa bada ere, lanean dihardugu gerora erlazio konplexu hauek errepresenta daitezten. Kontzeptuen arteko loturei buruz ari garenez —ondoko atalean azalduko dugun bezala—, euskaraz lortutako erlazioak baliagarri izango dira aurretik aipatu ditugun hizkuntza guztietarako.

V.8.2. Adieren desanbiguzioa

Esan berri dugunez, kontzeptuen arteko erlazioak markatu ahal izateko, lehenik jakin behar dugu zein den sarrera-hitzarekin erlazionatuta dagoen hitz horrek errepresentatzen duen kontzeptua. Izan ere, hitz baten barruan adiera edo kontzeptu bat baino gehiago egon daitezke. Adibide gisa *amugile* hitza hartuz gero, oinarrian dugun *amu* horrek bi adiera ditu *EuskalWordNet*en:

- 02510398n zenbakidun kontzeptua, *amu* fisikoa, arrainak eta halakoak harrapatzeko erabiltzen dena.

- 03882076n zenbakidun kontzeptua, amu figuratua, norbait engainatzeko erabiltzen den gertaerari aplikatzen zaiona.

Guk jakin beharko dugu amugileren oinarrian bietako zein dagoen —edo biak ote dauden—, kontzeptuen arteko lotura gauzatu nahi izanez gero, behintzat; kasu honetan, lehenengo adiera da hor oinarrian dagoena, eta ez bigarrena.

Lehen esan badugu ere, hemen azalduko dugu guk markatutako erlazioak kontzeptu mailakoak badira, beste hizkuntzei ere baliagarri izango zaizkiela esaten dugunean zer adierazi nahi dugun. Demagun garagardogile hitza dugula, eta zehazten dugula garagardogileren *berezko objektua* dela garagardo —eta, definizioan egin *aditza* agertzen denez, *objektu* hori egitea—. Behin hau dugula, espainierako kontzeptuekin lotzen badugu, lotuta izango ditugu *cervezero* eta *cerveza* eta haien arteko erlazioa euskaraz zehaztutako bera izango da. Inork pentsatu ahalko du espainieraz ere erlazio hori argia dela *-ro* atzizkiaren azterketa eginez gero erauzi ahalko litzatekeelako, eta hala da. Baina ingelesez kontzeptu horiek adierazteko *beer* eta *brewer* ditugu. Eta hor, agerian behintzat, ez dago inongo lotura morfologikorik, baina beste hizkuntzetako lotura kontzeptuen artekoa izatea lortzen bada, bi horiek ere beste hizkuntzetan zehaztutako erlazio bera izango dute.

Kontua da kontzeptuen arteko loturak gauzatzeko adieren arteko desanbiguazioa egin behar dela, eta orain arte errore-tasa handia duen lanbidea izan da. Euskararen kasuan hau handiagoa izan daiteke *EuskalWordNet* sortzen ari den ezagutza-basea delako, eta zenbait kontzeptu oraindik txukundu gabe daudelako.⁸⁵

Guk adiera-desanbiguazioa lortu ahal izateko, kontzeptuen arteko *ebakidura*⁸⁶ erabili dugu. Euskaraz dugun hitz eratorria eta oinarria beste hizkuntzetako beraien itzulpenekin konparatu ditugu, eta haien arteko kontzeptu-ebakidura erauzten saiatu gara.

Demagun, *zilargile* eta *zilar* hitzak ditugula:

⁸⁵ Hemen emango ditugun lotura-datuak 2001ekoak dira. Gaur egun *EuskalWordNet* landuagoa dagoenez, emaitza hobek izango genituzkeela uste dugu.

⁸⁶ Sarreran esan dugun bezala, *ebakidura* hitzarekin, bi hitzek dituzten balizko kontzeptuen artean kontzeptu bera zein diren adierazi nahi dugu. Hitzak hizkuntza berekoak, nahiz hizkuntza ezberdinetakoak izan daitezke.

	eratorria	kontzeptuak ⁸⁷	oinarria	kontzeptuak
euskara	zilargile	06345632n	zilar	08206456n (eskudiru) 08819522n (substantzia)
espainiera	platero	06345632n	plata	02423695n (silverware) 08206456n (eskudiru) 08819522n (substantzia)
ingelese	silversmith	06345632n	silver	08206456n (eskudiru) 08819522n (substantzia) 03466093n (zilar koloreko) 02424132n (zilarrezko mahai tresneria)

78. taula. Hizkuntzen arteko loturak.

zilargilek, platerok eta silversmithek kontzeptu bakarrari egiten diotenez erreferentzia ez dago arazorik. Oinarriari erreparatzen badiogu, berriz, euskaraz *zilar* hitzak bi adiera ditu; espainierako *plata* hitzak, aldiz, hiru adiera ditu; eta ingeleseko *silver* hitzak lau adiera. Beraz, kontzeptuen arteko ebakidura erabiliz gero, ondorioztatuko dugu *platero* eta *silversmith* horiek oinarrian dituzten *plata* eta *silver* eskudiruaren edo substantziaren erreferentzia direla.

Metodologia honekin lortutako emaitzak ebaluatzeko, 100 *-giledun* eratorri hartu ditugu, eta laginean dauden oinarri-eratorri bikoteak aztertu ditugu:

Loturarik ez	%53,0
Erorria	%22,0
Oinarria	%9,0
Biak	%16,0

79. taula. Loturen estaldura
100 adibideekin.

Erabilitako algoritmoak eratorriak %22an lotu ditu, oinarriak %9an eta biak %16an. Loturarik gabe gelditu dira kasuen %53a.

Doitasunari dagokionez, eratorrien kasuan, %97 zuzenak dira. Oinarriari dagokionez, %80 da erabat zuzena, eta %15ean kontzeptu zuzena lotu da, nahiz eta beste kontzepturen bat ere lotzen den. Honen adibide da *antzerkigile* hitza. Oinarrian dugun *antzerki* horrek bi kontzepturen ebakidura du, bata, *liburua* —*antzezlan*— eta bestea *antzezkizuna*. Eta bigarren hau ez da izango *antzerkigile* oinarrian duen kontzeptua. Beraz, esango dugu ona ezagutzen duela —*liburua*—, eta ona ez den beste bat ere bai —*antzezkizuna*—.

⁸⁷ Kontzeptuak *EuroWordNeten* berez zenbakiak dira, eta kontzeptu horiek duten zenbakia paratu dugu.

	Eratorria (%)		Oinarria (%)	
	Denera	Adiera bakarra	Denera	Adiera bakarra
Zuzena	%97,3	%52,6	%80,7	%7,7
Batzuen artean zuzena			%15,4	
Ez-zuzena	%2,7		%3,8	

80. taula. Adieren desanbiguazioaren doitasuna.

Kontuan izan behar da eratorrien kasuan adiera bakarrek asko direla —%52,6—, eta horrek adiera-desanbiguazioan asko laguntzen du. Oinarrien kasuan, berriz, adiera bakarrek zenbakia izugarri jaisten da —%7,7— baina, hala ere, desanbiguazio-doitasuna ez da hainbeste jaisten.

Behin *EuroWordNet*ekin lotzeko ahalegina azaldu ondoren, etorkizuneko lanak aipatuko ditugu.

V.9. Etorkizuneko lana

Atal honetan etorkizunean garatzeko geratu diren hainbat lan azaldu ditugu: atzizki lexikal berriak lantzea, oinarriaren kategoria kontuan hartzea, sinonimiaren hedadura, eratorpenarekin egindako lana eta *EuskalWordNet*en arteko lotura masiboa egitea.

V.9.1. Atzizki lexikal gehiago lantzea

Oro har hiztegian agerpen handirik ez duten eratorpen-atzizkiak ez ditugu landu. Hala ere, zerrendan konposizio-elementuak ere agertzen dira, eta hauek ere aztertu beharko ditugu.

81. taulan dagoeneko analizatzaile morfologikoan oraingoz aztertu ez ditugun, baina dagoeneko analizatzaile morfologikoan integratu ditugun atzizki lexikalak —edo konposizio elementuak— paratu ditugu. Analizatzaileak ezagutzen dituen eratorri eta konposatuen kategorien arabera sailkatu ditugu.

Adibidez, analizatzaileak ezagutu dituen *-gabedun* hitzak 151 dira: 13 izen kategoriakoak, 127 adjektibo kategoriakoak, eta 11 bi kategoriatakoak.

	izen	ize/adj	adj	denera		izen	ize/adj	adj	denera
gabe	13	11	127	151	tiar	8	3	12	23
txo	122	0	7	129	asun	22	0	0	22
gai	94	3	12	109	ada	21	0	0	21
zale	19	19	59	97	ada	21	0	0	21
pe	91	1	0	92	ontzi	18	0	3	21
mendu	85	0	0	85	zia	21	0	0	21
gaitz	9	1	70	80	tara	20	0	0	20
kizun	66	0	6	72	dore	18	0	1	19
buru	65	0	2	67	kara	5	2	12	19
ezin	8	0	57	65	mentu	16	0	0	16
zain	64	0	1	65	txe	13	0	1	14
toki	63	0	1	64	erraz	1	0	11	12
gune	60	0	0	60	tate	12	0	0	12
kide	44	2	9	55	antza	11	0	0	11
alde	54	0	0	54	grafia	10	0	0	10
leku	51	0	0	51	kintza	8	0	0	8
ondo	45	0	1	46	tzia	7	0	0	7
ismo	39	0	1	40	aro	4	0	2	6
ista	13	16	11	40	dade	5	0	1	6
tura	36	0	0	36	liar	5	0	0	5
kume	35	0	0	35	liar	5	0	0	5
tzar	31	2	1	34	zahar	3	1	0	4
tun	17	8	6	31	ezia	3	0	0	3
arte	29	0	0	29	orri	2	0	0	2
degi	29	0	0	29	antzia	1	0	0	1
eta	26	0	0	26	date	1	0	0	1
gorri	24	0	2	26	koa	0	1	0	1
kaitz	10	0	15	25	tade	1	0	0	1
be	18	1	5	24	ume	1	0	0	1
logia	23	0	0	23					

81. taula. Landu gabe utzi ditugun eratorpen-atzizkiak eta konposizio-elementuak.

V.9.2. Oinarriaren kategoria kontuan hartzea

Oraingoz atzizki bakoitzari ez diogu inongo murriztapenik ezartzen, baina ondorengo pausoren batean, atzizki bakoitzak oinarrian hartzen duen elementua zein kategoriatakoa den zehaztu ondoren, zehaztu beharko da zeintzuk diren onargarri eta zeintzuk ez. Hartara, analizatzaileak emandako zenbait bikote trakets saihestuko ditugu.

-tegi adibide gisa hartuz gero, honek oinarrian izena izango duela esango dugu, eta halakoak 151 ezagutu ditu analizatzaileak. Oinarrian aditza ezagutu du beste 108 kasutan eta adjektiboa 29 kasutan. Kontua da, analizatzailea saiatzen dela ahal duen guztia ezagutzen, eta *inurritegi* moduko adibide batean, oinarrian *inurritu* aditza eta *inurri* izena dagoela esango du.

inurritegi	inurritu	KAT_ADI	tegi
inurritegi	inurri	KAT_IZE	tegi

Eta adjektiboekin kontu bera gertatzen da. Badira oinarri batzuk izen eta adjektibo kategoriatakoak izan daitezkeenak, eta horiek biak emango ditu analizatzaileak.

ongarritegi	ongarri	KAT_ADJ	tegi
ongarritegi	ongarri	KAT_IZE	tegi

Hala ere, guztiak ez dira modu honetakoak, eta badira oinarrian izenik ez dutenak. Halako kasua da *itxitegi*. Honek oinarrian ez du izenik, baina analizatzaileak oinarrian aditza duelakoan detektatzen du. Definizioan agertzen denez, hitz honek *toki itxia* adieraziko du.

itxitegi	itxi	KAT_ADI	tegi
----------	------	---------	------

Beraz, analizatzaileak ez du beti oinarrian izen bat bilatuko, eta atzizki bakoitzarentzat oinarriak nolakoak diren aztertu ondoren, egoki izan daiteke atzizki horrek onartzen ez dituen oinarriak baztertzea —eta agian *itxitegi* moduko kasu bereziak, alegia, dagokion oinarria ez dutenak zerrendatzea—.

V.9.3. Sinonimiaren hedadura

Dagoeneko aipatu dugun bezala, *sinonimiaren hedadura* erabiltzeak hitzen arteko erlazio gehiago ezagutzea dakar. Gainera, interpretazioak *ekintzak* —edo hauen *ondorioak*— edo *gertaerak* direnean, normalean sinonimoen bitartez definitzen dira, eta sinonimo horiek edo aditz-izenak edo *ekintza* adieraziko duten hitz eratorriak izan ohi dira.

jaiotza	A1	iz.	Jaiotzea , mundura etortzea .
---------	----	-----	---

Kasu honetan, ez *sinonimoa* bakarrik, baizik eta *hiperonimoa* ere aditz-izen bat da. Halakoetan, aurretik erauzitako informazioa oso garrantzitsua da; *sinonimo* hori eta *hiperonimo* hori aurretik markatuta ditugu, eta halako definizioei orain marka berririk jarriko ez diegunez, horiek zerrendatzea garrantzitsua izan daiteke, eta berriro ere analizatzaile morfologikoa aplikatu horien interpretazioak zehaztu ahal izateko. Demagun *baliokidetza* hitza dugula. Analizatzaileak hiru kategoriatako oinarriak izan ditzakeela zehaztuko du:

baliokidetza	baliokidetu	KAT_ADI	tza
baliokidetza	baliokide	KAT_ADJ	tza
baliokidetza	baliokide	KAT_IZE	tza

Beraz, V.6. ataleko adibidean bezala, *-tzak* dituen 5 interpretazioak dira posible oraingoz. Definizioa jo, eta hau topatu dugu:

baliokidetza A0 iz. Baliokidetasuna.

Kasu honetan, definizio-eremuan ez dugu deskribapen bat, baizik eta *sinonimo* bat. Lehendik egina dugun lanari esker, badakigu *baliokidetasun* hori *baliokidetzaren* sinonimoa dela, eta beraz, pentsatu behar dugu interpretazio bera izango dutela. Orain interpretazioak ezagutzeko egindako erregelek markatu ez dituzten definizio-eremuetatik dauden sinonimoak ateratzen baditugu, eta horiei analizatzaile morfologikoa berriro aplikatu, jakin ahalko dugu sinonimo horiek eratorriak diren edo ez. Eratorriak direnatan, atzizki horren interpretazioak zeintzuk diren jakin ahalko dugu, eta konparatu ahalko ditugu aurretik ditugun interpretazioak eta orain sortu zaizkigun berriak. Kasu honetan *-tasundun* hitz eratorria dugu, eta *-tasunen* interpretazioak hauek dira:

atzikia	interpretazioa	oinarria	eratorria	adibidea	definizio-patroia
tasun	ADJ izatearen egoera	adj	ize	drogazaletasun	-en egoera, adj. dagoenaren egoera
tasun	ADJ izatearen nolakotasuna	adj	ize	hauskortasun	adj. denaren nolakotasuna

82. taula. *-tasun* atzizki lexikalaren interpretazioak.

Beraz, bi horietako bat izango da *baliokidetza* hitzaren interpretazioa: *egoera* edo *nolakotasuna*. Hala, balizko bost interpretazioetatik hauen ebakidura erabilita, zenbakia bira murriztu zaigu: *egoera* eta *nolakotasuna*. Baina, honen ondoren, *baliokidetasun* horren definizioa aztertu dezakegu:

baliokidetasun A0 iz. Baliokide**aren nolakotasuna**.

Eta definizioan *nolakotasun* forma agertzen denez, jakingo dugu *baliokidetasuna* izango dela *baliokide* izatearen *nolakotasuna*; eta hedaduraz, *baliokidetza* izango dela *baliokide* izatearen *nolakotasuna*.

V.9.4. Erlazioak EuskalWordNet-era lotzea

B. eranskinean agertu ditugun erlazioak oraingoz ez daude *EuskalWordNetera* lotuta, eta gainera, dagoeneko ikusi dugunez, hiru elementuren arteko erlazioak lotzea —urregile-urre-landu— ez da erraza izango oraingoz *EuskalWordNetek* ez duelako aukera hori.

Lan hau *Meaning* —IST-2001-34460— proiektu europarraren ataza da, eta euskarazko hitzen artean lortutako erlazio lexiko-semanticokoak beste hizkuntzetarako baliagarri direnez, *EuskalWordNetera* lotzea garrantzitsua da. Hau etorkizunerako lan gisa utzi dugu.

V.10. Ondorioak eta etorkizuneko lana

Kapitulu honek hitz eratorri eta haien oinarrien artean dauden erlazio lexiko-semanticokoak erazteko metodoa azaltzen du.

Lehenengo aportazioa izan da analizatzaile morfologikoari berez dituen baino atzizki lexikal gehiago txertatzea. Honek ahalbidetu du ondorengo lanetarako hitz eratorri gehiago ezagutzea. Tresna hau ezagutzarako oso garrantzitsua da, nahiz eta, sorkuntzan erabili nahiko bagenu, gainsorkuntza handia sortuko lukeen. Atzizki lexikalak sorkuntza egiteko erabili nahiko bagenitu, oinarriaren ezaugarri zehatzagoak beharko genituzke, hala nola, *biziduntasuna*, *konkretutasuna*, *aditz-mota*, eta abar.

Hitz eratorri bat ezagutu ondoren, eratorri horren adierak zeintzuk diren zehaztu ditugu. Horretarako atzizki horri buruz egin izan diren lanak erabili ditugu, eta, hala, bere adierak zehaztu (ikus B. eranskina). Adieraren arabera, eratorriaren eta oinarriaren arteko erlazioa ezberdina da. Guk horien arteko lotura zein den zehaztu dugu. Baina lotura hori, ezin dugu zuzenean lortu atzizki jakin batekin sortutako eratorri batek interpretazio bat baino gehiago baldin badu. Interpretazio hori zehazteko, hiztegian duen definizio-patroia aztertu dugu, eta horren arabera erabaki dugu interpretazio bat edo beste duen. Dagoeneko aipatuta dugun bezala, desanbiguazioa LNPre arlo osoa da, eta gaur egun ataza aski zaila. Gure kasuan, desanbiguazioa definizioei esker egiteko gai gara.

V.7.1. atalean aipatu dugun bezala, aztertu ditugun atzizkiak dituzten 7.573 sarrera ezagutu ditugu. Eratorria eta erlazioaren arteko erlazioa 3.441 kasutan markatu dugu —%45,44—, eta sarreraren sinonimoa 2.987 kasutan —%39,44— ezagutu dugu.

Eratorriaren eta oinarriaren artean dagoen erlazioa desanbiguatzekeo garaian lortu dugun doitasuna neurtzeko, anbiguoak diren hiru atzizki lexikalez osatutako

(3) erlatibo A0 izond. Beste zerbaiten arabera hartzen dena, **absolutua** ez dena.

(3) lehortar A1 izlag. Itsas herrietako jendeaz mintzatur, **itsastar** ez dena.

Adibide hauetan erlatiboren *antonimoa* dugu absolutu, eta lehortaren antonimoa dugu itsastar.

A.3. Hiperonimia / hiponimia

3. taulan daude *hiperonimia* / *hiponimia* erlazioa erakusten duten erlatoeak.

etiketa	erlazioa	sar-kat	erlz-kat	def-eskema	erlt-kop	erlz-kop
MODUKOA	hiperonimia	IZE	IZE	-en modukoa	91	92
-I EMAN IZENA	hiperonimia	IZE	IZE	-i ematen zaion izena	65	60
IZENA	hiperonimia	IZE	IZE	-en izena	103	53
BAT / BAKOITZA	hiperonimia	IZE	IZE	-etako bat / bakoitza	423	265
MOTA	hiperonimia	IZE	IZE	ize + mota	135	100

3. taula. *Hiperonimia* erlazioa markatzen duten erlatoeak.³

A.3.1. Modukoa

modukoa definizioaren amaieran baldin badugu, eta aurretik duen izenak kasu-markarik ez baldin badu, izen honen eta sarrera-hitzaren artean erlazio *ia-*

² *antonomiaren* kasuan erlatoea eta erlazonatutako hitza makak hitz berean jartzen ditugu.

³ Normalean, erlatoe-kopurua erlazonatutako hitzen kopurua baino handiagoa izan ohi da, erlatoea harrapatzea errazagoa delako. Adibidez:

agata A0 iz. *Silize* kristaldu **mota**, bere edertasunagatik harri bitxitzat erabiltzen dena.

agata sarrera-hitzaren definizioan erregelatu bitartez gai gara mota erlatoea ezagutzeko, baina ez silize erlazonatutako hitz gisa, tartean kristaldu agertzen delako eta erregetan ez dugulako partizipioaren presentzia aurreikusi.

Baina, *modukoa* erlatoearen kasuan erlazonatutako hitzen kopurua handiagoa da, erlatoe batek, zenbaitetan, erlazonatutako bi hitz markatzen dituelako. Hona adibidea:

borda A0 iz. Basetxe arrunta; bereziki mendian edo basoan, abereak edo belarra gordetzeko **etxola** edo **etxe modukoa**.

borda sarrera-hitzaren definizioan modukoa erlatoea dugu, eta erlazonatutako hitzak *etxola* eta *etxe* dira.

hiperonimikoa izango dugu. Hala ere, guk *hiperonimotzat* hartuko dugu, nahiz eta jakin ez dela juxtu-juxtu erlazio hori. Sarrera-hitza definizioan dagoen izen horren *hiponimoa* dela esango dugu.

(4) Izenaren_definizioa = izena (Kasu-marka gabe) + modukoa.

(4) besare. A0 iz. Bost, zazpi edo bederatzi hortz V bat eratuz dituen **golde** modukoa.

(4) harmaila. A1 iz. Harrizko maila edo **jarleku** modukoa.

goldea besarearen *hiperonimoa* izango da, eta jarlekua harmailarena.

A.3.2. -i eman izena

Definizio amaieran -i ematen zaion izena eskema agertzen denean, datiboa daraman izena sarrera-hitzaren *hiperonimoa* izango da. Aditz laguntzailearen beste formak ere kontuan izan ditugu: zaien, zitzaion, zitzaien, zaizkion, zaizkien, zitzaizkion, zitzaizkien.

(5) Izenaren_definizioa = izena (datiboa) + ematen z(itz)ai[e/o]n izena.

(5) betilore. A0 iz. Loreak ihartu gabe hainbat hilabetez irauten duten zenbait **landareei** ematen zaien izena.

(5) elizate. A0 iz. Bizkaiko infanzonado deritzan alderdiko **herriei** ematen zaien izena.

Kasu hauetan, betiloreren *hiperonimoa* dugu landare, eta elizaterena herri.

A.3.3. Izena

izen hau genus orokor deitu ditugun horietako bat dugu, hau da, esanahi oso orokorra eta ia hutsa duten horietako bat; zerbait izena dela esateak ez du langutzen, baina izen horren aurrean genitiboa duen izena —edo izen sintagma— dugunean, sintagma horren burua da sarrera-hitzaren *hiperonimoa*.

(6) Izenaren_definizioa = izena (genitiboa) + izena.

(6) erreberentzia. A2 iz. Euskal **dantza** baten izena.

(6) Exodo. A0 iz. Irteera, Bibliako bigarren **liburuaren** izena.

Bi kasu hauek kontuan izanda, erreberentzia eta Exodoren *hiperonimoak* ditugu dantza eta liburu.

Aurretik genitiboa ez dugunean, erlatoea markatuko dugu, baina ez dugu erlazionatutako hitzik markatuko, hauek eta sarrera-hitzak duten erlazioa zein den zehazterik ez dagoelako.

izengoiti. A2 iz. Abizena, **familia** izena.
 toponimo. A0 iz. **Leku** izena.

Hemen ezin ahalko dugu ziur jakin zein den izengoiti eta familiaren arteko erlazioa, ezta toponimo eta lekuren artekoa ere. Halakoak gutxi agertzen dira hiztegian.

A.3.4. Bat / bakoitza.

Definizio amaieran bat edo bakoitza baldin baditugu, eta aurretik -etakorekin deklinatutako izena, izen hau da sarrera-hitzaren *hiperonimoa*. Sarrera-hitza, berriz, definizioan erlazionatutako hitz gisa markatu dugun izenaren *hiponimoa* da.

(7) Izenaren_definizioa = izena (+etako) + bat / bakoitza.

(7) isuralde. A0 iz. Mendi edo haran baten bi **maldetako** bakoitza.

(7) itxaropen. A0N1 iz. Hiru **bertute** teologaletako bat.

Adibide hauetan, malda eta bertute dira isuralderen eta itxaropenen *hiperonimoak*.

A.3.5. Mota

Zenbait kasutan erlazio hau *meronimikoen* artean sailkatu bada ere —*klase / azpiklase* erlazioa—, guk erlazio *hiperonimikotzat* hartu dugu. Beste zenbaitzuk halakoetan erlazio *taxonomiko hutsaz* hitz egiten dute, baina, esan bezala, guk *hiperonimia / hiponimia* erlazio gisa hartzea nahiago dugu.

Definizioan dugun erlazionatutako hitza *klase* bat da, eta, sarrera-hitza *klase* horretako *partaide* bat.

(8) Izenaren_definizioa = izena (markarik gabea) + mota.

(8) antxeta. A0 iz. **Kaio** mota txikia.

(8) harnabar. A0 iz. Harri nabarra, kolore desberdinetako zerrenda edo alderdiak dituen; bereziki **kuartzo** mota bat, nabarra eta ez gardena.

antxetaren *hiperonimoa* kaio da, eta harnabarena kuartzo.

A.4. Ezaugarria

Hiztegitik ateratako *ezaugarria* erlazioan, izen batek *berez duen ezaugarria* edo *egoera baten ezaugarria* dugu.

etiketa	erlazioa	sar- kat	erlz- kat	def-eskema	erlt- kop	erlz- kop
NOLAKOTASUNA ⁴	ezaugarria / edukitzaile	IZE	ADJ	adj. denaren nolakotasuna	548	504
	ezaugarria / edukitzaile	IZE	IZE	ize. denaren nolakotasuna		
NOLAKOTASUNA EZ	ezaugarria- gabezia	IZE	IZE	ize. ez denaren nolakotasuna	9	9
-Z BETEA	ezaugarria / edukia	ADJ	IZE	-z betea	141	141
	ezaugarria / edukia	IZE	IZE	-z betea	7	7
ADJ-KOA	ezaugarria	ADJ	IZE	ize. + adj.-koa	105	98
-I EGOKI	ezaugarria	ADJ	IZE	-i dagokiona	237	238
	ezaugarria	IZE	IZE	-i dagokiona	20	20

4. taula. *Ezaugarri* erlazioa markatzen duten erlatoeak.

A.4.1. Nolakotasuna

Erlatore hau izenen definizioetan agertzen da; zenbaitetan adjektiboen artean ere bai, baina oso gutxi, eta, badirudi izen gisa definitutako adjektiboen artean agertzen dela.

Kasu honetan sarrera-hitza *ezaugarria* da, eta definizioan dagoen izenak edo adjektiboak du sarrera-hitzak adierazten duen *ezaugarri* hori. Beraz, erlazionatutako hitza *edukitzailea* izango da.

(9) Izenaren_definizioa = adjektiboa (mugatua) + denaren nolakotasuna.

(9) aberastasun. A2 iz. Aberatsa denaren nolakotasuna.

Erlazioa adjektibo eta izenaren artekoa izan daiteke, eta, kasu honetan aberats adjektiboak adierazten duen entitateak izango du aberastasun *ezaugarria*.

Baina erlazioa bi izenen artekoa izan daiteke.

(10) Izenaren_definizioa = izena (mugatua) + denaren nolakotasuna.

(10) aitontasun. A0 iz. Aitona denaren nolakotasuna.

Aitonak du aitontasun *ezaugarria*. Definizio hauetan agertzen diren izen edo adjektibo hauek muga-mugakoak dira, eta, askotan kategoria bateko edo besteko hitz gisa erabiltzen dira.

Beste batzuetan, definizioan agertzen denez, erlazionatutako hitzak *ez du* sarrera-hitzak adierazten duen *ezaugarria*.

⁴ *nolakotasuna* eta *-z betea* erlatoeak bata bestearen alderantzizko erlazioak dira. *nolakotasuna* erlatoearen kasuan, *ezaugarria* sarrera-hitza da, eta *ezaugarri* horren edukitzailea erlazionatutako hitza; *-z betea* erlatoearen kasuan, berriz, *ezaugarria* eta erlazionatutako hitza da, eta sarrera-hitza *ezaugarri* hori duena.

erabakitasun. A0 iz. Zalantzarik, duda-mudarik ez duenaren nolakotasuna.

Alegia, duda-muda edo zalantza balioak dituenak *ez du* erabakitasun *ezaugarria*.. Kasu honetan *ezaugarrien balioez* baino, badirudi zerbait konkretuagoz ari garela, Aditz nagusia kasu hauetan ukan da.

Erlazio hauek hurrengoarekin lotuta daude.

A.4.2. -z betea

Hau gehienbat adjektiboetan agertzen den segida da, baina izenen artean ere agertzen da. Gehienetan erlazionatutako hitzak adieraziko duen *balioa edukiko* du sarrera-hitzak, eta honexegatik, agian, egokiago litzateke *eduki* erlazioaren azpian txertatzea, baina, oraingoz bakarra denez eta mugan dagoenez, hementxe jarriko dugu. Aurreko ataltxoan ikusi dugunaren alderantzizko erlazioa adierazten du: *ezaugarria* erlazionatutako hitza da.

Sarrera-hitza adjektiboa denetan, adjektibo horrek konplementatzen duen izenaren *propietatea* da erlazionatutako hitzak adierazten duen *hori* kantitate nabarian izatea. Sarrera-hitza *edukitzailea* da, eta erlazionatu gisa markatuko dugun hitza *edukia*. Duen *hori* abstraktua izan daiteke, adibide hauetan bezala:

(11) Adjektiboaren_definizioa = izena (instrumentala) + betea.

(11) faltsu. A2 izond. **Tolesez** betea, zuria, elezuria.

(11) goibeltsu. A0 izond. **Goibeltasunez** betea; hodeitsua.

Baina, aurreko adibideetan ez bezala, zerbait konkretua ere izan daiteke:

(11) lahartsu. A0 izond. **Laharrez** betea, sasitsua.

(11) lekatsu. A0 izond. Leka asko duena, **lekaz** betea.

Ataltxoaren hasieran komentatu bezala, erlazio hau izenen artean ere agertzen da, nahiz eta gutxiagotan.

(12) Izenaren_definizioa = izena (instrumentala) + betea.

(12) paradisu A3 iz. Toki edo egoera zoragarria, **atseginez** betea.

(12) lastaira A0 iz. Zaku moduko atal handia, berez **lastoz** betea, lo egiteko, gehienetan somierraren gainean jarriaz erabiltzen dena.

paradisuren *ezaugarria* da atsegina, eta lastairaren *ezaugarria* da lastoa —jatorriz, nahiz eta gaur egun hala ez izan—.

A.4.3. ADJ-KOA

Erlazioa sarrera-adjektiboa eta definizioan dagoen izen baten artekoa da. Sarrera den adjektibo horrek du definizioko izenak adierazten duen *propietatea* ondoko adjektiboak —erlatoareak— zehazten duen moduan.

(13)Adjektiboaren_definizioa = izena + adjektiboa (-koa).

(13) eramankor. A1 izond. **Eraman** handikoa.

(13) ferries. A0 izond. **Kalitate** apalekoa, nolannahikoa.

eramankorra dena eramán *ezaugarria* du, modu handian; eta ferries denak kalitatea du, modu apalean.

A.4.4. -i egoki

Sarrera-hitza adjektiboa izango dugu, eta erlazionatuta dagoen hitza izena. Adjektibo hori izen horretatik sortua izaten da maiz. Halakoei *adjektibo erlazonal* deitu ohi zaie (Miller, 1998b).

The second large and open adjective class consists of adjectives that are related semantically and morphologically to nouns, though the morphological relation is not always direct. We refer to them as *relational adjectives* (Levi 1978). (59. or.)

Hona definizio mota hauen eskema:

(14)Adjektiboaren_definizioa = izena (datiboa) + dagoki[oe]na.

(14) bektorial. A0 izond. **Bektoreei** dagokiena; bektoreez baliatzen dena.

bektoriala denak bektoreek dituzten *propietateak* izango ditu.

Kasu askotan sarrera-hitza erlazionatutako hitzetik eratorria da, baina ez kasu guztietan.

(14) antartiko. A0 izond. **Hegoburuari** dagokiona; Antartikari dagokiona.

(14) artistiko. A0 izond. **Ertiari** dagokiona.

Zerbait antartiko dela esateak, hegoburuak dituen *ezaugarriak* dituela esatea da; eta zerbait artistikoa dela esateak adierazten du ertiak dituen *ezaugarriak* dituela.

Erlazio hau izenen artean ere topatuko dugu, baina ez da oso maiz agertzen. Gainera, oro har kategoria mugan duten hitzen artean agertuko da.

(14) eusko. A2 iz. **Euskadiri, euskotarrei** dagokiena, Euskadikoa.

euskoek Euskadik edo euskotarrek dituzten *ezaugarriak* dituzte.

A.5. Jasale

Erlazionatu gisa markatutako hitzak *jasango* du sarrera-hitzak adierazten duen *egoera*. Bestela esanda, sarrera-hitzak *egoera* bat adierazten du, eta, egoera hori da erlazionatutako hitzak *izango* duena edo *jasango* duena.

etiketa	erlazioa	sar-kat	erlz-kat	def-eskema	erlt-kop	erlz-kop
EGOERA	jasale	IZE	IZE	ize.-en egoera	192	89
	jasale	IZE	ADJ	adj.-en egoera		

5. taula. *Jasale* erlazioa markatzen duten erlatoareak.

Sarrera-hitzak *egoera* bat adierazten du, eta, erlazionatutako hitzak adierazten du —baldin eta genitiboaren bitartez gauzatzen bada— nor den egoera horren *jasalea* —izena baldin bada—, edo nolako *ezaugarri-balioa* duten *jasale* horiek —adjektiboa dugunean—.

Erlazioa bi izenen artekoa izan daiteke:

(15) Izenaren_definizioa = izena (genitiboa) + egoera.

(15) itsasgora. A0 iz. **Itsasoaren** egoera, batez besteko maila baino gorago dagoenean.

(15) polaritate. A0 iz. Bi polo bereiz daitezkeen **sistemaren** edo **gorputzaren** egoera.

itsasgora, itsasoak *jasaten* duen —edo berez duen— *egoera* —edo izan ditzakeen balizko egoeretako bat— da; eta polaritatearen *berezko jasalea*, sistema edo gorputza da.

Bestetan, erlazioa izenaren eta adjektiboaren artekoa da:

(16) Izenaren_definizioa = izena (genitiboa) + egoera.

(16) klandestinitate. A0N1 iz. Klandestinoaren egoera.

(16) asperkizun. A0 iz. Aspertzea, aspertuaren egoera.

klandestinitatea klandestino denak *jasaten* duen *berezko egoera* da, eta, ondorioz, klandestinitatearen *berezko jasalea* klandestino dena da. Kontu bera esango dugu asperkizunekin: honen *berezko jasalea* aspertu dena da.

A.6. Berezko ekintza

Definizioan erlazionatutako hitz gisa markatu dugun aditza da sarrera-hitzaren *berezko ekintza*.

etiketa	erlazioa	sar- kat	erlz-kat	def-eskema	erlt-kop	erlz- kop
PERTSONA	berezko ekintza	IZE	ADI	-tzen duen pertsona	374	278
GAUZA	berezko ekintza	IZE	ADI	-tzen d(u)en gauza	124	53
ZERA	berezko ekintza	IZE	ADI	-tzen d(u)en zera	114	69
TRESNA	berezko ekintza- helburu	IZE	ADI	-tzeko tresna	217	119
	ezaugarria	IZE	IZE	ize + tresna		5
-KO ERABILI	berezko ekintza- helburu	IZE	ADI	-tzeko erabiltzen d(u)ena	179 (258)	179
ERABILI	erabilera	IZE	IZE/ADJ	ize/adj gisa erabiltzen dena	116 (232)	30
JOERA	berezko ekintza- helburu	ADJ	ADI	-tzeko joera duena	88	88
	berezko ekintza- helburu	IZE	ADI	-tzeko joera duena	6	6

6. taula. *Berezko ekintza* erlazioa markatzen duten erlatoreak.

A.6.1. Pertsona

Esanahi orokorreko genus hau askotan agertzen da definizioetan, eta sarrera-hitzak [+izaki bizidun] tasuna izango duela adierazten du. *pertsona* horren aurrean aditz ez burutua agertzen denean, sarrera-hitzaren *berezko ekintza* zein den ezagutuko dugu.

(17) Izenaren definizioa = aditza (-t(z)en) + duen + pertsona.

(17) al baitari. A0 iz. Abereen eta, oro har, animalien osasuna
zaintzen duen pertsona.

Adibide honi esker, al baitariaren *berezko ekintza* zaindu dela ezagutzen dugu.

A.6.2. Gauza eta zera

Hemen ditugun elementuak ere —ikusi berri dugun *pertsona* bezala— genus posizioan maiz agertzen diren esanahi orokorreko hitzak dira, eta erlatore gisa landu ditugu. Sortzen diren erlazioak izen eta aditz baten artekoak dira, eta sarrera-hitzaren *berezko ekintza* da erlazionatu gisa markatzen dugun aditza. Aditz honek daraman laguntzailearen motaren arabera —erlatore gisa markatuko dugun elementua, alegia—, sarrera-hitza aditzak adierazten duen ekintzaren *berezko subjektua* edo *objektua* den jakin ahal izango dugu.

Definizio-patroi hauek sortzen duten erlazioa badu -garri atzizkiarekin zerikusirik. *gauzak* eta *zerak* hitzen arteko erlazio *aktiboa* edo *pasiboa* islatzen dute.

(18) Izenaren_definizioa = aditza (-t(z)en) + den gauza.

(18) arbuio. A2 iz. Hondakina, **arbuiaitzen** den gauza.

(18) bahi. A1 iz. Zorraren ordainketaren seinale edo bermetzat hartzekodunaren eskuetan **uzten** den gauza.

arbuio izenaren *berezko ekintza* arbuiaitu da, eta arbuiaituren *objektua* arbuioa da; bahiren kasuan, aldiz, *berezko ekintza* utzi da, eta honen *objektu* da bahi. Hauek dira erlazio *pasibo* deitu ditugunak.

zera erlatorea aurrekoaren pareko da:

(19) Izenaren_definizioa = aditza (-t(z)en) + den zera.

(19) ordainkin. A0 iz. Egindako kaltearen ordainetan **ematen** den zera.

(19) argitalpen. A0N1 iz. **Argitaratzen** den zera.

ordainkina eman egiten den zerbait da, eta, argitalpena argitaratu egiten da.

Laguntzailea *nor-nork* motakoa denean honelako adibideak ditugu.

(20) Izenaren_definizioa = aditza (-t(z)en) + duen gauza.

(20) estalki. A1 iz. **Estaltzen** duen gauza.

(20) harrogarri. A2 iz. **Harrotzen** duen gauza.

Hauetan sarrera-hitza da *berezko subjektua*. Hauek islatzen duten erlazioa *aktiboa* da. estalkiren *berezko ekintza* estali da, eta harrogarriena harrotu. Patroi honen barruan *-garri* atzizki lexikala duten hitz asko agertzen dira, eta, kontuan izan behar dugu hauen kategoria izenen eta adjektiboen mugan dabilela.

zerari dagokionez, aurreko erlazio bera islatuko du:

(21) Izenaren_definizioa = aditza (-t(z)en) + duen zera.

(21) gaitz. MaA1 iz. Edozein motatako kaltea edo mina ekartzen edo sortzen duen zera.

(21) adierazgarri. A1 iz. Zerbait adierazten duen zera.

gaitza izenaren *berezko ekintza* ekarri edo sortu dira, eta, adierazgarriena adierazi. Multzo honetan, gauzarekin komentatu dugun bezala, adjektibo eta izen kategorien artean dauden hitzak daude, *-garri* atzizki lexikalarekin osatutakoak, alegia.

A.6.3. Tresna

Erlatore hau genus-posizioan askotan agertzen den esanahi orokorreko beste elementu bat da. Sarrera-hitza *tresna* dela jakiteaz gain, definizioan erlazionatutako aditz gisa markatu duguna sarrera-hitz honen *berezko ekintza-helburua* da.

(22) Izenaren_definizioa = aditza (-t(z)eko) + tresna.

(22) mikrometro. A0 iz. Tamaina aski txikiak **neurtzeko** tresna.

(22) sagutegi. A0 iz. Saguak **harrapatzeko** artea edo tresna.

Definizio honetatik erauzi ahal dugu mikrometroaren *berezko ekintza-helburu* neurtu dela, eta sagutegiren *berezko ekintza-helburu* harrapatu dela.

Bestetan tresna horren *ezaugarria* edo erabiltze-esparrua zein den jakin dezakegu.

(23) Izenaren_definizioa = izena (markagabea) + tresna.⁵

(23) oboe. A0 iz. Haize musika tresna, zurez egina, mihi bikoitza eta tutu konikoa duena.

(23) sestante. A0 iz. Argizagi baten kokagunearen luzera eta latitudea kalkulatzeko erabiltzen den itsasketa tresna.

Definizio hauetatik erauzi dezakegu oboearen *erabiltze-esparrua* musika dela, eta sestantearena itsasketa.

A.6.4. -ko erabili

Sarrera-hitza *tresna* bat dugu, eta definizioan agertzen den kodun aditza da *tresna* horren —sarrera-hitzaren— *berezko helburua*.

(24) Izenaren_definizioa = aditza (-t(z)eko) + erabiltzen d(u)ena.

(24) abaro. A0 iz. Zuhaizpeko babesgunea, ganaduak eguzkitik **gerizatzeko** erabiltzen duena.

(24) anda. A0 iz. Bi hagaz eta haien artean ezartzen diren ohol batzuek osatutako tresna, bereziki hilotzak **garraiatzeko** erabiltzen zena.

abaro tresnaren *berezko helburua* gerizatu da, eta andarena garraiatu.

A.6.5. Erabili

Erlatore honi esker zerbaiten erabilera zein den ezagutuko dugu. Askotan *hiperonimoak* dirudite, nahiz eta zehatz-mehatz ez hala izan.

⁵ Halako gutxi daude hiztegian.

(25) Izenaren_definizioa = IZE / ADJ + gisa + erabiltzen d(u)ena.

(25) galeoi. A0 iz. Gutxienez hiru masta zituen itsasontzi handia, garraioan edo **gerraontzi** gisa erabiltzen zena.

(25) disket. A0 iz. Informazioaren euskarri magnetikoa, kanpo **memoria** gisa erabiltzen dena, ahalmen txikikoa.

galeoiren *erabilera* gerraontzi gisa da, eta, agian, pentsa daiteke galeoia gerraontzia dela; disketa, berriz, memoria gisa *erabiltzen* da, eta, kasu honetan, zail da esatea bata bestearen *hiperonimoa* dela.

A.6.6. Joera

Erlatore hau agertzen denean sarrera-hitzaren *berezko helburua* da definizioan erlazionatu gisa markatutako aditza. Erlazioa izen eta aditz baten artekoa izan daiteke, baina baita adjektibo eta aditz baten artekoa ere. Azken hau da, gainera, hiztegian usuen agertzen dena.

(26) Izenaren_definizioa = aditza (-t(z)eko) + joera duena.

(27) Adjektiboaren_definizioa = aditza (-t(z)eko) + joera duena.

(26) kiribilkor. A0 iz. **Kiribiltzeko** joera duena.

(27) ahazkor. A0 izond. Gauzez erraz ahazten dena, **ahazteko** joera duena.

kiribilkorren *berezko helburu*, eta gainera, berez gertatzen dena, kiribildu da. ahazkorren kasuan, berriz, adjektiboa dugu, eta pentsa dezakegu *ezaugarri* hau duen izena dela ahazteko joera duena.⁶

A.7. Meronimia

meronimia mota bat baino gehiago baldin badago ere, denak multzo berean sartuko ditugu. Hona erlatoreen zerrenda eta azalpenak.

etiketa	erlazioa	sar-kat	erlz-kat	def-eskema	erlt-kop	erlz-kop
MULTZOA	meronimia	IZE	IZE	-en multzoa	446	403
TALDEA	meronimia	IZE	IZE	-en taldea	58	26
ATALA	holonimia	IZE	IZE	-en atala	15	17
ZATIA	holonimia	IZE	IZE	-en zatia	243	178
KIDEA	holonimia	IZE	IZE	-ko kidea	55	40

7. taula. *Meronimia / holonimia* erlazioa markatzen duten erlatoeak.

⁶ *-tzeko joera duena* definizio-patroia dugunean, erlatore gisa aditz laguntzailea markatu dugu, baina etorkizunean *joera* bera ere markatu beharko dugu. Markatu gabe utzita, elipsiak markatzen duen erlazionatutako hitz gisa agertzen da, eta hori sahiestu daiteke erlatore marka bikoitza jarritz —aditz laguntzaileari eta joera hitzari—.

A.7.1. Multzoa eta taldea

multzo / *talde* erlatoeak sarrera-hitza eta bere aurretik agertzen den erlazonatutako hitza —genitibo marka duen izena edo markarik gabeko izena izan ohi da— erlazonatzen ditu. Bi izenen arteko erlazioa dugu, eta definizioan dugun erlazonatutako hitza da sarrera-hitzaren *osagaia* —*meronimoa*— eta sarrera-hitza dugu *osotasuna* —*holonimoa*—. Hona topatu ditugun bi definizio-patroi nagusiak:

(28) Izenaren_definizioa = izenlaguna (-en) + ‘*multzoa*’.

(29) Izenaren_definizioa = izena + ‘*multzoa*’.

(28) hezurdura. A0 iz. Gizon edo abere baten **hezurren** multzoa, gorputzean ezarriak dauden eran.

(29) perleria. A0 iz. **Perla** multzoa.

Adibideei erreparatzen badiegu, hezurdurak hezurak ditu, eta hauen *multzo* bat da, eta perleriak perlak ditu.

(30) Izenaren_definizioa = izenlaguna (-en) + ‘*taldea*’.

(31) Izenaren_definizioa = izena + ‘*taldea*’.

(30) banda. H1A2 iz. Haize eta perkusio instrumentuak jotzen dituzten **musikarien** taldea.

(31) jendalde. A1 iz. **Jende** taldea.

Bai banda eta bai jendalde zerbaiten *talde* ditugu, lehena musikariena, eta, bigarrena jendearena.

Badirudi *multzo* / *talde* diferentzia *multzo* edo *talde* hori osatzen duten osagaien *biziduntasuna* edo *biziduntasun eza* izan daitekeela. Alegia, *multzoa* dugunean, badirudi osagaiak *ez bizidunak* izango ditugula; eta, *taldea* dugunean, aldiz, badirudi osagai *bizidunak* izango ditugula. Oro har hiztegiko definizioetan hala gertatzen da, nahiz eta salbuespenen bat agertu.

ahaideria. A0 iz. Senitartea, ahaideen multzoa.

udaltzaingo. A0 iz. Herri edo hiri bateko udaltzainen multzoa; (...)

A.7.2. Atala

atala hitza definizioen gune posizioan hainbatetan agertzen da, baina *meronimia* erlazioa egon dadin bere aurreko izena genitibo postposizio-atzizkia eraman behar egon behar du.

(32) Izenaren_definizioa = izenlaguna (-en) + 'atala'.

(32) aljebra. A0 iz. **Matematikaren** atala, elementu multzo jakin batean eragiketa bat edo gehiago ezartzen direnean gertatzen diren tasunez diharduena.

(32) metafisika. A0 iz. **Filosofiaren** atala, errealitate osoaren izatasunaz, ezagutzaren lehen oinarriez diharduena, eta biziaren eta unibertsoaren ikusgune osoa dakarrena.

Bi adibide hauetatik ikas dezakegu aljebra dela matematikaren *meronimoa*, eta, metafisika filosofiarena.

Ondoren juntagailua duen *meronimia*-erlaorerik ez da agertzen; ezta aurretik duenik ere —atala edo..., ...edo atala—

A.7.3. Zatia

zattia eraltorea duen definizio-patroian, erlaturearen aurretik ez du zertan beti genitiboa agertu, eta aurreko hitza markarik gabe ager daiteke.

(33) Izenaren_definizioa = izenlaguna (-en / -ko) + 'zattia'.

Aurretik lekuzko genitiboa baldin badu, genitibodun hitz hori da *holonimoa*, baldin eta honen aurretik edutezko genitiboa daraman hitzik agertzen ez bada.

(33) mezerdi. A0 iz. Sagara, **mezaren** erdiko zattia.

Kasu honetan, adibidez, mezerdiren *holonimoa* ez da erdi izango, baizik eta meza, hau da, lekuzko genitiboa daraman hitzaren aurrean dagoen edutezko genitiboa daraman hitza.

(33) aitagure. A0N1 iz. Otoitz hori esaten den **mezako** zattia.

Kasu honetan, aurrekoan ez bezala, lekuzko genitiboa daraman hitza da sarrera-hitzaren *holonimoa*. aitagureren *holonimoa* da meza.

Gerta ere daiteke zati hitza hitz konposatu baten bigarren osagaia izatea, eta, orduan esango dugu lehen osagai hori dela *holonimoa*K.

(34) Izenaren_definizioa = izena + 'zattia'.

(34) epaitondo. A0 iz. Motzondoa, enborra moztu ondoren lurrari atxikia gelditzen den **zuhaitz** zattia.

Kasu honetan erlazonatutako hitza *zuhaitz* dugu, eta epaitondoren *holonimoa* da.

A.7.4. Kidea

Erlatore honek *meronimia* mota baten aurrean jartzen gaitu. Sarrera-hitza da *meronimoa*, eta erlazionatuta dugun hitza *holonimoa*. *Holonimo* honek *talde* edo *entitate* itxura du, eta sarrera-hitza beti da *talde* edo *entitate* horretako partaide den *izaki bizidun* bat. *WordNet* ontologian erlazio *meronimiko* hau *member of* izendatzen dute.

(35) Izenaren_definizioa = izena (-ko) + kidea.

(35) euskaltzain. A0 iz. **Euskaltzaindiko** kidea.

Adibide honetan euskaltzain sarrera-hitzak adierazten duena da euskaltzaindia entitateko *parte*. Erlazionatutako hitza da sarrera-hitzaren *holonimoa*.

A.8. Berezko objektua

Berezko objektu etiketa erabiliko dugu zerbaiti berez dagokion *objektuari* erreferentzia egiteko. Zenbaitetan *helburua* ere izan daiteke. ogigileak ogiak egiten dituela esaten dugunean, pentsatuko dugu ogigilearen *berezko objektua* ogia dela, eta, era berean, bere *helburua* ere bada. Definizio hauetan hitz anitzeko batek adierazten duen *berezko ekintza* erlazioa agertu ohi da: ogigile horren *berezko ekintza* ogia egin da.

etiketa	erlazioa	sar-kat	erlz-kat	def-eskema	erlt-kop	erlz-kop
EGIN	berezko objektu	IZE	IZE	ize + egiten d(it)uena	151 (302)	129
	berezko objektu	ADJ	IZE	ize + egiten d(it)uena	91 (182)	80
EMAN	berezko objektu	IZE	IZE	ize + ematen d(it)uena	70 (140)	45
	berezko objektu	ADJ	IZE	ize + ematen d(it)uena	15 (30)	15
EGITE	berezko objektu	IZE	IZE	ize. + egitea	205	22
	berezko ekintza (HAUL)	IZE	ADI	adb. + egitea		9
	berezko egile	IZE	IZE	-en + egitea		3
	ezaugarria	IZE	ADJ	adj-i dagokion egitea		22
	ezaugarria	IZE	IZE	ize-i dagokion egitea		6
	hiperonimia	IZE	IZE	ize edo egitea		15

8. taula. *Berezko objektu* erlazioa markatzen duten erlatoeak.

A.8.1. Egin

Halakoetan agertzen den sarrera-hitza *gizakia* izan ohi da, eta, oro har, *berezko objektu* horrek adierazten duen *gaia sortzea* du lanbide. Hona definizio-eskema:

(36) Izenaren_definizioa = izena (absolutibo mugatua) + egiten d(it)uena.

(36) neurtizgile. A0 iz. **Neurtitzak** egiten dituena, neurtizlaria.

(36) oihalgile. A0 iz. **Oihalak** egiten dituena.

neurtizgileren *berezko objektua* neurtitz da, eta oihalgilerena oihal.

Aurreko horretan bi izenen arteko erlazioa dugu, eta ondorengoa, berriz, adjektibo eta izen baten arteko erlazioa da.

(37) Adjektiboaren_definizioa = izena (absolutibo mugatua) + egiten d(it)uena.

(37) bihurri. H1A1N2 izond. Haurrez eta hitz eginez, **gaiztakeriak** edo **bihurrikeriak** egiten dituena, esanekoa ez dena.

(37) azpisuge. A0 izond. **Saldukeriak** egiten dituena.

bihurri eta gaiztakeria / bihurrikeria agertzen dira erlazionatuta *egin-objektu* erlazioaren bitartez, eta baita azpisuge eta saldukeria ere. *Ekintza* horiek adjektiboak adierazten dituen ezaugarri horiek dituen norbaitek edo zerbaitek burutuko dituela.

Adjektiboen artean azaldu daiteke aurreko eskemaren oso antzekoa, baina izena mugatua izan beharrean inongo markarik ez duena da. Halakoetan egin bigarren osagaia duen hitz anitzeko aditz bat dugu, eta erlazioa adjektibo eta aditzaren artekoa da, nahiz eta eginen *berezko objektuaren* itxura duen kasu markarik gabe dugun izen hori.

(38) Adjektiboaren_definizioa = izena (kasu markarik gabea) + egiten d(it)uena.

(38) berbatsu A0 izond. Asko hitz egiten duena.

(38) durunditsu A0 izond. Ozena, zaratatsua; durundi egiten duena.

Hemengo erlazioa adjektiboa eta aditzaren artekoa izango da: berbatsuren *berezko ekintza* izango da hitz egin, eta durunditsurena durundi egin.⁷

A.8.2. Eman

eman aditza nahikoa esanahi ahuleko aditza da. Aurretik izen absolutibo mugatua duenean, sarrera-hitza eta erlazionatutako hitzaren artean *objektu* erlazioa izango dugu. Askotan *zuhaitz* eta *zuhaitz-fruituen* arteko erlazioa da, baina ez beti.

⁷ Bereizketa hau ez dugu erregeleratu gero emaitzak ateratzea konplexua izan daitekeelako. Erlatore honetan *egin* eta elipsoidun laguntzailea markatuko ditugu erlatore gisa.

(39) Izenaren_definizioa = izena (absolutibo mugatua) + ematen d(it)uena.

(39) olibondo. A0 iz. Oleaceae familiako zuhaitza, **olibak** ematen dituena, enbor bihurri adartsua, hosto berdeak gainetik eta zurixkak azpitik, eta lore zuriak dituena.

(39) pitonisa. A0 iz. Antzinako Grezian, emakumezko igarlea, Delfos-ko tenpluan **orakuluak** ematen dituena.

olibondo eta olibaren arteko erlazioa *eman-objektu* da, eta erlazio bera izango dugu pitonisa eta orakuluren artean.

Erlazioa izen eta adjektiboen artean ere gerta daiteke:

(40) Adjektiboaren_definizioa = izena (absolutibo mugatua) + ematen d(it)uena.

(40) berritsu. H1A1 izond. **Berriak** ematen dituena.

(40) gosegarri. A0 izond. **Gosea** ematen duena.

Hemen ditugun erlazioak berritsu eta berriak emanen artekoa eta gosegarri eta gosea emanen artekoa dira.

A.8.3. Egite

Honen azpian hainbat erlazio topatu ditugu. Nagusiena *berezko objektu* erlazioa da. Sarrera-hitzaren *berezko objektua* da erlazionatutako hitza.

(41) Izenaren_definizioa = izena (absolutibo mugatua) + egitea.

(41) hauspogintza. A0 iz. Hauspogilearen lanbidea; **hauspoak** egitea.

(41) eztigintza. A0 iz. **Eztia** egitea.

hauspogintza eta hauspoa lotuta daude, eta eztigintza eta eztia. Askotan lanbideekin izango du zerikusia, baina ez beti.

(41) goitika. A0N1 iz. **Oka** egitea; oka egiten dena.

Bestetan, sarrera-izenak adberbio batekin du erlazioa. Hauek ez dira hainbeste, eta lanbideekin ez dute loturarik. *ekintzak* ditugu, eta definizioan agertzen dena hitz anitzeko aditz bat da. Beraz *hitz anitzeko ia-sinonimoak* ditugu.

(42) Izenaren_definizioa = adberbioa + egitea.

(42) hegada. A0 iz. **Hegan** egitea.

(42) begiraldi. A0 iz. **So** egitea.

Izenaren eta adjektiboaren arteko erlazioa baldin badugu egite erlatorearen bitartez, sarrera-hitza den ekintzaren *berezko egilearen ezaugarria* adieraziko du adjektibo

horrek. Halakoak izen erlazionalak dira eta dagoeneko A.4.4. atalean azaldutakoarekin badu zerikusirik.

(43) Izenaren_definizioa = adjektibo (datiboa) + dagokion egitea.

(43) baldarkeria. A0 iz. **Baldartasuna** (gaitzesgarritzat markatua); baldarrari dagokion egitea.

(43) barrabaskeria. A0 iz. **Barrabasari** dagokion egitea.

baldarkeria *ekintzaren egilea* da baldar *ezaugarria* duena, eta barrabaskeriarena barrabasa denarena.

Zenbaitetan adjektiboa beharrez, izena agertuko da definizioan erlazionatutako hitz gisa, eta, kasu horietan izen hori da sarrera-izena den ekintzaren *berezko egilea*.

(44) Izenaren_definizioa = izena (datiboa) + dagokion egitea.

(44) bufoikeria. A0 iz. **Bufoiari** dagokion egitea, gaitzesgarritzat markatua.

(44) deabrukeria. A0 iz. **Deabruari** dagokion egitea.

bufoikeriak egiten dituen bufoia da, eta deabrukeriak egiten dituen, deabrua. Nabaria denez, erlazionatutako hitz hauek adjektiboengandik oso hurbil daude.

Hiperonimia da erlature honek sortzen duen beste erlazioa. Halakorik, egite hitzak aurretik juntagailua duenean eta honen aurretik beste izen bat dagoenean, izango dugu.

(45) Izenaren_definizioa = izena + edo + egitea.

(45) buruberokeria. A0 iz. Buruberoaren **jarrera** edo egitea.

(45) aztikeria. A0 iz. Azti lanezko **asmaketa** edo egitea, gaitzesgarritzat hartua.

buruberokeria *jarrera bat* da, eta aztikeria *asmaketa bat*.

Hiperonimo horren aurrean agertzen den genitibodun izena da *ekintzaren egilea*. Zenbaitetan egitearen aurretik badugu genitibodun izen hori, baina oso gutxitan agertzen da.

A.9. Gabezia, eza

etiketa	erlazioa	sar-kat	erlz-kat	def-eskema	erlt-kop	erlz-kop
GABEZIA	gabezia	IZE	IZE	ize + gabezia	26	26
	gabezia	ADJ	ADJ	ize + eza	65	65

9. taula. *Gabezia* adierazten duen erlatoea.

Sarrera-hitzak, erlacionatutako hitzak –definizioan ageri dena, alegia– adierazten duenaren *gabezia* edo *falta* ageri du.

(46) Izenaren definizioa: izena (-rik) + ‘eza’

(47) Izenaren definizioa: izena + ‘gabezia’

(46) askatasun. A1 iz. **Eragozpenik** eza, **traba** gabezia.

(46) asfixia. A0 iz. Biriketako **oxigeno** gabezia; horren ondoriozko egoera.

(47) desarrazoi. A0 iz. **Arrazoirik** eza; arrazoiaren aurkako gauza.

(47) deslai. A1 iz. **Ardurarik** eza.

askatasuna duenak ez du eragozpenik edo trabarik izango; asfixia duenak oxigeno *gabezia* du; desarrazoiak ez du arrazoirik izango; eta deslaiak ez du ardurarik izango.

A.10. Betekizun / betegai

Aditzen artean bete erlatoea agertzen da, eta aurretik zer duen arabera zehaztuko dugu erlazioa: *betegaia*, *betekizuna*, edo *modua*.

etiketa	erlazioa	sar-kat	erlz-kat	def-eskema	erlt-kop	erlz-kop
BETE	betegai	ADI	IZE	-z bete	71	62
	modua	ADI	ADB	adb + bete		9
	betekizun	ADI	IZE	ize (abs) + bete		13

10. taula. *Betekizun / betegai* erlazioak markatzen dituen erlatoea.

(48) Aditzaren definizioa: -z bete

(49) Aditzaren definizioa: adb bete

(50) Izenaren definizioa: ize (abs) bete

(48) belartu. A0 ad. **Belarrez** bete.

(49) brokatu. A0 ad. **Mukuru** bete.

(50) esnatu. H2A0 ad. (Bularra, errapea) **esnez** bete.

Lehenengo definizioan *belar* dugu *betegaia*, bigarrenean *mukuru* da *betetzeko modua*, eta, hirugarrenean *bularra* eta *errapea* dira *betekizunak*.

A.11. Aditzen genus orokorrak

Hemen paratu ditugun hitzak genus posizioan agertzen dira maiz, eta nahiko esanahi ahuleko aditzak dira. Askotan beste izen edo adjektibo batekin batera hitz anitzeko aditz bat osatzen dute. Gu *hitz anitzeko sinonimoak* eta *hitz anitzeko genusak*

bereizten saiatuko gara. Erlatore gisa partizipio ahul hori markatu dugu, eta, hitz anitzeko terminoaren lehenengo osagaia erlazionatutako hitz gisa.

etiketa	erlazioa	sar-kat	erl-zkat	def-eskema	erl-kop	erl-zkop
EGIN	sin-haul	ADI	ADI	ize/adj/adb + egin	471	300
	genus-haul	ADI	ADI	mod. ⁸ + ize/adj/adb + egin		103
BIHURTU	sin-haul	ADI	ADI	ize/adj + bihurtu	468	306
	genus-haul	ADI	ADI	mod. + ize/adj + bihurtu		86
BEHARTU	sin-haul-helburu	ADI	ADI	-tzera + behartu	426	417
	genus-haul-helburu	ADI	ADI	mod. + -tzera + behartu		9
EMAN	sin-haul	ADI	ADI	ize/adb + eman	296	132
	sin-haul-helburu	ADI	ADI	-tzera + eman		5
	genus-haul	ADI	ADI	mod. + ize/adb + eman		50
	genus-haul-helburu	ADI	ADI	-tzera + eman		4
EMAN / HARTU	sin-haul	ADI	ADI	ize/adb + hartu edo eman	269	40
HARTU	sin-haul	ADI	ADI	ize/adb + hartu		84
	genus-haul	ADI	ADI	mod. + ize/adb + hartu	27	
IZAN	sin-haul	ADI	ADI	ize/adj/adb + izan	195	95
	genus-haul	ADI	ADI	mod. + ize/adj/adb + izan		61
JARRI	sin-haul	ADI	ADI	ize/adj/adb + jarri	161	87
GALDU	sin-haul	ADI	ADI	ize/adj/adb + galdu	110	40
GALDU / KENDU	sin-haul	ADI	ADI	ize/adj/adb + galdu edo kendu		26
KENDU	sin-haul	ADI	ADI	ize/adj/adb + kendu	93	22
JOAN	sin-haul	ADI	ADI	-ra joan	86	21
JOAN / ERAMAN	sin-haul	ADI	ADI	-ra joan edo eraman		16
ERAMAN	sin-haul	ADI	ADI	-ra eraman	75	16

11. taula. *Hitz anitzeko sinonimo / hitz anitzeko hiperonimo* erlazioa markatzen duten erlatoeak.

A.11.1. Hitz anitzeko sinonimoak

Aditz baten definizioan (51)ko eskema baldin badugu, izen, adjektibo edo adizlagun bat eta ondoren aditz ahul horietako bat puntuazio-marka baten aurretik, esango dugu *hitz anitzeko sinonimo* bat dugula.

(51) Aditzaren_definizioa = [,] IZE/ADJ/ADB [def-hasi]⁹ + aditz_ahula.

(51) abaildu. A1 ad. Guztiz nekatu, **leher egin**.

abailduren *sinonimoa* da leher egin.

⁸ Genus direnak aurretik *modifikatzaile* (*mod.*) bat —edo *differentia*— behar dute.

⁹ Mota honetako sinonimo bat izan dezagun, erlazio marka daraman hitzak definizioako (edo deskribapeneko) lehenengo elementua izan behar du, edo puntuazio-marka baten ondoren azaldu.

(51) ilaundu. A1 ad. **Ilaun bihurtu**, erraustu; suntsitu.

ilaunduren *sinonimoa* da ilaun bihurtu. bihurturen kasuan zail izango da adberbioa agertzea.

(51) altxarazi. A0 ad. **Altxatzera behartu**.

altxaraziren *sinonimoa* da altxatzera behartu. Kontuan izan behar da aurretik beti izango dugula -t(z)era forma duen aditza. Gainera, pentsa ahal izango dugu aditz horrek *helburua* markatzen duela.

(51) autorizatu. A0 ad. **Baimena eman**.

autorizaturen *sinonimoa* da baimena eman. Aurrean izena edo adberbioa bilatuko dugu.

(51) laketu. MaA1 ad. Laket izan, **atsegin hartu**.

laketuren *sinonimoa* da atsegin hartu. Aurrean izena edo adberbioa bilatuko dugu.

(51) damutu. A1 ad. **Damu izan**.

damuturen *sinonimoa* da damu izan.

(51) jantzi. H1A1 ad. Gorputza arropaz estali; **arropak jarri**.

jantziaren *sinonimoa* da arropak jarri.

(51) baldartu. A2 ad. Baldar bihurtu, bizkortasuna, **zalutasuna galdu**.

baldarturen *sinonimoa* da zalutasuna galdu. Erlatorearen aurreko izen horrek absolutibo mugatu kasua darama, eta galduren *objektua* da.

(51) desarmatu. A0 ad. Armak kendu, armagabetu.

desarmaturen *sinonimoa* da armak kendu. Erlazionatutako izenak absolutibo mugatuan dago, eta kenduren *objektua* da.

(51) atariratu. A0 ad. Atarira joan.

atariraturen *sinonimoa* da atarira joan. joan aurretik dugun izenak adlatibo postposizio-atzizkia darama, eta *helburuko leku-kokapena* adierazten du.

(51) porturatu. A0N1 ad. Portura eraman.

porturaturen *sinonimoa* da portura eraman. eraman aditzaren aurretik agertzen den izenak adlatibo postposizio-atzizkia darama, eta *helburuko leku-kokapena* adierazten du.

A.11.2. Hitz anitzeko hiperonimoak

Genus posizioan agertzen den esanahi ahuleko aditz horren aurretik nolabaiteko modifikatzailea agertzen bada —**Error! No se encuentra el origen de la referencia.**eko eskema—, ezin esango dugu *sinonimia* dagoenik, eta, halakoetan hitz anitzeko hori sarrera hitzaren *hiperonimoa* da.

(52) Aditzaren_definizioa = modifikatzailea + IZE/ADJ/ADB + egin + [, (...)].

(52) azaldu. A1 ad. Zerbaiti buruz **hitz egin**, hura ulertarazteko edo ezagutarazteko.

azalduren *hiperonimoa* da hitz egin.

(52) labakitu. A0 ad. Lur eremu bat **labaki bihurtu**.

labakituren *hiperonimoa* da labaki bihurtu.

(52) hutsarazi. A0 ad. Husteran, hutsik **uztera behartu**.

hutsaraziren *hiperonimoa* da uztera behartu.

(52) iragarri. A1N1 ad. Berezi Zerbait gertatu dela edo gertatuko dela **aditzera eman**.

iragarriren *hiperonimoa* aditzera eman da. Aditz ahularen aurrean izena edo adberbioa bilatu dugu.

(52) jolastu. A0 ad. Jolasaren bidez **atsegin hartu**, jolasean ibili, jolas egin.

jolastuen *hiperonimoa* atsegin hartu da. Erlatorearen aurrean izena edo adberbioa bilatu dugu.

(52) jakin. H1A2 ad. Gai bati buruz aski ezaguera, zerbait erabiltzeko trebetasuna izan.

jakinen *hiperonimoa* trebetasuna izan izango da.

jarri, galdu, kendu, joan eta eraman erlatoareak dituzten definizioetan ez da *hitz anitzeko hiperonimia* erlazioa markatzen duen defizio-patroirik agertzen.

A.11.3. Bi aditz ahulen lotura

Aurretik aipatu ditugun zenbait aditz ahul elkarren ondoan agertzen dira zenbait definizioetan. Kontua da sarrera-hitza den aditza *iragankorra* eta *iragangaitza* izan daitekeela. Adibidez zerbait *berez* ihartu daiteke, edo *norbaitek* ihar dezake. Modu honetakoak deskribapen bakarrarekin adierazteko lexikografoak bi aditz ahulen lotura erabiltzen du. *iharturen kasuarekin jarraituz*, hezetasuna kendu edo galdu da hiztegian duen definizioa. *kendu baldin badugu*, aditza *du* motakoa izango da,

alegia, norbaitek edo zerbaitek *ihartzen du*; eta galduren kasuan badirudi *berez ihartzen dela*; aditza *da* motakoa da kasu honetan.

ihartu A0 ad. **Hezetasuna kendu edo galdu, (...)**

Hona zeintzuk diren lokailu batez lotuta agertzen diren aditz ahul horiek.

eman **eta** hartu:

jarauntsi H1A0 ad. Oinordetu, **oinordekotzan hartu edo eman.**

liraindu A0 ad. Lirain bihurtu, **liraintasuna eman edo hartu.**

jarauntsiren *sinonimoak* dira oinordekotzan hartu **eta** oinordekotzan eman; **eta** lirainduenak liraintasuna eman **eta** liraintasuna hartu.

galdu **edo** kendu:

gezatu A0 ad. **Gazitasuna galdu edo kendu.**

ihartu A0 ad. **Hezetasuna kendu edo galdu, ihar bihurtu, bizitasuna galdu edo kendu.**

gezaturen *sinonimoak* dira gazitasuna galdu **eta** gazitasuna kendu; **eta** iharturenak hezetasuna galdu **eta** hezetasuna kendu, **eta** bizitasuna galdu **eta** bizitasuna kendu.

joan **eta** eraman:

mugaratu A0 ad. **Mugara joan edo eraman.**

oihaneratu A0 ad. **Oihanera joan edo eraman.**

mugaraturen **eta** oihaneraturen *sinonimo* ditugu mugara joan, mugara eraman, oihanera joan **eta** oihanera eraman.

Bi aditz erlatore agertzen diren hauetan ez dugu *hitz anitzeko hiperonimia* erlazorik topatu hiztegiko definizioetan.

A.12.Elipsia

Halakoak maiz agertzen dira definizioetan. Nahiz eta sortzen diren erlazioak hainbat izan, erlatorea elipsia duten guztiak batera ematea erabaki dugu.

etiketa	erlazioa	sar-kat	erlz-kat	def-eskema	erlt-kop	erlz-kop
ELIPSIA	berezko ekintza	ADJ	ADI	-t(z)en d(u)ena	760	883
	ezaugarria	ADJ	ADJ	adj. d(u)ena	906	169
	ezaugarria	ADJ	IZE	ize. d(u)ena		560
	berezko ekintza	IZE	ADI	-t(z)en d(u)ena	1154	1213
	ezaugarria	IZE	ADJ	adj. d(u)ena	876	116
	ezaugarria	IZE	IZE	ize. d(u)ena		354
	antonimoa	ADJ	ADJ	adj. ez dena	88	18

12. taula. *Elipsidun erlatoareak.*

Erlazio usuena izen edo adjektibo eta aditz baten artekoa dugu. Aditz hori sarrera-hitza den izen edo adjektiboak adierazten duenaren *berezko ekintza* da.

(53) Adjektiboaren_definizioa = aditza (-t(z)en) + duena.

(53) gaiztatzaile. A0 izond. **Gaiztatzen** duena.

(53) geldigarri. A0 izond. **Geldiarazten** duena.

Bi kasu hauetan, laguntzailea *nor-nork* motakoa denez, sarrera-adjektiboak adierazten duen hori da *berezko ekintza* horren *egile*. gaizkatzaile **denak** gaiztatu egingo du, eta geldigarri **denak** geldiarazi.

(54) Izenaren_definizioa = aditza (-t(z)en) + duena.

(54) baztanga. H1A0 iz. Gaitz kutsakor larria, sukarra **eragiten** duena, larruazalean zuloak uzten dituzten pikor zornetsuak ezaugarri dituena.

baztanga da eraginen *egilea*.

nor motako laguntzailea baldin badugu, aldiz, sarrera-hitza erlazonatutako hitzak adierazten duen ekintzaren objektuaren *ezaugarria* da.

(55) Adjektiboaren_definizioa = aditza (-t(z)en) + dena.

(55) arin. A1 izond. Pisu edo astuntasun gutxikoa, erraz **jasotzen** dena.

arina da jasotzen den horren *ezaugarria*.

(56) Izenaren_definizioa = aditza (-t(z)en) + dena.

(56) baxoerdi. A0 iz. Erdiraino betetako baso ardoa, batik bat lagunartean tabernan **edaten** dena.

baxoerdi da edan aditzaren *objektua*

Erlazonatutako hitza izena edo adjektiboa denetan, aldiz, sarrera-hitza den adjektiboak du izen edo adjektibo horrek adierazten duen *ezaugarria*.

(57)Adjektiboaren_definizioa = ize / adj + d(u)ena.

(57) gorpuzdun. A0 izond. **Gorputza** duena.

(57) hozbera. A0 izond. Hotzarekiko oso **sentibera** dena.

Kasu hauen guztien ondoan ditugu *kualitateen ezeztapenak* edo *berezkoak ez diren aditzak*. Laguntzailearen aurrean ezeztapena —ez— dugunean, sarrera-adjektiboak *kualitate bat ez duela* esango dugu —adjektibo eta izen batekiko lotura duenean—, eta, aditza dugunean, *ekintza hori gauzatzen ez duela*.

(58) Adjektiboaren_definizioa = ize / adj + ez d(u)ena.

(59) Adjektiboaren_definizioa = aditza (-t(z)en) + ez d(u)ena.

(58) sinestegabe. A0 izond.#iz. Sinesgabea, **sinesterik** ez duena.

(59) hieratiko. A2 izond. Sentimenduak **adierazten** ez dituen.

Honelakoetan erlazioa adjektiboen artean baldin bada, eta, laguntzailea *nor* motakoa baldin bada, bi adjektibo horiek *antonimoak* izango dira.

(60) Adjektiboaren_definizioa = adj + ez dena.

(60) heze. A2 izond. Landareez, egurrari buruz mintzatuz, **ihartua** ez dena.

(60) urduri. A0 izond. **Lasaia** edo **geldia** ez dena, egonezineria edo kezka joera duena

A.13.Erlatoreak adierazten duena

Halakoetan erlazioa zein den erlatureak adierazten du. Erlazioak normalean adjektibo eta izenaren artekoak izango dira.

etiketa	erlazioa	sar-kat	erlz-kat	def-eskema	erlt-kop	erlz-kop
IZE-KOA	erlaturearen arabera	ADJ	IZE	-en ize+koa	47	47
ADLG	erlaturearen arabera	ADJ	IZE	ize (dek.) + partizipioa	19	19

13. taula. Erlatureak adierazten duen erlazioa markatzen duten erlatureak.

A.13.1. IZE-KOA

Adjektiboa eta izenaren arteko erlazioa erlatureak zehazten duena da.

(61)Adjektiboaren_definizioa = izena (genitiboa) + ize (-koa).

(61) absolutista. A0 izond. **Absolutismoaren** aldekoa.

(61) antisemita. A0 izond. **Juduen** kontrakoa.

absolutista adjektiboa absolutismo izenarekin dago erlazionatuta aldeko erlazioaren bitartez, eta antisemita judurekin, kontrako erlazioaren bitartez.

Baina, zenbaitetan, izen horrek duen propietateren bati egingo dio erreferentzia.

(61) beltz. A1 izond. Batere kolorerik edo argirik ez duena, **ikatzaren** kolorekoa.

Azkenean, pentsatuko dugu beltza eta ikatza, kolorearen bitartez daudela erlazionatuta.

Erlatorearen aurretik markarik gabeko izena dugunean, beti esango dugu sarrera-adjektiboak erlazionatuta dagoen izenaren *ezaugarri* bat duela, eta *ezaugarri* hori zein motatakoa den erlatoareak adieraziko du.

(62) Adjektiboaren_definizioa = izena (markarik gabea) + ize (-koa).

(62) gaztainakara A0 izond. **Gaztaina** kolorekoa.

(62) kurbatu A0 izond. Kakotua, **kurba** formakoa.

gaztainakara denak gaztainak duen *ezaugarri* bat du, kolorea, alegia; eta kurbatu denak kurbak duen *ezaugarri* bat du, forma, alegia.

A.13.2. Ertl-adlg

Erlazioa adjektiboa eta izenaren artekoa izango da eta aditz-partizipioak —erlatoareak, alegia— zehaztuko du zein den erlazio hori.

(63) Adjektiboaren_definizioa = izena (postposizio atzizkia) + partizipio (mugatua).

(63) bihurri. H1A1 izond. **Gaiztotasunera** makurtua.

(63) hieroglifiko. A0 izond. **Hieroglifoz** osatua; iluna.

bihurri eta gaiztotasun erlazionatuta daude makurtu erlazioaren bitartez; eta hieroglifiko adjektiboa eta hieroglifiko izena osatu erlazioaren bitartez.

A.14. Bestelakoak

Hemen zerrendatu ditugu erlazorik zuzenean erakusten ez duten beste zenbait erlatore. Maiztasuna dela eta aztertu ditugu, baina ondorio garbirik atera ezin izan dugunez, ez ditugu azken emaitzan txertatu.

etiketa	erlazioa	sar- kat	erlz- kat	def-eskema	erlt- kop	erlz- kop
ERA		IZE	ADI	-tzeko + era	64	45
ERA		IZE	IZE	ize. + era		15
MODUA		IZE	ADI	-tzeko + modua	39	36
MODUA		IZE	IZE	ize + modua		2
GERTATU		ADI			74	

14. taula. Dudazko erlazioa duten erlatoareak.

A.14.1. Era

Hemen bi erlazio-mota ditugu: lehena bi izenen artekoa da. Sarrera-hitza eta definizioan dagoen hitz bat daude erlazionatuta, eta erlazionatutako hori egiteko *era* da sarrera-hitza. Zenbaitetan pentsa dezakegu erlazio *meronimiko* bat badela tartean. —edo agian erlazio *taxonomikoa* esan beharko genuke—, baina ez dago batere garbi.

oligarkia.	A0	iz.	Aginpidea pertsona multzo txiki baino ahaltzu baten eskuetan dagoen gobernu era.
poliandria.	A0N1	iz.	Emakume batek senar bat baino gehiago izan ditzakeen familia era.

oligarkia eta gobernuaren artean erlazio *holonimikoa* dugu, alegia, bigarrena lehenaren *holonimoa* da, eta kontu bera gertatzen da poliandria eta familiaren artean. Agian zuzenago litzateke hemen berezko taxonomiaz hitz egitea...

Erlazioa izan daiteke izen eta aditz baten artekoa, hau da, sarrera-hitza eta definizioan dagoen aditz baten artekoa

Beste hauen azpian dagoen erlazioa ez da garbia.

joskera.	A1	iz.	Hitzen hurrenkera antolatze ko era.
joskera.	A2	iz.	Josteko era.
ortografia.	A1N2	iz.	Hitzak idazte ko era.

A.14.2. Modua

Hau aurrekoaren anai-arreba da, eta aurrekoan esandako kontu berak errepikatu beharko lirateke hemen. Hala ere, moduarekin sortzen diren erlazio ia gehienak izena eta aditzaren artekoak dira.

bizimodu	A1	iz.	Bizitze ko modua.
entzunbide	A1	iz.	Entzute ko bidea edo modua.
higikera	A0	iz.	Higidura, eta bereziki higitze ko modua.

Bi hauen ondoan bidea agertzen da zenbaitetan, baina horrek ere esanahi bat baino gehiago izan ditzake.

A.14.3. Gertatu

Erlatore honek erakusten duen erlazioa ez da batere garbia eta ez markatzea erabaki dugu.

aldizkatu	A1 ad. Denboraren ildoan bi gauza edo gehiago txandaka gertatu; zerbait egiteko txanda bat antolatu.
amorratu	A2 ad. Errabiak joa gertatu.

B. Eratorpena

Eranskin hau tesiko V. kapitulua osatzera dator. Hemen landu ditugun 35 atzizkien informazioa jarri dugu. Hona atzizki bakoitzari buruz eranskin honetan jarri dugun informazioa:

- *Datu-azterketa*: bertan agertuko dira anlizatzaile morfologikoak zenbat eratorri topatu dituen, zein kategoriatakoak diren, eta eratorri horiek zein kategoriako hitzak dituzten oinarrian. Kasu guztietan kopuruak paratu ditugu.
- *Ezaugarriak*: eratorriek eta oinarriek dituzten ezaugarriak eman ditugu. Atzizki batzuei buruz literaturan topatutako hainbat datu eman ditugu.
- *Labupen-taula*: atal honetan eratorria eta oinarriaren arteko erlazioa zein den jarri dugu, baita hiztegian agertzen diren definizio-patroi nagusiak ere. Azken taulan, erlazioak erabaki ondoren horietako zenbat ezagutzen ditugun, eta analizatzaile morfologikoaren arabera oinarrian zein kategoria agertzen den jarri dugu.

Eranskin honetan lan hauek aipatuko ditugu behin eta berriz: Azkarate, 1990b; Azkue, 1923-1925; Lafitte, 1944; Villasante, 1974; Mitxelena 1977; 1986. Halako autore bat aipatzen dugun bakoitzean ez dugu erreferentzia jarri.

, eta aipatzen ditugun bakoitzean erreferentzia ez jartzearren

B.1. –ari / –lari / –tari / –kari

Atzizki hauen artean bi multzo egingo ditugu: batetik *–ari*, *–lari*, *–tari* ikusiko ditugu. Bestetik *–kari* ikusiko dugu, baina hau *–arirekin* nahasten denez, multzo nagusi berean sartu dugu.

B.1.1. Datu-azterketa

Hona analizatzaileak zenbat *–aridun*, *–laridun*, *–taridun*, eta *–karidun* eratorri ezagutu dituen eta ezagututako horiek nolako oinarriak dituzten:

eratorria				oinarria		
atzikia	denera	kategoria	denera	ize	adj	adi
ari	32	izen	27	19	2	7
		ize-adj	2	1	0	1
		adj	3	2	0	0
lari	168	ize	117	79	5	38
		ize-adj	27	15	1	8
		adj	14	8	0	6
tari	42	izen	27	14	2	18
		ize-adj	5	3	1	2
		adj	10	2	1	8
kari	143	izen	90	53	10	40
		ize-adj	16	9	0	9
		adj	37	28	4	15

15. taula. *-ari, -lari, -tari* eta *-karidun* eratorri-kopurua.

Hauen definizioak aztertu ondoren, hona definizioetan agertzen diren hitz-forma usuenak:

izenak			
ari	lari	tari	kari
3 pertsona	16 duena	8 pertsona	14 den
3 egiten	15 egiten	7 duena	13 edo
3 duen	14 duen	7 duen	11 pertsona
3 dena	13 pertsona	2 zena	10 duen
	12 dituen		6 dena
	11 dena		6 aldizkaria
	10 edo		
	9 dituena		

16. taula. *-ari, -lari, -tari* eta *-karidun* sarreren definizioetan dauden hitz usuenak.

adjektibak-izenak		adjektiboak		
lari	kari	lari	tari	kari
13 duena	7 dena	10 duena	3 dena	18 duena
9 egiten	6 duena	7 egiten	2 pertsona	9 egiten
5 dena	5 mintzatuz	4 dena	2 ibiltzen	8 dena
3 hartzen	3 kontsonanteez			2 mintzatuz

17. taula. *-lari, -tari* eta *-karidun* sarreren definizioetan dauden hitz usuenak.

B.1.2. Ezaugarriak

B.1.2.1. *-ari / -lari / -tari*

Atzizkiaren lema *-ari* dela esan ohi bada ere, ondoan baditu hainbat aldaera: *-lari, -tari*, eta *-kari*.¹⁰

Oinarrian hiru motako hitzak ager daitezke, baina izenak dira oinarri usuenak:¹¹

¹⁰ *-kari* hau ondoko atalean aztertuko dugu, aurrekoekin interpretazio-diferentziak badituelako.

¹¹ Análisi morfologikoaren emaitzean adjektibo kategoriakoak ere agertzen dira, baina ez dira asko eta zenbait ez dagozkie atzizki honi. Kontuan izan behar da, guk ez dugula análisis morfologikoaren

	ARI	
+ izen	+ atzizki	+ izen
+ konkretu	+ + izen	⇒ + gizaki
- bizidun	+ gizaki	+ egile, pertsona
	+ egile, pertsona	

Halakoetan esango dugu oinarrian agertzen den izena dela *pertsona-egile* horren *berezko objektua* —hobe esanda *pertsona-egile* horren *berezko ekintzaren objektua*—. *Berezko ekintza* hori zenbaitetan definizioetatik erauzi ahal izango dugu, bigarren partizipio formarekin agertzen delako.

aitzurlari	A0	iz.	Aitzurrean aritzen dena, nekazaria.
neurtizlari	A0	iz.	Neurtitzak ontzen dituen.

Halakoetan dugun erlazioa hiru elementuren artekoa da. Erlazio nagusia eratorria eta oinarriaren artekoa da, eta zubi-lana egiten duen elementua definiziotik erauzitako aditza.

eratorria	oinarria-berezko objektua	berezko ekintza
aitzurlari	aitzur	aritu
neurtizlari	neurtitz	ondu

18. taula. Hiru elementuren arteko erlazioa: oinarria–tarteko aditza–eratorria.

aitzurlariaren *berezko objektua* aitzurra da eta tarteko *ekintza* aritu. neurtizlariaren *berezko objektua*, berriz, neurtitza da ondu *ekintza* tarteko.

Oinarrian aditz-oina ere ager daiteke

	ARI	
+ aditz-oin	+ atzizki	+ izen
+ + izen	+ + izen	⇒ + gizaki
	+ gizaki	+ egile, pertsona
	+ egile, pertsona	

gordelari	A0	iz.	Zerbait gordetzen edo zaintzen duen pertsona.
idazlari	A2	iz.	Idazlea; literaturazkoak ez diren testuak idazten dituen.

Halakoetan oinarrian dagoen aditza da eratorriak adierazten duen pertsonaren *berezko ekintza*.

eratorria	oinarria-berezko ekintza
gordelari	gorde
idazlari	idatzi

19. taula. Oinarria eta eratorriaren arteko erlazioa.

gordelariaren *berezko ekintza* gorde da; eta idazlariarena idatzi.

emaitza eskuz aztertu, eta agertzen diren eratorriak zenbaitetan ez dira benetako eratorriak. Adibidez, kasu honetan pilotari, "pilo (adj.) + tari" gisa aztertu du analizatzaileak.

Beste oinarriak adberbioak dira:

		ARI	
		+ atzizki	+ izen
+ adberbio	+	+ izen	⇒ + gizaki
+ -ka		+ gizaki	+ egile
		+ egile	

ukabilkari A0 iz. Ukabil ukaldiak ematen dituen pertsona;
bereziki, ukabilez jotzen duen
borrokalaria.

Hala ere hauek nahikoa bereziak dira. Analizatzaile morfologikoak oinarrian adberbiorik ez du ezagutzen. Hau ondorengo lanetarako hobetu beharrekoa izango da. Eta, kasu honetan, *ukabil* izena eta *-kari* atzizkia ezagutzen ditu. Gainera, oinarrian dauden adberbio gehienak mota honetakoak direnez —*mailuka*, *mokoka*, *muturka*, *guduka*—, analizatzaile morfologikoak modu berean lan egiten du —*izena* + *-kari*, *alegia*—. Beraz, ikus dezagun *-kariren* atala

B.1.2.2. *-kari* / *-ari*

Aurrekoaren eta honen arteko nahasketak egon daitezke. Aurrekoan ikusi dugu oinarrian adberbioa dugunean, *-karitzat* hartzen duela atzizkia zenbaitetan, eta beste nahasketa nabaria oinarrian aditza dagoenean gertatzen da.

Lemari dagokionez, kontuak ez daude oso garbi. Villasantek *-kari* ematen du; Azkuek saiakera egiten du *k* lotura gisa erabiltzen dela azaltzen eta zehazten ea zein inguruetan agertzen den.

-i		-kari
-tu	+	-ari ⇒ -kari
gainerakoak		-ari

Oinarriari dagokionez, oso bide ezberdinak egin dituen atzizkia da. Aditz-oina du oinarrian:

		KARI	
		+ atzizki	+ izen
+ aditz-oin	+	+ izen	⇒ + konkretu
		+ konkretu	- bizidun
		- bizidun	+ produktu
		+ produktu	

Badago *produktu* adiera orokor bat, baina ez da oso zehatza. Hau oso gutxi agertzen da hiztegian, eta halakoetan oinarrian dagoen aditza *berezko ekintza* da.

oinazekari A0 iz. Oinazetzeko tresna.

oinazekariaren *berezko ekintza* da oinazetu.

Honen ondoan *-kizun* atzizkia dugu; badirudi *-kari* ekialdekoa dela eta *-kizun* bietakoa. Parekoak dirudite *ikus-kari / ikuskizun*, *asmakari / asmakizun*. Aldiz, *produktu* adiera dutenekin ez dugu *-kizun* erabiltzen.

Analizatzaileak *-karitzat* hartzen ditu *-ari* diren zenbait. Halakoetan *egile* adiera dugu, eta oinarria aditza denean *egile* horren *berezko ekintza* da. Oinarria, aldiz, izena denean, *-ariren* kasuan bezala, izen hori *berezko objektua* da, eta *berezko ekintza* definizioan bilatuko dugu.

Beste adierak ere baditu atzizki honek:

		KARI	
+ izen		+ atzizki	+ izen
+ konkretu		+ izen	+ konkretu
- bizidun	+	+ konkretu	⇒ - bizidun
+ garai, denbora		- bizidun	+ argitalpen
		+ argitalpen	

Villasantek aipatzen du erabilera hau ekialdekoa dela; izan ere, Leizarragak *larunbat-kari* —*larunbatero*— modukoak erabili omen zituen.

egunkari A2 iz. Eguneroko berri aldizkaria.

hilabetekari A0 iz. Hileroko aldizkaria.

Oinarrian dagoen hitzak adieraziko digu aldizkari horiek zer-nolako *maiztasuna* duten. Halakoek oinarrian determinatzaileak ere onartzen dituzte: *hamabostekari*.

Beste adiera *fonetika-fonologia* adarrera mugatzen da:

+ izen		KARI	
+ konkretu		+ atzizki	⇒ + izen
- bizidun	+	+ izen	+ kontsonante mota
+ ahoko parte		+ kontsonante mota	

Artikulazio-gunea edo mota adierazten du *-kari* honek, eta hiztegian agertzen direnak izen edo adjektibo kategoria dute. Oinarrian dugun hitzak adierazten du *soinu* hori non sortzen den:

ezpain-horzkari A0 izond.#iz. Batez ere beheko ezpainaren eta goiko ebakortzen bitartez eratzen dena.

ezpainkari A0 izond.#iz. Batez ere ezpainetan eratzen dena.

Edo soinu horrek nolako ezaugarriak dituen:

igurzkar	A0	izond.#iz.	Kontsonantez mintzatuz, ahots bidea erabat itxi gabe ebakitzen dena.
txistukari	A0	izond.#iz.	Kontsonantez mintzatuz, igurzkaria izanik ahoskatzean txistuaren antzeko hotsa egiten duena.

Oinarriak, beraz, *ahoko zein partetan* sortzen den soinua adierazten du, edo soinu horrek *nolako ezaugarriak* dituen. Hala ere, ez da definizio-patroi garbirik agertzen.

Bada *otorduak* adierazten dituen interpretazio zahar bat:

Gosari -gose-, bazkari -baratz-, afari -aho (Azkue)-, askari

Honek emankortasun oso itxia du, eta hiztegian ere gutxi agertzen dira.

Bada adjektiboak sortzen dituen *-kari* bat. *Joera* adierazten du eta oinarrian izena izan ohi du.

Andrekari, haurkari, emaztekari, lagunkari, elizkari, xurruapakari, pintukari, xokokari, bizikari, bizkarkari

joera adierazten duen hau oso gutxitan agertzen da hiztegian. Interpretazio hau *-koiren* parekoa da.

B.1.3. Laburpen-taula

Hona atzizki hauen eratorriaren interpretazioa eta oinarriarekiko erlazioa zeintzuk diren:

atzizkia	oinarria	eratorria	interpretazioa	oinarria	patroi nagusia
-ari, -lari, -kari, -tari	izen	ize	egile	berezko objektua	IZE ADIt(z)en duena
	aditz	ize / adj	egile	berezko ekintza	-t(z)en duena
-ari, -kari	aditz	ize	produktu	berezko ekintza	-t(z)eko tresna
	izen	ize / adj	soinu	non sortua	
	aditz	ize / adj	soinu	nola sortua	
	izen	ize / adj	argitalpen	maiztasuna	-en aldizkaria

20. taula. *-ari, -lari, -tari* eta *-karidun* eratorrien eta oinarrien arteko erlazioa.

Hona interpretazioen arabera zenbat erlazio atera ditugun:

atzikia	interpretazioa	izen ¹²	biak ¹³	adj ¹⁴	denera
ari		27	2	3	32
	produktu	0			
	soinu	0			
	aldizkari	0			
	egile	5			
	sinonimoak	12			
lari		117	27	14	158
	egile	39			
	sinonimoak	45			
tari		27	5	10	42
	egile	11			
	sinonimoak	7			
kari		90	16	37	143
	egile	16	11	20	
	produktu	2	0	0	
	soinu	0	0	0	
	aldizkari	6	0	0	
	sinonimoak	42	4	16	

21. taula. *-ari, -lari, -tari* eta *-karidun* sarreren interpretazioen araberako erlazio-kopurua.

B.2. -bera

B.2.1. Datu-azterketa

Analizatzaile morfologikoak 46 *-beradun* eratorri ezagutu ditu.

atzikia	denera	eratorria		oinarria		
		kategoria	denera	ize	adj	adi
bera	46	ize	12	5	2	6
		ize-adj	0	0	0	0
		adj	34	19	11	26

22. taula. *-beradun* eratorri-kopurua.

Hauen definizioak aztertu ondoren, hona definizioetan agertzen diren hitz-forma usuenak:

¹² Hiztegia izen kategoria dutenak.

¹³ Hiztegia izen eta adjektibo kategoriak dituztenak.

¹⁴ Hiztegia adjektibo kategoria dutenak.

izenak	adjektiboak
5 eta	10 duena
5 duena	8 dena
4 zurtoin	7 joera
2 kanaberaren	4 erraz
2 edo	3 sentibera
2 bat	3 izateko
	2 gose
	2 eribera

23. taula. *-beradun* sarreren definizioetan dauden hitz usuenak.

B.2.2. Ezaugarriak

Oso garbi dago *bera* adjektiboa dela, *bigun* adierazten duena. Hitz elkartuak sortzen ditu adiera honekin: *gaztanbera*, *gazta biguna*.

Hala ere beregaintasuna galdu eta atzizki ere bihurtu da, baina ez *bigun* adierarekin; *joera*, *erraztasuna* adierazten du atzizki denean.

Beraz, bi *bera* ditugu. Atzizkia denak adjektiboak sortzen ditu, *joera* adierazten dutenak. Normalean aditzari lotzen zaio, nahiz eta batzuetan ez dagoen oso garbi oinarria aditza edo izena ote den

		BERA	
+ aditz-oin (izen?)	+	+ atzizki + adjektibo + joera	⇒ + adjektibo + joera

maitabera A0 izond. Maitemintzeko joera handia duena.

gosebera A0 izond. Gose dena, gose izateko joera duena.

Oinarria *joera* horren *helburua* da.

B.2.3. Laburpen-taula

Hona atzizki hauen eratorriaren interpretazioa eta oinarriarekiko erlazioa zeintzuk diren:

atzizkia	oinarria	eratorria	interpretazioa	oinarria	patroi nagusia
-bera	adi	adj	joera	berezko ekintza	-t(z)eko joera duena
	ize	adj	joera	helburua?	-t(z)eko joera duena

24. taula. *-beradun* eratorrien eta oinarrien arteko erlazioa.

Hona interpretazioen arabera zenbat erlazio atera ditugun:

atzikia	interpretazioa	ize	ize-adj	adj	denera
bera		12	0	34	46
	joera			10	
	sinonimoak			18	

25. taula. *-beradun* sarreren interpretazioen araberako erlazio-kopurua.

B.3. -di

B.3.1. Datu-azterketa

Analizatzaile morfologikoak 114 *-didun* eratorri ezagutu ditu.

eratorria				oinarria		
atzikia	denera	kategoria	denera	ize	adj	adi
di	114	ize	105	76	15	36
		ize-adj	1	1	0	0
		adj	8	3	0	1

26. taula. *-didun* eratorri-kopurua.

Hauen definizioak aztertu ondoren, hona definizioetan agertzen diren hitz-forma usuenak:

izenak
15 multzoa
13 den
10 edo
6 hazten
5 toki
5 saila
5 oihana
5 lekua

27. taula. *-didun* sarreren definizioetan dauden hitz usuenak.

Hitz usuenen artean *multzo*, *toki*, *saila*, eta *leku* daude.

B.3.2. Ezaugarriak

Honen aldaerak dira *-doi* —nafarroan erabiltzen dena—, eta bizkaieraz erabili ohi den *-dui*. Ingurune fonetikoaren arabera, aurretik txistukariren bat agertzen denean *-ti* sortzen da.

Oinarria eta eratorria izenak dira, eta adieretako bat *lekua* da.

		DI		
+ izen	+	+ atzizki	⇒	+ izen
+ landare		+ izen		+ sail osoa, lekua
		+ sail osoa, lekua		

Oinarrian agertzen den [+ *landare*] ezaugarria zentzu nahikoa zabalean hartu behar da.

sasidi	A0	iz. Sasiz beteriko lekua edo saila.
pinudi	A0	iz. Pinuz landaturiko lekua, pinu basoa.

Eratorkiak adierazten duen *sail* edo *leku* horretan oinarriak adierazten duena egongo da. Beraz, oinarria *edukia* da, *meronimoa*, alegia.

Interpretazio hau toponimiakoa da, eta, honenbestez atzizki honen emankortasuna oso mugatua da.

Badira oinarrian [- *landare*] tasuna duten izenak dituztenak: *etxadi* badirudi nahiko zaharra dela, *loidi* ere nahiko zaharra. Kasu hauek zer diren ez dago batere garbi.

Sabino Aranaren bidetik, beste oinarri bateko hitzak sortu ziren. Oinarria [+ *izen*, + *gizaki*] motakoak dira:

Euskaltzaindi, euskadi, gizadi, gaztedi, langiledi, izadi
(natura edo adierazteko), lagundi (lagun multzoa), anaidi
(hermandad, anai multzoa)

Geroago bizigabeekin loturiko beste erabilera bat ere izan zen: oinarria [+ *izen*, - *bizidun*] motakoa da:

Ludi, lutelesti, edesti, ederti, elerti, hizti, abesti,
antzerti, olerti

Gainera *-ti* agertzen da zenbaitetan arrazoi garbirik gabe.

Bizigabeekin geroago beste saio berria egin da:

Legedi, araudi

Hauetan guztietan *multzoa* adierazi nahi da, eta halako definizioak maiz agertzen dira hiztegian, definizioetan agertzen diren hitz usuenei erreparatzen badiegu:

ontzidi	A0	iz. Elkarrekin edo egiteko berean ari diren itsasontzien multzoa.
uhindi	A0	iz. Uhin multzoa.

Oinarrian agertzen den izenak adierazten du zein den *meronimoa*, eta hitz eratorria da *holonimoa*.

B.3.3. Laburpen-taula

Hona atzizki hauen eratorriaren interpretazioa eta oinarriarekiko erlazioa zeintzuk diren:

atzikia	oinarria	eratorria	interpretazioa	oinarria	patroi nagusia
-di	ize	ize	leku	meronimoa	-z beteriko lekua
	ize	ize	multzo	meronimoa	-en multzoa

28. taula. *-didun* eratorrien eta oinarrien arteko erlazioa.

Hona interpretazioen arabera zenbat erlazio atera ditugun:

atzikia	interpretazioa	ize	ize-adj	adj	denera
di		105	1	8	114
	leku	17			
	multzo	15			
	sinonimoak	46			

29. taula. *-didun* sarreren interpretazioen araberako erlazio-kopurua.

B.4. -dun

B.4.1. Datu-azterketa

Analizatzaile morfologikoak 274 *-dun* atzizkidun eratorri ezagutu ditu.

eratorria				oinarria		
atzikia	denera	kategoria	denera	ize	adj	adi
dun	274	ize	57	51	4	22
		ize-adj	51	46	3	19
		adj	166	152	12	78

30. taula. *-dun* atzizkidun eratorri-kopurua.

Hauen definizioak aztertu ondoren, hona definizioetan agertzen diren hitz-forma usuenak:

izenak	izenak-adjektiboak	adjektiboak
19 duena	24 duena	92 duena
8 pertsona	10 dituena	44 dituena
7 dituena	7 dena	12 edo
	4 mintzatzen	8 hornitua
	4 joa	7 eta
	4 hornitua	6 mintzatuz
		6 dena

31. taula. *-dun* atzizkidun sarreren definizioetan dauden hitz usuenak.

Oso nabaria da kategoria guztietan agertzen diren hitzen maiztasuna kontuan izanda duena / dituena dela usuen agertzen dena. Honek *edutezko* zentzuren bat izango

du, *ukan* aditzaren adizkia baitugu. Adjektibo hau askotan pertsoneri lotzen zaienez, adjektibo horiek izen bilakatu izan dira, nahiz eta pertsoneri zuzenean zuzendu.

B.4.2. Ezaugarriak

Eztabaidatu izan da ea elementu hau beregaina den ala ez. Badirudi ez dela beregaina. Gure kasuan, informazio interesgarria ematen digu.

Adjektiboak sortzen ditu, eta askotan izen bezala erabiltzen dira. Honexegatik hiztegian bi kategoria dutela agertzen da.

Oinarrian bada berezitasunik; izan ere, oinarria izen-sintagma izan daiteke, hain zuzen ere, *duenen* laburdura delako. Hala ere, hiztegian oinarriak izenak dira.

$$\begin{array}{l} \text{izen-sintagma} + \begin{array}{l} \text{DUN} \\ + \text{atzizki} \\ + \text{adjektibo} \\ + \text{jabego} \end{array} \Rightarrow \begin{array}{l} + \text{adjektibo} \\ + \text{jabego} \end{array} \end{array}$$

Oinarrian dagoen hitza da *eratorriak duena*. Oinarria *edukia* da, eta eratorria *edukitzailea*. Adjektiboa denez, *edukitzailea* modifikatzen duen izena izango da.

ahalmendun A0 izond. Ahalmena duena.
gorpuzdun A0 izond. Gorputza duena.

B.4.3. Laburpen-taula

Hona atzizki hauen eratorriaren interpretazioa eta oinarriarekiko erlazioa zeintzuk diren:

atzizkia	oinarria	eratorria	interpretazioa	oinarria	patroi nagusia
-dun	ize	ize / adj	jabegoa	eduki	* dituena

32. taula. *-dun* atzizkidun eratorrien eta oinarrien arteko erlazioa.

Hona interpretazioen arabera zenbat erlazio atera ditugun:

atzizkia	interpretazioa	ize	ize-adj	adj	denera
dun		57	51	166	274
	jabetasun	15	22	119	
	sinonimoak	27	14	51	

33. taula. *-dun* atzizkidun sarreren interpretazioen araberako erlazio-kopurua.

B.5. -dura

B.5.1. Datu-azterketa

Analizatzaile morfologikoak 132 *-duradun* eratorri ezagutu ditu.

eratorria				oinarria		
atzikia	denera	kategoria	denera	ize	adj	adi
dura	132	ize	132	67	36	110
		ize-adj	0	0	0	0
		adj	0	0	0	0

34. taula. –*duradun* eratorri-kopurua.

Hauen definizioak aztertu ondoren, hona definizioetan agertzen diren hitz-forma usuenak:

izenak
22 edo
13 den
9 duen
7 bereziki
6 gertatzen
5 multzoa

35. taula. –*duradun* sarreren definizioetan dauden hitz usuenak.

Hitz hauek ikusita, ezin daiteke ondorio garbirik atera.

B.5.2. Ezaugarriak

Ekialdeko atzikia da. Azkuek aipatzen du atzizki erromantzea dela. Azken urteotan asko hedatu den atzikia da:

Oinarria, nagusiki *nor* motako aditza dugu, baina *nor-nork* motakoak ere agertzen dira. Adiera badirudi *ondorioa* dela —aurrerago esan bezala, hau *gertaerarekin* lotuta dago—.

$$\begin{array}{l}
 \text{DURA} \\
 + \text{ atzizki} \\
 + \text{ aditz-oin} + \text{ izen} \\
 + \text{ ekintza (ondorioa)}
 \end{array}
 \Rightarrow
 \begin{array}{l}
 + \text{ izen} \\
 + \text{ ekintza (ondorioa)}
 \end{array}$$

kutsadura A0 iz. Kutsatzea; kutsatzearen ondorioa.

abiadura A2 iz. Abiatzea, hasiera.

Eratorria *gertakizuna* da eta oinarria *berezko ekintza*.

Hiztegian maiz agertzen da *nolakotasun* adieraduna, eta *–tasundun* sinonimoen bitartez definituta. Oinarrian adjektiboa edo izena dago.

Bestalde, *–tasundun* hitz eratorriak askotan agertzen zaizkigu sinonimo gisa:

haserredura A0 iz. Haserrea, haserretasuna.

hezadura A0 iz. Hezetasuna.

Beraz, pentsa dezakegu *-tasunek* dituen adierak ere badituela. Ez dizkiogu haren erlazio guztiak esleituko, baizik eta, *nolakotasunarena* —usuen agertzen dena, alegia—.

		DURA		
		+ atzizki		+ izen
+ adjektibo	+	+ izen	⇒	- konkretu
		- konkretu		+ ezaugarri
		+ ezaugarri		

		DURA		
		+ atzizki		+ izen
+ izen	+	+ izen	⇒	- konkretu
		- konkretu		+ gizaki
		+ gizaki		+ ezaugarri
		+ ezaugarri		

Oinarrian dagoena da eratorriak adierazten duen *ezaugarriaren edulea*.

B.5.3. Laburpen-taula

Hona atzizki hauen eratorriaren interpretazioa eta oinarriarekiko erlazioa zeintzuk diren:

atzikia	oinarria	eratorria	interpretazioa	oinarria	patroi nagusia
-dura	adi	ize	gertakizun	berezko ekintza	-t(z)ea
	ize / adj	ize	nolakotasun	edukitzaile	*tasun

36. taula. *-duradun* eratorrien eta oinarrien arteko erlazioa.

Hona interpretazioen arabera zenbat erlazio atera ditugun:

atzikia	interpretazioa	ize	ize-adj	adj	denera
dura		132	0	0	132
	nolakotasun	16			
	sinonimoak	83			

37. taula. *-duradun* sarreren interpretazioen araberako erlazio-kopurua.

B.6. -era

B.6.1. Datu-azterketa

Analizatzaile morfologikoak 108 *-eradun* eratorri ezagutu ditu.

eratorria				oinarria		
atzikia	denera	kategoria	denera	ize	adj	adi
era	108	ize	108	34	21	59
		ize-adj	0	0	0	0
		adj	0	0	0	0

38. taula. *-eradun eratorri-kopurua.*

Hauen definizioak aztertu ondoren, hona definizioetan agertzen diren hitz-forma usuenak:

izenak
18 edo
11 modua
10 neurria
10 era

39. taula. *-eradun sarrerren definizioetan dauden hitz usuenak.*

Badirudi, formak ez direla asko errepikatzen, beraz, sinonimoen presentzia handia izan daiteke.

B.6.2. Ezaugarriak

Aldaera gisa *-ero* du, eta ekialdean honen ondoan *-goa* erabili izan da. Oinarrian izena edo adjektiboa izango dugu, eta eratorriak *dimentsioa* edo *neurria* adieraziko du.

	ERA	
+ izen	+ atzizki	+ izen
+ neurri	+ izen	⇒ + abstraktu
	+ abstraktu	+ dimentsio
	+ dimentsio	

Erlazioak bi izenen artean izango ditugu, eta oinarrian dagoen izenak adieraziko du zein den eratorriak adierazten duen *dimentsioaren balioa*.

lodiera	A0	iz.	Loditasunaren neurria; hirugarren dimentsioaren neurria.
luzera	A1	iz.	Luzetasunaren neurria; lehen dimentsioaren neurria.

Oinarriak adieraziko digu nola neurtu dugun zerbait: *lodi, luze, zabal*.

Askotan agertzen da *-era* hau *hizkuntzei* eta *dialektoei* lotuta:

	ERA	
+ izen	+ atzizki	+ izen
	+ izen	⇒ + hizkuntza
	+ hizkuntza	

Usuena da oinarrian agertzen den izenak hizkuntza hori non agertzen den adieraztea.

arabiera	A0	iz. Arabiar hizkuntza.
bretainiera	A0	iz. Bretainian hitz egiten den hizkuntza zelta.
bulgariera	A0	iz. Bulgariako hizkuntza, eslaviar familiakoa.

Oinarriak *hizkuntza* hori erabiltzen den *lekua* adierazten du.

Atzizki honek oinarrian aditz-oinak ere hartzen ditu. Askotan *-kera* gisa agertzen da txistukari baten ondoren, baina oinarrizko forma *-era* dela esango dugu.

Azkuek banatu egin zituen, eta *-erak ekintza* interpretazioa duela esaten du, eta *-kerak modua*. Berak bereizten ditu egoera *—ekintza—* eta egokera *—postura (modua)—*. Hala ere, bereizketa hau ez da beti hala izaten: *ibilera bada ekintza*, baina baita *ibiltzeko era* ere. Beraz, esango dugu *-erak ekintza* eta *modua* adieraziko dituela.

berpiztuera	A0	iz. BERPIZTEA.
irteera	A1	iz. IRTETEA.

gertakizunak direnean oinarrian dagoen aditza da *berezko ekintza*.

		ERA		
+ aditz-oina	+	+ atzizki	⇒	+ izen
+ nor		+ izen		+ ekintza
		+ ekintza		

modua adiera duten eratorrietan agertzen den oinarriak ere *berezko ekintza* adieraziko du.

		ERA		
+ aditz-oina	+	+ atzizki	⇒	+ izen
+ nor		+ izen		+ modu
		+ modu		

egoskera	A0	iz. Egosteko era.
izaera	A1	iz. Izaki bat tankeratzen duten nolakotasun eta ezaugarrien multzoa; izateko modua edo era.

Beste zenbaitetan *-tasundun* sinonimoekin definitzen da hiztegian, baina halakoak gutxi direnez, ez ditugu aztertuko.

senikera	A0	iz. Senidetasuna, ahaidetasuna.
----------	----	---------------------------------

B.6.3. Laburpen-taula

Hona atzizki hauen eratorriaren interpretazioa eta oinarriarekiko erlazioa zeintzuk diren:

atzikia	oinarria	eratorria	interpretazioa	oinarria	patroi nagusia
-era	ize / adj	ize	neurri	balio	-en neurria
	ize	ize	hizkuntza	lekua	-ko hizkuntza
	adi	ize	gertakizun	berezko ekintza	-(z)ea
	adi	ize	modua	berezko ekintza	-(z)eko era

40. taula. *-eradun* eratorrien eta oinarrien arteko erlazioa.

Hona interpretazioen arabera zenbat erlazio atera ditugun:

atzikia	interpretazioa	ize	ize-adj	adj	denera
era		108	0	0	108
	modu	16			
	neurri	5			
	hizkuntza	2			
	sinonimoak	67			

41. taula. *-eradun* sarreren interpretazioen araberako erlazio-kopurua.

B.7. -eria

B.7.1. Datu-azterketa

Analizatzaile morfologikoak 41 *-eriadun* eratorri ezagutu ditu.

eratorria				oinarria		
atzikia	denera	kategoria	denera	ize	adj	adi
eria	41	ize	41	26	14	20
		ize-adj	0	0	0	0
		adj	0	0	0	0

42. taula. *-eriadun* eratorri-kopurua.

Hauen definizioak aztertu ondoren, hona definizioetan agertzen diren hitz-forma usuenak:

izenak
10 multzoa
6 diren
4 eta
4 eritasuna

43. taula. *-eriadun* sarreren definizioetan dauden hitz usuenak.

Badirudi atzizki honek *multzoa* adieraziko duela.

B.7.2. Ezaugarriak

Villasantek *-di* aztertzen ari denean aipatzen du *-eria*, horren barruan, eta *-tegiren* pareko ote den kezka azaltzen du: *-eriak* ba omen du *-teria* aldakia, eta hori *-tegiren* *-tedi-* pareko iruditzen zaio.

De todas formas el pueblo emplea "gazteria"

Hau dio Villasantek *gaztedi* eta honelakoak aztertzen ari delarik. Dirudienez, berak zera esan nahi zuen, *-di* hori landare kolektiboak adierazteko erabiltzen zuela herriak, eta gizaki kolektiboa adierazteko *-eria*.

Oinarria eta eratorria izenak dira, eta bere adiera, *multzoa*.

		ERIA		
+ izen	+	+ atzizki	⇒	+ izen
+ gizaki		+ izen		+ sail osoa
		+ sail osoa		

gazteria A0 iz. Gazteen multzoa, gazte jendea; gazte multzoa.

ikasleria A0 iz. Ikastetxe bateko ikasleen multzoa.

Oinarriak adieraziko du eratorriak adierazten duen *multzo* hori zerez osatuta dagoen.

Beraz, eratorria *holonimoa* da, eta oinarria *meronimoa*.

Bestetan, oinarriko izena *ez-biziduna* da:

		ERIA		
+ izen	+	+ atzizki	⇒	+ izen
+ konkretu		+ izen		+ sail osoa
- bizidun		+ sail osoa		

Baina eratorria eta oinarriaren artean dagoen erlazioa bera izango da: *meronimia*.

tresneria A2 iz. Sukaldean erabiltzen diren ontzien multzoa.

tresnak dira tresneria *multzoa* osatzen dutenak.

Gaur, badirudi *bizigabeen multzoa* adierazteko *-eria* erabiltzen dugula, batez ere. Eta *bizidunen multzoa* adierazteko lehen herriak *-eria* erabiltzen zuen, eta baita *-di* ere erabiltzen zen. Gaur egun *landare multzoa* adierazteko *-di* darabilgu eta *gizaki multzoa* adierazteko hirugarren bat erabiltzen dugu: *-goa*, alegia.

Laginean, zenbaitetan *-tasun* duten sinonimoak agertu zaizkigu, baina halakoak *-keriadun* sarrerek direla pentsatuko dugu, nahiz eta aldaketa fonetikoak tarteko *-eria* agertu.

B.7.3. Laburpen-taula

Hona atzizki hauen eratorriaren interpretazioa eta oinarriarekiko erlazioa zeintzuk diren:

atzizkia	oinarria	eratorria	interpretazioa	oinarria	patroi nagusia
-eria	ize	ize	multzo	meronimoa	-en multzoa

44. taula. *-eriadun* eratorrien eta oinarrien arteko erlazioa.

Hona interpretazioen arabera zenbat erlazio atera ditugun:

atzizkia	interpretazioa	ize	ize-adj	adj	denera
eria		41	0	0	41
	multzo	10			
	sinonimoak	12			

45. taula. *-eriadun* sarreren interpretazioen araberako erlazio-kopurua.

B.8. -gailu

B.8.1. Datu-azterketa

Analizatzaile morfologikoak 71 *-gailudun* eratorri ezagutu ditu.

atzizkia	denera	eratorria		oinarria		
		kategoria	denera	ize	adj	adi
gailu	71	ize	71	22	11	63
		ize-adj	0	0	0	0
		adj	0	0	0	0

46. taula. *-gailudun* eratorri-kopurua.

Hauen definizioak aztertu ondoren, hona definizioetan agertzen diren hitz-forma usuenak:

izenak
26 tresna
18 edo
11 den
10 erabiltzen

47. taula. *-gailudun* sarreren definizioetan dauden hitz usuenak.

Definizioetan forma nagusia *tresna* da, eta *erabili* aditza ere maiz agertzen denez, *instrumentaltasuna* nabaria dela uste dugu.

B.8.2. Ezaugarriak

Atzizkia ekialdekoa dela esan daiteke, eta, Mitxelenak dioenez *-gailuren* forma zaharra *-ailu* zen. Hori erromantzetik heldu omen da, *-aculumetik*, alegia, eta espainolez *-ajo* eta frantsesez *-ail* eman du.

Oinarrian aditza agertzen da. Eratorriak, berriz, *baliabidea* edo *instrumentua* adieraziko du.

		GAILU	
		+ atzizki	+ izen
		+ izen	+ konkretu
+ aditz-oina	+	+ konkretu	⇒ - bizidun
		- bizidun	+ baliabide
		+ baliabide	

Oinarrian dagoen aditza eratorriak adierazten duen horren *berezko ekintza* —*helburua*— da.

destilagailu	A0	iz.	Alkohola-eta destilatzekeo tresna.
fotokopiagailu	A0	iz.	Fotokopiak egiteko makina.

destilagailuak destilatu egingo du, eta fotokopiagailuak fotokopiatu.

Aparatu berri pilo bati euskaraz izena jartzeko garaia iritsi zenean *-gailuren* aukera hartu zen nagusiki:

lehergailu, igogailu, haizagailu, igergailu, zulagailu, zapalgailu, ikuzkailu, ibilgailu, hozkailu,...

Hauen ondoan badira aparatuerik adierazten ez duten beste batzuk: juntagailu, lokailu, menderagailu. Baina *baliabidea* bai adierazten dute.

B.8.3. Laburpen-taula

Hona atzizki hauen eratorriaren interpretazioa eta oinarriarekiko erlazioa zeintzuk diren:

atzizkia	oinarria	eratorria	interpretazioa	oinarria	patroi nagusia
-gailu	adi	ize	baliabidea	berezko-ekintza (helburua)	-t(z)eko tresna

48. taula. *-gailudun* eratorrien eta oinarrien arteko erlazioa.

Hona interpretazioen arabera zenbat erlazio atera ditugun:

atzizkia	interpretazioa	ize	ize-adj	adj	denera
gailu		71	0	0	71
	tresna	26			
	sinonimoak	28			

49. taula. *-gailudun* sarreren interpretazioen araberako erlazio-kopurua.

B.9. -garri

B.9.1. Datu-azterketa

Analizatzaile morfologikoak 488 *-garridun* eratorri ezagutu ditu.

eratorria				oinarria		
atzikia	denera	kategoria	denera	ize	adj	adi
garri	488	ize	129	55	22	107
		ize-adj	74	21	29	64
		adj	285	128	54	243

50. taula. *-garridun* eratorri-kopurua.

Hauen definizioak aztertu ondoren, hona definizioetan agertzen diren hitz-forma usuenak:

izenak	izenak-adjektiboak	adjektiboak
60 duena	66 duena	205 duena
49 duen	10 duen	46 merezi
32 gauza	9 zera	26 duen
30 zera	8 zerbait	23 gauza
19 zerbait	7 erabiltzen	21 izatea
16 edo	6 den	18 sortzen
14 den	5 edo	18 eragiten
10 eragiten	4 egiten	18 ematen
8 erabiltzen		17 edo
8 ematen		13 zerbait
		13 izan
		13 daitekeena
		13 dadin
		10 zera

51. taula. *-garridun* sarreren definizioetan dauden hitz usuenak.

Agertzen diren hitz-formek erakusten digute *elipsia* dela gehien erabiltzen den definizio-patroia. Gainera eratorri gehienak adjektibo kategoriakoak dira, nahiz eta nahasketa nabaria den. Hala ere, hiru multzoetan agertzen diren hitz-formak begiratuta, esan dezakegu guztiak nahiko bertsuak direla.

B.9.2. Ezaugarriak

-garriri buruz asko hitz egin da (Gràcia *et al.*, 2000; Azkarate, 1990a; Artiagoitia, 1995). Guk ez ditugu iritzi horiek guztiak hona ekarriko, baizik eta, beste atzizkiekin egin dugun bezala, oinarria eta eratorriaren arteko erlazioa erazteko behar dugunari erreparatuko diogu.

Oinarrian *nor-nork* motako aditz-oina agertzen da, eta eratorriak adjektiboak izan ohi dira. Hala ere, eratorrien kategoria ez dago batere garbi, zenbaitetan izenak ere agertzen direlako, eta nahasketa honen islarik bada hiztegian.

Adierei dagokienez, iritzi zabalduenak bi adiera dituela dio: bata *aktiboa* eta bestea *pasiboa*.

		GARRI		
+ aditz-oin		+ atzizki	⇒	+ adj / ize
+ nor-nork	+	+ adj/ ize		+ eragile
		+ eragile		

Sortutako hitz eratorria aditzaren ekintzaren eragilea baldin bada, oinarrian den aditza eta adjektibo eratorriaren artean *eragile* erlazioa dagoela esango dugu.¹⁵

Oinarrian dagoen aditza eratorriaren *berezko ekintza* da.

sendagarri	A2	izond.	Sendatzen duena.
harrigarri	A2	iz.	Harritzen duen gauza, gertaera harrigarria; miraria.

sendagarri denaren *berezko ekintza* sendatu da. Hala ere, badakigu erlazio hau izen eta aditz baten artekoa izan ohi dela, eta, beraz, erlazioa sendagarri berezko tasuntzat duen izen baten eta aditzaren artean izango da. Baina modu sinplean aditza eta adjektiboaren arteko erlazioa dela esango dugu. harrigarriren kasuan, eratorria izena da, eta *berezko ekintza* harritu da.

Beste interpretazioa *objektua* dela esan dugu.

		GARRI		
+ aditz-oin		+ atzizki	⇒	+ adjektibo
+ nor-nork	+	+ adjektibo		+ objektu-merezi
		+ objektu-merezi		

Erlazioari dagokionez, oinarrian dagoen aditza *berezko ekintza eragilea* da, eta *ekintza* horren *berezko objektua* da eratorria. Halako erlazioa ez da agertzen izen kategoria duten eratorrien artean.

gomendagarri	A0	izond.	Gomendatua izatea merezi duena.
hedagarri	A1	izond.	Heda daitekeena.

gomendagarri da gomendaturen *berezko objektua*, eta gomendatu da *berezko eragilea*. hedagarriren *berezko ekintza* hedatu da.

¹⁵ Hau omen da jatorrizko adiera, historian zehar nagusitu dena.

B.9.3. Laburpen-taula

Hona atzizki hauen eratorriaren interpretazioa eta oinarriarekiko erlazioa zeintzuk diren:

atzikia	oinarria	eratorria	interpretazioa	oinarria	patroi nagusia
-garri	adi	ize / adj	kausa	berezko ekintza	-t(z)en duena
	adi	adj	objektu	berezko ekintza eragilea	* merezi duena; * daitekeena

52. taula. -garridun eratorrien eta oinarrien arteko erlazioa.

Hona interpretazioen arabera zenbat erlazio atera ditugun:

atzikia	interpretazioa	ize	ize-adj	adj	denera
garri		129	74	285	488
	kausa	72	62	146	
	objektu	1	2	59	
	sinonimoak	41	14	115	

53. taula. -garridun sarreren interpretazioen araberako erlazio-kopurua.

B.10.-gile / -gin

Biak mota berekoak direnez, elkarrekin aztertu ditugu. Gaur egun, lehenak du maiztasun handiena.

B.10.1. Datu-azterketa

Hona analizatzaileak zenbat -giledun, eta -gindun eratorri ezagutu dituen eta ezagututako horiek nolako oinarriak dituzten:

atzikia	eratorria		oinarria			
	denera	kategoria	denera	ize	adj	adi
gile	142	ize	117	104	8	40
		ize-adj	11	10	0	8
		adj	14	14	0	9
gin	44	ize	37	28	4	16
		ize-adj	1	0	0	1
		adj	6	4	1	5

54. taula. -gin eta -giledun eratorri-kopurua.

Hauen definizioak aztertu ondoren, hona definizioetan agertzen diren hitz-forma usuenak:

izenak		ize-adj	adjektiboak
gile	gin	gile	gile
70 egiten	8 edo	7 duena	10 egiten
37 dituen	7 egiten	4 lan	9 duena
31 pertsona	6 dituen	4 egiten	4 dituen
25 eskulangilea	5 langilea	3 pertsona	
22 duen	5 eskulangilea		
19 dituen	4 pertsona		
16 duena			
10 ogibidez			

55. taula. *-gin* eta *-giledun* sarreren definizioetan dauden hitz usuenak.

Zenbakiei erreparatuta, nabaria da hitz eratorri gehienak izen kategoriakoak ditugula, eta *egin* aditzak presentzia handia duela definizioetan. Horrezaz gain, *pertsonekin* edo *eskulangileekin* ere loturarik baduela oso nabaria da.

B.10.2. Ezaugarriak

-gile eta *-gin* hartzen duen oinarria izena izan ohi da, *konkretua* eta *ez-biziduna*, oro har.¹⁶ Eratorriaren kategoriari dagokionez, *-gile* atzizkiak izenak sortzen ditu, eta, gainera, [+ *gizaki*] tasuna duten izenak. Adiera bakarra izan ohi dute eratorri hauek: *pertsona eragilea (agentea)*.

	GILE	
+ izen	+ atzizki	+ izen
+ konkretu	+ + izen	⇒ + <i>gizaki</i>
- bizidun	+ <i>gizaki</i>	+ <i>egile, pertsona</i>
	+ <i>egile, pertsona</i>	

Azkuek *-gin* atzizkiari egotzi zion interpretazio bera hartu dugu *-gilerentzat*; berak *derivativos nominales agentes* taldean sailkatu zuen atzizki hau.

... denota persona agente; indica que el agente ejecuta las cosas designadas por el tema (a diferencia de '-ari', que no lo hace).

-gin eta *-gile* interpretazio bereko bi atzizki dira. *-ginek*, badirudi, *egin* aditza duela ezkutuan. *-gile* —*-gin* + *-le (agentea)*— da euskara batuan egiletasuna adierazteko gehien erabiltzen dena, eta *-gin* albo batera utzi da.

Eratortza eta oinarriaren artean dagoen erlazioa aztertzen hasita, oinarrian agertzen den hitza *egile* horren *berezko objektua* da.

¹⁶ Badira aditz-oina oinarrian duten zenbait kasu: *sendagile (sendagin)*, *osagile*. Baina kasu hauek ez dira asko.

aizkoragile	A0	iz.	Aizkorak egiten dituen eskulangilea.
talogile	A0	iz.	Taloak egiten dituen pertsona.
urregile	A0	iz.	Urrea lantzen duen pertsona.

aizkoragilearen *berezko objektua* aizkora da, eta talogilearena taloa. Bi izenen artean *berezko objektu* erlazioa dagoela esaten badugu ere, tartean aditz bat beharko du. Aditz hori, oro har, *egin* edo *sortu* dira, baina bestelakorik agertu ahalko da. Adibidez, urregilearen *berezko objektua* urrea da, eta tartean dagoen aditza landu da. Aditz hau da sarrera-izenaren *berezko ekintza* eta definiziotik erauziko dugu.

B.10.3.Laburpen-taula

Hona atzizki hauen eratorriaren interpretazioa eta oinarriarekiko erlazioa zeintzuk diren:

atzizkia	oinarria	eratorria	interpretazioa	oinarria	patroi nagusia
-gile, -gin	ize	ize	egile	berezko objektua	IZE ADIt(z)en duena

56. taula. -gin eta -giledun eratorrien eta oinarrien arteko erlazioa.

Hona interpretazioen arabera zenbat erlazio atera ditugun:

atzizkia	interpretazioa	ize	ize-adj	adj	denera
gile		117	11	14	142
	egile	85			
	sinonimoak	31			
gin		37	1	6	44
	egile	12			
	sinonimoak	16			

57. taula. -gin eta -giledun sarreraren interpretazioen araberako erlazio-kopurua.

B.11.-gintza

B.11.1.Datu-azterketa

Analizatzaile morfologikoak -gintzadun 97 eratorri ezagutu ditu.

atzizkia	denera	eratorria		oinarria		
		kategoria	denera	ize	adj	adi
gintza	97	ize	97	84	6	32
		ize-adj	0	0	0	0
		adj	0	0	0	0

58. taula. -gintzadun eratorri-kopurua.

Hauen definizioak aztertu ondoren, hona definizioetan agertzen diren hitz-forma usuenak:

izenak
38 egiteko
31 lanbidea
30 jarduna
17 eta
13 egitea
10 edo
7 ogibidea
7 industria

59. taula. *-gintzadun* sarreren definizioetan dauden hitz usuenak.

Zerrenda ikusita, badirudi *lanbidea* adierazten duen atzizkia izango dugula.

B.11.2. Ezaugarriak

*-gintza*ren azpian bi forma desberdin daudela dirudi:

- *-gintza* atzizkia
- *-gin + -tza*: bi atzizki metatu

-gintza atzizkiak *ekintza* kutsua ematen dio oinarriari. Baina *-gin + -tza* atzizki-metaketa izan daiteke. *-gin egilea* da, eta *-tza lanbidea* adierazten duten izen *abstraktuak* sortzen dituena.

Gure helburua ez da hitz eratorriaren atzizkia *-gintza* atzizkia den, edo *-gin + -tza* atzizkien batura den definizioen bitartez jakitea. Azken honetan dagoen oinarri eratorria *persona egilea* da, *-gin* atzizkiaz osatuta. Azkenean, bai batak eta bai besteak *egiletasun* kutsua dute, eta, bereiztea, gaur egun ia ezinezkoa da. Guk atzizki bakartzat hartu dugu.

-gintza hartzen duen oinarria izena izan ohi da. Eta sortzen den eratorria ere izena da.

Adierari dagokionez, berriz, badirudi garai batean *egintza* edo *egite* bat baldin bazen, *-gintza* atzizkia lotuko zitzaioela oinarri *ez-bizidun* eta *konkretuari*; eta, *lanbidea* adierazi nahi bazen, *egiletasun* kutsua duen *-gin* atzizkiaz osatutako eratorriari *-tza* lotuko zitzaioela. Gaur egun bereizketa hau kontuan hartzea ia-ia ezinezkoa da, eta *-gintza* amaiera duten hitzek *egitea* edo *jarduera* adierazten dutela esan ahalko dugu.

	GINTZA	
+ izen	+ atzizki	+ izen
- bizidun	+ + izen	⇒ - konkretu
+ konkretu	- konkretu	+ lanbide
	+ lanbide	

Azkuek honela azaldu zuen atzizki konposatu hau:

Se usa mucho en varios dialectos, especialmente en el B., indicando fabricación, agencia, oficio.

Elemento doble: agente '-gin', y abstracto '-tza' [Azkue, 1923-25: 60-8].

Aurrekoaz gain, *zerbait lantzen den tailerra* —*lekua*, alegia— ere adierazten omen du:

ejerce dos funciones: una de oficio o profesión, analizada ya en el primer grupo de estos derivados §65; otra, de taller de construcción, usual en los dialectos AN, B, G. Buena parte de aquellos vocablos encajan también aquí; pues 'oialgintza' por ejemplo, en fabricación de paño y también taller de pañería, 'upagintza' es fabricación y taller de toneles, 'telligintza' fabricación y taller de tejas, como 'zidargintza' es platería (oficio y taller) [Azkue, 1923-25: 100-18].

Erlazioari dagokionez, eratorriaren *berezko objektua* da oinarrian dagoen izena. Erlazioa bi izenen aretekoa denez, *ekintza* den aditza definiziotik erauzten saiatuko gara, eta hori da sarrera-hitzak adierazten duen elementuaren *berezko ekintza*. Aditz hori *egin* izan ohi da, baina bada bestelakorik.

kantagintza A0 iz. Kantak, abestiak egiteko jarduna.
 ipuingintza A0 iz. Ipuinak asmatzeko jarduna.

kantagintzaren *berezko objektua* da kanta, eta tarteko *berezko ekintza* egin; ipuingintzaren kasuan, berriz, *berezko objektua* ipuin da, eta tarteko *berezko ekintza* asmatu.

B.11.3.Laburpen-taula

Hona atzizki hauen eratorriaren interpretazioa eta oinarriarekiko erlazioa zeintzuk diren:

atzizkia	oinarria	eratorria	interpretazioa	oinarria	patroi nagusia
-gintza	ize	ize	lanbidea	berezko objektu	IZE egiteko lanbidea

60. taula. -gintzadun eratorrien eta oinarrien arteko erlazioa.

Hona interpretazioen arabera zenbat erlazio atera ditugun:

atzikia	interpretazioa	ize	ize-adj	adj	denera
gintza		97	0	0	97
	lanbide	69			
	sinonimoak	15			

61. taula. *-gintzadun* sarrerren interpretazioen araberako erlazio-kopurua.

B.12.-go / -goa

B.12.1.Datu-azterketa

-godun eta *-goadun* eratorriak aztertzerakoan ikusi dugu *-goadun* sarrera-hitzak oso gutxi direla hiztegian, eta, gehienak *-godunak* direla.

eratorria				oinarria		
atzikia	denera	kategoria	denera	ize	adj	adi
goa	12	ize	12	7	4	7
		ize-adj	0	0	0	0
		adj	0	0	0	0
go	101	ize	94	71	21	39
		ize-adj	2	1	0	0
		adj	5	3	1	2

62. taula. *-goa* eta *-godun* eratorri-kopurua.

Hauen definizioak aztertu ondoren, hona definizioetan agertzen diren hitz-forma usuenak:

izenak	
goa	go
2 eta	8 lanbidea
1 zilarra	8 eta
1 urtzeko	6 multzoa
1 urtua	6 kargua
1 urrea	6 edo
	4 duten
	4 diren
	4 den
	4 bereziki
	3 ondorea
	3 nolakotasuna

63. taula. *-goa* eta *-godun* sarrerren definizioetan dauden hitz usuenak.

Definizioetan agertzen diren formei erreparatuz oso ondorio gutxi atera ahal izango ditugu. Badirudi halakoek definizio-patroi usuenak sinonimia dutela. Usuen agertzen diren formak *kargua* eta *lanbidea* dira.

B.12.2.Ezaugarriak

Berez ekialdeko atzizkia da. Lemari dagokionez, badirudi garai batean *-goa* zela. Dena dela, Azkuek *-go* ematen du lematzat. Villasantek, aldiz, *-goa* aipatzen du.

Mende honetako autoreek ekialdean ere *-arik* gabe erabili izan dute eta euskara batuan egin den erabilera ikusita, badirudi *-go* dela nagusi.

Erabilerari dagokionez, gaur egun *-gok* duen erabilera orokorrenetariko bat erabilera txar bat dela esan dezakegu. Gaur egun *gizakien kolektiboak* adierazteko erabiltzen da maiz, baina horretarako erabili izan dira historian zehar *-eria* eta *-di*. Hala ere, badirudi azken urteotan bi hauei gailendu zaiela *-go*. Hau ez da gehiegi agertzen hiztegian.

		GO / GOA		
+ izen	+	+ atzizki	⇒	+ izen
+ gizaki		+ izen		+ kolektibo
		+ kolektibo		

ahaidego	A1	iz.	Senitartea, ahaideria.
udaltzaingo	A0	iz.	Herri edo hiri bateko udaltzainen multzoa; udaltzainek betetzen duten herri zerbitzua.

Kasu honetan oinarrian dagoen hitza *meronimoa* da, eta eratorria *holonimoa*. Esan bezala, oso gutxi agertzen da hiztegian.

Berezkoak dituen adierei dagokienez, Azkuek bere garaian sei balio eman zizkion atzizki honi, nahiz eta nagusiak hiru diren.

-tza atzizkiaren pareko gisa: *ofizioa* edo *lanbidea* adieraziko du. Oinarrian izen *gizakia* dugu.

		GO / GOA		
+ izen	+	+ atzizki	⇒	+ izen
+ gizaki		+ izen		+ lanbide
		+ lanbide		

Hau da atzizki honek izan duen erabilera nagusia, eta hiztegian ere hau agertzen da usuen.

hargingo	A0	iz.	Hargintza, harginaren lanbidea.
sorgingo	A0	iz.	Sorginaren lanbidea; sorginaren antzea.

Adibide hauetan nabaria den bezala, oinarrian dagoen hitza da *lanbide* edo *kargu* hori duen *pertsona* da. Nolabait esatearren, *egilea*.

Beste erabilera *-tasunen* parekoa da. Oinarriak izena eta adjektiboa izan daitezke:

erkidego	A1	iz.	Erkidea denaren nolakotasuna edo egoera. ¹⁷
eskalego	A0	iz.	Behartasuna, erromestasuna.

Kasu honetan biak erabili izan dira, *-go* eta *-tasun*.

		GO / GOA	
+ izen	+	+ atzizki	⇒ + izen
+ gizaki	+	+ izen	⇒ + ezaugarri
		+ ezaugarri	

		GO / GOA	
+ adjektibo	+	+ atzizki	⇒ + izen
		+ izen	⇒ + ezaugarri
		+ ezaugarri	

Kasu honetan, oinarrian agertzen den izena edo adjektiboa da eratorriak adierazten duen *ezaugarriaren* jabe.

Aurreko bi hauek izan dira ekialdean *-gok* izan dituen erabilera nagusiak.

Hirugarren bat *-era* atzizkiarekin zerikusia duena da. Oinarrian adjektiboa dago, eta *neurria* adierazten du.

adj.:	handigoa, zabalgoa, lodigoa
zabalgo	A0 iz. Zabaltasuna; zabalera.

Halakoak oso bakanak dira hiztegian, eta ez du lantzea merezi. Uste dut hau dela adibide bakarra.

Ondoko adierak ere nahiko bazterrekoak dirudite eta ez ditugu hiztegian topatu: *leku* adiera —etzango, edango—, eta *bestelako* adiera bat —lastergo, ustego—.

B.12.3. Laburpen-taula

Hona atzizki hauen eratorriaren interpretazioa eta oinarriarekiko erlazioa zeintzuk diren:

atzikia	oinarria	eratorria	interpretazioa	oinarria	patroi nagusia
-go, -goa	ize	ize	multzoa	meronimo	-en multzoa
	ize	ize	lanbidea	egile	-en lanbidea
	ize / adj	ize	nolakotasun	edule	-en nolakotasuna

64. taula. *-go* eta *-goadun* eratorrien eta oinarrien arteko erlazioa.

Hona interpretazioen arabera zenbat erlazio atera ditugun:

¹⁷ *egoera* adibide honetan bakarrik agertzen da.

atzikia	interpretazioa	ize	ize-adj	adj	denera
go		94	2	5	101
	nolakotasun	10			
	lanbide	16			
	multzo	8			
	sinonimoak	53			
goa		12	0	0	12
	nolakotasun	3			
	lanbide	0			
	multzo	0			
	sinonimoak	7			

65. taula. *-go* eta *-goadun* sarreren interpretazioen araberako erlazio-kopurua.

B.13.–kada

B.13.1.Datu-azterketa

Analizatzaile morfologikoak 75 *-kadadun* eratorri ezagutu ditu.

eratorria				oinarria		
atzikia	denera	kategoria	denera	ize	adj	adi
kada	75	ize	75	56	7	30
		ize-adj	0	0	0	0
		adj	0	0	0	0

66. taula. *-kadadun* eratorri-kopurua.

Hauen definizioak aztertu ondoren, hona definizioetan agertzen diren hitz-forma usuenak:

izenak
13 edo
10 kolpea
10 edukia
9 ukaldia
8 den
7 kopurua

67. taula. *-kadadun* sarreren definizioetan dauden hitz usuenak.

Usuenen artean *kolpea*, *edukia*, *ukaldia* eta *kopurua* daude.

B.13.2.Ezaugarriak

Atzizki honek hainbat aldaki ditu: *-tara*, *-kara*, *-tada*, *-tra*, *-ta*. Nagusiak *-kada* mendebaldean eta *-tara* ekialdean dira, baina lematzat *-kada* hartu ohi da.

Oinarrian izena dago, eta eratorria ere izena da. Interpretazioak, berriz, bi dira: *kantitatea* eta *kolpea*.

+ izen		KADA		
+ konkretu		+ atzizki	+	+ izen
- bizidun		+ izen	⇒	+ kantitate
+ kantitate-hartzaile		+ kantitate		

kantitatea adierazten duenean, oinarrian dagoen izenak adierazten du zein den *kantitate* horren *edukitzailea*.

basokada	A0	iz. Baso baten edukia.
platerkada	A0	iz. Plater baten edukia.
golkokada	A0	iz. Golkoan sartzen den kopurua.

kolpea adierazten duenean, ere, oinarrian izena dago.

		KADA		
+ izen		+ atzizki	+	+ izen
+ konkretu		+ izen	⇒	+ konkretu
- bizidun		+ konkretu		- bizidun
+ baliabidea, tresna		- bizidun		+ kolpe
		+ kolpe		

Kasu hauetan, oinarriak adierazten du *kolpea zerekin* ematen den.

adarkada	A0	iz. Animalia batek adarrez jotako kolpea.
aizkorakada	A0	iz. Aizkora ukaldia, aizkoraren ahoaz jotako kolpea.

adarkada *kolpea da eta* adarrarekin ematen da; aizkorakada *berriz*, aizkorarekin ematen da.

Azkiek *-ada* hartzen du atzizki honen lema gisa, eta badu aditzei lotuta dagoen erabilera bat. Villasantek halakoak *derivados efectos* multzoan sailkatzen du.

		KADA		
+ aditz-oin	+	+ atzizki	⇒	+ izen
		+ izen		+ ekintza (ondorioa)
		+ ekintza (ondorioa)		

Eratorria *gertakizuna* da, eta oinarria *berezko ekintza*.

bultzada	A0	iz. Bultzatzea; zerbaiti, mugiarazteko, ematen zaion kolpe bortitza.
ziztada	A0	iz. Ziztatzea, zizta.

B.13.3. Laburpen-taula

Hona atzizki hauen eratorriaren interpretazioa eta oinarriarekiko erlazioa zeintzuk diren:

atzizkia	oinarria	eratorria	interpretazioa	oinarria	patroi nagusia
-kada	ize	ize	neurria	edukitzaile	-en edukia
	ize	ize	kolpea	instrumentu	-z jotako kolpea
	adi	ize	gertakizun	berezko ekintza	-t(z)ea

68. taula. *-kadadun* eratorrien eta oinarrien arteko erlazioa.

Hona interpretazioen arabera zenbat erlazio atera ditugun:

atzikia	interpretazioa	ize	ize-adj	adj	denera
kada		75	0	0	75
	eduki	16			
	kolpe	17			
	sinonimoak	32			

69. taula. –*kadadun* sarreren interpretazioen araberako erlazio-kopurua.

B.14.-keria

B.14.1.Datu-azterketa

Analizatzaileak 371 –*keriadun* eratorri ezagutu ditu.

eratorria				oinarria		
atzikia	denera	kategoria	denera	ize	adj	adi
keria	371	ize	370	174	241	211
		ize-adj	0	0	0	0
		adj	1	1	0	1

70. taula. –*keriadun* eratorri-kopurua.¹⁸

Hauen definizioak aztertu ondoren, hona definizioetan agertzen diren hitz-forma usuenak:

izenak
85 gaitzesgarria
67 gaitzesgarritzat
62 edo
62 dagokion
50 egite
48 egitea
37 markatua
31 hartua
23 egintza

71. taula. –*keriadun* sarreren definizioetan dauden hitz usuenak.

Berehala nabari daiteke, –*keria* atzizkiak *gaitzesgarria* adjektiboarekin baduela zerikusirik definizioetan hainbatetan agertzen delako. Kontuan hartu beharreko beste izenak *egite* eta *egintza* dira. Biak *ekintzak* adierazten dituzten izenak dira.

B.14.2.Ezaugarriak

Eratorri hauek oinarrian adjektiboa eta izena dituzte. Adjektiboen kasuan, ezin esango dugu edozein adjektibo mota dela, baizik eta *nolakotasun gaitzetsia*

¹⁸ Adjektibo gisa agertzen dena *trufakeria* da, eta *trufa* izenarekin definitzen du. Errata dirudi.

adierazten duen adjektiboa, *zerbait txarra* adierazten duena. Zenbaitetan kolore-adjektiboek lotzen zaio —zurikeria, berdekeria—.

	KERIA	
	+ atzizki	+ izen
+ adjektibo	+ + izen	⇒ - konkretu
	- konkretu	+ ezaugarri gaitzetsia
	+ ezaugarri gaitzetsia	

Izenak, berriz, *bizidunak* izan ohi dira, baina *ez-gizakiak*: *animaliak* izaten dira, eta, normalean, animalia horiek ezaugarri gaitzetsiren bat dute: *txerrikeria*, *astakeria*.

Hala ere, *izen gizakiak* ere topatu ditugu: *umekeria*, *sorginkeria*.¹⁹

	KERIA	
	+ atzizki	+ izen
+ izen	+ + izen	⇒ - konkretu
+ bizidun	+ - konkretu	+ gizaki
	+ gizaki	+ ezaugarri gaitzetsia
	+ ezaugarri gaitzetsia	

Eratორriaren kategoriari erreparatuz gero, berriz, *-keria* atzizkiak izenak sortzen ditu.

Bi interpretazio ditu: *gaitzesten den kalitatea edo nolakotasuna* —aurreko tauletan dagoena— adierazten duena, eta *ekintza* edo *ekintza baten ondorioa*.

	KERIA	
	+ atzizki	+ izen
+ adjektibo	+ + izen	⇒ - konkretu
	- konkretu	+ ekintza
	+ ekintza	

	KERIA	
	+ atzizki	+ izen
+ izen	+ + izen	⇒ - konkretu
+ bizidun	+ - konkretu	+ gizaki
	+ gizaki	+ ekintza
	+ ekintza	

Atzizki honen adiera *-tasuni* lotuta dago, eta horregatik hura azaltzerakoan hau ere aipatu dugu (ikus. B.26.2. atala). Hala ere, ezberdintasunik badute: *-tasunek* ez du *ekintza* interpretazioa, eta *-keriak*, aldiz bai.

Beraz, erlazioak bi izenen artekoak edo izena eta adjektibo baten artekoak dira. Erlazioetako bat *jabegoa* da; oinarrian agertzen den izen edo adjektiboak adierazten duena da eratorriak adierazten duen *nolakotasun* horren jabea.

¹⁹ Oinarrian zenbait *izen abstraktu* ere azaltzen dira, baina ez dira asko: *indarkeria*, *bortxakeria*.

eskergabekeria A0 iz. Eskergabetasuna (gaitzesgarritzat markatua), esker gaiztoa, esker txarra; (...).

gozokeria A0 iz. Gozotasun gaitzesgarria.

eskergabea da eskergabekeria *ezaugarri gaitzesgarria* duena.

Beste erlazioa *egiletasunarekin* du zerikusia. Eratorria *ekintza* baldin bada, oinarrian dagoen elementua da *ekintza* horren *egilea*, edo *egile* hori adierazteko erabiltzen den adjektiboa.

maltzurkeria A0 iz. Maltzurri dagokion egitea; (...)

pailazokeria A0 iz. Pailazoari dagokion ekintza bitxia.

maltzurkeria *ekintza* baldin bada, maltzurra da horren *egilea*; eta pailazokeriaren kasuan, pailazoa da pailazokeria *ekintzaren egilea*.

Hala ere, bi interpretazioen mugak ez daude erabat argi, eta, honexegatik, hiztegiko hitz asko bi taldetan sailkatu beharko ditugu. Hitz hauek ez daude adiera ezberdin gisa azalduta, baina definizioen barnean “;” baten bitartez daude banatuta, eta ikur honek definizio ezberdinak bana ditzake.

B.14.3.Laburpen-taula

Hona atzizki hauen eratorriaren interpretazioa eta oinarriarekiko erlazioa zeintzuk diren:

atzizkia	oinarria	eratorria	interpretazioa	oinarria	patroi nagusia
-keria	ize / adj	ize	nolakotasun	edule	-tasun gaitzesgarria
	ize / adj	ize	ekintza	egile	-i dagokion egitea

72. taula. *-keri*adun eratorrien eta oinarrien arteko erlazioa.

Hona interpretazioen arabera zenbat erlazio atera ditugun:

atzizkia	interpretazioa	ize	ize-adj	adj	denera
keria		370	0	1	371
	nolakotasun	80			
	ekintza	125			
	sinonimoak	147			

73. taula. *-keri*adun sarreren interpretazioen araberako erlazio-kopurua.

B.15.–keta

B.15.1.Datu-azterketa

Analizatzaile morfologikoak 228 *-ketadun* eratorri ezagutu ditu.

eratorria				oinarria		
atzikia	denera	kategoria	denera	ize	adj	adi
keta	228	ize	228	96	28	176
		ize-adj	0	0	0	0
		adj	0	0	0	0

74. taula. *-ketadun* eratorri-kopurua.

Hauen definizioak aztertu ondoren, hona definizioetan agertzen diren hitz-forma usuenak:

izenak
14 edo
13 bereziki
12 egiten
11 bat
9 bila
8 den
7 ikus
7 eta
5 egitea

75. taula. *-ketadun* sarreren definizioetan dauden hitz usuenak.

Oso elementu gutxi errepikatzen dira definizioetan; honek adieraziko du sinonimia asko erabiltzen dela eratorri hauek definitzeko garaian.

B.15.2.Ezaugarriak

Oinarria izena edo aditza izan daiteke; eta eratorria beti izena da.

Interpretazioari dagokionez, oinarrian izena agertzen den horietan, *sail handia* edo *multzoa* adierazten du. Azkuek aipatzen du *-keta* hau ez dela ez Gipuzkoan, ez Bizkaian erabiltzen, baina beste euskalkietan bai.

		KETA		
+ izen		+ atzizki	⇒	+ izen
- konkretu	+	+ izen		+ sail handia
± bizidun		+ sail handia		

Halako adibiderik ez da hiztegian agertzen —lanketa, gazteketa, ogiketa, egurketa, behiketa—. Halakoetan eratorriaren eta oinarriaren arteko erlazioa *meronimikoa* da. Oinarria da eratorriaren *meronimoa*.

Horretaz gainera *-keta* honek badu beste balio bat: *urketa*, *ogiketa* —*ur bila joan*, *ogi garraioan ibili*—. *Garraio* zentzua du edo *bila joate* zentzua. Erabilera hau dela eta, zaila egiten da bereiztea aurreko adibideak zein adiera duten, baina *ekintza* kutsurik badute.

$$\begin{array}{lcl}
 & & \text{KETA} \\
 + \text{ izen} & & + \text{ atzizki} \\
 + \text{ konkretu} & + & + \text{ izen} \\
 \pm \text{ bizidun} & & + \text{ bila joatea}
 \end{array}
 \Rightarrow
 \begin{array}{l}
 + \text{ izen} \\
 + \text{ bila joatea}
 \end{array}$$

Halakoetan oinarriak adierazten duen objektu horren *bila joan* gaitzke edo objektu hori *garraia* dezakegu. *Ekintza* horren *berezko objektua* da oinarrian dugun izena.

egurketa A2 iz. Egurra bilatzea; (basoan) egur egitea.

Eratorkpen honen berezko objektua *egur* da. Bi izenen artean *berezko objektu* erlazioa dugunean, tarteko aditza —*berezko ekintza*— definiziotik erauzten saiatzen gara, eta, kasu honetan, *bila* edo *egin* dira.

Aurreko bi interpretazio hauek nahiko emankortasun urria dute.

Oinarrian aditza dugunean, berriz, *ekintza* adieraziko du hitz eratorriak, edo *ekintza* horren *ondorioa*. Oinarriko aditza *nor-nork* motakoa izan ohi da. Alderdi honetatik *-keta* *-tzeren* parekoa da.

$$\begin{array}{lcl}
 & & \text{KETA} \\
 + \text{ aditz-oin} & + & + \text{ atzizki} \\
 + \text{ nor-nork} & & + \text{ izen} \\
 & & + \text{ ekintza (ondorioa)}
 \end{array}
 \Rightarrow
 \begin{array}{l}
 + \text{ izen} \\
 + \text{ ekintza (ondorioa)}
 \end{array}$$

aberasketa A2 iz. Aberastea, aberatsago bihurtzea.

aitorketa A0 iz. Aitortzea, aitormena.

Oinarrian dagoen aditza izango da *berezko ekintza* adieraziko duena.

Beste adiera, baina hau ere nahiko emankortasun urrikoa halako hitzak sortzen dituen da: *zuketa* eta *noketa*. Halakoek oso adierazi berezia dute: *zukaz aritzea* edo *nokaz aritzea*. Badute *ekintza* kutsurik, baina oinarria beste mota batekoa da.

B.15.3.Laburpen-taula

Hona atzizki hauen eratorriaren interpretazioa eta oinarriarekiko erlazioa zeintzuk diren:

atzikia	oinarria	eratorria	interpretazioa	oinarria	patroi nagusia
-keta	adi	ize	gertakizun	berezko ekintza	-t(z)ea
	ize	ize	gertakizun	berezko objektu	-t(z)ea
	ize	ize	multzoa	meronimoa	-en multzoa

76. taula. *-ketadun* eratorrien eta oinarrien arteko erlazioa.

Hona interpretazioen arabera zenbat erlazio atera ditugun:

atzikia	interpretazioa	ize	ize-adj	adj	denera
keta		228	0	0	228
	multzo	1			
	jarduera	10			
	sinonimoak	175			

77. taula. *-ketadun* sarreren interpretazioen araberako erlazio-kopurua.

B.16.-ki

B.16.1.Datu-azterketa

Analizatzaile morfologikoak 261 *-kidun* eratorri ezagutu ditu.

eratorria				oinarria		
atzikia	denera	kategoria	denera	ize	adj	adi
ki	261	ize	251	147	28	111
		ize-adj	4	3	0	0
		adj	6	4	0	2

78. taula. *-kidun* eratorri-kopurua.

Hauen definizioak aztertu ondoren, hona definizioetan agertzen diren hitz-forma usuenak:

izenak	izenak-adjektiboak	adjektiboak
34 edo	4 hiru	2 nahi
33 eta	4 edo	2 laua
29 okela	2 sabelaldi	2 helburuari
27 den	2 jaiotako	2 edo
15 haragia		
12 gauza		
12 dena		
10 erabiltzen		
10 duen		

79. taula. *-kidun* sarreren definizioetan dauden hitz usuenak.

Normalean izenak ditugu. Hitz-formak zeintzuk diren ikusita, nabaria da *okelaren* eta *haragiaren* nagusitasuna.

B.16.2.Ezaugarriak

Oinarrian aditz-oina dago, eta eratorria izena da. Adiera, berriz, *baliabidea* da.

		KI	
		+ atzizki	+ izen
+ aditz-oina	+	+ izen	+ konkretu
		+ konkretu	⇒ - bizidun
		- bizidun	+ baliabide
		+ baliabide	

Oinarrian aditza dugun hauetan, aditz horrek adierazten du *baliabidea* den eratorriaren *berezko ekintza helburua*. Forma hau ez da hiztegian gehiegi agertzen, kontu bera adierazteko beste atzizki batzuk ohikoagoak direlako

epaiki	A0	iz.	Ebakitzeko tresna, bereziki zerra.
iragazki	A0	iz.	Ehun edo paperezko hondoa duen bahe modukoa, bertatik igaroaraziz isurkariei lohitasunak kentzeko erabiltzen dena.

epaikiren berezko ekintza helburua epaitu da; eta iragazkiarena, iragazi.

Beste adiera bat *objketu* edo *produktu* da, eta, halakoetan oinarrian izena dago. Halako askok *haragien* eta *okelen* erreferentzia dira.

		KI	
+ izen		+ atzizki	+ izen
+ bizidun	+	+ izen	⇒ - bizidun
- gizaki		- bizidun	+ objektu, produktu
		+ objektu, produktu	

Halakoetan oinarriak adieraziko du eratorriak adierazten duen produktu hori *nondik* datorren edo *non* sortu den. Erlazioa, *meronimikoa* da, nahiz eta *holonimoak iturria* adierazten duen —kontuan izan behar dugu *meronimia* mota asko daudela, baina guk ez ditugula bereizi—.

abelgorriki	A0	iz.	Abelgorri okela.
azpiki	A0	iz.	Abereen izterreko okela.

abelgorrikiaren *iturria* da abelgorria eta azpikiarena azpia. Eta, era berean, abelgorrikiaren *meronimikoa* da, eta azpikiaren *meronimikoa* da, eta azpikiaren *meronimikoa* da.

Oinarrian dagoen izena *animalia* izateaz gain, *animali zatia* ere izan daiteke: odolki, tripaki. Halakoetan ere erlazioa *meronimikoa* da. Hau ez da oso emankorra baina mota honetako *meronimia* dugu beste adibide hauen artean:

burdinki A0 iz. Burdinazko gauzakia edo atala; burdingaia.
 buztinki A1 iz. Buztinezko gauzakia.

burdinkiaren materia da burdina eta buztinkiarena buztina. Halakoetan oinarriak adieraziko digu *gai* edo *gauzaki* horren materia zein den. Definizioetan –*zko* postposizioarekin agertzen da.

Beste erlazio *meronimikorik* bada. Oinarria da *holonimoa* eta eratorria *meronimoa*. Hala ere, nahiz eta oinarrian izena izan, erlazioa *meronimikoa* bai, baina beste mota batekoa izan daiteke:

	KI	
	+ atzizki	
+ izen	+ izen	+ izen
+ konkretu	+ - bizidun	⇒ - bizidun
± bizidun	+ objektu, produktu	+ objektu, produktu

liburuki A0 iz. Idazlan hedatuak banatzen diren zatietako bakoitza, bereiz josten eta argitaratzen direnak.

Oinarrian zenbatzailea dituzten artean, *figura geometrikoak* izendatzeko hitz eratorriak ditugu: *lauki*. Guk erabilitako analizatzaile morfologiko bereziak ez du halako oinarriarik ezagutzen

Hauei lotuta, *erditzearekin* zerikusia duena agertzen da: *lauki*. Halakoak oso emankortasun gutxikoak dira eta bi kategoria dituzten hitzetan agertzen dira.

B.16.3. Laburpen-taula

Hona atzizki hauen eratorriaren interpretazioa eta oinarriarekiko erlazioa zeintzuk diren:

atzizkia	oinarria	eratorria	interpretazioa	oinarria	patroi nagusia
-ki	adi	ize	kausa	berezko ekintza	-t(z)eko tresna
	ize	ize	gauzaki	meronimoa	-zko gauzakia
	ize	ize	haragi	holonimoa	* okela
	ize	ize	zati	holonimoa	-etako bakoitza

80. taula. –*kidun* eratorrien eta oinarrien arteko erlazioa.

Hona interpretazioen arabera zenbat erlazio atera ditugun:

atzikia	interpretazioa	ize	ize-adj	adj	denera
ki		251	4	6	261
	haragi	40			
	kausa	36			
	zati	2			
	gauzaki	6			
	sinonimoak	87			

81. taula. *-kidun* sarreren interpretazioen arabera erlazio-kopurua.

B.17.-kin

B.17.1.Datu-azterketa

Analizatzaile morfologikoak 58 *-kindun* eratorri ezagutu ditu.

eratorria				oinarria		
atzikia	denera	kategoria	denera	ize	adj	adi
kin	58	ize	48	21	9	40
		ize-adj	4	1	1	2
		adj	6	3	2	3

82. taula. *-kindun* eratorri-kopurua.

Hauen definizioak aztertu ondoren, hona definizioetan agertzen diren hitz-forma usuenak:

izenak
14 den
11 edo
6 hondakina
5 eta
5 dena
4 gelditzen
4 duen

83. taula. *-kindun* sarreren definizioetan dauden hitz usuenak.

B.17.2.Ezaugarriak

Atzizki honek adiera bat baino gehiagoko hitzak sortzen ditu. Batean oinarrian aditz-oina agertzen da, eta eratorria izena da.

	KIN	
	+ atzizki	+ izen
+ aditz-oina	+ izen	+ konkretu
	+ konkretu	⇒ - bizidun
	- bizidun	+ objektu
	+ objektu	

Sortzen diren hitzak *objektuak* dira, eta horien oinarrian dagoen aditza da horien *berezko ekintza*.

eranskin	A0	iz.	Zerbaiti eransten zaion zera; bereziki, idazlan baten bukaeran osagarri gisa eransten den zatia.
egoskin	A0	iz.	Belarrak-eta ur oso berotan edukiaz prestatzen den isurkaria edo edaria.

-kin honek beste erabilera bat izan zuen honekin guztiarekin zerikusirik ez duena, *aparatura-edo* adierazteko. Oinarrian aditz-oina du, aurrekoak bezala: hegazkin, urrutizkin, urrutikuskin. Erabilera hau baztertu egin da, hala ere, zenbait gelditu zaizkigu, hala nola, hegazkin.

Bada adjektiboak sortzen dituen *-kin* atzizkia, nahiz eta adibide oso urriak dauden. Hiztegian ez dira agertzen: haurkin, jendekin, lagunkin, katukin.

B.17.3. Laburpen-taula

Hona atzizki hauen eratorriaren interpretazioa eta oinarriarekiko erlazioa zeintzuk diren:

atzizkia	oinarria	eratorria	interpretazioa	oinarria	patroi nagusia
-kin	adi	ize	gauzaki	berezko ekintza	-t(z)en den zera

84. taula. *-kindun* eratorrien eta oinarrien arteko erlazioa.

Hona interpretazioen arabera zenbat erlazio atera ditugun:

atzizkia	interpretazioa	ize	ize-adj	adj	denera
kin		48	4	6	58
	gauzaki	10			
	sinonimoak	24			

85. taula. *-kindun* sarreren interpretazioen araberako erlazio-kopurua.

B.18.-ko

B.18.1. Datu-azterketa

Analizatzaile morfologikoak 303 *-kodun* eratorri ezagutu ditu.

atzizkia	denera	eratorria		oinarria		
		kategoria	denera	ize	adj	adi
ko	303	ize	229	136	10	55
		ize-adj	16	12	1	5
		adj	58	36	11	23

86. taula. *-kodun* eratorri-kopurua.

Hauen definizioak aztertu ondoren, hona definizioetan agertzen diren hitz-forma usuenak:

izenak	izenak-adjektiboak	adjektiboak
34 edo	5 dagoena	9 dena
22 den	4 dena	8 duena
19 eta	3 ez	7 edo
11 duen	2 tasunen	4 izenlaguna
11 dena	2 kidea	
10 ukaldia		
9 pertsona		

87. taula. *-kodun* sarreren definizioetan dauden hitz usuenak.

B.18.2.Ezaugarriak

Hainbat interpretazio ditu atzizki honek. Lehenengoan, oinarrian izena dago eta sortzen den eratorria izena da. Adierari dagokionez, *pertsonak* dira.

$$\begin{array}{l}
 \text{KO} \\
 + \text{ izen} + \begin{array}{l} + \text{ atzizki} \\ + \text{ izen} \\ + \text{ pertsona} \end{array} \Rightarrow \begin{array}{l} + \text{ izen} \\ + \text{ pertsona} \end{array}
 \end{array}$$

Oinarriak pertsona horrek duen *leku* bat adierazten du.

zaldizko	A0	iz.	Zaldiz ibiltzen den pertsona.
itaurreko	A0	iz.	Idiak gidatzen dituen pertsona.

Badira beste bi adiera *produktu* edo *objektua* adierazten dutenen artean: *jantziak* eta *kolpea*.

$$\begin{array}{l}
 \begin{array}{l} + \text{ izen} \\ + \text{ konkretu} \\ - \text{ bizidun} \\ + \text{ gorputzeko atalak} \end{array} + \begin{array}{l} \text{KO} \\ + \text{ atzizki} \\ + \text{ izen} \\ + \text{ konkretu} \\ - \text{ bizidun} \\ + \text{ jantzia} \end{array} \Rightarrow \begin{array}{l} + \text{ izen} \\ + \text{ konkretu} \\ - \text{ bizidun} \\ + \text{ jantzi apaingarri} \end{array}
 \end{array}$$

Gerriko,	oinetako,	belarritako,	soineko,	lepoko
buruko	A1	iz.	Emakumeek burua estaltzeko erabiltzen zuten jantzia.	
gerripeko	A0	iz.	Gerripea estaltzeko jantzia.	

Oinarriak adierazten du *jantzi* horien *lekua* zein den.

Badira beste batzuk aurrekoen analogiaz sortutakoak: *euritako*, *eguzkitako*.

Besteek *kolpe* adiera dute:

$$\begin{array}{l}
 \begin{array}{l} + \text{ izen} \\ + \text{ konkretu} \\ - \text{ bizidun} \\ + \text{ gorputzeko atalak} \end{array} + \begin{array}{l} \text{KO} \\ + \text{ atzizki} \\ + \text{ izen} \\ + \text{ konkretu} \\ - \text{ bizidun} \\ + \text{ kolpe} \end{array} \Rightarrow \begin{array}{l} + \text{ izen} \\ + \text{ konkretu} \\ - \text{ bizidun} \\ + \text{ kolpe} \end{array}
 \end{array}$$

Oinarriak adierazten du *kolpe* hori *non* ematen edo hartzen den.

ipurdiko A0 iz. Ipurdian hartu edo ematen den kolpea.

kokospeko A0 iz. Kokospean hartu edo emandako ukaldia.

Definizioetan agertzen diren hitzen maiztasuna aztertuta, ikus dezakegu *kolpea* eta *ukaldia* askotan agertzen direla.

zaplasterko, *danbateko* aurrekoen bidetik sortu dira, baina oinarrian onomatopeiak dituzte.

Adjektiboak sortzen dituen bestea ere badugu. Honek *jabegoa* adierazten du eta izen-sintagmei erantzen zaie: bihotz oneko, jenio txarreko, azal zuriko. Halako gutxi dago hiztegian.²⁰

B.18.3. Laburpen-taula

Hona atzizki hauen eratorriaren interpretazioa eta oinarriarekiko erlazioa zeintzuk diren:

atzizkia	oinarria	eratorria	interpretazioa	oinarria	patroi nagusia
-ko	ize	ize	pertsona	lekua	* dagoena
	ize	ize	jantzia	lekua	* jantzia
	ize	ize	kolpea	lekua	* kolpea
	ize	adj	edule	eduki	* duena

88. taula. -kodun eratorrien eta oinarrien arteko erlazioa.

Hona interpretazioen arabera zenbat erlazio atera ditugun:

atzizkia	interpretazioa	ize	ize-adj	adj	denera
ko		229	16	58	303
	kolpe	16		0	
	jantzi	6		0	
	jabetasun ²¹	4		0	
	egon	1		2	
	sinonimoak	107		26	

89. taula. -kodun sarreren interpretazioen araberako erlazio-kopurua.

B.19.-koi

B.19.1. Datu-azterketa

Analizatzaile morfologikoak 39 -koidun eratorri ezagutu ditu.

²⁰ Hasieran erlazio hau markatzeko erregela egin dugu, baina lau elementu besterik ez ditu markatzen, eta lauak gaizki. Erlazio hau markatzeko erregela ez dugu aplikatuko.

²¹ Erlazio hau ez dugu ondo markatzen.

eratorria				oinarria		
atzikia	denera	kategoria	denera	ize	adj	adi
koi	43	ize	2	1	0	0
		ize-adj	2	1	0	1
		adj	39	24	2	21

90. taula. –koidun eratorri-kopurua.

Hauen definizioak aztertu ondoren, hona definizioetan agertzen diren hitz-forma usuenak:

adjektiboak
8 duena
7 edo
6 dena
5 bere
4 soilik
4 pertsonan
4 nahi

91. taula. –koidun sarreren definizioetan dauden hitz usuenak.

B.19.2.Ezaugarriak

Atzizki hau ez da oso emankorra gertatu euskara batuan. Oinarria izena da eta eratorria adjektiboa. Adiera, berriz, *joera* da.

+ izen	KOI	+ adjektibo
+ konkretu	+ atzizki	⇒ + joera,
± bizidun	+ adjektibo	zaletasun
	+ joera	

Halakoetan oinarrian dagoen izena da *joera* horren *helburua*.

burukoi	A0	izond. Setatsua, tematia.
dirukoi	A0	izond. Diruzalea.
eskukoi	A0	izond. Erabilkorra.

Beste kasu batzuetan badirudi aditz-oina dutela oinarrian:

+ izen	KOI	+ adjektibo
+ konkretu	+ atzizki	⇒ + joera,
± bizidun	+ adjektibo	zaletasun
	+ joera	

Halakoetan adiera *joera* da, eta oinarrian dagoen aditza *berezko ekintza-helburua*.

eskurakoi	A0	izond. Erraz eskuratzen, eskura ekartzen dena.
barnerakoi	A0	izond. Barrenkoia, bere baitara biltzeko joera duena.

B.19.3.Laburpen-taula

Hona atzizki hauen eratorriaren interpretazioa eta oinarriarekiko erlazioa zeintzuk diren:

atzikia	oinarria	eratorria	interpretazioa	oinarria	patroi nagusia
-koi	ize	adj	joera	helburua?	-zalea
	adi	adj	joera	berezko ekintza-helburua	erraz *-t(z)en dena

92. taula. -koidun eratorrien eta oinarrien arteko erlazioa.

Hona interpretazioen arabera zenbat erlazio atera ditugun:

atzikia	interpretazioa	ize	ize-adj	adj	denera
koi		2	2	39	43
	joera			8	
	sinonimoak			21	

93. taula. -koidun sarreren interpretazioen araberako erlazio-kopurua.

B.20.-kor

B.20.1. Datu-azterketa

Analizatzaile morfologikoak 183 -kordun eratorri ezagutu ditu.

eratorria				oinarria		
atzikia	denera	kategoria	denera	ize	adj	adi
kor	183	ize	10	4	3	5
		ize-adj	2	1	1	1
		adj	171	78	30	134

94. taula. -kordun eratorri-kopurua.

Hauen definizioak aztertu ondoren, hona definizioetan agertzen diren hitz-forma usuenak:

adjektiboak
77 duena
65 dena
56 joera
53 erraz

95. taula. -kordun sarreren definizioetan dauden hitz usuenak.

Izenen artean, dagoeneko ikusi dugunez, oso adibide gutxi daude, eta adjektiboetan, nagusi dira *joera* eta *erraz*.

B.20.2. Ezaugarriak

Oinarrian aditz-oina agertzen da; eta eratorriak *zerbaitetarako erraztasuna* edo *joera* adierazten du. Eratorria adjektibo kategoriakoa da.

$$\begin{array}{l}
 \text{KOR} \\
 + \text{aditz-oina} + \begin{array}{l} + \text{atzizki} \\ + \text{adjektibo} \\ + \text{erraztasun, joera} \end{array} \Rightarrow \begin{array}{l} + \text{adjektibo} \\ + \text{erraztasun, joera} \end{array}
 \end{array}$$

Oinarrian agertzen den aditz horrek adierazten du eratorriaren *berezko ekintza-helburua* zein den.

ahikor	A0	izond. Ahitzen dena, ahitzeko joera duena.
erorkor	A0	izond. Erortzeko joera duena, erraz erortzen dena.

B.20.3. Laburpen-taula

Hona atzizki hauen eratorriaren interpretazioa eta oinarriarekiko erlazioa zeintzuk diren:

atzikia	oinarria	erotorria	interpretazioa	oinarria	patroi nagusia
-kor	adi	adj	joera	berezko ekintza-helburua	-t(z)eko joera duena

96. taula. *-kordun* eratorrien eta oinarrien arteko erlazioa.

Hona interpretazioen arabera zenbat erlazio atera ditugun:

atzikia	interpretazioa	ize	ize-adj	adj	denera
kor		10	2	171	183
	joera			96	
	sinonimoak			70	

97. taula. *-kordun* sarreren interpretazioen araberako erlazio-kopurua.

B.21.-kunde

B.21.1. Datu-azterketa

Analizatzaileak *-kundedun* eratorriak izenen artean ezagutu ditu: 47.

erotorria				oinarria		
atzikia	denera	kategoria	denera	ize	adj	adi
kunde	47	ize	47	17	6	32
		ize-adj	0	0	0	0
		adj	0	0	0	0

98. taula. *-kundedun* eratorri-kopurua.

Hauen definizioak aztertu ondoren, hona definizioetan agertzen diren hitz-forma usuenak:

izenak
9 edo
6 bereziki
5 den
4 egiten

99. taula. *-kundedun* sarreren definizioetan dauden hitz usuenak.

B.21.2. Ezaugarriak

Atzizki honekin sortutako eratorriak ekialdekoak dira, eta zaharrak. Ez dute euskara batuan leku handiegirik.

Oinarrian *nor* motako aditzak agertzen dira, eta eratorriak *ekintza* edo *ondorioa* adierazten du.

		KUNDE	
		+ atzizki	+ izen
aditz-oina	+	+ izen	⇒ - konkretu
		- konkretu	+ gertakizun
		+ gertakizun	

Hauetako asko erlijioan kokatzen diren hitzak dira. Hala ere ez dira denak mota honetakoak:

- berpizkunde A1 iz. Jesukristoren berpiztea.
- hazkunde A0 iz. Haztea (da aditza), handitzea.

Oinarrian dagoen aditza *berezko ekintza* da.

Beste interpretazioa *erakundeei-edo* dagokiena da. Honek *bilkura* adieraziko du, baina hiztegian ez da halakorik agertzen: aitakunde, emakunde, gizakunde.

B.21.3. Laburpen-taula

Hona atzizki hauen eratorriaren interpretazioa eta oinarriarekiko erlazioa zeintzuk diren:

atzizkia	oinarria	eratorria	interpretazioa	oinarria	patroi nagusia
-kunde	adi	ize	gertakizun	berezko ekintza	-t(z)ea

100. taula. *-kundedun* eratorrien eta oinarrien arteko erlazioa.

Hona interpretazioen arabera zenbat erlazio atera ditugun:

atzizkia	interpretazioa	ize	ize-adj	adj	denera
kunde		47	0	0	47
	sinonimoak	32			

101. taula. *-kundedun* sarreren interpretazioen araberako erlazio-kopurua.

B.22.–kuntza

B.22.1.Datu-azterketa

-kuntzadun eratorriak izenen artean ezagutu ditu analizatzaileak: 63.

eratorria				oinarria		
atzikia	denera	kategoria	denera	ize	adj	adi
kuntza	63	ize	63	17	10	51
		ize-adj	0	0	0	0
		adj	0	0	0	0

102. taula. -kuntzadun eratorri-kopurua.

Hauen definizioak aztertu ondoren, hona definizioetan agertzen diren hitz-forma usuenak:

izenak
8 edo
7 eta
5 den
4 ondorioa

103. taula. -kuntzadun sarreren definizioetan dauden hitz usuenak.

B.22.2.Ezaugarriak

Eratorri hauek oinarrian *nor-nork* motako aditz-oina dute. Adierari dagokionez, *ondorioa* adierazten dute, edo *ekintza* bera. Banaketa hau nahikoa zaila da, eta halakoek *gertakizuna* adierazten dutela diogu.

		KUNTZA		
+ aditz-oin	+	+ atzizki	⇒	+ izen
+ nor-nork	+	+ izen		+ gertakizun
		+ gertakizun		

jabekuntza	A0	iz.	Jabetzea.
laburkuntza	A0	iz.	Laburtzea.
bahikuntza	A0	iz.	Norbaiten ondasunak, haren zorrei erantzuteko edo, agintaritzak bere esku hartzea.
bereizkuntza	A0	iz.	Bereiztea, desberdintzea; bereiztearen ondorioa.

Erlazioari dagokionez, oinarrian dagoen aditzak adieraziko du *ekintza* bera.

Beste interpretazioa da espainoleko, *-ciónen* parekoa. Halakoek oinarrian izena dute, eta sortzen den izenak *lanbidea* adierazten du.

		KUNTZA		
+ izen	+	+ atzizki	⇒	+ izen
+ gizaki		+ izen		+ lanbide
		+ lanbide		

-kuntzaren erabilera hau *-tza* eta *-goaren* parekoa da, baina halako gutxi agertzen dira gaur egun: medikuntza, abadekuntza, alkatekuntza, agoazilkuntza. Hiztegian halako gutxi agertzen da.

B.22.3. Laburpen-taula

Hona atzizki hauen eratorriaren interpretazioa eta oinarriarekiko erlazioa zeintzuk diren:

atzizkia	oinarria	eratorria	interpretazioa	oinarria	patroi nagusia
-kuntza	adi	ize	gertakizun	berezko ekintza	-t(z)ea
	ize	ize	lanbide	egile	-en lanbidea

104. taula. *-kuntzadun* eratorrien eta oinarrien arteko erlazioa.

Hona interpretazioen arabera zenbat erlazio atera ditugun:

atzizkia	interpretazioa	ize	ize-adj	adj	denera
kuntza		63	0	0	63
	lanbide	1			
	sinonimoak	48			

105. taula. *-kuntzadun* sarreren interpretazioen araberako erlazio-kopurua.

B.23. -le / -tzaile

Bi atzizki hauek mota bereko eratorriak sortzen dituzte. Gaur egun *-tzaile* erabili ohi da.

B.23.1. Datu-azterketa

Hona analizatzaileak zenbat *-ledun*, eta *-tzailedun* eratorri ezagutu dituen eta ezagututako horiek nolako oinarriak dituzten:

atzizkia	eratorria			oinarria		
	denera	kategoria	denera	ize	adj	adi
le	124	ize	93	23	3	68
		ize-adj	21	6	1	20
		adj	10	3	0	8
tzaile	467	ize	271	103	20	241
		ize-adj	105	33	14	96
		adj	91	30	16	85

106. taula. *-le* eta *-tzailedun* eratorri-kopurua.

Hauen definizioak aztertu ondoren, hona definizioetan agertzen diren hitz-forma usuenak:

izenak		ize-adj		adjektiboak	
le	tzaile	le	tzaile	le	tzaile
26 duena	128 duena	13 duena	94 duena	4 duena	71 duena
22 edo	74 pertsona	5 zerbait	12 edo	3 zale	7 pertsona
21 pertsona	64 duen	5 edo	8 zerbait	3 dena	7 duen
18 duen	28 zerbait	3 pertsona	7 duen	2 erretzen	6 zerbait
11 bereziki	21 edo		6 norbait		3 hondatzen
10 dena	20 dena		6 bereziki		3 erretzen
	18 egiten		5 pertsona		3 dena
	17 adierazten		5 dena		

107. taula. *-le* eta *-tzaile* duen sarreren definizioetan dauden hitz usuenak.

Kategoriari dagokionez, badirudi gehien bat izenak direla, baina bi kategoriadun hitzak asko dira, eta baita adjektibo kategoria besterik ez dutenak ere. Definizioetan agertzen diren hitzei erreparatuta, esan daiteke, *elipsidun* definizioak asko erabiltzen direla, eta baita *pertsona* hitza ere.

B.23.2. Ezaugarriak

Oinarrian agertzen den hitza aditza da. Azkuek zioenez, oro har, aditz hau *nor-nork* motakoa da. Hala ere, eta Mitxelenak zehaztu zuen bezala, ekialdean *nor* motako oinarriekin ager daiteke, hala nola, *egoile* adibidean. Hala ere, pentsa daiteke joera orokorra oinarrian *nor-nork* motako aditza izatea dela.

Hitz eratorria zein kategoriatakoa den badirudi ez dagoela batere garbi. Batez ere, izenak sortuko dituen atzizkia dela dirudi, nahiz eta nahikoa maiz agertuko zaizkigu *hegazti harrapatzaile* modukoak. Arazo hau dela eta, hiztegian ere kategoria nahasketa nabaria da. Azkuek atzizki hau azaldu zuenean ere, ez zuen oso garbi sortzen zuen hitza izena ote zen. Eratorriari dagokionez, [+ *gizaki*] tasuna duela esango dugu. Eta adierari dagokionez, berriz, eratorriak *egiletasuna* adieraziko du.

LE / TZAILE		
	+ atzizki	+ izen
+ aditza	+ izen	⇒ + gizaki
+ nor-nork	+ gizaki	+ egile
	+ egile	

Oinarria eta eratorriaren artean dagoen erlazioa aditz eta izen baten arteko erlazioa da, oro har; *egile* den eratorriaren *berezko ekintza* da oinarriak adierazten duena. Eratorria izena beharrean adjektiboa denetan, pentsatuko dugu *ekintza* hori burutzen duen *egile* horren *berezko ezaugarria* dela.

higitzaile	A0	iz.	Higitzen duena, higiarazlea.
erretzaile	A0	izond.	Erretzen duena.
erasotzaile	A0	iz.#izond.	Erasotzen duena.
ernatzaile	A0	izond.#iz.	Ernatzen duena.

Definizioei erreparatuz gero, badirudi denak berdintsuak ditugula, eta definizioetan agertzen diren hitz-formak aztertuta ere, ondorio bera lortu dugu. Adibide hauetan higitzailearen *berezko ekintza* da higitu; erretzaile *berezko ezaugarritzat* duen izenaren *berezko ekintza* erre da; eta erasotzailearen eta ernatzailearen *berezko ekintzak* erasotu eta ernatu dira.

B.23.3. Laburpen-taula

Hona atzizki hauen eratorriaren interpretazioa eta oinarriarekiko erlazioa zeintzuk diren:

atzikia	oinarria	eratorria	interpretazioa	oinarria	patroi nagusia
-le, -tzaile	adi	ize / adj	egile	berezko ekintza	-(z)en duena

108. taula. *-le* eta *-tzaile*dun eratorrien eta oinarrien arteko erlazioa.

Hona interpretazioen arabera zenbat erlazio atera ditugun:

atzikia	interpretazioa	ize	ize-adj	adj	denera
le		93	21	10	124
	egile	45			
	sinonimoak	38			
tzaile		271	105	91	467
	egile	190	87	72	
	sinonimoak	73	15	18	

109. taula. *-le* eta *-tzaile*dun sarreren interpretazioen araberako erlazio-kopurua.

B.24. -men / -pen

Atal honetan bi multzo egingo ditugu, *-men* eratorria dutenak eta *-pen* eratorria dutena, nahiz eta gero ezaugarriak eta erlazioak berak izango dituzten.

B.24.1. Datu-azterketa

-mendun eta *-pendun* eratorriak dituzten 139 eta 160 eratorri ezagutu ditu analizatzaileak.

eratorria				oinarria		
atzikia	denera	kategoria	denera	ize	adj	adi
men	139	ize	137	39	5	91
		ize-adj	0	0	0	0
		adj	2	1	1	1
pen	160	ize	160	27	8	108
		ize-adj	0	0	0	0
		adj	0	0	0	0

110. taula. *-men* eta *-pendun* eratorri-kopurua.

Hauen definizioak aztertu ondoren, hona definizioetan agertzen diren hitz-forma usuenak:

izenak	
men	pen
23 edo	24 edo
22 ahalmena	15 den
12 eta	9 egoera
12 den	8 eta
8 zerbait	7 zerbait
7 duen	7 duen

111. taula. *-men* eta *-pendun* sarreren definizioetan dauden hitz usuenak.

-menen kasuan *ahalmena* da nagusi, eta *-penen* kasuan, berriz, ez dago joera garbirik, nahiz eta *egoerak* baduen pisurik.

B.24.2. Ezaugarriak

Oinarrian aditz-oina dugu, eta eratorriaren interpretazioak, berriz, zerbaiten *ondorioa* edo *ekintza* adierazten du. Halakoak *gertakizuntzat* hartu ditugu. Sortzen den eratorria izena da.

		MEN / PEN	
+ aditz-oina		+ atzizki	+ izen
+ nor-nork	+	+ izen	⇒ + ondorio, ekintza
		+ ondorio, ekintza	(abstraktua)
		(abstraktua)	

askapen	A0	iz. Preso, eta hedaduraz, zapaldurik dagoena askatzea.
bedeinkapen	A0	iz. Bedeinkatzea.
barkamen	A0	iz. Barkatzea.
ukamen	A0	iz. Ukatzea.

Oinarrian dagoen aditzak *ekintza* bera adieraziko du, eta eratorriarekiko erlazioa *berezko ekintza* da.

Hitzen maiztasunen zerrendan nabaria denez, *-menen* kasuan *ahalmena* ere askotan agertzen da definizioetan, eta honek balioko digu adiera hori bereizten.

		MEN		
+ aditz-oina	+	+ atzizki	⇒	+ izen
+ nor-nork		+ izen		+ ahalmen
		+ ahalmen		

arrazoimen A0 iz. Arrazoiketak gauzatzeko ahalmena.

asmamen A0 iz. Asmatzeko ahalmena.

B.24.3. Laburpena

Hona atzizki hauen eratorriaren interpretazioa eta oinarriarekiko erlazioa zeintzuk diren:

atzizkia	oinarria	eratorria	interpretazioa	oinarria	patroi nagusia
-men, -pen	adi	ize	gertakizun	berezko ekintza	-t(z)ea
-men	adi	ize	gaitasun	berezko ekintza	-t(z)eko ahalmena

112. taula. *-men* eta *-pendun* eratorrien eta oinarrien arteko erlazioa.

Hona interpretazioen arabera zenbat erlazio atera ditugun:

atzizkia	interpretazioa	ize	ize-adj	adj	denera
men		137	0	2	139
	ahalmen	24			
	sinonimoak	79			
pen		160	0	0	160
	sinonimoak	112			

113. taula. *-men* eta *-pendun* sarreren interpretazioen araberako erlazio-kopurua.

B.25. -tar / -dar

B.25.1. Datu-azterketa

Analizatzaile morfologikoak 92 *-tardun* eratorri eta 12 *-dardun* eratorri ezagutu ditu.

eratorria				oinarria		
atzikia	denera	kategoria	denera	ize	adj	adi
tar	92	ize	33	25	3	16
		ize-adj	30	23	2	8
		adj	29	17	7	17
dar	12	ize	9	6	0	4
		ize-adj	3	3	1	0
		adj	0	0	0	0

114. taula. *-tar* eta *-dardun* eratorri-kopurua.

Hauen definizioak aztertu ondoren, hona definizioetan agertzen diren hitz-forma usuenak:

tar		
izenak	izenak-adjektiboak	adjektiboak
9 dena	11 biztanlea	9 dena
4 familiakoa	9 dagokiona	8 dagokiona
4 edo	5 dena	5 edo
4 bizi	3 ordenako	5 bereziki
4 baserritarra		3 ez
3 lehen		2 lurrari
3 ez		
3 den		
3 biztanlea		

115. taula. *-tardun* sarreren definizioetan dauden hitz usuenak.

*-dardun*en artean usuen agertzen den elementua behin agertzen da, eta ez du merezi zerrenda ematea.

B.25.2. Ezaugarriak

Adjektiboak sortzen ditu, nahiz eta izen bezala erabiltzen diren askotan. Hiztegian ere bada nahaste honen zantzurik. Izenen artean agertzen direnak lehen adjektibo ziren, baina orain pertsona motak izendatzeko erabiltzen dira: *baserritar*, *kalbindar*.

baserritar A0 iz. Baserrian bizi den pertsona.

kalbindar A0N1 iz. Calvin-en jarraitzaile den pertsona.

Atzizki honek erabilera asko izan ditu, baina gaur egun indarrean dagoena honokoa da:

+ izen	TAR		
+ arrunta	+ atzizki	⇒	+ adjektibo
- bizidun	+ adjektibo		+ jatorri
+ leku	+ jatorri		

Erabilera zaharrari begiratuz, pertsona baten izenaren ondoren azaltzen da. Azken urteotan bai pertsona izenekin, eta bai gainerako izenekin erabili izan da: *gazta* *holandarra*. Izen bezala ere erabiltzen da.

bizkaitar A1 izlag.#iz. Bizkaian sortua, Bizkaikoa.
 korintotar A0 izlag.#iz. Greziako hiri zen Korintokoa;
 Korintori dagokiona; Korintoko
 biztanlea.

Oinarrian dugun izen horrek *leku* kutsua du, eta horrek adierazten du zein den *jatorria*. Askotan *-kodun* sinonimoa agertzen da, eta bestetan, leku horrek inesibo marka du definizioan, lekua adierazten duena, alegia. Halako asko agertzen dira bi kategoria dituzten hitzen artean.

Badu mugatuagoa den bigarren interpretazio bat

		TAR	
+ izen		+ atzizki	⇒ + adjektibo
+ arrunta	+	+ adjektibo	+ jarraitzaile
+ gizaki		+ jarraitzaile	

kalbindar A0N1 iz. Calvin-en jarraitzaile den pertsona.
 luterotar A0N1 iz. Luteroren jarraitzaile den protestantea.

Oinarriak adieraziko du zein den jarraitzaile horien *helburua*, *nor jarraitzen duten*, alegia.

-tar / *-tiaren* artean batzuetan nahasketak daude eta hitz-sarreraren batean agertzen da nahasketa: jainkotar / jainkotiar; erregetar / erregetiar.

amatiar edo amatar A1 izlag. Amari dagokiona.

Honen inguruko erabilera izan daiteke multzo bateko partaide direla adierazten duena:

klaratar A0 izlag.#iz. Santa Klararen ordenako
 lekaimeaz esaten da; delako
 ordenako kidea.
 frantziskotar A0 izlag.#iz. San Frantziskoren ordenako
 lekaideaz esaten da; delako
 ordenako kidea.

Lehen deiturekin ere erabili izan zen atzizki hau: Azkaratetar.

Beste erabilera bat *zaletasuna* edo *jatorria* adierazten duena da: kanpotar, zerutar, goiztar, eskuindar. Halakoek definizio-patroi jakinik ez dute hiztegian.

B.25.3. Laburpen-taula

Hona atzizki hauen eratorriaren interpretazioa eta oinarriarekiko erlazioa zeintzuk diren:

atzikia	oinarria	eratorria	interpretazioa	oinarria	patroi nagusia
-tar / -dar	ize	ize / adj	pertsona	leku-jatorri	-ko biztanlea
	ize	ize / adj	pertsona-jarraitzailea	helburu-jarraikizun	-en jarraitzailea

116. taula. *-tar* eta *-dardun* eratorrien eta oinarrien arteko erlazioa.

Hona interpretazioen arabera zenbat erlazio atera ditugun:

atzikia	interpretazioa	ize	ize-adj	adj	denera
tar		33	30	29	92
	pertsona	1	4	1	
	jarraitzaile	0	1	1	
	sinonimoak	14	15	13	
dar		9	3	0	12
	pertsona	0			
	jarraitzaile	0			
	sinonimoak	5			

117. taula. *-tar* eta *-dardun* sarreren interpretazioen araberako erlazio-kopurua.

B.26.-tasun

B.26.1.Datu-azterketa

Hona analizatzaileak zenbat *-tasundun*, eratorri ezagutu dituen eta ezagututako horiek nolako oinarriak dituzten:

eratorria				oinarria		
atzikia	denera	kategoria	denera	ize	adj	adi
tasun	916	ize	912	329	600	445
		ize-adj	0	0	0	0
		adj	4	1	3	1

118. taula. *-tasundun* eratorri-kopurua.

Hauen definizioak aztertu ondoren, hona definizioetan agertzen diren hitz-forma usuenak:

izenak	adjektiboak
477 nolakotasuna	3 nolakotasuna
392 denaren	3 denaren
108 edo	
80 egoera	
40 dagoenaren	
36 eza	

119. taula. *-tasundun* sarreren definizioetan dauden hitz usuenak.

Zerrenda hau aztertuta, hauek dira gehien agertzen diren forma absolutibo mugatuak, definizioaren guneak direnak, alegia: *nolakotasuna* eta *egoera*. Honek zerikusia du, gero ikusiko dugunez, eratorri honek izan ditzakeen interpretazioekin.

Adjektibo gisa markatuta dauden horien definizioetan ere izenen artean ditugun hitz-formak agertzen dira, eta hemen ere maiztasun handiena duena nolakotasuna da.

B.26.2. Ezaugarriak

Erorri hauen oinarrian usuen adjektiboa agertzen da, baina izena ere askotan agertzen da. Eratorria izena da. Beraz, sortzen diren erlazioak bi izenen artekoak edo izenaren eta adjektiboaren artekoak dira.

		TASUN		
		+ atzizki		+ izen
+ adjektibo	+	+ izen	⇒	- konkretu
		- konkretu		+ ezaugarri
		+ ezaugarri		

		TASUN		
		+ atzizki		+ izen
+ izen	+	+ izen	⇒	- konkretu
		- konkretu		+ gizaki
		+ gizaki		+ ezaugarri
		+ ezaugarri		

Adierei dagokienez, asko hitz egin da atzizki lexikal honi buruz.

Azkuek *-tasun* eta *-keria* parekatzen ditu, eta haren esanetan, lehenak *ezaugarri onak* adierazten omen ditu, eta, bigarrenak *ezaugarri txarrak* edo *bizioak*. Honi gehitzen dio, *-tasunek ezaugarri txarrak* adierazten dituenan ez direla pertsonak hala nahita gertatzen direnak, baizik eta halabeharrez: *tontotasun*, *alfertasun*.

Villasante aurreko bereizketaren aurka agertzen da; bere ustez, *-tasunek ezaugarri abstraktuak* adierazten ditu, eta atzizki markatu gabea da. *-keriak*, aldiz, *gaitzesten dugun zerbait* adieraziko du. Atzizki markatua izango da. Hitzunaren aukera da ezaugarri hori besterik gabe agertzea, edo ezaugarri hori gaitzesten duela adieraztea.

lizuntasun → ezaugarria, besterik gabe

lizunkeria → ezaugarri hori txartzat hartzen dela adierazten da

Beraz, *ezaugarri markatua* edo *markatu gabea* direla dio, eta, ez, Azkuek zioen bezala, *ezaugarri ona* edo *txarra*.

haurtasun A2 iz. Haurraren nolakotasuna.

hauskortasun A0 iz. Hauskorra denaren nolakotasuna.

Erlazioari dagokionez, *jabego* erlazioa dagoela esango dugu. Oinarrian izena dagoenean, oinarri hori da eratorriak adierazten duen *nolakotasunaren jabe*. Oinarrian adjektiboa baldin badago, adjektibo horrek adierazten duen entitatea edo modifikatzen duen izena da eratorriak adierazten duen *ezaugarriaren jabe*.

ezaugarriaz gain, guk *egoera* ere bereizi nahi dugu, ahal den kasuetan, behintzat. Zenbaitetan bi interpretazio hauek elkarrengandik oso hurbil dira, baina definizioei esker zenbait bereizi ahal izango ditugu.

		TASUN		
		+ atzizki		+ izen
+ adjektibo	+	+ izen	⇒	- konkretu
		- konkretu		+ egoera
		+ egoera		

		TASUN		
		+ atzizki		+ izen
+ izen	+	+ izen	⇒	- konkretu
		- konkretu		+ gizaki
		+ gizaki		+ egoera
		+ egoera		

bildutasun A0 iz. Bere baitara bildua dagoenaren egoera.

dograzaletasun A0 iz. Drogazalearen egoera, drogazale izateko zertzelada.

Oinarrian izena baldin badago, izen hori da *egoera* hori gertatzen den *lekua*, edo *egoera* jasaten duen elementuak duen *lekua*. Oinarrian, aldiz, adjektiboa baldin badago, adjektibo horrek adierazten duen entitatea edo modifikatzen duen izena da eratorriak adierazten duen *egoeraren jabe*.

Biak batera ere ager daitezke:

joputasun A0 iz. Jopu denaren nolakotasuna edo egoera.

B.26.3.Laburpen-taula

Hona atzizki hauen eratorriaren interpretazioa eta oinarriarekiko erlazioa zeintzuk diren:

atzikia	oinarria	eratorria	interpretazioa	oinarria	patroi nagusia
-tasun	ize / adj	ize	nolakotasun	edule	-en nolakotasuna; ADJ denaren nolakotasuna
	ize / adj	ize	egoera	leku / edule	-en egoera; ADJ dagoenaren egoera

120. taula. *-tasundun* eratorrien eta oinarrien arteko erlazioa.

Hona interpretazioen arabera zenbat erlazio atera ditugun:

atzikia	interpretazioa	ize	ize-adj	adj	denera
tasun		912	0	4	916
	nolakotasun	623			
	egoera	78			
	sinonimoak	172			

121. taula. *-tasundun* sarreren interpretazioen araberako erlazio-kopurua.

B.27.-te / -tze

B.27.1.Datu-azterketa

Analizatzaile morfologikoak *-tedun* 133 eratorri ezagutu ditu, eta *-tzedunak* 48.

eratorria				oinarria		
atzikia	denera	kategoria	denera	ize	adj	adi
te	133	ize	123	78	19	45
		ize-adj	4	2	1	1
		adj	6	3	1	0
tze	48	ize	48	28	3	17
		ize-adj	0	0	0	0
		adj	0	0	0	0

122. taula. *-tedun* eta *-tzedun* eratorri-kopurua.

Hauen definizioak aztertu ondoren, hona definizioetan agertzen diren hitz-forma usuenak:

izenak	
te	tze
14 edo	3 landare
11 den	3 eta
10 denbora	3 edo
8 taldea	3 duen
7 eta	3 diren
7 bat	2 zuhaitza
6 erabiltzen	2 zen
6 duen	2 urkabea

123. taula. *-tedun* eta *-tzedun* sarreren definizioetan dauden hitz usuenak.

Bi hauen kasuan errepikatzen diren formak oso gutxi dira, eta honek adierazten du definizioan sinonimo asko agertuko direla. *-teren* kasuan *denbora* eta *taldea* aipa daitezke.

B.27.2.Ezaugarriak

Multzo honetan aipatuko ditugun lehenengo bi interpretazioak *-terenak* dira, eta bestea, *biena*. Lehenengo biek oinarrian izena dute, eta eratorria ere izena da. Adierei dagokienez, bi aipatuko ditugu: alde batetik *denbora* adierazten duena:

	TE	
+ izen	+ atzizki	+ izen
- bizidun	+ + izen	⇒ - bizidun
- zenbatzaile	- bizidun	+ denboraldia
	+ denboraldia	

Oinarrian dagoen hitzak *denboraldi* edo *epe* horrek zein *ezaugarri* duen adierazten du:

bakete	A2	iz. Gerrarik gabeko denboraldi luzea.
berote	A0	iz. Bero egiten duen denbora.
gosete	A0	iz. Gose denbora.

Honen ondoan *-aldi* dugu, eta hau nagusitzen ari da. Hiztegian ere maiz agertzen dira *-aldidun* sinonimoak.

gudate	A1	iz. Gudaldia.
negute	A0	iz. Negua den denbora, negualdia.

Eta, bestetik bada *kantitatea* edo *multzo handia* adierazten duen interpretazioa.

	TE	
	+ atzizki	+ izen
+ izen	+ + izen	⇒ - bizidun
	- bizidun	+ multzo handia
	+ multzo handia	

bikote	A0	iz. Bi lagunez osatutako taldea.
zazpikote	A0	iz. Zazpi lagunek osaturiko taldea.

Eratorriak *talde osoa* adierazten duenez, oinarrian dagoen elementuak talde horren *osaera* adierazten du.

Bestetan, eta hemen ditugu *-te* eta *-tze*, oinarrian aditza agertzen da. Halakoetan interpretazioa *gertakizun* da. Kasu hauen lema zein ote den ez dago batere garbi: Laffitek *-tze* aipatzen du, eta Azkuek *-te*. Badirudi euskalki mailako kontua

dirudiela; izan ere, bizkaieraz *-tute* agertzen da. Jatorria bera bada ere, Mitxelenak dioenez, ezberdinak izan daitezke.

$$\begin{array}{l}
 \text{TE / TZE} \\
 + \text{ atzizki} \\
 + \text{ izen} \\
 + \text{ gertakizun}
 \end{array}
 + \text{ aditz-oin}
 \Rightarrow
 \begin{array}{l}
 + \text{ izen} \\
 + \text{ gertakizun}
 \end{array}$$

Halakoetan oinarrian dugun aditza da *gertakizun* horren *berezko ekintza*.

B.27.3. Laburpen-taula

Hona atzizki hauen eratorriaren interpretazioa eta oinarriarekiko erlazioa zeintzuk diren:

atzizkia	oinarria	eratorria	interpretazioa	oinarria	patroi nagusia
-te	ize	ize	denbora	ezaugarria	* denbora
	ize	ize	multzo	meronimo	* taldea
-te / -tze	adi	ize	gertakizun	berezko ekintza	-t(z)ea

124. taula. *-tedun* eta *-tzedun* eratorrien eta oinarrien arteko erlazioa.

Hona interpretazioen arabera zenbat erlazio atera ditugun:

atzizkia	interpretazioa	ize	ize-adj	adj	denera
te		123	4	6	133
	denbora	12			
	multzo	10			
	sinonimoak	54			
tze		48	0	0	48
	sinonimoak	30			

125. taula. *-tedun* eta *-tzedun* sarrerren interpretazioen araberako erlazio-kopurua.

B.28. -tegi

B.28.1. Datu-azterketa

Analizatzaile morfologikoak 218 *-tegidun* eratorri ezagutu ditu.

atzizkia	eratorria			oinarria		
	denera	kategoria	denera	ize	adj	adi
tegi	218	ize	218	151	29	108
		ize-adj	0	0	0	0
		adj	0	0	0	0

126. taula. *-tegidun* eratorri-kopurua.

Hauen definizioak aztertu ondoren, hona definizioetan agertzen diren hitz-forma usuenak:

izenak
43 edo
37 diren
33 tokia
31 den
23 etxea
20 eta
19 gordetzen
16 lekua
16 denda
11 egiten
10 saltzen

127. taula. –tegidun sarreren definizioetan dauden hitz usuenak.

Kategoriari dagokionez, argi da izenak ditugula eratorri horiek, eta definizioetan agertzen diren hitz nagusiak ikusita, *tokia*, *etxea* eta *lekua* dira.

B.28.2.Ezaugarriak

Oinarrian izena eta aditz-oina dugu. Eta eratorria izena da.

Adierari dagokionez, eratorriek *lekuak*, eta *multzoak* adierazten dituzte.

	TEGI	
+ izen	+ atzizki	+ izen
+ konkretu	+ izen	+ konkretu
± bizidun	+ konkretu	⇒ - bizidun
	- bizidun	+ leku
	+ leku	

lekua adierazten duten eratorrien oinarriak izena direnean, erlazio *meronimikoa* dugu. Eratorria *holonimoa* da, eta oinarria *meronimoa*.

behitegi A0 iz. Behiak gordetzen diren lekua, ukuilua.

belartegi A0 iz. Belarra gordetzeko lekua.

Oinarria izena da, eta hori da *leku* horretan topatuko dugun *elementua*. behitegian berez behiak ditugu, eta belartegian belarra.

leku adiera honen barruan beste oinarria *nor-nork* motako aditza da.

	TEGI	
+ aditz-oina	+ atzizki	+ izen
+ nor-nork	+ izen	+ konkretu
	+ konkretu	⇒ - bizidun
	- bizidun	+ leku
	+ leku	

Halakoetan oinarrian dagoen aditza da *leku* horren *berezko erabilera* edo *leku* horretan egiten den *berezko ekintza*.

lapurtegi A0 iz. Lapurrak dauden, lapurretan egiten den tokia.

salerostegi A0 iz. Salerosian aritzeko lekua.

lapurtegiaren kasuan, lapurtu da *berezko ekintza*; eta salerostegiaren kasuan salerosi.

Interpretazio gisa *multzoa* adierazten dutenak, berriz, askozaz urriagoak dira.

		TEGI		
+ konkretu	+	+ atzizki	⇒	+ izen
- bizidun		+ izen		+ multzo, sail
		+ multzo, sail		

Eratorriak *talde osoa* adieraziko du eta oinarrian dagoen hitzak talde horretako elementu bat. Beraz, oinarria *meronimoa* da, eta eratorria *holonimoa*.

arautegi A1 iz. Zerbait egiteko arau multzoa.

Kasu honetan arautegia da *holonimoa* eta arauak *meronimoa*.

B.28.3. Laburpen-taula

Hona atzizki hauen eratorriaren interpretazioa eta oinarriarekiko erlazioa zeintzuk diren:

atzizkia	oinarria	eratorria	interpretazioa	oinarria	patroi nagusia
-tegi	ize	ize	leku	berezko objektu	IZE -t(z)en den lekua
	adi	ize	leku	berezko ekintza	-t(z)eko tokia
	ize	ize	multzoa	meronimoa	-en multzoa

128. taula. *-tegidun* eratorrien eta oinarrien arteko erlazioa.

Hona interpretazioen arabera zenbat erlazio atera ditugun:

atzizkia	interpretazioa	ize	ize-adj	adj	denera
tegi		218	0	0	218
	leku	49			
	multzo	1			
	sinonimoak	85			

129. taula. *-tegidun* sarreren interpretazioen araberako erlazio-kopurua.

B.29.-ti

B.29.1. Datu-azterketa

Analizatzaile morfologikoak 110 *-tidun* eratorri ezagutu ditu.

eratorria				oinarria		
atzikia	denera	kategoria	denera	ize	adj	adi
ti	110	ize	29	20	6	14
		ize-adj	5	4	2	2
		adj	76	60	19	51

130. taula. *-tidun* eratorri-kopurua.

Hauen definizioak aztertu ondoren, hona definizioetan agertzen diren hitz-forma usuenak:

izenak	adjektiboak
7 edo	22 duena
5 tokia	18 dena
5 eta	13 edo
5 dena	9 joera
3 duena	8 erraz
3 dagoena	6 egiten
3 dagoen	5 eta
3 asko	4 asko
	3 pertsona
	3 dituena

131. taula. *-tidun* sarreren definizioetan dauden hitz usuenak.

Agertzen diren elementu usuenei erreparatuz gero, badirudi izenen artean dugun *-ti* hori *-diren* aldaera dela —aurretik txistukaria duenean—.

B.29.2. Ezaugarriak

Atziki honek adjektiboak sortzen ditu, eta *maiztasuna* edo *joera* adierazten du. Oinarrian izenak daude.

	TI		
+ izen	+ atzizki	⇒	+ adjektibo
- bizidun	+ adjektibo		+ maiztasuna, joera
	+ maiztasun, joera		

Oinarrian dagoena izena ote den ez dago oso garbi; aditzak ere agertzen direla dirudi.

Sortzen den adjektiboa izen *bizidun* —eta ia beti *gizaki*— baten modifikatzailea da.

setati	A0	izond. Setatsua.
arrangurati	A0	izond. Arranguratsua, zinkurinatsua.

maiztasun kontuak direnean *-tsudun* sinonimoak agertzen dira maiz:

Oinarrian dugun aditzak adierazten duen ekintza maiz gertatzen dela pentsa dezakegu.

izuti A0 izond. Erraz izutzen dena, izutzeko joera duena.

haserreti A0 izond. Haserrekorra.

Halakoetan pentsa dezakegu izutzeko joera dugula lehenengo kasuan, eta haserretzeko joera bigarrenean. Beraz, oinarria izango da *berezko ekintza-helburua* eta *-kor* atzizkiaren pareko izango da adiera honetan.

B.29.3. Laburpen-taula

Hona atzizki hauen eratorriaren interpretazioa eta oinarriarekiko erlazioa zeintzuk diren:

atzizkia	oinarria	eratorria	interpretazioa	oinarria	patroi nagusia
-ti	ize	adj	joera	helburua?	-t(z)eko joera duena
	adi	adj	joera	berezko ekintza	erraz *-t(z)en dena
-ti (-di)	ize	ize	lekua	meronimoa	* lekua

132. taula. *-tidun* eratorrien eta oinarrien arteko erlazioa.

Hona interpretazioen arabera zenbat erlazio atera ditugun:

atzizkia	interpretazioa	ize	ize-adj	adj	denera
ti		29	5	76	110
	leku	9		0	
	joera	4		23	
	sinonimoak	14		43	

133. taula. *-tidun* sarreren interpretazioen araberako erlazio-kopurua.

B.30. -tsu

B.30.1. Datu-azterketa

Analizatzaile morfologikoak 433 *-tsudun* eratorri ezagutu ditu.

atzizkia	denera	eratorria		oinarria		
		kategoria	denera	ize	adj	adi
tsu	433	ize	11	7	1	5
		ize-adj	7	5	2	2
		adj	415	338	58	207

134. taula. *-tsudun* eratorri-kopurua.

Hauen definizioak aztertu ondoren, hona definizioetan agertzen diren hitz-forma usuenak:

adjektiboak
124 betea
105 duena
83 asko
26 edo
25 dituena
21 dagoena
17 handikoa
16 handia

135. taula. *-tsudun* sarrerren definizioetan dauden hitz usuenak.

betea eta asko formek nolabaiteko *ugaritasuna* adierazten dute.

B.30.2.Ezaugarriak

Azkuek *ugaritasuna/maiztasuna* adierazten duten atzizkien artean sailkatu zuen atzizki hau *-tirekin* batera, eta, Lafittek, *ugaritasuna* adierazten dutenen artean *-dunekin* batera.

Oinarrian izena dago, nahiz eta zenbaitetan adjektiboa ere agertzen den —ez da ohikoena—: *alaitso*, *ozentsu*, *isiltsu*.²² Hitz eratorria adjektiboa da. Adierari dagokionez, berriz, *ugaritasuna* da atzizki honen adiera nagusia. Lotzen zaion hitzari *ugaritasun* kutsua ematen dio.

+ izen		TSU		
+ konkretu	+	+ atzizki	⇒	+ adjektibo
- bizidun		+ adjektibo		+ ugaritasun
		+ ugaritasun		

Oinarria izango da eratorriak adierazten duen horren *edukia*.

goroldiotsu	A0	izond.	Goroldioz estalia.
gorrototsu	A0	izond.	Gorrotoz betea, gorrotozkoa.

B.30.3.Laburpen-taula

Hona atzizki hauen eratorriaren interpretazioa eta oinarriarekiko erlazioa zeintzuk diren:

atzikia	oinarria	eratorria	interpretazioa	oinarria	patroi nagusia
-tsu	ize	adj	ugaritasuna	eduki	-z betea; IZE (asko) dagoena

136. taula. *-tsudun* eratorrien eta oinarrien arteko erlazioa.

Hona interpretazioen arabera zenbat erlazio atera ditugun:

²² Izenondoari *-tsu* eransteak ez du zentzu handiegirik, *-tsurik* gabe ere nahikoa bailitzateke: *alai*, *ozen*, *isil*.

atzikia	interpretazioa	ize	ize-adj	adj	denera
tsu		11	7	415	433
	jabetasun			241	
	sinonimoak			187	

137. taula. *-tsudun* sarreren interpretazioen araberako erlazio-kopurua.

B.31.–tza

B.31.1.Datu-azterketa

Analizatzaile morfologikoak *-tzadun* 286 eratorri ezagutu ditu.

eratorria				oinarria		
atzikia	denera	kategoria	denera	ize	adj	adi
tza	286	ize	285	194	45	87
		ize-adj	0	0	0	0
		adj	1	1	0	0

138. taula. *-tzadun* eratorri-kopurua.

Hauen definizioak aztertu ondoren, hona definizioetan agertzen diren hitz-forma usuenak:

izenak
65 lanbidea
44 eta
44 edo
23 kargua
17 jarduna
12 multzoa
8 egitekoa

139. taula. *-tzadun* sarreren definizioetan dauden hitz usuenak.

Forma usuenei begiratuta, badirudi *lanbideei*, *karguei*, *jardunei* edo *egitekoei* egingo diela erreferentzia.

B.31.2.Ezaugarriak

Hau mendebaldeko atzikia da eta ekialdeko *-goaren* parekoa da. Oinarrian izena du, eta sortzen den eratorria ere halakoa da. Adierari dagokionez, *lanbidea* adierazten du.

		TZA	
+ izen	+ atzizki		+ izen
+ gizaki	+ izen	⇒	- konkretu
	- konkretu		+ lanbide
	+ lanbide		

aholkularitza A0 iz. Aholkulariaren lanbidea.

aitzurlaritza A0 iz. Aitzurlariaren lanbidea, nekazaritza.

Erlazioari dagokionez, oinarrian dagoen hitza da eratorriak adierazten duen *ofizioaren jabea* edo *egilea*. –*goaren* erabilera baten pareko da hau.

Hala ere, aurrekoa ez da atzizki honen erabilera bakarra. Zaharrena toponimian agertzen dena da eta *sail osoa* adierazten du. Erabilera hau –*diren* parekotzat har daiteke.

		TZA		
+ izen		+ atzizki	⇒	+ izen
+ landare	+	+ izen		+ sail osoa
		+ sail osoa		

artotza A0 iz. Artasoroa, arto saila.

sasitza A0 iz. Sasidia, sasiz beteriko lekua edo saila.

Ez da hiztegian askotan agertzen den erlazioa. Kasu hauetan, oinarrian dagoen hitza *meronimoa* da, eta hitz eratorria *holonimoa*. Hitz eratorria oinarriak adierazten duen horretaz osatuta edo beteta dago.

Beste erabilerak, aurrekoa baino berriagoa, baina lotura duena, *sail handia* adierazten du. Honetan ere, hitz eratorria oinarrian dagoen horretaz dago osatua.

jendetza, dirutza, harritza, belartza

belartza A2 iz. Belar piloa.

garitza A2 iz. Gari ale kopuru handia.

simaurtza A0 iz. Simaur kopuru handia; simaurtegia.

Atzizki honen pareko ditugu, *jende mordo* —*jendetza*—, *diru piloa* —*dirutza*—, eta erabiliena aukera honek dirudi, nahiz eta hitz eratorria ere hor dagoen.

Hauen ondoan bada aditz-oinari lotzen zaion beste –*tza* mota bat. Ekialdean –*tze* erabili izan da eta Mitxelenak aipatzen duenez:

son variantes de un mismo sufijo occidental y oriental

Honelakoetan, oro har, *nor-nork* motako aditzak ditugu, eta badirudi hitz eratorriak *ondorioa* adierazten duela. Kutsu abstraktuko gauzak dira, *ekintzaren ondorio abstraktuak*.

		TZA	
		+ atzizki	+ izen
+ aditz-oin	+ + izen	⇒ - konkretu	
+ nor-nork	- konkretu	+ ekintza	
	+ ekintza		

Hiztegian honelakoak, gehien bat *-zedun* sinonimoen bitartez definituta agertzen dira, eta, pentsa ahal izango dugu *ekintzak* direla.

bihurtza	A0	iz.	Bihurtzea.
ebakitza	A0	iz.	Ebakitzea.
eskaintza	A1	iz.	Eskaintzea.

Hauen ondoan bada oinarria *nor* aditzeko saila, baina gutxiago dira:

jaiotza	A1	iz.	Jaiotzea, mundura etortzea.
ezkontza	A0	iz.	Ezkontzea, bi pertsona senar-emazte bihurtzen diren elizkizuna edo zeremonia.

Oinarrian agertzen den aditza da *ondorioaren ekintza*. Askotan bi hauek nahasi egiten dira.

-tzak, *-tasunen* modura, *nolakotasunak* eta *egoerak* adierazten ditu. *-tasunen* genituen definizio-patroiak agertzen dira atzizki honetan, bai *ezaugarria* adierazten dutenak, bai *egoera* adierazten dutenak:

		TZA	
		+ atzizki	+ izen
+ adjektibo	+ + izen	⇒ - konkretu	
	- konkretu	+ ezaugarri	
	+ ezaugarri		

		TZA	
		+ atzizki	+ izen
+ izen	+ + izen	⇒ - konkretu	
	- konkretu	+ gizaki	
	+ gizaki	+ ezaugarri	
	+ ezaugarri		

		TZA	
		+ atzizki	+ izen
+ adjektibo	+ + izen	⇒ - konkretu	
	- konkretu	+ egoera	
	+ egoera		

		TZA	
		+ atzizki	+ izen
+ izen	+	+ izen	- konkretu
		- konkretu	+ gizaki
		+ gizaki	+ egoera
		+ egoera	

- segurantzA2 iz. Segura denaren nolakotasuna.
- haurduntzA0 iz. Haurdunaren egoera.
- mirabetzA0 iz. Mirabe dagoenaren egoera; mirabe lana.

Hauen erlazioari dagokionez, oinarrian dagoen hitzak du eratorriak adierazten duen *egoera* edo *ezaugarria*.

B.31.3.Laburpen-taula

Hona atzizki hauen eratorriaren interpretazioa eta oinarriarekiko erlazioa zeintzuk diren:

atzizkia	oinarria	eratorria	interpretazioa	oinarria	patroi nagusia
-tza	ize	ize	lanbidea	egilea	-en lanbidea
	ize	ize	lekua	meronimoa	* lekua; * saila
	adi	ize	gertakizuna	berezko ekintza	*t(z)ea
	ize / adj	ize	nolakotasun	edule	-en nolakotasuna
	ize / adj	ize	egoera	edule	-en egoera

140. taula. -tza-dun eratorrien eta oinarrien arteko erlazioa.

Hona interpretazioen arabera zenbat erlazio atera ditugun:

atzizkia	interpretazioa	ize	ize-adj	adj	denera
tza		285	0	1	286
	nolakotasun	9			
	egoera	4			
	leku	13			
	lanbide	101			
	sinonimoak	102			

141. taula. -tza-dun sarreren interpretazioen araberako erlazio-kopurua.

B.32.-zio

B.32.1.Datu-azterketa

Analizatzaile morfologikoak 166 -ziodun eratorri ezagutu ditu.

eratorria				oinarria		
atzikia	denera	kategoria	denera	ize	adj	adi
zio	166	ize	166	25	2	126
		ize-adj	0	0	0	0
		adj	0	0	0	0

142. taula. *-ziodun* eratorri-kopurua.

Hauen definizioak aztertu ondoren, hona definizioetan agertzen diren hitz-forma usuenak:

izenak
19 edo
12 eta
8 baten
7 multzoa
7 diren
6 duen
5 bereziki
5 batek
5 bat
4 den

143. taula. *-ziodun* sarreren definizioetan dauden hitz usuenak.

Hitz hauek ikusita, ezin daiteke ondorio garbirik atera.

B.32.2. Ezaugarriak

Asko eztabaida daiteke atzizki hau euskarazkoa den edo ez, pentsa daitekeelako espainoleko *-ciónetik* datorrela. Baina, euskal oinarria duten hainbat hitz baditugunez —*amorrazio*, *asmazio*, *gogorazio*—, hauek emango digute bide euskal atzizkia dela pentsatzeko. Atzizki honek euskara estandarrean ez du ezer sortu, baina hauetako zenbait hitz oso errotuta daude jadanik.

Oinarria ia edozein motatako aditza izan daiteke. Eta sortzen den eratorria izena da. Batik bat *ondorioa* adierazten du, baina baita *gertaera* bera ere.

$$\begin{array}{l}
 \text{ZIO} \\
 + \text{ aditz-oina} + \begin{array}{l} + \text{ atzizki} \\ + \text{ izen} \\ + \text{ gertakizun, ondorioa} \end{array} \Rightarrow \begin{array}{l} + \text{ izen} \\ + \text{ gertakizun, ondorioa} \end{array}
 \end{array}$$

Oinarrian dagoen aditza da *berezko ekintza*.

azelerazio A0 iz. Azeleratzea.

benedizio A0 iz. Bedeinkatzea, bedeinkapena.

-menen eta *-penen* parekoa da atzizki hau.

B.32.3.Laburpen-taula

Hona atzizki hauen eratorriaren interpretazioa eta oinarriarekiko erlazioa zeintzuk diren:

atzizkia	oinarria	eratorria	interpretazioa	oinarria	patroi nagusia
-zio	adi	ize	gertakizun	berezko ekintza	-t(z)ea

144. taula. *-ziodun* eratorrien eta oinarrien arteko erlazioa.

Hona interpretazioen arabera zenbat erlazio atera ditugun:

atzizkia	interpretazio	ize	ize-adj	adj	denera
zio		166	0	0	166
	sinonimoak	114			

145. taula. *-ziodun* sarreren interpretazioen araberako erlazio-kopurua.

B.33.-arazi

Eranskin honetan aditzak sortzen dituen atzizki bakarra paratu dugu: *-arazi*.

B.33.1.Datu-azterketa

Analizatzaile morfologikoak 309 *-arazidun* eratorri ezagutu ditu. Denak aditzak dira.

eratorria		oinarria		
atzizkia	denera	ize	adj	adi
arazi	309	112	91	288

146. taula. *-arazidun* eratorri-kopurua.

Hauen definizioak aztertu ondoren, hona definizioetan agertzen diren hitz-forma usuenak:

izenak
243 behartu
9 eragin
6 edo
4 aterarazi

147. taula. *-arazidun* sarreren definizioetan dauden hitz usuenak.

Nabaria da *behartu* definizio askotan agertzen dela, eta ondorengo usuenarekiko zuloa diferentzia oso handia da.

B.33.2.Ezaugarriak

-arazi hartzen duen oinarria aditz-oina da. Eratorriaren kategoria aditza da. Atzizki honek kutsu arazlea eransten dio aditzari.

-arazi atzizkia dugun hitz eratorrien definizioetan *-ra behartu* agertzen da.

bataiarazi A0 ad. Bataiatzera behartu.

esnarazi A0 ad. Esnatzera, itzartzera behartu.

bidalarazi A0 ad. Bidali aditzaren arazlea.

Zenbaitetan *bidalaraziren* kasuan bezala, * *aditzaren arazlea* eskema agertzen da definizioan.

B.33.3. Laburpen-taula

Hona atzizki hauen eratorriaren interpretazioa eta oinarriarekiko erlazioa zeintzuk diren:

atzizkia	oinarria	eratorria	interpretazioa	oinarria	patroi nagusia
-arazi	adi	adi	arazle	ekintza	-ra behartu

148. taula. *-arazidun* eratorrien eta oinarrien arteko erlazioa.

Hona interpretazioen arabera zenbat erlazio atera ditugun:

atzizkia	interpretazioa	adi
arazi		309
	arazle	242
	sinonimoak	67

149. taula. *-arazidun* sarreren interpretazioen araberako erlazio-kopurua.

B.34.-bide

B.34.1. Datu-azterketa

Analizatzaile morfologikoak 214 *-bidedun* eratorri ezagutu ditu.

atzizkia	eratorria			oinarria		
	denera	kategoria	denera	ize	adj	adi
bide	214	ize	214	85	22	131
		ize-adj	0	0	0	0
		adj	0	0	0	0

150. taula. *-bidedun* eratorri-kopurua.

Hauen definizioak aztertu ondoren, hona definizioetan agertzen diren hitz-forma usuenak:

izenak
94 bidea
55 edo
22 den
17 bat
16 zerbait
13 duen
12 bide
10 zergatikoa

151. taula. *-bidedun* sarreren definizioetan dauden hitz usuenak.

B.34.2.Ezaugarriak

Ezin esango dugu *-bide* atzizki lexikala denik, baizik eta konposizioa osatzen duen osagaia. Baina hiztegian *-bide* duten hitzak asko direnez, haien definizioa erabiliz hitz horren esanahia harrapatzeko gai gara.

Halakoekin izenak sortzen dira, eta oinarrian aditza edo izena egon daitezke. Aditza dagoenean, hori izango da *ekintza* eta eratorria *kausa* edo *modua* izan daiteke.

Eratorria da oinarrian adierazten den aditzaren *kausa*:

haserrebide A0 iz. Haserretzeko zergatikoa edo zioa;
haserretzeko bidea.

Eratorria da oinarrian adierazten den aditzaren *modua*:

jardunbide A3 iz. Jarduteko modua.

Oinarrian izena dagoenean, eratorriak *bidea* adierazten du, eta oinarria da *bide* horren *ezaugarria*.

Eratorria da oinarrian adierazten den izena dagoen lekua:

harbide A0 iz. Harri bidea, harrizko bidea; bereziki harri
landuz eginiko bidea, bide lauzatua.

B.34.3.Laburpen-taula

atzizkia	interpretazioa	ize	ize-adj	adj	denera
bide		214	0	0	214
	kausa	68			
	modu	8			
	leku	5			
	sinonimoak	74			

152. taula. *-bidedun* sarreren interpretazioen arabera erlazio-kopurua.

Azterketa egin ondoren zaila dirudi eratorria eta oinarriaren arteko erlazioa zehaztea, eta oraingoz alde batera utzi dugu. Eratorriaren esanahia zein den desanbiguatu dezakegu, baina oinarriarekiko erlazioa ezin dugu zehaztu.

B.35.-aldi

B.35.1.Datu-azterketa

Analizatzaile morfologikoak 285 *-aldira* eratorri ezagutu ditu.

eratorria				oinarria		
atzizkia	denera	kategoria	denera	ize	adj	adi
aldi	285	ize	285	145	77	192
		ize-adj	0	0	0	0
		adj	0	0	0	0

153. taula. *-aldira* eratorri-kopurua.

Hauen definizioak aztertu ondoren, hona definizioetan agertzen diren hitz-forma usuenak:

izenak
106 den
63 edo
61 bakoitza
58 denbora
53 aldia
40 zerbait
34 aldi
25 aldietako
22 norbait
20 egiten
14 bereziki
13 ematen
13 duen
13 bitartea

154. taula. *-aldira* sarreren definizioetan dauden hitz usuenak.

B.35.2.Ezaugarriak

-aldira interpretatzen *denbora*, eta *jarraiera* hartu ditugu:

Eratorriak adieraziko du oinarriak adierazten duen ekintzan edo egoeran pasatzen den denbora

irunaldi A0 iz. Iruten ematen den denbora.

itsasaldi A2 iz. Itsasoz egiten den ibilaldia, itsasoan ematen den denbora.

Eratorriak adieraziko du oinarriak adierazten duen ekintzan jardutea

mozkorraldi A0 iz. (Norbait) mozkorturik egoten den denbora,
mozkortzen den aldi bakoitza.

B.35.3. Laburpen-taula

atzikia	interpretazioa	ize	ize-adj	adj	denera
aldi		285	0	0	285
	denbora	56	0	0	
	jarduera	39	0	0	
	sinonimoak	130	0	0	

155. taula. *-aldidun* sarreren interpretazioen araberrako erlazio-kopurua.

Azterketa egin ondoren zaila dirudi eratorria eta oinarriaren arteko erlazioa zehaztea, eta oraingoz alde batera utzi dugu. Eratorriaren esanahia zein den desanbiguatu dezakegu, baina oinarriarekiko erlazioa ezin dugu zehaztu.

C. Patroi lexikalak

Eranskin honek tesiko VI.2. atala osatzen du. Bertan, hiztegian agertutako sei patroi lexikal zehatzen informazioa jarri dugu. Haueztaz gain, hiztegian maiz agertzen diren patroi batzuk aztertu ditugu, baina erlazio zehatzen isla ez direnez, ez ditugu tesira eraman.

Badira beste patroi berezi batzuk: *ez*, *bereziki* eta *batez ere*. Hauek markatzea garrantzitsua da, hiztegian askotan agertzen direlako eta interpretazioetan erroreak egon daitezkeelako.

C.1. -z mintzatuz

Patroi honek sarrera-hitza zein *eremu semantikotan* erabil daitekeen zehaztuko du.

errule	A0	izond.#iz.	Erruten duena; animaliez mintzatuz, emeak arrautzak jartzen dituena.
ezkutuzapi	A0	iz.	Antzokiez mintzatuz, oihala.

errule hitza *animalien kontestu batean* erabili beharko da, eta ezkutuzapi hitza *antzerkiari buruzko kontestu batean*.

-z mintzatuz patroia 273 aldiz agertzen da hiztegi osoan.

Honen oso pareko izan daitekeen patroia *-z hitz eginez* da, baina hiztegian 10 aldiz besterik ez da agertzen.

C.2. -t(z)eko erabiltzen den

Erlatoreak aipatu ditugunean *-t(z)eko erabiltzen dena* erlalorea A.6.4. atalean aipatu dugu. Honokoa erlalore horren pareko patroia da, eta *-t(z)eko* daraman aditza da *genusa* den hitzaren *berezko ekintza-helburua*. Oro har, halako patroiak dituzten sarrera-hitzak *tresnak* izan ohi dira eta *berezko helburu* horrek adieraziko du *tresnaren erabilera* zein den.

galbahe	A0	iz. Aleak, eta hondarra, ikatza eta abar bahetzeko erabiltzen den bahe xehea.
ganbusi	A0	iz. Tindatzeko erabiltzen den gaia.

galbahearen *berezko ekintza-helburua* bahetu da, eta ganbusiarena, berriz, tindatu.

-t(z)eko erabiltzen den patroia 172 aldiz agertzen da hiztegian; hala ere, beste zenbaitzutan agertzen diren patroiak ez dute juxtu *den* laguntzailea izango, baizik eta beste batzuk izan ditzakete, hala nola, *zen, diren, ziren,...* halakoak kontuan izanda, 196 aldiz agertzen zaigu patroia hau hiztegian.

C.3. egiten duen

Erlatoreetan aipatu dugu honen parekoa A.8.1 atalean (*egiten duena*). Honokoa patroia dugu, eta patroia honen aurretik dagoen hitza da definiziozko genusaren *berezko objektua*.

jostun	A0	iz. Bizibidez josten duena, bereziki, gizonentzako janzkiak-eta egiten dituen gizonezko eskulangilea.
kontrakotasun	A0N1	iz. Kontra egiten duen gauza, eragozpena.

jostuna *den* eskulangilearen *berezko objektua* dira janzkiak, eta kontrakotasuna *den* gauzarena kontra. *Berezko objektu* erlazioa aurreko hitza absolutiboa denean izango dugu. Hitza hori ergatiboa denean, *berezko egilea* baita.

Salbatore	A0	iz. Jesus zerura mirariz igotzea; mirari horren urteurreneko egunean Elizak egiten duen jaia.
-----------	----	---

Salbatore jaiaren *berezko egilea* eliza da. Azken erlazio hau oso gutxitan agertzen da hiztegian.

C.4. ematen duen

Honek ere badu bere pareko erlatorea (*ematen duena*: A.8.2). Usuen agertzen den patroia *ematen duen* da, 46 aldiz; eta *ematen dituen* 12 aldiz. Hala ere, beste aldaerak ere badira (*zituen, zuen,...*) denera 60 aldiz agertzen da patroia hau. Kasu honetan dugun erlazioa *berezko objektua* da.

aranondo	A0	iz. Aranek ematen dituen zuhaitza, loregoiztarra.
gingondo	A0	iz. Gingak ematen dituen gereziondo mota.

aranondo zuhaitzaren *berezko objektua* aranek dira, eta gingondo gereziondoarenak gingak.

C.5. -en familiako

-en familiako patroia 125 aldiz agertzen da. Patroi honen aurrean dagoen hitzak *taldea* adierazten du, eta genusak *zeren talde* den adieraziko du.

kontrabaxu	A0	iz. Biolinen familiako musika tresnetan handiena eta soinu apalekoena.
kuliska	A0	iz. Oilagorraren familiako hegaztia, moko eta zangoak luzeak dituena, zingiretan eta bizi dena.
loto	A0	iz. Igebelarraren familiako landarea, hosto handia eta lore biribil handiak, zuriak eta usaintsuak ematen dituena.

kontrabaxua musika-tresna biolinen *taldekoa* da; kulista *hegaztia* oilagorraren *taldekoa*; eta loto landarea igebelarraren *taldekoa*. Patroi hau animaliekin eta landareekin asko agertzen da.

C.6. -i dagokion

Honen pareko den erlatorea aztertuta dugu. Hemen bilatu dugun patroia *-i dagoki[oe]n* forma 103 aldiz agertzen da. Lehenaldiko laguntzailea duela, oso gutxitan agertzen da hiztegian —2 aldiz—.

Erlatoreen artean esaten genuen bezala, erlazio nagusia izango da izen eta adjektiboen artekoa.

baldarkeria	A0	iz. Baldartasuna (gaitzesgarritzat markatua); baldarrari dagokion egitea.
barrabaskeria	A0	iz. Barrabasari dagokion egitea.

Badirudi, *-keria* atzizkiak duen *ekintza* adierarekin lotura duen patroia dela. Halakoetan *berezko egilea* markatuko du patroiak.

Batzuetan bi izenen arteko erlazioa dugu, erlatorearekin aipatzen genuen bezala.

diplomadun A0	iz. Titulu bati dagokion diploma duena.
galtzipurdi A0	iz. Galtzen ipurdiko aldea; ipurtaldeari dagokion galtzen zatia.

Halakoetan erlazioa ez da hain argia.

C.7. erlazio zehatzik ematen ez dutenak

Aurrekoez gain, nahiz eta hiztegian hainbatetan agertzen diren beste patroï batzuk badiren, horiengandik ezin izango dugu erlazio garbirik atera. Hona topatutako batzuk:

patroia	zenbatetan hiztegian
-t(z)en [dz](ir)en	2079
-t(z)en [dz](it)uen	1219
-en bidez ²³	192
gertatzen [dz](ir)en	107
-i [dz][ae]goki[oe]n	105 ²⁴
hartzen [dz](ir)en	75
bizi [dz](ir)en	61
jateko ona	50
ematen z(itz)ai(zki)[oe]n	20 ²⁵

C.8. Patroï bereziak

Definizioetan badira elementu batzuk markatuta izatea komeni zaizkigunak erregelak erre gutxiago egin ditzaten. Elementu horiek askotan agertzen dira definizioetan, eta ñabardura berezia ematen diote. Halakoak *ez* partikula, *bereziki* partikula, eta *batez ere* partikula dira. Halakoak gramatika pasatzen dugun lehenengo aldian markatuko ditugu.

C.8.1. ez partikula

ez 834 aldiz agertzen da hiztegian. Honek *ezezko partikulaz* gain, *izen* interpretazioa ere jasotzen du analizatzaile morfologikotik. *izen* interpretazio horrek hainbat erre sortzen zizkigun sinonimoen, genusen eta erlatore berezien erregelak aplikatzerakoan. Honexegatik lehendik partikula berezi gisa markatzea erabaki dugu eta erre horiek guztiak saihestu.

²³ Hau hainbatetan agertzen da, baina postposizio konposatuen artean aztertuko dugu.

²⁴ Hauetako 50ek dute ondoren *egite* genusa eta 14k *egintza* genusa.

²⁵ 20 dira ondoren *izena ez* dutenak; ondoren *izena* duten horiek erlatoreen artean aztertu ditugu.

C.8.2. *bereziki* partikula

Hau da lexikografoak zerbait zehaztu nahi duenean erabiltzen duen patroia. Aurrekoa nolabait zehazteko erabiltzen du.

marteilu	A0	iz.	Mailua, ukaldiak emateko lanabesa, eta bereziki mailu txikia.
mikrobio	A0	iz.	Izaki zelulabakarrei, eta bereziki eritasunak sortzen dituztenei ematen zaien izena.

Patroi hau 103 aldiz agertzen da hiztegian.

bereziki bera bakarrik, aldiz, bi modutan agertzen da; ondoren “,” duena (*bereziki*;) eta ondoren hutsunea duena (*bereziki*). Lehena 170 aldiz agertzen da, eta bestea, 537 aldiz.

militar	A1	iz.	Gerra gizona; bereziki, armadako kide ogibidez dena.
musikari	A0	iz.	Ogibidez musika egiten eta, bereziki, jotzen duen pertsona.
nazka	A0	iz.	Higuina, bereziki goragalea eragiten duena.
norgehiagoka	A1	iz.	Lehiaketa, bereziki indarrak neurtzekoa.

Hauek ñabardura berezia eman ohi diete inguruan agertzen diren hitzei. Oraingoz ez diogu ñabardura honi erreparatuko, baina dagoeneko markatuta dugu.

C.8.3. *batez ere* partikula

Hiztegian 203 aldiz agertzen da. Honek ere, aurreko kasuan ikusi dugun bezala, ñabardura berezia ematen die inguruan dituen hitzei.

piztia	A0	iz.	Giza eskumendetik at bizi den animalia, batez ere etxeke abereentzat edo ehiza animalia txikientzat kaltegarri gertatzen dena, ugaztuna bereziki.
pirita	A0	iz.	Burdin sulfuro naturala (FeS ₂) urrearen kolorekoa, batez ere garratz sulfurikoa ekoizteko erabiltzen dena.
hinduismo	A0	iz.	Batez ere Indian zabalduak dauden erlijio joeren multzoa, Veda idatzietan eta antolamendu sozial jakin batean oinarritua.

Oraingoz partikula hori markatu egingo dugu, nahiz eta ñabardura horren informazioa ez erabili.

D. Postposizio-atzizkiak eta interpretazioak

Hemen euskarazko postposizio-atzizkiak eta kasu gramatikalak aztertu ditugu. Tesiko VI. kapituluaren esan dugun bezala, hauek Aldezabal-ek (2004) aztertu ditu, eta guk harengandik jaso dugu informaziorik gehiena.

Hala ere, Aldezabalek 9 kasu aztertu ditu eta guk 12ren informazioa eman dugu. Hemen interpretazio zenbaiten arrazoiak jarri ditugu, eta baita baztertutako beste zenbait interpretazioenak ere.

D.1. Ablatiboa (-tik)

Interpretazioak	Adibideak
abiapuntuko kokapena	hemendik getariara bost kilometro dago
kausa	egitate horretatik atera zuen ondorioa
denbora	1975etik ez dute hori egiten
bidea	zatozte hemendik
baliabidea	telefonotik aritu ziren
modua	errotik moztu

156. taula. Ablatiboaren (-tik) interpretazioak.

D.1.1. Oharrak

D.1.1.1. lekua

Atzo ikusi genuen laguna **hortik** dabil

Orohar, bakarrak diren interpretazioak, edo aditz jakin bati lotuta daudenak kendu egin ditugu, iruditzen zaigulako ez direla kasu horren interpretazio orokorra, baizik eta kontestu oso jakin batean agertzen den interpretazioa. Ablatiboaren interpretazio hau *ibili* aditzari lotuta ageri zaigu, eta, gainera, dudazko zuzentasuna duela esan daiteke... batzuetan *egon* aditzarekin agertzen denean —**kaletik dago*—, argi dago ez dela erabilera zuzena.

D.1.1.2. iturria / kausa

Gure interpretazioen zerrendan hauek ez bereiztea erabaki dugu. Aldezabalen interpretazioetan biak topatuko ditugu, baina hauek topatzearen arrazoia *gai* mota

ezberdinak bereiztearekin dago lotuta. Hark *gai sortua* aipatzen duenean, esaten du *gai* hori sortzen duena izango dela *iturria*. Gure deskribapenean *gai* motak bereizten ez ditugunez, pentsatzen dugu ez duela lekurik *kausa* eta *iturria* bereizteak, eta, beraz, horiei guztiei *kausa* deituko diegu.

D.1.1.3. modua

Badirudi, ablatiboak *modua* adieraz dezakeela zenbait egituretan, baina horiek oso murrizak direla esan daiteke eta seguru asko lexikalizatuta dagoen zerbait izan daiteke: *errotik moztu*. Hala ere, zenbaitzuk pentsatuko dutenez, *modua* adierazten duten elementu gehienak lexikalizatutzat jo ahal izango dira, baina gure lan honetarako kasu batek *modua* adierazten duela esatea garrantzitsua izan daiteke elementu konplexu lexikalizatu guztiek ez dutelako itzulpen zuzen-zuzena hiztegiatan, eta, agian deskonposizioaren bitartez oraindik lortu ahal izango da zein den elementu horren erdarazko baliokidea.

Adibide gisa goikoa hartuko dugu *errotik moztu*. Demagun, eta seguru asko hala izango da, hiztegi batean ez dela agertzen *errotik* horren espainoleko itzulpen lexikalizatua *de raíz*; baina baldin badakigu *erro* eta *raíz* baliokideak direla, eta *ablatiboa* eta *de* preposizioa baliokideak direla eta gainera biek *modua* interpretazioa dutela, gai izango gara bi elementu horiek parekatzeko, nahiz eta horretarako deskonposizioa erabili. *modua* adieraziko duten kasuak *instrumentala* eta *inesiboa* izango dira. Hauek modu zabalago batean adierazten dute, nahiz eta honi ere *modua* interpretazioa esleituko diogun.

D.1.1.4. denbora

lekua adierazten duten kasu guztiek adieraz ahal izango dute *denbora* oinarrian dagoen izenaren arabera. Hau da, oinarrian dagoen izenak *lekua* adierazten badu, sintagmaren interpretazioa *lekua* izango da, eta denbora adierazten badu, *denbora* izango da interpretazioa. Beraz, *lekuaren* banaketa bera egin beharko genukeen *denborarekin*, baina oraingoz ez gara banaketa hori egiten hasiko, guk oinarrian ditugun lanek ere ez dutelako *denboraren* tratamendu zabala egiten. Aldezabalek bere lanean aipatzen du ez duela *denbora* interpretazioa landuko, eta Dorren lanean ere, ez dago besteak bezainbeste landuta. Guk atzizkiari interpretazio horren aukera emango diogu baina sakontasun gehiagotan sartu gabe.

Beste kasu batzuetan, diferentzia oinarriak markatzen duenean, ez dugu erlazioa kontuan hartuko (*jarduera* adibidez), baina *denbora* bai hartuko dugu kontuan zenbait erdarazko preposizio *denbora* kutsu hori ez besterik ez baitute. Euskaraz ere halako zerbait gerta daiteke, izan ere, *-raino* atzizkiak badu *helburuko kokapen* interpretazioa, baina ez *denbora* interpretazioa.

D.2. Adlatiboa (-ra)

Interpretazioak	Adibideak
helburuko kokapena	Gernikara noa
modua	gustura nago hemen
denbora	hamarretara mugitu zuten bilera

157. taula. Adlatiboaren (-ra) interpretazioak.

D.2.1. oharra

D.2.1.1. lekua

Bilatzen duzun etxea **ezkerretara** dago

Halakoak sintagma konplexutzat hartzen dira Aldezabalen lanean —*tik ezkerretara* eta halakoetan bi elementuen baturak osatzen dute *lekua*—, eta guk ere hala hartuko ditugu, eta, beraz ez diegu interpretaziorik emango.

D.2.1.2. jarduera

Guk ez dugu interpretazio hau gure zerrendan emango; izan ere, zerbait *helburuko kokapen* edo *jarduera* den bereizketa oinarriak emango du. Oinarrian dugun elementua *gertakizun* bat edo *ekintza* bat baldin bada, hor *jarduera* izango dugu, baina guk esaten dugunean *helburuko kokapena* ez dugu adierazi nahi *kokapen* hori *leku* bat izan behar duenik... *jarduera* izan daiteke, eta baita *pertsona* ere.

D.3. Norabide zuzeneko adlatiboa (-rantz)

Interpretazioak	Adibideak
helburuko kokapena	Markinarantz jo zuten

158. taula. Norabide zuzeneko adlatiboaren (-rantz) interpretazioak.

D.3.1. Oharrak

Hemen *helburuko kokapen* interpretazioa jartzea erabaki dugu. Atzizki honek berez *noranzkoa* adierazten du. Kontua da beste atzizki batzuek ere, adlatiboa kasu, zenbaitetan *noranzkoa* adieraz dezaketela. Batzuetan diferentzia izango da, mugitzen den *gaia* ea *helburuko kokapena* iristen duen eta bertan *dagoen*. Gu bereizkuntza horietan ez gara sartuko, eta honexegatik erabaki dugu *helburuko kokapena* interpretazioa jartzea. Vazquez *et al.*-ek (2000) diotenez, bi osagai hauen interpretazioa oso hurbilekoa da:

Esta incompatibilidad parece estar relacionada con el hecho de que la interpretación de estos dos subcomponentes, destino y direccionalidad, es muy cercana. Así, por un lado, el segundo suele estar incluido en el primero (si alguien va a un lugar suele implicar que va en dirección a ese lugar) y, por otro, el lugar que indica la dirección puede coincidir con el destino: si alguien se dirige hacia un lugar puede ser que éste sea su destino.

Beraz, hau kontuan izanda, eta egitura lexiko kontzeptualetan hauek bereizteak sortu dizkien arazoak eta desorekak ikusita, ez bereiztea erabaki dugu.

D.4. Norabide bukatuzko adlatiboa (-raino)

Interpretazioak	Adibideak
helburuko kokapena	ateraino lagundu nuen

159. taula. Norabide bukatuzko adlatiboaren (-raino) interpretazioak.

D.4.1. Oharrak

Hemen aurrekoaren kontu parekoa dugu, nahiz eta hemen badakigun mugitzen den *gaiak helburuko kokapena* iritsi duela eta bertan dagoela. Aurretik esan bezala, gu ez gara bereizketa horietan sartuko.

D.5. Destinatiboa (-entzat)

Interpretazioak	Adibideak
xede	eztia eztarriarentzat ona da

160. taula. Destinatiboaren (-entzat) interpretazioak.

D.6. Inesiboa (-n)

Interpretazioak	Adibideak
helburuko kokapena	etxean sartu zen
kokapena	tunel handia egin dute mendian
baliabidea (bitartekoa)	irratian entzun nuen
gaia	ekonomian oso jakintsua da
modua	itsu-itsuan egin du
denbora	hamabosgarren mendean gertatu zen

161. taula. Inesiboaren (-n) interpretazioak.

D.6.1. Oharrak

Inesiboak *modu* interpretazioa bere-berea du, eta ezin esango dugu beti lexikalizatutako formak direla inesibo hau daramatenak.

D.7. Instrumentala (-z)

Interpretazioak	Adibideak
denbora	hiru urtez egon ziren han
baliabidea (bitartekoa)	hirira autobusez joan zen
gaia	zertaz idatziko dut?, ontzia urez bete zuen
kausa	beldurrez isildu ziren
modua	eskuz idatzi zuen
bidea	lehorrez joan zen

162. taula. Instrumentalaren (-z) interpretazioak.

D.7.1. Oharrak

Honek ere, *modu* interpretazioa bere-berea duela esan daiteke.

D.8. Motibatiboa (-gatik)

Interpretazioak	Adibideak
kausa	huriagatik etxean gelditu ginen
baliabidea (bitartekoa)	periodikoagatik enteratu naiz

163. taula. Motibatiboaren (-gatik) interpretazioak.

D.8.1. Oharrak

D.8.1.1. kausa / xede

Zenbaitetan nahas daitezke *kaus*a eta *xede*a, baina guk kasu honi *kaus*a interpretazioa emango diogu: *Garikoitzengatik egin dut*. Bere-berezko interpretazioa *motibazio*a litzateke, baina hori *kaus*a gisa ikus daiteke, *iturria* bera ere *kausatzat* hartzen dugun modu berean.

D.9. Soziatiboa (-kin)

Interpretazioak	Adibideak
konpainia	zatoz nirekin
baliabidea (bitartekoa)	pistolarekin hil zuen
gaia	edralontzia urarekin bete dut
kausa	esandakoarekin haserretu egin zen
modua	gogoarekin egin dut
helburuko kokapena	Jonek Idoiarekin hitz egin du

164. taula. Soziatiboaren (-kin) interpretazioak.

D.9.1. Oharrak

Honek ere *modua* bere-berea du.

D.9.1.1. denbora

Badu *denbora* adierazten den adibide bat *etorri* aditzarekin: *San Juan eguna ostegurarekin dator*. Hala ere, oso bakanak dira halakoak eta ez diogu atzizki honi interpretazio hau esleitu.

D.10. Absolutiboa (-Ø)

	Interpretazioak	Adibideak
ABS-obj-subj	gaia	etxeak saldu zituzten, Jon etorri da
ABS-obj	helburuko kokapena	Ontzia urez bete zuen
ABS-obj	abiapuntuko kokapena	ontzia hustu dute
ABS-obj	denbora	hilabetea egon zen hemen
ABS-obj	neurria	inflazioa %0,5 igo da
ABS-pred	ezaugarria	Txomin langilea da, zintzo jokatu zuen
ABS-subj	esperimentatzaile	Mikel eta Jon pilotan jokatu dira / besarkatu dira, gizona lanean aritu da

165. taula. Absolutiboaren (-Ø) interpretazioak.

D.10.1.Oharrak

D.10.1.1. modua

Lagunak **zintzo** jokatu zuen *modu* hau *ezaugarriarekin* bateratuko dugu, izan ere, beti predikatu funtzioan agertuko da eta oso gertu izango dira.

D.10.1.2. *esperimentatzaile* / *agente* / *kausa*

esperimentatzaile interpretazioa Aldezabalen tesian agertzen den modu berean erabiliko dugu, hau da, *jarduera* aditzen subjektuek izango duten interpretazio gisa. Beraz, hauek ez ditugu *agente* interpretazian sartuko: ***gizona lanean aritu da. ama haserretu zait*** bezalako kasuetan, *ama* hori *gai ukitutzat* hartzen da Aldezabalen lanean, nahiz eta literaturan hauek maiz etiketatzen diren *esperimentatzaile* gisa.

kausa interpretazioa izango da, Aldezabalen tesian aipatzen den bezala, *egoera-aldaketa* edo *kokapen-aldaketa* adierazten duen aditz baten subjektua. Ez dugu atzizki honentzat halakorik topatu.

D.10.1.3. neurria

Esan ahalko dugu, agian, hau *ezaugarri* mota bat dela —argumentuaren neurriaz ari baikara—, baina oraingoz, eta Aldezabalen tesian hala agertzen denez, aparteko interpretaziotzat hartu dugu: *inflazioa %0,5 igo da, sukarra gradu erdia jaitsi zaio, bi lasterketa korritu ditu.*

D.10.1.4. partitiboa

Partitiboa absolutibo mota bat dela pentsatuko dugu. Beste hizkuntzekin honen dituen lotura berak izango ditu; hala ere, bada partitiboak ez duen interpretazio bat: *ezaugarria*.

D.11.Datiboa (-i)

Interpretazioak	Adibideak
gaia	hitzaldiari erreparatu nion
esperimentatzaile	Garikoitzi ahaztu zaio
helburuko kokapena	hiztegia gizonari eman nion
kausa	ama haserretu zait (niri)
abiapuntuko kokapena	tripak animaliari atera ondoren, ondo garbitu

166. taula. Datiboaren (-i) interpretazioak.

D.11.1.Oharrak

D.11.1.1. helburuko kokapena

Datiboarekin agertzen den helburuko kokapena normalean *bizidun* tasuna izango duen izena izango da, eta, maiz, gizaki tasuna duena. Horren azpian bada *jabetza* erlazioen bat, baina guk izenen arteko erlazioak tratatzen ez ditugunez, alde batera utziko dugu.

Zenbaitetan perpausean bi helburuko kokapen izango ditugu, bata biziduna eta bestea bizigabea: *amari maleta etxera eraman nion. ama helburuko kokapen biziduna* izango dugu, eta *etxe helburuko kokapen ez-biziduna*. Bi kokapen horiek markatzen dituzten elementuen artean *jabetza* harremana izango dugu, baina lan honen helburu ez denez, albo batera utziko dugu.

D.12.Ergatiboa (-k)

	Interpretazioak	Adibideak
ERG-subj	kausa	haizeak beldurtu egin nau
ERG-subj	baliabidea (bitartekoa)	linternak argitzen du hau guztia
ERG-subj	esperimentatzaile	Jonek atzoko filma ikusi zuen
ERG-subj	gaia	esneak diraki
ERG-subj	helburuko kokapena	nik jasan diot, nik eskatu diot
ERG-subj	abiapuntuko kokapena	neskak eman zion liburua

167. taula. Ergatiboaren (-k) interpretazioak.

D.12.1.Oharrak

D.12.1.1. kausa / agente

agente erlazioa Aldezabalek bere deskribapenean ez du erabiltzen, eta guk ere ez dugu erabiliko. Azkenean ulertuko dugu, *agentea* dena *kausa* bat izango dela, nahiz eta kasu horretan biziduna izan.

E. Postposizio konposatuak

Orain arte ikusi ditugun postposizioak elementu bakarra dutenak dira (atzizkiak), eta, hemendik aurrera elementu bat baino gehiagoz osatuta daudenak ikusiko ditugu. Talde honetakoak izango ditugu aurretik deus hartzen ez duten postposizioak, aurretik postposizio-atzizki bat hartzen dutenak, eta aurretik eta ondoren hartzen dutenak postposizio-atzizkiren bat:

etxe **gabe** geratu zen
etxetik **at** zegoen zakurra
etxetik **hurbilean** hiruzpalau zuhaitz zeuden

Leheneko kasuan postposizio konplexua $-\emptyset$ *gabe* dela esango dugu, bigarrenean, *-tik at*, eta hirugarrenean, *-tik hurbil-ean*.

Postposizio konplexu hauek atzizki direnak baino askoz gehiago dira, eta anbiguotasun txikiagokoak. Lehenik anbiguoak diren postposizio konposatuen zerrenda emango dugu, eta, ondoren, interpretazioen arabera multzoak emango ditugu.

Denera 172 postposizio konposatu zerrendatu ditugu; hauetatik, 31k dute bi interpretazioko anbiguotasuna, eta 4k hiru interpretazioko anbiguotasuna.

E.1. Anbiguoak

E.1.1. anbiguotasuna *denborarekin*

Anbiguotasuna, *lekua* adierazten duten inguruko interpretazioek eta *denborak* dute askotan. Izan ere, postposizio konposatu horien artean, *leku-denbora* adierazten duten postposizio-atzizkiak hartzen dituzten elementu asko ditugu, eta, horiek maiz dute anbiguotasun hau:

E.1.1.1. denbora / kokapena

Postposizioa	Interpretazioa	Adibidea
-0 / -en aitzinEAN	denbora	neguaren aitzinean
	kokapena	maiestate guztiz gainekoaren aitzinean
-0 / -en aurreAN	kokapena	gure aurrean gelditu zen
	denbora	
-0 / -en ondoAN	denbora	gau haren ondoan ikusi nuena zail da azaltzen
	kokapena	ate ondoan jarri ezazu
-0 / -en osteAN	denbora	lo gozoaren ostean itzarri da
	kokapena	ate ostean ezkutatu zen

168. taula. *denbora / kokapena* anbiguotasuna duten postposizio konposatuak.**E.1.1.2. helburuko kokapena / denbora**

Postposizioa	Interpretazioa	Adibidea
-tik lekora	helburuko kokapena	eraman gaitzazu gaitzetik lekora
	denbora	garizumatik lekora, pazkoa

169. taula. *helburuko kokapena / denbora* anbiguotasuna duten postposizio konposatuak.**E.1.1.3. bidea / denbora**

Postposizioa	Interpretazioa	Adibidea
-0 / -n / -tik zehar	bidea	Zarautzen zehar joan nintzen Getariara
	denbora	mendeetan zehar beti kontu bera izan dugu

170. taula. *bidea / denbora* anbiguotasuna duten postposizio konposatuak.**E.1.1.4. 3koak: abiapuntuko kokapena / bidea / denbora**

Postposizioa	Interpretazioa	Adibidea
-0 / -en aurreTIK	abiapuntuko kokapena	gizonaren aurretik abiatu zen
	bidea	gizonaren aurretik pasa zen
	denbora	udal hauteskuden aurretik
-0 / -en gibelETIK	abiapuntuko kokapena	etxe gibeletik atera ziren
	bidea	etxe gibeletik pasa ziren
	denbora	
-0 / -en ondoTIK	abiapuntuko kokapena	
	bidea	etxe ondolik pasa zen
	denbora	gau luze baten ondolik eguna iritsiko da
-0 / -en osteTIK	abiapuntuko kokapena	atearen ostetik agertu da katua
	bidea	ate ostetik pasa da
	denbora	

171. taula. *kokapena / bidea / denbora* anbiguotasuna duten postposizio konposatuak.

E.1.2. anbiguotasuna *lekuarekin*

Beste multzo bat osatuko dute *leku* mota ezberdinen arteko anbiguotasunek. Hemen nagusi izango da *abiapuntuko kokapena* eta *bidearen* artekoa; izan ere, leku-denborazko atzizkiak hartzen dituzten elementuek *-tik* hartzen dutenean, ia beti bi interpretazio horiek izango dituzte.

E.1.2.1. *abiapuntuko kokapena / bidea*

Postposizioa	Interpretazioa	Adibidea
-0 / -en aitzinETIK	abiapuntuko kokapena	bere aitzinetik mugitu zuen
	bidea	nire aitzinetik pasa zen
-0 / -en atzeTIK	abiapuntuko kokapena	marra atzetik abiatu zen
	bidea	ez dakit bidea eta zure atzetik joango naiz
-0 / -en azpiTIK	abiapuntuko kokapena	sofa azpitik lasterka atera zen katua
	bidea	zubi azpitik pasa da
-0 / -en barneTIK	abiapuntuko kokapena	
	bidea	
-0 / -en barrenETIK	abiapuntuko kokapena	
	bidea	etxe barrenetik pasa dira
-0 / -en barruTIK	abiapuntuko kokapena	etxe barrutik abiatu zen
	bidea	etxe barrutik pasa zen
-0 / -en erdiTIK	abiapuntuko kokapena	bihotzaren erditik atera zaio oihua
	bidea	jende erditik pasa da
-0 / -en gainETIK	abiapuntuko kokapena	
	bidea	zubi zaharraren gainetik pasa zen
-0 / -en inguruTIK	abiapuntuko kokapena	hiri ingurutik abiatu zen martxa
	bidea	etxe ingurutik pasa ziren
-en / -z bestaldeTIK	abiapuntuko kokapena	etxeaz bestaldetik hasi da lasterketa
	bidea	bideaz bestaldetik pasa da
-en / -z beste aldeTIK	abiapuntuko kokapena	
	bidea	
-z honaindiTIK	abiapuntuko kokapena	
	bidea	Saraz honainditik etorri dira

172. taula. *abiapuntuko kokapena / bidea* anbiguotasuna duten postposizio konposatuak.

E.1.2.2. *bidea / helburuko kokapena*

Postposizioa	Interpretazioa	Adibidea
-0 / -en / -n / -tik barna	bidea	munduan barna ibili da
	helburuko kokapena	hirian barna sartu ziren

173. taula. *bidea / helburuko kokapena* anbiguotasuna duten postposizio konposatuak.

E.1.2.3. bidea / kokapena

Postposizioa	Interpretazioa	Adibidea
-0 / -en aldamenETIK	kokapena	etxe aldamenetik abiatu ziren
	bidea	etxe aldamenetik pasa ziren

174. taula. *bidea / kokapena* anbiguotasuna duten postposizio konposatuak.

E.1.2.4. helburuko kokapena / kokapena

Postposizioa	Interpretazioa	Adibidea
-en / -i kontra	helburuko kokapena	etsaien kontra jo nuen
	kokapena	kotxearen kontra topatu dut
-en aurka	helburuko kokapena	inoren aurka dabil beti
	kokapena	kotxearen aurka utzi dut

175. taula. *helburuko kokapena / kokapena* anbiguotasuna duten postposizio konposatuak.

E.1.2.5. gaia / helburuko kokapena

Postposizioa	Interpretazioa	Adibidea
-i buruz	gaia	ekonomiari buruz hitz egin zuen
	helburuko kokapena	herriari buruz abiatu zen

176. taula. *gaia / helburuko kokapena* anbiguotasuna duten postposizio konposatuak.

E.1.3. baliabide / ezaugarri anbiguotasuna

Azkenengo multzo anbiguak tartean *ezaugarria* interpretazioa dute. *Ezaugarriari* buruz, 183. taula. atalean hitz egingo dugu.

E.1.3.1. ezaugarria / kausa

Postposizioa	Interpretazioa	Adibidea
-0 / -en eskeZ	ezaugarria	Barkamen eskez
	kausa	Besteren eskez eginak

177. taula. *ezaugarri / kausa* anbiguotasuna duten postposizio konposatuak.

E.1.3.2. ezaugarria / baliabidea

Postposizioa	Interpretazioa	Adibidea
-0 / -en orde	baliabidea (bitartekoa)	
	ezaugarria	Cren orde ezar bedi Z, baina ezin sal daiteke ura ardo orde, eta ardoaren prezioan
-0 / -en truke	baliabidea (bitartekoa)	besteentzako dirutan eta zuretzat laztan truke
	ezaugarria	diru gutxiren truke eskuratu nuen, zer emango didazu diamante honen truke
-0 / -ik barik	baliabidea (bitartekoa)	
	ezaugarria	diru barik gelditu zen, diru barik etorri da erostera

178. taula. *baliabide / ezaugarri* anbiguotasuna duten postposizio konposatuak.

Postposizioa	Interpretazioa	Adibidea
-0 / -ik gabe	baliabidea (bitartekoa)	dirurik gabe etorri da erostera
	ezaugarria	dirurik gabe gelditu zen
-en aldeRA	baliabidea (bitartekoa)	diru gutxiren aldera eskuratu nuen
	ezaugarria	
-en lekuAN	baliabidea (bitartekoa)	
	ezaugarria	arrainaren lekuan suge bat emango ote dio?
-en trukeAN	baliabidea (bitartekoa)	urreamen trukean dolarrak eman zizkioten
	ezaugarria	zer emango didazu diamante honen truke

179. taula. *baliabide / ezaugarri* anbiguotasuna duten postposizio konposatuak.

E.2. Postposizio ez-anbiguoak

Azterketa egin ondoren, hona ez-anbiguo diren postposizioak interpretazioen arabera multzokatuta.

E.2.1. Abiapuntuko kokapena

Postposizioa	Adibidea
-0 alboTIK	etxe albotik abiatu zen
-0 / -en aldeTIK	Alemania aldetik zetorren eraso
-0 / -en arteTIK	Zuen artetik ihesi joan da
-0 / -en baitaTIK	
-z haraindik	mugaz haraindik
-z haraindiTIK	Mugaz harainditik ekarri dute
-0 kanpoTIK	
-en menETIK	norbaiten menetik atera
-en mendeTIK	
-en menpeTIK	
-ko parteTIK	
-0 / -en peTIK	zuhaitz petik abiatu ziren

180. taula. *abiapuntuko kokapena* interpretazioa duten postposizio konposatuak.

E.2.2. Baliabidea (bitartekoa)

Postposizioa	Adibidea
-0 / -en bideZ	dekretu bidez ezarri zuten lege berria
-en bitarteZ	harien bitartez dabilta deiak
-en eskuTIK	Idazle horren eskutik etorri da gure literaturaren pizkundera
-en medioZ	Zure otoitzaren medioz

181. taula. *baliabidea* interpretazioa duten postposizio konposatuak.

E.2.3. Bidea

Postposizioa	Adibidea
-0 / -en alboTIK	etxe albotik pasa zen
-n / -tik barrena	Ameriketan barrena joan da
-n / -z gaindi	basoan gaindi doa
-0 / -n goiti	mendian goiti abiatu zen
-0 / -n / -tik / -z gora	kalean gora joan zen
-tik / -n landa	hemendik landa, inon gelditu gabe, etxera helduko naiz
-0 / -en pareTIK	Haien paretik pasa zen

182. taula. *bidea* interpretazioa duten postposizio konposatuak.

E.2.4. Denbora

Postposizioa	Adibidea
-0 / -en aitzin	negu aitzin dena lan
-ak aldeAN	hamabiak aldean gertatu zen
-ak aldeRA	hamarrak aldera etorri ziren
-0 / -ak arte	hamabiak arte ez zen etorri
-0 arteAN	noiz artean jarraituko dugu honela? / atzo artean
-0 arteraino	Hitz hori ez da galdu orain arteraino
-0 barru	bi minutu barru
-0 / -ra bitarteAN	meza bitartean kalean izan ginen
-ak bitarte	seiak bitarte ez daitezela etorri
-ak bitarteAN	ordubata bitartean etxean izango naiz
-tik goiti	Egun hartarik goiti ez zuen jaten astean behin baizik
-0 / -ak inguru	duela boste urte inguru izan zen, bostak inguru etorri ziren
-0 / -ak inguruAN	Pazko inguruan
-0 / -ak irian	arrats irian etorri zen
-0 iria	eguerdi iria
-0 / -en ondoren	
-0 parteAN	uda partean eguzkia da nagusi

183. taula. *denbora* interpretazioa duten postposizio konposatuak.

E.2.5. Ezaugarria

Interpretazio hau pixka bat berezia da. Predikatu funtzioan agertzen diren elementuak dira, eta nahiz eta aditzarekin lotu, izenaren ezaugarri gisa agertuko zaizkigu. Gainera, oso postposizio bereziak dira askotan tartean aditz bat dutelako. Beste hizkuntzetako preposizioekin lotzeko garaian ere forma bereziak agertuko zaizkigu, hala nola, *-ing* forma duten adizkiak ingelesez, eta gerundio formako adizkiak espainolez. Nahiz eta jakin forma oso berezien aurrean gaudela, halakoak asko dira euskaraz, eta zerrendatzea erabaki dugu. Dorren lanean, adibidez, halako oso preposizio gutxi agertzen dira, eta ia denak gure adibidetegietatik hartu ditugu.

Postposizioa	Adibidea
-en alde	asko egin dute euskararen alde
-0 / -en antzERA	Jakintsuen antzera mintzatu zen, Ate antzera ohol bat jarri
-0 antzEAN	Aberatsak bezala, handiki antzean bizi zen
-0 / -en antzo	Zaharrak gazte antzo
-en arabera	Bere beharren arabera eraiki zuen
-0 arau	adin arau
-en begira	azken egunaren begira egon gabe
-i begira	Zuri begira gelditu da
-ra begira	gora begira zegoen
-en beha	Han dago negarrez, bere lagunaren beha
-i beha	Mattini beha gelditu zen
-ra beha	
-0 / -en beharREAN	lo beharrean nago
-0 bezala	irakasle bezala egin du lan
-0 / -en bila	Haur galduen bila atera ziren
-en bizkar	haren bizkar bizi ziren
-en bizkarRETIK	haren bizkarretik bizi ziren
-en eraN	
-en eraRA	Gizon prestuen erara
-ko eraRA	
-en ereduRA	Euskararen erregelen eredura
-en ereduZ	arbasoen ohituren ereduz bizi dira
-0 / -en eske	Zure eske etorri dira (han venido en tu busca)
-en esku	Zuzendariaren esku gelditu zen erabakia
-en fabore	Onen fabore eta gaiztoen kontra
-en faboreTAN	onen faboretan eta gaiztoen kontra
-0 gabeZ	
-0 / -rik gaberik	zalantza gaberik geratu nintzen
-z gairi	ene bihotza pozez gairi dago
-0 / -en gisa	Adiskide gisa nator
-0 / -en gisaN	Garai batean atalka eta orain liburu gisan kaleratu da
-0 / -en gisaRA	txinatarren gisara prestatu zuten janaria
-0 keta	Perla on keta dabilen gizona
-0 legez	seme ona bezala
-en mende	
-en menpe	
-en moduAN	zure moduan egin dut
-en moduRA	zure modura egin dut
-en ordean	beldurra zuten lotsaren ordean
-0 / -en ordeZ	haren ordeZ mintzatu beharrean aurkitzen naiz, bake ordeZ laster duzu kezka zure jabe
-en pare	Azal beltza duzu, ikatzaren pare
-0 / -en xerka	Hiltzailearen xerka zebilela poliziak atzeman zuen
-0 / -en zain	zure zain geratu naiz

 184. taula. *ezaugarria* interpretazioa duten postposizio konposatuak.

E.2.6. Gaia

Postposizioa	Interpretazioa	Adibidea
-en gain	gaia	horren gain badut zer kontaturik
-en gainEAN	gaia	horren gainean badut zer kontaturik

185. taula. *gaia* interpretazioa duten postposizio konposatuak.

E.2.7. Helburuko kokapena

Postposizioa	Interpretazioa	Adibidea
-en / -i aitzio	helburuko kokapena	nire aitzia
-0 / -en aitzinERA	helburuko kokapena	ekarrarazi zuen bere aitzinera
-0 / -en alboRA	helburuko kokapena	kotxearen albora mugitu zen
-0 / -en aldamenEAN	helburuko kokapena	Mikelen aldamenean zeuden
-0 / -en aldamenERA	helburuko kokapena	etxe aldamenera joan ziren
-0 / -en aldeRA	helburuko kokapena	hantxe eseri zen hankak plaza aldera zituelarik
-0 / -en arteRA	helburuko kokapena	Gure artera etorri zen
-0 / -ra arte	helburuko kokapena	Bilbora arte ez zen gelditu
-0 / -en atzeRA	helburuko kokapena	etxearen atzera iritsi zen
-0 / -en aurreRA	helburuko kokapena	gizonaren aurrera etorri zen
-0 / -en azpiAN	helburuko kokapena	berrogei urte faxismoaren azpian
-0 / -en azpiRA	helburuko kokapena	mahai azpira erori zaio
-0 / -en baitaRA	helburuko kokapena	
-0 / -en barneRA	helburuko kokapena	leize barnera eramateko
-0 / -en barrenERA	helburuko kokapena	
-0 / -en barruRA	helburuko kokapena	etxe barrura joan da
-0 / -n / -tik beheiti	helburuko kokapena	eskuineko karrikatik beheiti
-0 / -n / -tik / -z behera	helburuko kokapena	kalean behera joan zen
-en / -z bestaldeRA	helburuko kokapena	mugaz bestaldera joan da
-en / -z beste aldeRA	helburuko kokapena	
-ra bitarte	helburuko kokapena	etxera bitarte dena da autopista
-ra buruz	helburuko kokapena	Altzurukurat buruz abiatu zen
-0 / -en erdiRA	helburuko kokapena	etxe erdira erori zen
-0 / -en gainERA	helburuko kokapena	jendearen gainera erori zen
-0 / -en gibelERA	helburuko kokapena	zuhaitzaren gibelera joan ziren
-z haraindiRA	helburuko kokapena	Mendiaz haraindira eraman dute
-z honaindiRA	helburuko kokapena	mugaz honaindira etorri dira
-0 / -en inguruRA	helburuko kokapena	Hiri ingurura hurbildu zen
-0 kanpoRA	helburuko kokapena	
-tik kanpoRA	helburuko kokapena	elizatik kanpora abiatu dira
-en menERA	helburuko kokapena	Bere menera ekarri zuen
-en mendeRA	helburuko kokapena	
-en menpeRA	helburuko kokapena	
-0 / -en ondoRA	helburuko kokapena	

186. taula. *helburuko kokapena* interpretazioa duten postposizio konposatuak.

Postposizioa	Interpretazioa	Adibidea
-0 / -en osteRA	helburuko kokapena	etxe ostera mugitu da
-0 / -en pareRA	helburuko kokapena	Haien parera iritsi zen
-ko parteRA	helburuko kokapena	
-0 / -en peRA	helburuko kokapena	zuhaitz baten pera joan ziren

187. taula. *helburuko kokapena* interpretazioa duten postposizio konposatuak.

E.2.8. Kausa

Postposizioa	Interpretazioa	Adibidea
-0 / -en ariaZ	kausa	haren ariaz egin nuen
-i esker	kausa	Hari esker biziko da haurra
-i eskerRAK	kausa	Hari eskerrak biziko da haurra
-0 / -en kariAZ	kausa	haren kariaz egin nuen
-en kausaZ	kausa	

188. taula. *kausa* interpretazioa duten postposizio konposatuak.

E.2.9. Kokapena

Postposizioa	Adibidea
-0 / -en alboAN	etxearen alboan zegoen
-0 / -en aldeAN	zaude nire aldean
-tik alde	nire etxea herritik alde dago
-0 / -en arteAN	
-tik at	Albaniatik at
-0 / -en atzeAN	harrizko etxe handiaren atzean dago
-tik aurreRA	tolosatik aurrera ez da igaro
-0 / -en baitaN	
-0 / -en barneAN	areto berriaren barnean
-0 / -en barrenEAN	eliz barrenean zegoen
-n barrena	bihia lurrean barrena gorde zuen
-0 / -en barruAN	etxe barruan gorde zuen
-en / -z bestadeAN	mugaz bestaldean bizi da
-z bestalde	mendiaz bestalde oihana dago
-en / -z beste aldeAN	
-en bitarteAN	etxeen bitartean zegoen eliza
-0 / -en erdiAN	jendearen erdian zegoen
-0 / -en gainEAN	belar gainean eserita zegoen
-0 gaindi	zer berri da hor gaindi?
-tik gertu	Etxetik gertu gaude, laster ailegatuko gara
-0 / -en gibeLEAN	baratze bat dago etxe gibelean
-z haraindi	Mugaz haraindi eraman dute
-z haraindiAN	Mendiaz haraindian

189. taula. *konpainia* interpretazioa duten postposizio konposatuak.

Postposizioa	Adibidea
-z honaindi	mugaz honaindi
-z honaindiAN	mugaz honaindian bizi ziren guztiak
-tik hur	bilbotik hur dagoen herri batean
-tik hurREAN	handik hurrean zegoen etxe batean
-i hurbil	Jauregiari hurbil
-tik hurbil	Zugandik hurbil bizi naiz
-tik hurbilEAN	Etzetik hurbilean hiruzpalau zuhaitz zeuden
-0 / -en inguruan	hiriaren inguruan bizi ziren
-0 inguru	plaza inguru egon zen
